



2019
64, 2, 2

EUSKERA

2019
64, 2, 2

EUSKALTZAINDIAREN MENDEURRENA: AHOSKERA JARDUNALDIA

- Oñederra, Miren Lourdes: “Atarikoa”
- Oñederra, Miren Lourdes: “Ahoskera arautzeaz eta ikaste-irakasteaz”
- Cuenca, Maria Heliadora: “¿Se puede enseñar la pronunciación?”
- Marin, Julia: “Nola ikasi ahoskerak”
- Jauregi, Oroitz, Lazkano, Gorka eta Marin, Julia: “Zinema eta euskararen ahoskera-aldaera”

Eranskinak:

- Euskaltzaindiaren araua: “Euskara batuaren ahoskera zaindua” (1998)
- Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen “Ahoskerak axola du” txostena (2015)

EUSKALTZAINDIAREN MENDEURRENA: *EUSKAL HIZTEGI HISTORIKO-ETIMOLOGIKOAREN AURKEZPEN JARDUNALDIA*

- Lakarra, Joseba Andoni, Manterola, Julen: “Atarikoa”
- Pascual, Jose Antonio: “*Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* de Joseba A. Lakarra, Julen Manterola e Iñaki Segurola visto por un hispanista”
- Bastardas, Maria Reina: “Préstamos latino-románicos sucesivos en vasco”
- Gorrotxategi, Joakin: “Etimologia, filologia indoeuroparra eta euskara”
- Lakarra, Joseba Andoni: “Euskal ikerketa diakronikoak eta EHHErantzko bidea”
- Manterola, Julen: “Euskaltzaindiaren *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* (EHHE-200): etorkizunari begirako aurkezpen bat”



EUSKERA



GAI BEREZIAK: EUSKALTZAINDIAREN MENDEURRENA

AHOSKERA JARDUNALDIA

*EUSKAL HIZTEGI
HISTORIKO-ETIMOLOGIKOAREN
AURKEZPEN JARDUNALDIA*

Euskera 2019, 64, 2, 2
923-1242



2019
64, 2, 2

EUSKERA

2019
64, 2, 2

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque
Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language

GAI BEREZIAK:
EUSKALTZAINDIAREN MENDEURRENA

Ahoskera jardunaldia:
MIREN LOURDES OÑEDERRA (ARG.)

Euskararen Hiztegi Historiko-Etimologikoaren aurkezpen jardunaldia:
JOSEBA ANDONI LAKARRA eta JULEN MANTEROLA (ARG.)

EUSKERA



Euskera 2019, 64, 2, 2, 923-1242, Bilbo. ISSN 0210-1564

E U S K E R A

GAI BEREZIAK: EUSKALTZAINDIAREN MENDEURRENA

Ahoskera jardunaldia:
MIREN LOURDES OÑEDERRA (ARG.)

Euskararen Hiztegi Historiko-Etimologikoaren aurkezpen jardunaldia:
JOSEBA ANDONI LAKARRA eta JULEN MANTEROLA (ARG.)



2019
64, 2, 2
BILBO
ISSN 0210-1564



EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
Telefonoa: 94 415 81 55 • Faxe: 94 415 81 44
posta elek.: info@euskaltzaindia.eus • webgunea: www.euskaltzaindia.eus

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da
Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones
Cette revue s'échange avec d'autres publications
This journal can be exchanged for others by agreement

Testuen hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoeekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege Gordailua: BI-1244-58

Diseinua: www.ikeder.es

Aurreinprimaketa: Composiciones Rali, S.A.
Costa, 12-14, 7º izda. – 48010 Bilbo

Inprimategia: G.Z. Printek, S.A.L.

EUSKERA AGERKARIA

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da eta 1920. urtetik argitaratzen da. Urteko lehen zenbakiak (buletinak) Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen ditu, eta bigarrenak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu. Zenbakiak urtea bukatu eta hurrengo sei hilabeteetan argitaratzen dira. Ikerketa artikuluak argitaratzeko, Idazketa kontseiluak, anonimotasuna bermatuz, kanpo ebaluatzaileen iritzia jasoko du.

***Euskera* agerkaria honako aurkibide, zerrenda eta datu-baseetan dago:**

- Azkue Bibliotekaren katalogoan
- Euskaltzaindiko webgunean
- Latindex Katalogoan
- Inguma datu-basean
- ISOC datu-basean
- Linguistic Bibliography datu-basean
- Dialnet datu-basean
- Emerging Sources Citation Index-en (ESCI)

Kalitate adierazleak:

CIRC (2021): C maila

MIAR (2020): 8.0 (ICDS)

La revista *Euskera* es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. El primer número del año (el boletín) recoge los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia mientras que el segundo se dedica a publicar artículos de investigación originales, reseñas de libros y similares. Los números se publican dentro del semestre posterior a finalizar el año. Para publicar artículos de investigación, el Consejo de redacción, garantizando el anonimato, recurre a expertos externos.

La revista *Euskera* está disponible en los siguientes catálogos y bases de datos:

- Catálogo de la Biblioteca Azkue
- Página web de Euskaltzaindia
- Catálogo Latindex
- Base de datos Inguma
- Base de datos ISOC
- Base de datos Linguistic Bibliography
- Base de datos Dialnet
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

Indicadores de calidad:

CIRC (2021): Categoría C

MIAR (2020): 8.0 (ICDS)

Euskera. 2019, 64, 2, 2. Bilbo
ISSN 0210-1564

La revue *Euskera* est l'organe officiel de l'Académie de la Langue Basque / Euskaltzaindia ; sa publication a démarré en 1920. Le premier numéro de l'année (le bulletin) présente les travaux et la vie de l'Académie de la Langue Basque / Euskaltzaindia ; le second quant à lui publie des articles concernant des travaux de recherche, des comptes rendus de livres, ou autres sujets similaires. Les numéros sont publiés au cours du semestre qui suit la fin de l'année. En ce qui concerne la publication d'articles de recherche, le Comité de rédaction s'entoure d'experts extérieurs à qui il garantit l'anonymat.

La revue *Euskera* est présente sur les catalogues et bases de données suivants :

- Catalogue de la Bibliothèque Azkue
- Page web d'Euskaltzaindia
- Catalogue Latindex
- Base de données Inguma
- Base de données ISOC
- Base de données Linguistic Bibliography
- Base de données Dialnet
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

Indicateurs de qualité :

CIRC (2021) : Catégorie C
MIAR (2020) : 8.0 (ICDS)

Euskera is the official journal of *Euskaltzaindia* and has been published since 1920. The first number or bulletin published each year reflects the Academy's work and academic activities, while the second one contains original research articles, book reviews and the like. Issues are published in the six month period following the end of the year in question. For the publication of research articles the editorial board seeks the opinions of external evaluators, while preserving their anonymity.

The *Euskera* journal appears in the following indexes, lists and databases:

- Catalogue of the Azkue Library
- Website of Euskaltzaindia
- Latindex catalogue
- Inguma database
- ISOC database
- Linguistic Bibliography database
- Dialnet database
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

Quality indicators:

CIRC (2021): group C
MIAR (2020): 8.0 (ICDS)

Euskera. 2019, 64, 2, 2. Bilbo
ISSN 0210-1564

EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA



IDAZKETA KONTSEILUA

Zuzendaria: ANDRES URRUTIA. Euskaltzaindia. Bilbo

Idazkari akademikoa: ANA TOLEDO. Euskaltzaindia. Donostia

Teknikaria: JON ARTZA. Euskaltzaindia. Bilbo

ADOLFO AREJITA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JEAN-BAPTISTE COYOS
Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona

JOSEBA ANDONI LAKARRA
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANDONI SAGARNA
Euskaltzaindia. Donostia

PATXI SALABERRI
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

MIKEL ZALBIDE
Euskaltzaindia. Donostia

AHOLKU BATZORDEA

MIXEL AURNAGUE
*CNRS, J. Jaurès Unibertsitatea.
Tolosa, Okzitania.*

MIREN AZKARATE
Euskaltzaindia. Donostia

JOXE AZURMENDI
Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia

MARTINE BERTHELOT
Perpignano Unibertsitatea. Perpignan

XARLES BIDEGAIN
*Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea.
Baiona*

JOSU K. BIJUESCA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

GIDOR BILBAO
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

IÑAKI CAMINO
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANA ETXAIDE
Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea

JOSE RAMON ETXEBARRIA
Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo

MAITE ETXENIKE
Universitat de València. Valentzia

PATXI GOENAGA
Euskaltzaindia. Gasteiz

RICARDO GOMEZ
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

MANUEL GONZALEZ
Real Academia Galega. Coruña

MARTIN HAASE
Bambergo Unibertsitatea. Bamberg

JOSE IGNAZIO HUALDE
Illinoiseko Unibertsitatea. Illinois

ITZIAR IDIAZABAL
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

XABIER ITZAINA
*CNRS, Centre Emile Durkheim,
Sciences Po Bordeaux. Bordele*

JOSEBA INTXAUSTI
Euskaltzaindia. Donostia

IÑAKI IRAZABALBEITIA
Elhuyar Fundazioa. Usurbil

JACINTO ITURBE
Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa

JABIER KALTZAKORTA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JON LANDABURU
CNRS, París. Kolonbiako Kultura Ministerioa

ALBERTO LOIZATE
Basurtuko Ospitalea. Bilbo

JUAN MADARIAGA
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

JOAN MARTÍ
Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica. Bartzelona

ENEKO OREGI
Eusko Jauriaritza. Gasteiz

JON ORTIZ DE URBINA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ROSA MIREN PAGOLA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JOSE ANTONIO PASCUAL
Real Academia Española. Madril

TXOMIN PEILLEN
Euskaltzaindia. Baiona

IBON SARASOLA
Euskaltzaindia. Donostia

JOAN MARI TORREALDAI
Euskaltzaindia. Donostia

MIRIAM URKIA
UZEI. Donostia

JUAN JOSE ZUBIRI
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

Aholkulariak: JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA (*Euskaltzaindia. Bilbo*).



E U S K E R A

AURKIBIDEA

EUSKALTZAINDIAREN MENDEURRENA: AHOSKERA JARDUNALDIA

- [933-938] “Atarikoa”
OÑEDERRA, Miren Lourdes
- [939-957] “Ahoskera arautzeaz eta ikaste-irakasteaz”
OÑEDERRA, Miren Lourdes
- [959-976] “¿Se puede enseñar la pronunciación?”
CUENCA, Maria Heliodora
- [977-987] “Nola ikasi ahoskerak”
MARIN, Julia
- [989-998] “Zinema eta euskararen ahoskera-aldaera”
JAUREGI, Oroitz, LAZKANO, Gorka eta MARIN, Julia

Eranskinak:

- [1001-1004] Euskaltzaindiaren araua: “Euskara batuaren ahoskera zaindua”
(1998)
- [1005-1037] Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen “Ahoskerak axola
du” txostena (2015)

**EUSKALTZAINDIAREN MENDEURRENA: EUSKAL HIZTEGI
HISTORIKO-ETIMOLOGIKOAREN AURKEZPEN
JARDUNALDIA**

- [1041-1046] “Atarikoa”
LAKARRA, Joseba Andoni, MANTEROLA, Julen
- [1047-1058] “*Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* de Joseba A. Lakarra,
Julen Manterola e Iñaki Segurola visto por un hispanista”
PASCUAL, Jose Antonio
- [1059-1076] “Préstamos latino-románicos sucesivos en vasco”
BASTARDAS I RUFAT, Maria Reina
- [1077-1102] “Etimologia, filologia indoeuroparra eta euskara”
GORROTXATEGI, Joakin
- [1103-1164] “Euskal ikerketa diakronikoak eta EHHeranzko bidea”
LAKARRA, Joseba Andoni
- [1165-1212] “Euskaltzaindiaren *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*
(EHHE-200): etorkizunari begirako aurkezpen bat”
MANTEROLA, Julen

Euskaltzaindiaren mendeurrena: Ahoskera jardunaldia

Gasteizen, 2019ko otsailaren 14an

Euskera. 2019, 64, 2, 2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Atarikoa

OÑEDERRA, Miren Lourdes
Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeburua

2019ko otsailaren 14an, Gasteizko Artium museoan, Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeak «Eta ahoskera zer?» Jardunaldia antolatu zuen Euskaltzaindiaren mendeurrenaren ospakizunen testuinguruan.

Jardunaldi haren helburu izan zen ahoskeraren garrantzia aldarrikatzea. Ohikoa da, eta ez bakarrik euskararen kasuan, ahoskerari gramatikari edo hiztegiari baino garrantzi gutxiago ematea. Horretarako arrazoi nagusienerako bat, aitortu edo aitortu gabea, zailtasuna izaten da. Ahoskeraren ikaste eta irakasteak gramatika edo hiztegiarenak baino zailagoak gertatzen zaizkie irakasleei eta, beraz, ikasleei. Axola gutxiak eta zailtasun usteak elkar bazkatzen dutela ere egia da ziurrenik. Jarrera ezkor horien aurrean, ordea, gauzen errealtateari zintzo begiratuta, nabarmen da ahoskeraren garrantzia: ahoskera da hiztun baten hizkuntz gaitasunaren lehenengo irudia. Hartara, adituek azaldu bezala eta bigarren hizkuntza bat hitz egiten duen edonork ederki dakienez, ahoskera menperatzeak ziurtasuna ematen dio hiztunari. Aintzat hartu behar da, halaber, hizketa dela hizkuntzaren gauzatze behinena, nagusia, eta hizketa ahoskeraren bidez gertatzen dela, hitzak, arau gramatikalek josita, hots bihurtuta kanporatzen direnean.

Idea horiek guztiak Ahoskera batzordeak 2015eko Ahoskera Jardunaldian plazaratu zituen Donostian. Orduan azaldu zuen lan ildo nagusia ere, 1998ko ahoskera araua (EBAZ) bideratu zuen Ahoskera lantaldeak utzitako ondare dena: euskalkien eta batuaren arteko uztartzea, ardatz harturik hizkera-maila edo erregistroen egituratzea. Lan horren emaitza izan behar

litzateke, batetik, euskara batua besterik ikasi ez dutenei hizkera maila arduragabeetarako baliabideak eskaintzea, eta, bestetik, euskalkia ikasi dutenei hizkera zaindurako bideak irekitzea.

2019ko Jardunaldiaren helburu nagusia izan zen EBAZ arauan idatzita dagoenaren komunikazioa: azalduz erraztea alegia, batzuetan egin izan diren irakurketa linealegiak saihesteko asmotik abiatuta. Izan ere, ahoskera ezin da gramatika edo hiztegia bezala ikasi edo ebaluatu. Gertuago legoke ahoskeraren lantzea antzerki, dantza edo kantarenetik: ez da gramatika bezala memoria kontua eta arauak ere dimentsio-aniztunagoak izan behar dute. Horren alderdi teoriko eta praktikoak azaltzea izan zen aurkezpenen jomuga (ikus Jardunaldiaren egitaraua).

Ondoko orrietan daude aurkezpen horien testu-moldaketak. Gainera, 2019ko lana dagokion testuinguruan kokatu eta edukiak osatzea erosoago gerta dakion irakurleari, bi eranskin gehitu dira: Euskaltzaindiaren 1998ko «Euskara batuaren ahoskera zaindua» araua eta goraxeago aipatu 2015eko Batzordearen txostena jasotzen duen artikulua («Ahoskera batzordearen txostena, ahoskerak axola du»). Inork Ahoskera batzordearen ideien garapena hobeto ezagutu nahi balu, begira ditzala era berean 1998ko «Ahoskera lantaldearen errendapen txostena» eta «Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak».¹

Lehenengo Miren Lourdes Oñederra batzordeburuaren «Ahoskera arautzeaz eta ikaste-irakasteaz» artikulua dator, Jardunaldiko txostenaren «Ahoskera arautu eta i(ra)kats al daiteke?» izenburuari galdera marka kenduta artikulurako. Bertan hitzaurre honen hasieran adierazitako gaiak garatzen dira, aurreko urteetako Ahoskera batzordearen hausnarketa eta praktiketarik sortutako gogoeta, kezka, zailtasun eta proposamen teoriko zein praktikoak azalduz.

María Heliadora Cuenca hizkuntzalariaren «¿Se puede enseñar la pronunciación?» lanak ildo beretik sortutako galderari baietz erantzuten dio, ingeles ahoskeraren didaktikaren teoria eta praktikan oinarrituz. Orain

¹ Hurrenez hurren: Euskera 43 (1), 265-274 eta Euskera 43 (2), 439-449. Bestela: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/49448.pdf> eta <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/49467.pdf>

arteko ezagutza, lan eta ikasketa-metodologien berri oparo eta zehatz ematen zaigu. Ahoskeraren berebiziko garrantzia azpimarratu eta zehazteaz gainera, lan honek aldarrikatzen du ingelesarekin izandako eskarmentua beste hizkuntzen ahoskeraren ikasketara eraman daitekeela. Egungo euskararen egoera aintzat hartuta oso garrantzitsu den kontu bat ere hartzen du ikerlariak esku artean: hiztunaren lehen hizkuntza edo hizkuntza nagusiaren eragin fonologikoa menperatu nahi den beste hizkuntzan. Horrekin batera irakaskuntzaren praktikan sor daitezkeen zailtasunei nola aurre egin eta, metodologiaren aldetik, lehentasunak non jarri eztabaidatzen da, gaiaren inguruko ikerlari pisudun zenbaiten iritzien argitan. Ahoskera lantzeko Interneteko tresna zenbaiten aurkezpena ere egiten zaigu.

Julia Marinen «Nola ikasi ahoskerak» aurkezpena Jasone Salaberria batzordekideak transkribatuta agertzen da ondoren. Aurkezpen horretan Marinek antzerkiaren, itzulpengintzaren eta, oro har, euskararen erabileraren alor zenbaitetan izandako urte luzeetako eskarmentuaren emaitzak aurkezten ditu. Aurreko bi lanen ildotik, Marinek ere indarrez aldarrikatzen du ahoskerari jarri beharreko arreta eta aurreko biek bezala salatzen ez zaiola merezi duen garrantzia aitortzen. Aurreko bi lanetan ahoskeraren alderdi fisiko eta fisiologikoak teoriaren ikuspuntutik agertu badira, Marinek ahoskeran gorputza inplikatzearen ondorio praktikoak eta hala ez egitearen ondorio makurrak adierazten ditu. «Esatearen ederra» bere metodoa laburbiltzen du antzerki mundutik irakaskuntzarenera hedatzea proposatuz, ahoskera landu daitekeela eta berak nola egin izan duen erakutsiz, Marinek ere baiezko erantzuna ematen dio lehengo biek irekitako galderari.

Jardunaldiko azken atala elkarriketa bat izan zen, Oroitz Jauregi batzordekideak Gorka Lazkanori egindakoa. Une batetik aurrera Julia Marin ere elkartu zitzairen eta Jasone Salaberriak, haiek esan zutena bilduta, hemen duzuen testua prestatu zuen. Jauregik aurkeztean esan bezala, Lazkano irakaslea eta itzultzailea da, baina, batez ere *Errementari* filmeko hizkuntz arduraduna izateagatik ekarri nahi izan genuen «Eta ahoskera zer?» jardunaldira. Elkarriketan zehar ikusten da Lazkanoren ibilbidea zein izan zen film horren hizketa atontzeko orduan, nola hautatu ziren hizkerak, zein zailtasun aurkitu zituzten eta zein irtenbide eman zieten. Oso kontu interesgarriak agertu ziren euskal ahozkoaren estandartzearekin lotuak, hizkera «as-

matuen» naturaltasuna lortu nahia, euskalkien eta pertsonaien arteko egokitzapenak, batuarekikoak, etab. Marin elkartu zitzaientean, azaldu ziren zinearen eta antzerkiaren arteko desberdintasunak, antzekotasunak, hizkerari ematen ez zaion garrantzia, etab. Marinek zenbait trikimailu metodologiko ere eskaintzen ditu, aktorea euskalkiduna denerako eta ez denerako. Elkarriketa honetan, berriz ere, garbi geratu zen ahoskera lantzea onuraduna dela zinean eta antzerkian, pertsonaiak sinesgarritasuna irabazten baitu. Hori bai, horretarako, denbora eman behar zaio, arduradunak kontratatzeko dirua behar da... alegia, ahoskerari duen garrantzia aitortu behar zaio.

Eskerrak ematen dizkiegu aurkezleei egindako ekarpen baliotsuengatik, guztion arteko harmoniagatik. Eskerrik asko Artium museoko aretoa mukururu bete zuten entzule arretatsuei ere, etortzeagatik eta hitzaldien ondoko elkarriketa tarteak esanguratsu egiteagatik. Nahiago genuke guri lanean jarraitzeko emandako bultzada bezainbat lagunduko balu argitalpen honek nahitaez denon artean egin beharko dugun euskal ahoskeren zaintzan.

Eta ahoskera zer? jardunaldia

Non-noiz: Gasteizen, Artiumen, 2019ko otsailaren 14an (goizez).

- 09:00-09:30 – Harrera.
– Izen-ematea.
– Material-banaketa.
- 09:30-10:00 Hasiera ekitaldia:
– Andres Urrutia (euskaltzainburua).
– Miren Lourdes Oñederra (euskaltzain osoa, Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeburua).
– Arabako Foru Aldundia.
– Gasteizko Udala.
- 10:00-10:45 – Aurkezlea: Irantzu Epelde (Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeko kidea, Euskal Herriko Unibertsitatea).
– “Ahoskera arautu eta i(ra)kas al daiteke?”, Miren Lourdes Oñederra (Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeburua).
– Hitzaldia (40') eta elkarrizketarako tarte (5').
- 10:45-11:30 – Aurkezlea: Irantzu Epelde (Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeko kidea, Euskal Herriko Unibertsitatea).
– “Irakats al daiteke ahoskera? Eta aldagarritasuna?”, M^a Heliadora Cuenca Villarín (Sevillako Unibertsitatea). (Gaztelaniaz).
– Hitzaldia (40') eta elkarrizketa (5').
- 11:30-11:55 – Atsedena - Kafea.
- 11:55-12:30 – Aurkezlea: Jasone Salaberria (Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeko kidea, CNRS-IKER-UMR 5478 ikergunea).
– Hizlaria: “Nola ikasi ahoskerak”, Julia Marín (antzerki itzultzailea, komunikazio tekniketan irakaslea).
– Hitzaldia (30') eta elkarrizketa (5').
- 12:30-13:30 – Gaia: “Zinema eta euskararen ahoskera”.
– Elkarrizketatzailea: Oroitz Jauregi (Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeko kidea, Euskal Herriko Unibertsitatea).

- Elkarrizketatua: Gorka Lazkano (Errementari filmeko eus-kara arduraduna).
 - * Julia Marin bilduko zaie elkarrizketaren azken herenean (13:00-13:15).
 - Elkarrizketa (45') eta galderetarako tarte (15').
- 13:30-13:45 – Ondorioak: Pilartxo Etxeberria (euskaltzain urgazlea, Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeko kidea).
- **Antolatzailea:** Euskaltzaindia.
 - **Babesleak:** Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskal Elkargoa, Euskararen Erakunde Publikoa, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gasteizko Udala.
 - **Helburuak:** Jardunaldi honen helburu behinena komunikazioa izan zen: arauaren arduradunen, irakasleen, ikasleen, kazetarien... azken batean hizkuntzaren erabilera osasuntsua nahi eta behar dugunon arteko komunikazio ahalik eta onena.

Ahoskera arautzeaz eta ikaste-irakasteaz

Sobre la normativización y enseñanza o aprendizaje
de la pronunciación

À propos de la normativisation de la prononciation
et de son enseignement-apprentissage

On the standardization, teaching and learning
of pronunciation

OÑEDERRA, Miren Lourdes
Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeburua
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2020-05-02

Noiz onartua: 2020-09-12

Euskera. 2019, 64, 2, 2. 939-957. Bilbo
ISSN 0210-1564

Artikuluak Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordearen lana du abiapuntu (Oñederra et al. 2015) eta ahoskera araupetzearen inguruko gogoetak partekatzea, helburu. Garbi dago ahoskera arautzea zentzugabea litzatekeela ahoskatzen irakasterik ez balego. Ahozko euskara estandartzeko, beharrezkoa da ikasbide eraginkorrenak bilatzea hizkera mailen arteko erlazioak antolatuz. Eginkizuna egoki bideratzeko oztopo litezkeen arazo zenbait hausnartzen dira: jatorreria, maileguak, ortografia, hiztunen jarrerak.

Gako-hitzak: Ahoskera, aldakortasuna, araugintza, batasuna, hizkera-mailak.

El artículo parte del trabajo de la Comisión de Pronunciación de la Academia de la Lengua Vasca (Oñederra et al. 2015) y tiene como objetivo el compartir algunas reflexiones sobre la normativización de la pronunciación. Está claro que dicha tarea sería absurda de no ser posible la enseñanza de la pronunciación. A la hora de estandarizar el euskera oral hay que buscar los métodos más efectivos para organizar la relación entre los diferentes registros. Se analizan potenciales obstáculos para la buena marcha del proceso: coloquialismo excesivo, préstamos, ortografía, actitudes de los hablantes.

Palabras clave: Pronunciación, variabilidad, normativización, unidad, registros.

Cet article prend sa source dans les travaux de la Commission de Prononciation de l'Académie de la Langue Basque (Oñederra et al. 2015). Il a pour objectif de partager des réflexions sur la normativisation de la prononciation. Il est évident que cette tâche n'aurait pas de sens si l'enseignement de la prononciation n'était pas possible. Lorsqu'il s'agit de standardiser le basque oral, il faut chercher, les méthodes les plus efficaces pour organiser les relations entre les différents registres. L'article analyse les obstacles potentiels dans le bon fonctionnement du processus : langage excessivement familier, emprunts, orthographe, comportements des locuteurs.

Mots-clés : Prononciation, variabilité, normativisation, unité dialectale, registres.

The starting point of this paper is the work of the Pronunciation Committee of the Academy of the Basque Language (Oñederra et al. 2015), and it aims at sharing some reflections on the normativization of pronunciation. It is clear that pronunciation rules would be senseless if pronunciation could not be taught. In the pursuit of an oral Basque standard the most effective teaching should be based on the relations among different language levels. Several subjects that could interfere in the process are discussed such as excessive colloquialisms, borrowing, orthography, speakers' attitudes.

Keywords: Pronunciation, variability, norms, dialectal unity, registers.

Artikuluaren mamiari ekin aurretik, esan nahi dut Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeko kideen (Agurtzane Elordui, Pilartxo Etxeberria, Irantzu Epelde, Oroitz Jauregi eta Jasone Salaberriaren) lankidetzaz eta inspirazioa ditudalaz: gure arteko eztabaida, ikerlan eta (2018an bereziki) ikasketa saioak. Hemen esango ditudan horien fruitu dira neurri handi batean. Interpretazio eta loturetan egin ahal izan ditudan hutsak niri dagozkit oso-osorik.

2015ean aurkeztu zen Batzordearen lana (Oñederra et al. 2015), baina hortik aurrera egin behar da, Batzordeak jarraitu egin duelako lanean eta ahoskeraren inguruko araugintzaren berri ematea oso garrantzitsua delako euskararen une honetan.

Ondoko lerrootan gogoetarako bideak nahi dira ireki, abiapuntu izan ditugun kezkez pentsatzearen ondorioak partekatu. Mezuaren helburu behinena da hartzaileagan lekuan lekuko dinamikak abiatzeko gogoia piztea.

Ahoskera arautzeak ez luke zentzurik izango, ahoskatzen irakasterik ez balego. Arau onenek ez lukete balioko, teorikoki egokienak balira ere, hizkuntzaren kasuistika osoa bilduko balute ere, ezin balitz ikasi arau horiek erabiltzen. Gauza jakina da, ordea, ahoskera ikas eta irakats daitekeela. Badira aukerak, hots bereizkuntza zailenez jabetzeko garatutako teknika sofistikatuenetatik (ik., adib., Jennifer Krzonowski et al. 2015) metodo orokorragoetaraino; ez direlarik bateraezin irakasbide espezifikoak eta orokorragoak. Eraginkorrenak bilatu beharko dira egungo euskal ahoskeraren arazoei aurre egiteko, hiztun bakoitzaren abiapuntuaren arabera igarotzen ikasteko gaztelania edo frantsesezko sistematik euskararenera, etxeko euskaratik euskara zaindura, ikasgelako euskaratik kalekora.

1. Ahoskerak axola du

2015eko Ahoskera batzordearen txostenaren izenburuak arrazoi indartsuak ditu. Eremu kognitibo eta psikolinguistikoa, hiztunari ziurtasuna ematen dio ahoskera egokiak, Ulrikke Rindalek (2013) ohartarazi bezala (ik. halaber Šimáčková; Podlipský 2016 hots mota baten ahoskera egokiak ematen duen jatorriasunaz). Alderdi soziolinguistikoa, bestalde, euskarak

normalizatzeko ezinbesteko zaizkion hizkera mailak garatu behar lituzke gaztelaniaren eta frantsesaren ereduetatik ahal bezain babestuta. Ahoskera da erdaren eraginaren sarleku babesgabeena.

Hizkuntzari berari begira ere, ez da huskeria euskaraz *neska*, *extarri*, *espa-loi* egotea, baina ez *nesga*, *ezdarri*, *esbaloi*. Erregularutasun horrek badu zeri-kusia hizkuntzaren muinarekin, barreneko erritmo antolaketarekin. Besteak beste, euskarak silaba egitura zaintzen du (Jauregi 2008a) eta, besteak beste, silaben hasierak indartzen ditu (Oñederra 2020). Fonologian gauza jakina da halakoak mugagabea edo ergatiboa bezainbat zaindu behar direla, hizkuntza bere osotasunean bizindartu nahi bada.

Bai 1993an abiatu zen Ahoskera batzordeak eta bai EBAZ landu zuen Ahoskera lantaldeak (Euskaltzaindia 1998), Euskaltzaindiari arauak proposatzean, oraintxe esanagatik gomendatu zuten *ez da EZTA* ahoskatzea.¹ Erdaren eta estandar idatziaren eragin kaltegarriari aurre egitea da helburu. Ahal den neurrian, noski. Ahoskera ezinbestean da aldakor, baina aldakortasuna ahultzaile izan ordez indartzailea izan dadin, fonologikoki antolatua izan behar du araugintzak arauen irizpide eta irispidearen aldetik.

Hasteko, hiztunaren *fonemetan* oinarritzen da araugintza. Hitzunak hots-irudi edo fonemak izaten ditu gogoan. Irudi horiek aldatu egin daitezke hitz egitean, egoeraren arabera, urduritasunaren eta lastertasunaren arabera, hizketa-gaia edo solaskidea nola hauteman. Esan ohi da ahoskera testuinguruari egokitzen zaiola. Hala, egoera formaletan hots galtze edo itxuraldatze gutxiago gertatu ohi da, hiztunak ardura handiagoz erreparatzen baitio ahoskatzen dituen hitzen formari bestelako hizketa-egokieretan baino: horregatik deitzen zaio hizkera-maila horri “zaindua”. Nola hiztunaren kontrolpekoagoa den, zuzenen arautu daitekeen maila da. Hori gogoan, Euskaltzaindiak EBAAZ bidez hiztunari esaten dio, egoerak hala eskatzen duenean, gaiak horretara eramaten duenean, hitzen kontsonanteak ahoska ditzala, guztiak, “jan” gabe; berdin bokalak, elkartzerakoan aldaketak egin gabe. Bestela esan, hitzak hiztegiko oinarritzko forman ahoska ditzala. Letrak

¹ Hotsak adierazteko maiuskula txikiak erabiliko dira eta ortografia arrunta (y gehitu da *Jon*-en lehen hotsa *Jabier*-enaren j-tik bereizteko).

aipatzean arauetan, hiztunaren buruko hots irudiez ari gara, letrak baitira hiztun alfabetatuaren unitate horiekiko euskarri errazena. Euskal ortografiaren gardentasun fonikoak erraztu egiten du, noski, letrak erabili ahal izatea arauak adierazteko orduan. Aldi berean adi egon behar da letra-hots identifikazio gehiegizkoak sor litzakeen kalteekin, eta, gainera, garbi izan arauak ez direla soilik testuak irakurtzeko.

Arauak proposatzeko funtsezko beste hatsarre fonologikoa izan zen ezin zaiola eskatu hiztunari bere fonema biltegian ez duen unitaterik erabil dezan.² Horri dagokiola, hiru salbuespen daude hizkera zaindurako proposamenen: S/Z bereizkuntza, R hobikaria (frantsesetikakoa arbuiauz), albokari palatala (LLABUR). Hiru aukeren zio nagusia da euskal fonemen galerari aurre egitea, hizkera-maila zainduenetan hiztunen trebakuntza lehenetsiz.

Ahoskerak axola du beraz, baina axola al zaigu? Hizkuntzaren irakaskuntzari buruzko jardueretan, gai horien inguruko argitalpenetan, are ahoskoaren irakaskuntzan ere ez da nabarmentzen kezkarik ahoskeraz. Orokorra bide da ahoskerari hizkuntzaren gainerako atalei baino garrantzi gutxiago emate hori (Rindal 2013). Euskararen eremuan, ordea, kalte handiagoa dakar horrek, hizkuntza ez dagoelako normalizatua, hiztunek bestelako lehen hizkuntza bat (ere) badutelako ahoskera sendo estandartua duena (ik. joera exonormatiboez Oñederra et al. 2015).

Irakaskuntzan, azterketetan eta diskurtsoetan, adibidez, *-a* organikoa edo ergatiboa ahanzte a bako askoz errazago onartzen zaio hizlari bati *eZDakit*, *eZDut* esatea sistematikoki edo *jarrai*, *teologia*, gaztelaniazko *J* bezalakoaz egitea hitzaldi batean ere.

Ahoskeraz ez arduratzeko aitzakietako bat izaten da ezagutzarik eza eta eremu teknikoegietan sartu beharra ahoskeraz aritzeko. Litekeena da ordea teknikoegitza jotzea ohiturarik ezagatik. Gutxiago axola duenez gramatikak baino, gutxiagotan hitz egiten da ahoskeraz eta ezagutzarik ezak ma muak sortzen ditu. Gauzak gertutik ikusita, zergatik da “teknikoagoa” *S apikaria* eta *Z lepokaria* direla esatea *ergatiboaz* edo *komunztaduraz* hitz egitea

² Ezta duenik kendu ere.

baino? Ziurrenik, gainera, termino horiek ez dira nahitaezko ahoskera irakasteko (agian bai irakasleak trebatzeko).

2. “Azentua”

Euskara batuak ez du berezko ahoskera-sistematik hizkera artifizial bat den aldetik. Idazteko sortu zen kodea da, baina ez honezkero hori bakarrik. Erabileraren poderioz, ahoz erabili behar eta nahi izan delako, zenbait ahoskera-azpisistema garatu dira, horien ezaugarri izanik:

- a) kasuan kasuko erabiltzaileen euskalkiaren ahoskera sistema³
- b) letra-hots identifikazioa

Azentuarekin zer egin da? Gaztelaniarena hartu Hegoaldean eta frantse-sarena Iparraldean. Gaztelaniazkoa azentu tipo unibertsalena da, alegia, bereziki kutsakorra; frantsesarenak ez du laguntza hori eta, gainera, hiztun gutxiago izateak ahulezia soziologikoa ematen dio euskarari.

Batua ahozko egiteak ekarri duen prosodiak⁴ badu beste ezaugarri garrantziko bat; hizkuntza modu formalean ikasteak hizkako azentua sendotu du:

- (1) zuék ez dúzue itxóiten
zuék zaudéte hór...

Berandu gabilta. Bide luzea egin da. Hizkuntzalarien analisi praktikan aplikagaitz edo gaizki-ulertuek ez dute asko lagundu. Hemendik aurrera, zer-bait egin baliteke oraindik, irakaskuntzan legoke itxaropena. Euskara haurtzaroa igaro aurretik ikasi dutenei ez zaie prosodiarik *irakatsi* behar, berea gorde eta edozein hizkera-mailatan erabil dezaten bermatu baizik. *Desikas* ez dezaten da erronka: euskara idatziarekin, euskara batuarekin topo egitean ez daitezela hasi, automatikoki, azentuak hizka azken-aurreko silaban jartzen. Inportantea da hemen *automatikotasun* hori, ez baita edozer gauza egiten,

³ Absurdoa da beraz pentsatzea Gasteizen ezin dela maila arduragabeetarako irakasle bakoitzaren euskalkia erabili, ustezko zaindu batu horretan irakaslearen euskalkia ez balego bezala.

⁴ *Prosodia* erabiliko da hemendik aurrera hizketaren ezaugarri musikalak adierazteko, *azentua* horietako bat da, doinua, erritmoa, eta abarrekin batera.

hori baizik: hizka eta azken-aurreko silaban. Iparraldean, azken silaban frantsesagatik edo azken-aurrekoan, unibertsaltasunagatik eta Hegoaldeko euskararen bidez maiz, batua gure ahoetatik hedatu baita alor zenbaitetan.

Azentuak hizka banatzea joera orokorra omen da hizkuntza haurtzaroa igaro ondoren ikasi dutenen artean (Šimáčková; Podlipský 2015: 139). Besteak beste, halako hitzunez polikiago hitz egiteko joera dute. Hiztegia eta gramatika ikasteko egiten duten memoria ahaleginak arreta hitzetan eta are morfemetan ere jartzera bultzatzen ditu. Gainera, euskara bezalako hizkuntza eransleetan bereziki astuna izan ohi da gramatikaren pisua. Arazo horiek euskara txikitari ikasi duen askoren batua ere harrapatzen dute neurritan batean, nerabezaroa gaitortuta iritsi baitzitzaizen batua eta, oso maiz, bigarren hizkuntza bat baltz bezala hasi ziren ahoskatzen letretatik abiatuta.

Irakaskuntzak (eta irakasle trebakuntzak, eta agiriatarako azterketek, eta abarrek) gramatika eta hiztegia biltzen ditu indarrak. Teknikak teknika, buruz ikasten dira. Izan ere memoriaz barneratzen diren ezagutza motak dira. Ahoskera ez da halakoa.

Hizkuntzaren hiztegia eta gramatika dira hizkuntzak hiztunari dakarkiona, hiztunak ikasi behar duena, hizkuntzaz jabetu (txikitari) edo ikasi (hantitari) ahala. Ahoskera, berriz, funtsean da hiztunak dakarkiona hizkuntzari bere gorputz eta adimenaz. Hiztun txikiak igarri egiten du, aurkikuntza modura, giza gorputzak errazten duenetik, bere hizkuntz(ar)en aukerak zeintzuk diren, noiz amore ematen duen eta noiz ez. Bigarren horren zailtasuna (*onTTo*, *LLabur*, *aTzo*) da bereganatu behar lukeena heldutan ekiten dionak hizkuntza bat ikasteari.

Hori lortzeko ahoskera ez da ikasten gramatika eta hiztegia bezala, beraz ezin da irakatsi gramatika eta hiztegia bezala. Maiz ez da ongi bereizi ahoskera zer den. Batuan *gurpila/kurpila* aukera ez dagokio ahoskerari, hiztegiari baizik, eta memoriaz ikasten da, *nire/nere* bezala. Desberdina da *dira* hitzean R kentzea lasaitasunagatik giharrak laxatzen ditugulako. Hori ikastea hots kateen irudi akustikoez jabetzea da: zein hots, zein erritmo, zein itxura fonetiko duen lagunarteko hizketak eta zein, hitzaldi batekoak edo diskurtso politiko batekoak. Hori garbi izan behar dugu, ahoskera arauak joera sistematiko bidez dagokien bezala funtzionatu badute.

Nola eraman hori prosodiara, hizkuntzaren kantura? Hitztunei baliabi-deak (alegia, hitz multzoak txertatzeko doinu-erritmo eredu egokiak) eman behar zaizkie ez daitezen behartuta egon goragoko (1) edo ondoko (2) bezalakoetara.

(2) *zér egín oté dut ník horrékin*

Hizkera bizietako kanta galdu ez eta hizkera zaindu batura ere iristea da helburu. Analizatzen hasita, zailtasuna silaben multzokatze eta hitzen neurri desberdinetan legoke. Alderatu, adib., *Nora joan zara*-ren bi ahoskera posible:

(3) NOA-JUN + TSE-A = 4 silaba (2+2)

NO-RA + YO-AN + SA-RA = 6 silaba (2+2+2)

Irakaslearen zeregina litzateke sei silabatara pasatze horrek ez dezala hautsi musika, ez dezala hizkako erritmoa (*nóra yóan zára*) ekarri (*nórayoan(t) sarà*, *noráyoan(t)sarà*). Ez dago modu egoki bakarra silabak eta doinuak elkarrekin josteko (Jauregi 2008b: 341) eta horregatik gorde daitezke eredu egokiak silaba kopuruak aldatuta ere. (4a) adibideko prosodia desegokia konpontzeko ere komeni da hizkera bizietako esaldiez gogoratzea eta bi multzo (4b) edo bat (4c) egitea, baina ez hitz adina multzo:⁵

(4a) *ekárri / behár / ditúzue / gáuzak*

(4b) *ekárri-behar-dituzuè / gáuzak*

(4c) *ekárri-behar-dituzuè gauzàk*

Ondokoan (5a) azentuaren aldetik, *ergo* erritmoarenetik, gaztelaniaz bezalaxe (5b) jokatu du hitzunak hitzak azentu banatan kokatuz. Euskarak, adib., (5c) edo (5d) bezalako moldaketa eskatuko luke.

(5a) *Báda jendéa egíten duéla gáuza gehiágo*

(5b) *Háy gente que-háce más cósas*

(5c) *Háy-gente-que-hàce más-còsas,*

(5d) *Háy-gente-que-hàce más-cosàs*

Onenean, akats gramatikala zuzenduko zaio (hobe du agiriren bat atera nahi badu), baina oso litekeena da azentuera bere horretan gelditzea betiko:

⁵ Beheranzko tiletak (à) azentu bigarrenkaria adierazten du, goranzkoak (á) nagusia.

irakasle-, ama-, hizkuntz erabiltzaile- eta hedatzaile-bizitza osorako. Beste askoren artean gasteiztar guraso gazteek euskara hori bereganatu dute. Gramatika eta hiztegia idazteko ortografia irakatsi zaie, baina ez ahoskatzeko era, horrek berez atera beharko balu bezala.

1998ko Ahoskera lantaldeak zioena eta 2015ean Ahoskera batzordeak berretsi zuena errepikatzen dugu orain ere: ahoskera ikasteko, esaldiak ahoskatzen ikasi behar da. Kontua ez da hitz bakoitzean azentua non kokatzen den euskalki honetan edo hartan, baizik zein den esaldi-kantua, erritmoa, doinua euskalkiren batean eta, oro har, euskaraz. Gauza bat dago argi: ez doa hizka, hitz-multzoka baizik.

Irakaskuntzan ideia hori garatzen duen Marinen (2011) metodoa bezalakoek ondorio hobeak emango dituzte dialektologiazko eta fonologiazko ikerketa zehatzek baino (horiek beharrezko eta eskertzeko izanik oso). Ahoskera batzordearen ibilbidean ikasketarik onuragarrienetakoa Marinen mintegi praktikoa izan da. Antzerkirako ikasbideak euskararen irakaskuntzara hedatzea benetan mesedegarri litzateke eta aukera serio aztertu behar litzateke.

Izan ere, ahoskera oharkabeen ikasi behar litzateke, ikaslea beldurtu gabe eta, batez ere, buruz ikasi beharreko arau eta erregelaz zamatuta gabe. Ikasleak aski uxatu ditugu gramatikaren aberastasuna gauza guztien gainetik jartzen. Bestalde, oso harro gaude, baina ea nork esaten duen *gengozkizun* edo *liezadakete* kaña bat hartu bitartean (eta asko dira halako erabileratarako bakarrik behar dutenak hizkuntza). Arazoa latzagoa da ahoskeraren eremuan, ezin delako buruz ikasi benetakoa izango bada (alferrik beraz arauz kargatzea).

Nire ingelesezko ahoskerak asko du hobetzeko, baina esango nuke inguruko batezbestekoaren gainetik dabilela. Bada, *t*-ak *hobikari* eta hitz hasieran *hasperendun* zirela fonologian ikasi dut, baina lehenago ikasi nuen hala eginen, Shakespeareren *Macbeth*-en sorginetako bat izan nintzelako literaturazko ikastaro batean eta askotan errepikatu nuelako ozen... edo Blake-ren *Tiger tiger burning bright* poema ozen deklamatzera jolasten genuelako.

Marinen metodoarekin ahoskera lantzeaz gain, ikasten da hitz ordena, eta sendotzen komuntzadura, mugagabeak eta bestelako erregulartasun gra-

matikalak. Ez baitago ahoskerarik eduki lexiko, gramatikal, pragmatikorik gabe eta ez litzateke egon behar eduki lexiko, gramatikal, pragmatikorik dagokion ahoskerarik gabe. Hitzak banaka ahoskatzen ikasteak hori bultzatzen du: eduki lexiko, gramatikal, pragmatikorik gabeko ahoskera. Hori bai artifiziala!

3. Hizkuntzaren aldagarritasuna ahoskeran, erabilera mailak

3.1. “Jatorkeria”

Euskara jator eta herrikoia egin nahi dutenen neurriz kanpoko kenketa, murrizketa eta antzeko ahoskera-motak ez dira beti apropos, gaztelaniaz mikrofono aurrean hizlariak *na más que pa eventos* esango balu bezala. Egia da, janzkera informalen egungo orokortzearekin batera, euskaradunon kopuru erlatiboki txikia eta soziologikoki murriztua ere kontra ditugula hizkera zaindu bat eraikitzeke orduan. Gainera, txikitasunaren ezaugarriak areagotu egiten dira “giro ona” izateak gizaki askori ematen dion plazeragatik, babes moduko horregatik. Euskara erabiltzeko zioa oso “bihotzezkoa” da maiz, taldearekiko identifikazioa bilatzen da eta horrek hizkera ez-zainduaren ezaugarriak areagotu ditzake.

Diziplina behar genuke ohitura horietatik ateratzeko: antzerki moduko batean erabilera-mailak hizkera desberdinekin bateratu. Gizarte txiki batean bizi bagara ere, denok lehengusu bagina bezala jokatzeari ez da nahitaez egoki.

Espainiakoa, oro har, eredu txarra dugu: berri emanaldietan ere *acción* ACIÓN, *exención* ESENCIÓN, *constancia* COSTÁNCIA entzun daitezke. Berri emanaldi batetik ateratakoa da *untaron al chófer de Bárcenas*, hiztegi aukera trakets horrekin. Euskaraz ere eguraldiaren iragarpenean *eguraldia bihar izorrratzen hasiko da*, ez litzateke beharbada aukerarik zainduena.

Alderantziz ere gertatzen da, zinean, adibidez, hemengo gaztelania behar lukeenean emazteak senarrari esaten dionean etxean *Nos ha TOCADO* vs. sinesgarriagoa litzatekeen *TOCAU*. Hegoaldeko bederen mailarik gabeko des-eredu hori barneratu dugu, EBAZ arauen arrakastarako arazo nagusia den aldagarritasunik eza indartzen duena.

3.2. Maileguak

Uholdeka datozkigun maileguek gaztelania-/frantsesetikako ahoskeren barneratzea bultzatzen dute. Garbizaletasuna egun ez badago ere ondo ikusia, noizbait elebidunen hizkuntza ahulenaren osasunaren testuinguruan ikusi behar genuke gaia. Ondo neurtuz gero, garbizaletasunak, kontzientzia motatzat eta ez debeku itsutzat hartuta, hitzen biziraupenerako oxigenoa ere ekar lezake. Esaterako, *desprestigioa* G hotsaz ahoskatzeko zailtasunari ihes egiteko bide are zailagoa gertatzen da *izena zikintzea* esatea. Gure ikasleek ia ez dute erabiltzen (ezagutzen?) *ospe* hitza ere.

Tarteka ahoskerak hiztegia ere zaintzera bagaramatza, euskara zainduaren kalitatea sendotuko da. Ez dut horrek hala izan behar duela esaten. Ez nago ziur. Gaia bera mahai gainean jartzeari deritzot interesgarri. Azken batean hiztunaren kontzientzia hartze bat ari gara hemen aldarrikatzen.

Hizkera zainduaren bereizgarri da hiztuna, edukiaz batera, formaz kezkatzea. *(Des)prestigioa* nola esan zalantzaren aurrean pentsatu behar litzateke gure aitona-amonek esaten ez zituzten hitz horiek, behar ditugunean, nola entzunarazi euskaraz umeei? Elebidun dira, eleaniztun ere bai sarri. Gaztelaniaz J esaten badute, euskaraz G egiteak forma desberdintzen du. Badu horrek egitekorik hiztun eleaniztunengan (gogoratu nola sortu diren *bolsa/boltsa*, *subidón/subidoi* bezalako “itzulpen” erregelak). Irudikatu eleaniztunek *prestigio* oineko hitzetan gaztelaniaz J, frantsesez *z*, ingelesez *Dz* eta abarren ondoan euskaraz G izateak (bai Hego, bai Ipar) ematen duen eredua.

Ez da gutxietsi behar lehen aldiaren garrantzia. Izan ere, hizkera zainduan hiztegi ikasi espezializatuak maiztasun erlatiboki handia izaten du. *Genoma* lehen aldiz entzun duenak irratian edo eskolan, G hotsaz ahoskatu badiote, ez du gero hala errepikatzeke lotsarik izango. *FiloloGia* ebakitzeko ere alemanezko kidea entzutea gaztelaniazko irudiak baino egokiago litzateke (berdin, *loGika* naturaltzeko, alemanezko *LoGik*).

Maileguen alorrean atal berezia merezi du gaztelaniatikako Z hotsak. *Gozada bat*, *klase sozialak*, *ni marZiano bat bezala* barra-barra entzuten dira eta nago galdua dela arazoa, Hegoaldeko gehitu dugula Z gure fonemen inventarioan. Haatik hizkera zainduan bederen txistukarira jo beharko genu-

ke. Ez da asko eskatzea, edo ez dakit zergatik den mugagabea eskatzea baino gehiago. Bestalde, hizkera dotoretzearekin batera batu egiten du batua gure belarrietan. *Paracetamol* txistukariaz egiteak esan nahi du bat arduratu eta saiatu egiten dela. Berdin gertatzen da Iparraldeko hizlaria tarteka bederen hitzaldi formaletarako R hobikaria egiten saiatzean.

Izan ginen bada gauza *h* idazteko, nahiz asko izan kontrako argudioak. Haatik orain eragile gehiegi ez dira “zetak” eta “jotak” hizkera zainduan saihesteko ahaleginera ere iristen.

3.3. Ortografia

Ohore-ren idazkerak ahoskera zaindua (OORE) errazten du. Hitzaren beraren berezitasunak (ez da kaleko hizkerakoa) normalean bokalak bikoizten ez ditugunoi ere laguntzen digu. *Zahar*, *lehen* bezalakoetan ere letra dugu oroigarri eta irakurketa ozenetan, adibidez, nabaritzen da. Ez da desegoki egoera formaletan hitzuna letrari lotzea. Beste egoeretan ekar litzakeen kalteak begiratzea litzateke gure lana: ez ditzala hots-letra lotura horrek galarazi ez aldagarritasun dialektologikoa ez estilistikoa. *Lehenago*-k ez dezala desagerrarazi beste mailetako zenbaiten *LENAGO* edo *zahar*-ek, *ZAR*; *ez da* idazteak *EZTA* inondik galarazi behar ez lukeen bezalaxe.

Maila, *zaila* eta halakoetan ere, letren bidezko itxura desberdin zaio *MALLA* esaten ohituari. Oroigarri moduko bat du letretan. Grafia-hots auzi horrek azal lezake nola dagoen gipuzkoarrik ustezko batuan *MAILA* bai, baina *jator* *YATOR* inola ere egingo ez duenik. Izan ere, *ohore*, *lehen*, *maila* bezalakoen idazkera batuan bere ohiko ahoskera ez bezalakoa ikusten duenari *jan*, *jatorri*, *joan*, berriz, berdin-berdin idatzirik datozkio litekeen edozein aldaera fonikotarako, berdin batuan zein euskalkian. Ez dago beste aukera grafikorik, ez dago *j* berezirik, ez dago *h* bezalako oroigarririk (ahoskatzen ez duten hitzunez ari naiz, noski). Imajina dezagun nola izango ziren gauzak, batuan *j*-ren ordeztu y idaztea onartu balitz, ahoskera palatala izan zedin. Ez dago ohartzea besterik zenbat errazago gertatzen zaigun gipuzkoarroi *hierarkia*, *ihardunaldi* idatziz *j* saihestea, *jerarkia*, *jardunaldi* idatzita baino. Pentsa *baitu* ez balitz horrela idaztea erabaki: seguru *BAIT DU* litzatekeela orain ustezko ahoskera batua.

Hemendik ez da inola ere ondorioztatu behar ortografia aldatu behar litzatekeela. Idazkera kodetzean, egiten dena egiten dela, ezinezko da idatzia erabat egokitzea ahoskera-aldaera guztiei. Hala dira gauzak idatziaren eta ahoskoaren artean, biunibokotasuna ezin da % 100ekoa izan. Lehenengoaren zurruntasun eta batasuna, aniztasun bizia da bestean. Hobetu liteke, seguru, baina arauak ahalik eta gutxien mugitzea komeni da hiztunen mesedetan eta arauen eraginkortasunagatik. Haatik, arauak eragin oneko arau izateko, zenbat eta hobeto ulertu gauzak, hobe.

Ortografiarena gogorarazi da, baldintza psikolinguistiko indartsua delako, letra hotsarekin identifikatzeko joera baitu hiztunak (ik. 1. fonemaz eta Veloso 2019). Oso aintzat hartu beharrekoa da “ba niri ez zait ateratzen”, “niri j-rena ez zait gustatzen” bezalakoak analizatzeko. Arazoak konpontzeko, pasioetatik arrazoiertara igaro behar da.

4. Hiztuna eta ahoskera

Webgunea bezalakoan onarpenak salatzen du hiztunen (eta estandartzea arautzen dugunon) ahoskerarekiko kontzientziarik eza edo, hobeto esan, kontzientzia partziala. Hitz konposatu erdi-mailegatu horrek osagai bien elkarreketa gunean euskarari erabat arrotz zaion hots bilkura eskatzen du. Paperak dena jasaten du, baina ahoskerak ez edo garesti ordaintzen du behintzat.

Paradoxikoki *webgune* onartzearekin batera *yeismoa* arbuia egiten da. Kontuz aztertu beharreko kontu ideologikoa litzateke. Halaber, ahoskerari garrantzi berezia ematen zaio norberaren ohiturak haustea dakarren aholku edo arau baten aurrean. Esaterako, behin eta berriz aipatzen ari garen kasuan, *j* (*j*, *gi*, *ge* maileguetan) *j* egiteko ohitura duenari *Y* eginarazi nahi bazaio, hizkera mailaren izenean erresistentzia izugarria da (EBAZen aurkako nabarmenena).⁶

Gramatikan eta lexikoan ere estandartzeak eskatzen dituen ohitura aldatetak ez dira eroso beti. Lagun batek zin egiten du berak ez duela inoiz *tira-*

⁶ Matxinoari ez zaio ezer gertatzen *jogurta* edo *jada* *Y-z* esateko (gastelaniazko ahoskera lagun ziurrenik).

dera esango... Niri ere *porrota* esatea kostatu egiten zait eta hamaika ihesbide bilatzen ditut. *Komun(ean)* esatea ere ez zait erraz; halaber ez zait atsegin *guzti horietan* esan beharrean *horietan guztietan* esatea. Tipologiari eskerrak, gainera, ezagunak dira horren kontrako argudio teorikoak (Dressler 1985: 339-340). Baina hala erabaki da eta, hizkera batu zaindu estandarra egitean, saiatu beharko dut araua betetzen. Kontua ez baita norberaren aukera, are gutxiago maiz aitortzen ez den “gustatzea edo ez”. Azter ditzagun gauzak serio eta sakon, argituz lehenengo zertan ari garen eta norantz nahi dugun segitu.

Bagera! Gu're bai! esaten da San Sebastian martxan... eta hori da kontua. Bagara ala ez? Nahi dugu ala ez? Zenbat axola zaigu ahoskera? Zertarako axola zaigu axola zaigunoi? Posible al da ezer egitea denon esku- eta hitz-hartzerik gabe? Nola sortu “yota-eredua” entzute handiko jendeak sistematikoki J ahoskatzen badu egoera formalenetan ere (euskaltzainok hitzaldietan, irakasleok epaimahaietan, unibertsitate-ikasleek tesi baten defentsan, politikariek diskurtso ofizialetan)? Nork bete behar du gomendio hori? Besterik irakasten ez zaien eta azterketetarako eskatzen zaien euskaldun berri gaixoe? Eta nola hitz egin behar dute horiek kalean?

Ez da behar % 100ean arau guztiak beti eta salbuespenik gabe betetzea. Bakoitzak zailtasun eta erraztasun jakin batzuk izango ditu bere historia linguistikoaren arabera. Ahoskera aldakorra eta bizia da gizakiok hizketa gertatu ahala sortzen dugulako eta hiztunok bizi eta aldakor garelako. Lortu behar genukeena da aldakortasun horrek egitura orokor batean funtzionatzea, hizkuntz komunitate osasuntsu batean (Milroy 1994: 21). Horretarako joerak egonkortu behar dira, baina joerak egonkortzeak ez du esan nahi ahoskerak fosildu egin behar dutenik. Ezinezkoa litzateke.

Metodorik gabe aritu nintzen, noski,itsu-itsuan, modu intuitibo batean, eta gero konturatu naiz –gaurko gauza teorikoak-eta entzun ditudanean– imitazioa izaten dela lehenbiziko pausoa ahoskera ikasteko. Bada, guk ere horrela jardun genuen, imitazio hutsean, baina konturatu nintzen imitazioak muga handiak zituela. Muntaiaren hartan horrela joan zen eta ondo, baina beste buelta bat eman behar zitzaioela kontuari.

Geroztik gustua hartu nion eta deitu egiten zidaten eta berrogeitik gora antzezlanetan parte hartu dut. Antzerkia normalean honela egiten da: itzultzaileak edo idazleak etxeko epelean egiten du bere bertsioa, jakin gabe oso ondo pertsonaiak nolakoak izango diren, eszenak nola muntatuko diren, intentzioei zer ikuspuntu emango zaien... eta orduan, etxean ari zarenean ordenagailu aurrean, hartzen dituzu erabaki batzuk –hori da bakarkako lana–, eta gero lan hori konpartitu behar duzu talde batekin. Eta taldean

daude zuzendaria, daude aktoreak, teknikariak gero. Antzerkia normalean honela egiten da: obra idazten da, edo itzulpena egiten da, euskarazko bertsioa idazten duzu eta gehienez ere egiten da irakurraldi bat, mahai baten inguruan aktore guztiak eta zuzendaria bertan direla, eta hor batzuetan aktorea hizketan hasi, eta hitzek ez diote balio berak irudikatzen duen emozioa jartzeko, eta konturatzen zara aldaketa batzuk egin behar direla testuan. Irakurraldi hori aprobetxatzen da aldaketa horiek egiteko, hori da itun moduko bat, aktorea joaten da etxera testu horrekin, eta hori da Jaungoikoaren hitza! Hurrengo entsegu egunerako buruz ikasita ekarri behar du.

Gero, obra muntatzen ari dela, zer gertatzen da? Bada, zaintzen direla estetikarekin –eta interpretazioarekin– zerikusia duten alde guztiak, emozioak direla, gero argiak, eszena mugimendu guztiak, jantziak... Hori dena doa hazten hazten hazten, eta hitza gelditzen da kortse bat bezala, lehendabiziko egunean bezala aldaketarik egin ezinda. Eta hor sekulako arazoak izaten ditugu, ze batzuetan keinuarekin, edo mugimenduarekin edo emozioarekin ari zara gauza bat esaten, eta hitzarekin ari zara kontrako gauza bat esaten.

Nik proposatu izan dudana deitu izan didatenean... batzuetan deitu izan didate itzulpena egiteko bakarrik. Baina beti esaten diet “bai, bai, baina hori bertsio bat da, nik taldean parte hartu nahi dut, eta zaindu testua prozesu osoan”. Eszenan gauzak hazten doazen neurrian, aukera eman testuari ere, egokitzen joateko, ez? Eta aktoreari erraztu lan hori, ez dadila izan gorputzarekin gauza bat esaten duela eta... zeren hor disoziazio bat datorkio aktoreari: gorputzarekin esaten du gauza bat eta ahoarekin beste bat, eta interpretazioa oso zurrana izaten da modu horretara.

Hortaz, itzultzaile bezala, taularatze prozesu osoan ibiltzen naiz testua berridatzi, berridatzi eta berridatzi. Lehenbizi itzultzaile lana, bakarkakoa, baina gero muntaketan parte hartzen dudanean, testuari segimendua egiten diot, eta gero testu interpretazioa zaindu: aktoreekin batera lan egin, euskara naturala izan dadin; azkenean helburua da naturaltasuna eta sinesgarritasuna lortzea taula gainean. Hori da antzezlanen inguruko lana.

2001ean deitu zidaten Donostiako Arte Eszenikoen tailerretik, jakinda zer lan egiten ari nintzen antzerkian, eta eskatu zidaten ea emango nuen

“Interpretazioa euskaraz” gaia, aktoregaiak formatzeko, gero antzerkian ibil zitezen. Baiezkoa eman nuen, baina dena nuen egiteko! Hori niretzako izan da sekulako laborategia. Hor bai konturatu naizela imitazioa oso motz gelditzen zela eta orduan egin behar nuela teoria moduko bat-edo asmatu –ni berez ez naiz batere teoriazalea, iruditzen zait praktikatik emaitza hobeak lortzen direla–. Baina bai egin behar nuela artikulatu zerbait, gero benetako antzezlanetan ez delako egoten pertsona bat hori zaintzeko. Eta orduan iruditzen zitzaidan aktoregaiari eman behar zitzaizkiola tresnak, berak jakin dezan gero eszenan dagoenean zer komeni den: informalean komeni den, formala komeni den, letrak jatea komeni den..., formatu egin behar dela jendea; eta gero haiek ikusiko dute, nik uste profesionalak direla, eta lan tresna batzuk ematea zen kontua.

Horren emaitza da “Esatearen ederra” izeneko ahoskera metodo bat. Eta metodo hau aplikatu dut bai antzezlanetan, aktoreekin lan egiteko, eta baita ere bikoiztaileekin, politikariekin, irakasle jendearekin, hau da, komunikazioaren arlo askotan ibili naiz metodoa hau irakasten eta esperimentatzen.

Esatearen ederra

- Ahots gora irakurri: mahai lana
- Doinua: partitura
- Mezua: komunikazioa
- Testua altxatu: taularatzea
- Pertsonaiak eraiki: sinesgarritasuna

Lehendabiziko urratsa da ahots gora irakurtzen ikastea. Eta ematen du tontakeria bat dela; hori eskolan askotan esaten ziguten, “ea, irakurri ahots gora”, baina inork ez zigun irizpiderik ematen hori nola egin behar zen, edo ondo egiten genuen edo ez. Askotan irakurtzen genuen ulertu gabe ere zer esaten ari ginen. Sekulako abiadura hartzen genuen ahalik eta lasterren bukatzeko, nik uste dut denok izan dugula esperientzia hori.

Hor ikusten dut bi zati daudela: batetik, doinua, eta bestetik, mezua. Konparatu daiteke testuen interpretazioa abestien interpretazioarekin.

Kantari batek abesti bat interpretatu behar badu, ez da hasten lehendabiziko momentutik emozioekin lanean. Lehendabiziko lana da nota bakoitza bere tokian jartzea, melodia bat sortzea, lerro hori dantzan jartzea. Eta testuarekin ere gauza bera gertatzen da. Niretzat testua da partitura huts bat. Kontua da ikustea testu horrek nola kantatzen duen, hori pixka bat argitzea, komunikazio unitateak nola bildu... Bestela, hitzak –lehen ere baten batek aipatu du, Lourdesek uste dut– bakarka, banan-banan hartzen ditugu, batez ere ezagutzen ez ditugun hizkuntzetan.

Euskaltegietan hori gertatzen da: irakasten ditugu hitzak, ikasleek normalean paperetik ikasten dituzte, baina gero hori kantatzen noiz ikasi behar dute? Klean? Seguruenik euskaldun berriei hori gertatzen zaie, hitzak ematen dizkiegu, baina gero kantatzeko orduan gaztelaniaren doinua hartzen dute, hori delako haientzat ezaguna dena.

Gerta daiteke antolatu duzula lerroa, badakizula unitateak nola dauden eratuta, isiluneak garbi dauzkazula, *apoyoak* badauzkazula, badakizula hitz klabeak non dauden, pisua, pisu komunikatiboa nora doan, hori dena hitzartuta dagoela. Baina gerta daiteke paperean dauden hitz horiek oso ondo kantatzea baina piperrik ez ulertzea zer esaten ari zaren. Orduan, mezuarekin ere lan egin behar da: zer esaten ari zaren ondo ulertu, ideien arteko hierarkia aztertu... pisua non dagoen testuan. Goitik behera hasiko zaren edo garrantzia nola banatuko duzun hitzen artean. Mezua ulertu gabe, jai dago. Niri askotan gertatzen zait irratia, albistegiak-eta, entzuten ari naizela etxean, eta halako abaila hartzen duela kazetariak edo esatariak... baina ulertzen ari da bera? Pertsona ikusten duzunean, agian badauzkazu pista edo arrasto gehiago ulertzeko, baina bakarrik belarritik sartzen zaizunean... Ez baduzu zuk ulertzen, publikoak ez du ulertuko, hori horrela da; orduan lan bat egin behar da testuarekin ere. Eta testua okupatu. Azkenean lehendabiziko ahots gorako irakurketa niretzat da aitzakia hutsa testua kantatzen ikasteko. Aurrena da dantza, baina gero, dantza horretan, lerroa dantzan dabilen bitartean, mezuarekin bat egin behar da. Hori, ahots gora irakurtzearen inguruan.

Bestelako ikastaroetan, antzerkiarekin zerikusirik ez daukatenetan, adibidez esatariekin lan egiten dudanean, edo politikari batekin: politikariak

edo bere laguntzaileak, diskurtsoa idazten dionak, hartu du sekulako lana diskurtso hori idazten, hitzak polit jartzen, ideien sakontasunari erreparatzen eta abar, eta gero ez bada kantatzearen fase horretan batere lanik eginen, sekulako pena da, sekulako lana egin duzu eta gero hori ez da iristen. Ez bazaizu jaisten gorputzera, ezinezkoa da. Burutik bakarrik ezin daiteke hitz egin. Komunikazio alorretako esatariekin hor gelditzen gara, ahots gorako irakurketa horretan.

Zeren gero taularatzea dator... taularatzea beti lotzen dugu antzerkiarekin, baina hau (hitzaldia ematea) ere taularatzea da. Eta nire diskurtso honetan ez dago –pasioa bai badago– baina inplikazio emozional handirik ez dago. Eta gorputzarekin ere ez daukat lan handirik egin beharrik. Nire kezka bakarra alde horretatik izan behar du gorputza inplikaturik egotea, baina zuzendariak ez dit esan hemendik horra joan behar dudala ez dakit zeren bila, eta gero gurutzatu behar naizela beste aktore batekin... Zeren hor partitura bat dago mugimenduetan ere antzerkian.

Beraz, testua altxatze horretan ikusi egin behar da zer arlotako profesionala den, eta non gelditu. Baina aktoreekin niretzako sekulako laborategia izan da, zeren antzerkiak eskatzen dizu azken muturrera eramatea lan hau. Orduan, taularatze horretan, lehen esan dizuet normalean lehen irakurraldia egin eta bigarren entsegu egunerako aktoreari esaten zaiola buruz ikasita ekartzeko testua. Eta nik probatu dudana da, lehendabiziko parte horri garrantzia ematen baldin bazaio, testua berez ikasten dela. Errepikatzearen poderioz, hau da, geruzaz geruza egin beharreko lan bat da. Lehendabizikoan begiratzen diozu doinuari bakarrik, gero mezuari, kontua da errepikatzea eta errepikatzea, hori ere atera da zuek eskaini dizkiguzuen hitzaldietan. Esan bezala, behar besteko garrantzia ematen baldin bazaio lehendabiziko puntuari, testua berez ikasten du aktoreak. Buruan grabatua gelditzen zaio.

Taularatzean egin behar da gorputza inplikatu. Inplikatu behar duzu emozioen aldetik, inplikatu behar duzu gorputzaren aldetik, eta oso inportantea da buruan zer irudi daukazun. Zeren hizketan ari garenean, beti irudi batzuen gainean ari gara eraikitzen gure diskurtsoa. Eta, askotan, testua buruz ikasita daukagunean, ez bada lan hori egiten irudiekin... Kontua

da kontrako bidea egitea, hau da, modu naturalean egiten duguna deszifratu eta testua eraikitzea artifizialtasunetik sinesgarritasunera joateko.

Taularatzean oinarritzat hartzen dugu testuaren partitura, esan dezagun, baina hori gero uztartu beharra dago mugimenduen partiturarekin, emozioen partiturarekin eta irudien partiturarekin. Eta denak premiazkoak dira. Ordena horretan: aurrena testua, gero emozioak... horrela.

Lehendabiziko bi urratsetan euskara batuan egiten dugu lan, baina gero hirugarren puntuan, pertsonaiak taularatzean, eta dagoeneko mugimendu guztiak markatuta daudenean, pertsonaiak haragitzen hasten direnean, hor iristen da momentu bat testuak berak esaten dizuna, edo aktoreak berak... Ikusten diozu ez dagoela eroso batuan lan eginda, pertsonaiak kontraesan moduko bat daukala barruan, eta, agian aukera ematen badiozu zati batean batuan egiteko eta hurrengoan euskalkian (erregistroaren arabera), agian kontraste horiek bizitzeko askoz ere aukera handiagoa dauka.

Adibide batzuk ekarri dizkizuet Donostiako Arte Eszenikoen tailerrean grabatuak.

Lehendabizikoa audio bat da, ikasle argentinar batena –beste bat, euskara existitzen zenik ere ez zekiena–. Espainiara etorri zen Arte Eszenikoak ikasteko asmotan, eta Donostian suertatu zen, bertako Arte Eszenikoen tailerrean, eta zer eta euskaraz lan egin behar zuela. Nik lehendabiziko eskola egunean testu bat ematen diet ikasleei, eta tarte bat utzi prestatzeko, eta ondoren grabatu egiten ditugu. Orain entzungo duguna ikasle argentinarraren grabazioa da.

<https://youtu.be/dNwGCyThDkw>

Testua: Bernardo Atxaga, *Groenlandiako lezioa*. Erein, 1998

Ero zerrenda

Anttonio, nekazaria, gaztetan txirrindulari bezala ibili eta hainbat sari irabazitakoa, eta hogeita hamar urte inguru zituenean, «nerbioek burua jaso», berak esaten zuen bezala, eta hizketan etengabe aritzeko joera hartu zuena. Aldian behin, norbaitek emandako hizpideari lotu eta orduak eta orduak pasatzen zituen isildu gabe.

Zoriontsu edo erdi-zoriontsu bizi izan zen harik eta bere senitarte-koek, herriko sendagilearen gomendioz, elektro-shockez baliatzen zen tratamendu psikiatrikoa pasarazi zioten arte.

(...)

Hitzak banan-banan irakurtzen ditu, ez du testua ulertzen, azentuak, hia-toak, hor denetik, ezta? Lehen entzun dugu gauza konketuak bilatu behar ditugula irakaskuntzarako, eta hortik hartzen dut nik zer kontatu ikasle horri.

Bigarren bideoan ikasle argentinar bera agertzen da, bigarren mailan. Hiru ikasturte dira.

<https://youtu.be/yDIUgZvESpY>

Testua: Enkarni Genua, *Kuku-kuku kuku-kuku aitonaren erlojua*. Desclée de Brouwer, 1998

Ku-ku ku-ku aitonaren erlojua

Gurasoek atea itxi bezain pronto Mikelek liburua, bloka eta arkatza baztertu zituen eta erlojuari begira jarri zen.

Halako batean, zazpiak eta hamar zirela... kris... kras... soinu bat entzun zuen. Mikel ikaratuta gortinaren atzetik ezkutatu zen. Bere belaunak dingilin-dangalan bata bestearen kontra zebiltzan. Kris... kras... berriro soinu hura. Lapurrak etxean ote? Mikelek ez zekien zer egin, edo hor jarraitu edo bere plana bertan behera utzi eta tximista bezain azkar kalera atera, kukuaren misterioa argitu gabe utziaz. Baina alde batetik beldurrarengatik mugitu ezinik zegoelako eta beste aldetik bere jakin-mina oso haundia zelako, hor, gortinaren atzetik geratzea erabaki zuen.

Kris... kras... Berriro ere soinu hura entzun zen eta bat-batean erlojuaren atea ireki zen eta Mikelen begi-bistan egurrezko kukua ateratzen hasi zen.

(...)

Hori da, gai hau irakatsi daiteke, ala? Ikus-entzuten denak ez du ezer ikustekorik lehen grabaketarekin, ezin da esan euskalduna ez denik.

Eta nire asmoa ez da euskara irakastea. Gurea da itxura egitea taula gainean. Hori gaur egun aktore askori gertatzen zaio, Hollywood-era joan behar dutela edo, eta *coach*-ekin lan egiten dute; ba euskaraz ere gauza bera da.

Argentinarrak ez zuen euskaraz ikasi, baina... Lehendabiziko bi ikasurteak Donostian egin zituen, eta gero Bartzelonara joan zen. Eta zer eta Bartzelonan zela, telefonoz deitu zidan casting bat zegoela publizitatea euskaraz egiteko, eta izena eman zuela. Eta egin genuen prestatu telefonoz, eta gero ez dakit hartu zuten ala ez, baina behintzat beldurra kendu zion, eta ikasi zuen nola egin.

Hirugarren bideoa Arte Dramatikoen hirugarren ikasturteko grabazio bat da.

<https://youtu.be/FQud1KP7XUY>

Testua: *Miedos/Beldurra* antzezlan, Teresa Calok idatzi eta zuzendua.

Eszena honetan herri bateko plaza irudikatu nahi zen espazio eszenikoan. Eta erabaki nuen, sinesgarritasuna emateko, polita izango zela herri jakin batean kokatzea, eta Aretxabaletara eramanez genuen. Pertsonaiek hango hizkeran berba egiten dute, baina aktoreak ez dira bertakoak. Lau dira: lehena tolosarra, bigarrena Legorretakoa, hirugarrena azkoitiarra eta azkena ermuarra.

Itzultzailea: Julia Marin

Aretxabaletako aholkularia: Kepa Errasti

Beldurra

Eszenatokia ilun dagoela, lo kanta bat entzuten da. Argia piztean, banku bat ikusten dugu eszenatokiaren erdian, eta bi emakume, ume bana daramatenak bi gurdixotan. Berriketan datoz; bankuan esertzen dira.

(...)

AMR.—Hiri eztun bilddurrik emuten edozein momentutan hil leikela jakitiek?

BET.—Ez. Niri drogetan hastiek emuten justen bilddurre.

AMR.—Hain gazte?

BET.—Ez, emakumie, haundiketan denien.

AMR.—A, bueno, asko falta jakon ondion haundixe izeteko...

BET.—Denporie aguro pasetan don, guapa, eta notiziak ikusitte...
Oin hamahiru urtekin hasten dittun alkohola, sexue eta drogak probetan, guriek haundiketan dienerako, igual hasiko ittun zortzi edo beratzikin.

AMR.—Haiñ aguro?

BET.—Ize leike. Eta esang'utzen zela preparau bih'oten nik alabie horretarako, sekula be etxonat erre-ta porro triste bat.

AMR.—Ba, igual, badon garaixe hasteko.

BET.—Porroak erreten?

AMR.—Geure burue preparetan. Irakurten, kursilluek eitten...

BET.—Noix? Umiekin pasetan jonat-eta egun osue, edo lanien.
Eta hik, urgentzietan...

AMR.—Egixe. Bueno, hirie behintzat neskie don.

BET.—Eta ze?

AMR.—Ba, erraxaue dala sexuaz berba eittie mutil bati baino.

BET.—Berba ein deixola bere aittek.

AMR.—Hori, hori, urgentzietara neu faten non-da beti.

IÑI.—Entzuten dittuzu?

ANDREA.—Zoratute daz.

IÑI.—Ba, ni kokoteraino. Nik paino negar gehixau eitten dau-ta, pentsaizu.

ANDREA.—Eta zu zeaittik zaz beti negarrez?

IÑI.—Ez dakitt. Batzutan aspertu itten naz.

ANDREA.—Aspertu? Gauza mordo bat daukou-eta ikasteko. Ni lanien nabil beti.

IÑI.—Ama gainien eukiko bazeu egun osuen tenperaturie hartzen, edo ispilu bat jarten sudur aurrien ikusteko arnasa hartzen dozun, edo gorpuz osue begiraketan bost minutuen behin...

ANDREA.—Bufff! Hori da itolarrixe. Eta zeaittik ez dutzezu txize itten zure gauzatxo horrekin?

IÑI.—Behin ein nutzen, baina negarrez hasi eta kontau tzen aittei mespresau eitten nauela.

ANDREA.—Zelako astune, ez?

IÑI.—Zu, zuri ez dutzu bilddurik emuten jaustiek?

ANDREA.—Nundik?

IÑI.—Karrotxotik, kunatik, aman besuetatik.

ANDREA.—Horreik die horreik okurrentziak.

IÑI.—Ja. Eta ze gur´ozu ittie?

ANDREA.—Niri bilddurre emuten duzt edozein egunetan ez ote nauen ittoko. Ze besarkatzen nauenien, jata birrinddute ixten nau.

IÑI.—Asko maitte zaittuelako.

ANDREA.—Asko. Zuriek ez?

IÑI.—Bai, baina... ez duzt eze be kontajiau gure... Eta, hori.

(...)



Zinema eta euskararen ahoskera¹

JAUREGI, Oroitz (O.J.)

Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeko kidea
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

SALABERRIA, Jasone

Irakaslea eta Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeko kidea
Transkripzioaren egilea

LAZKANO, Gorka (G.L.)

Errementari filmeko euskara arduraduna
Elkarriketatua

MARIN, Julia (J.M.)

Ahoskera irakaslea
Elkarriketatua

O.J.: Iritsi gara jardunaldi honetako azken saiora. Eta horretarako gonbidatu dugu Gorka Lazkano; bera irakaslea da, itzultzailea ere bai. Eta *Errementari* filmeko hizkuntza arduraduna ere izan zen. Batez ere, horregatik gonbidatu zaitugu, Gorka.

«Ahoskera eta zinemagintza», edo «zinemagintza euskaraz», edo «euskararen ahoskera zinemagintzan», izenburu hori eman diogu azken saio honi hainbat arrazoiengatik, batez ere ikusteko nola egiten duzuen. Zinemagintzak aukera ematen du errealitate berriak sortzeko, errealitatetik pixka bat urruntzeko pelikulak irauten duen denbora horretan behintzat. Eta urruntze hori baliatu nahi genuke guk ere ahoskeraren irakaskuntza nolabait zurruna izan daitekeen mundu akademiko horretatik ere pixkatxo bat urrun-

¹ Ondoren datorren testua “Zinema eta euskararen ahoskera” izenburua zuen elkarriketaren transkripzio moldatua da. Elkarriketa ikusgai-entzungai dago ondoko webgunean: https://www.youtube.com/watch?v=_3AiNsJTfkW&list=PLShXIrPR19GxEJV1eStY3UycoQZbKS6P&index=8

tzeko. Plastikoki ikusteko ahoskeraren irakaskuntza hori nola egiten duten zinemagintzan. Aurreko hitzaldian Julia Marinek pixka bat kontatu digu antzerkigintzan nola egiten den, eta espero dugu, gero ere, guregana hurbiltzen denean, argitzea gauza gehixeago. Eta guk nahi genukeena da, gaurko honetan, Gorka, zure esperientzia pixka bat gurekin partekatzea, nolakoa izan den kontatzea.

Ahoskera batzordearen ideia zabaltzerakoan, ahoskeraren irakaskuntza bestelako gramatika eremuetatik urrundutaitekeela aldarrikatu dugu behin baino gehiagotan, eta gaur goizean ere ideia hori zabaltzea nahi izan dugu, hain zuzen ere, hizkuntzaren alderdi prosodikoari gehiago begiratzen dioten alorretara, antzerkigintzara eta zinemagintzara. Horietan ikusten delako ez dagoela ahoskera bat eta bakarrik. Pertsonaia bakoitzak ahoskera bat du, eta bere jantziak dituen bezala, ahoskerak pertsonaia hori osatu egiten du, bete egiten du. Eta besteren artean, ahoskerak egiten du pertsonaia hori sinesgarri izan dadin. Pelikula batean sinesgarri ez bada pertsonaia bat, nekez onartuko dugu.

Eta horregatik, ahoskera kontuak hain agerian agertzen direlako, zinemagintzara hurbildu nahi izan dugu. Zinemagintzaren historiari begiratzen baldin badiogu, hor ahoskeraren kontuak argi agertzen diren bi puntu aipatu nahi nituzke, edo bi momentu. Bata da, gertaera bat edo momentu bat, zinema mutua egiten zenetik zineman hizketan hasi zireneko momentu hori. Ordura arte aktoreek ez zuten hitzik erabiltzen komunikatzeko, bestelako metodoak, mugimenduak erabiltzen zituzten, beste era batera komunikatzen zuten. Baina hitza sartu zenean, arazoak izan zituzten, aktore askok utzi behar izan zuten, ez zirelako gai hitzarekin moldatzeko, dikzio klaseak hartu behar omen zituzten. Gertaera horretan ahoskeraren garrantzia islatzen da. Berria zen zineman gertaera hori. Eta beste kasua da *My Fair Lady* pelikula, 1964an George Cukor-ek egin zuena, G. B. Shaw-ren *Pygmalion* antzerki obran oinarritutako film musikatua. Aipagarria da, aldagarritasun linguistikoa eta estilistikoa oso agerian agertzen direlako, eta ahoskeraren irakasgarritasuna pelikularen ardatza delako, argumentua delako. Ongi islatzen da pelikulan ahoskera irakats daitekeela. Ez dut kontatuko pelikula, baina bai zertzelada batzuk eman. Londresen kokatzen da, Eliza Doolittle izeneko neska bat kaleko lore saltzailea da, kalean saltzen ditu loreak, kale-

ko batek bezala hitz egiten du; eta han dago, Covent Garden-en; opera emankizun bat egon da eta jendea ateratzen ari da, eta bera loreak saltzen, eta, han dagoela, hizketan ari da jendearekin, eta esaten dio norbaitek «kontuz, hor polizia dago, dena apuntatzen ari da». Eta gizonak esaten dio «ez, ez naiz polizia, fonetikalaria naiz». Ahoskerak apuntatzen ari zen gizona, eta orduan hasten dira hizketan elkarren artean eta, fonetikalari horrek jendeak hitz egin ahala «zu halako lekutakoa zara, eta zu beste hartakoa». Eta orduan ikusten da aldagarritasunaren kontua, geografikoa, baina estilistikoa ere bai, kaleko hizkera entzuten den aldi berean, operatik atera den jende dotorearen hizkera ere entzuten baita.

Fonetikalari hori Higgins irakaslea da, eta Eliza Doolittle-i esaten dio sei hilabetetan erakutsiko diola jende dotoreak bezala hitz egiten eta, hartara, lanpostu hobeago bat lortu ahal izango duela. Neska joaten da Higgins irakaslearen etxera eta han irakasten dio ahoskera, ahoskatzen. Oso polita da hori, ahoskera irakasteko tramankulu desberdinak, tresna desberdinak agertzen baitira.

Aipagarria iruditzen zait esatea pelikula horretan hizkuntza aholkulari bat izan zutela; aholkulari hori izan zen Peter Ladefoged, XX. mendearen bigarren erdian egon den fonetikalari handienetako bat, testuliburu asko idatzi dituen. Beraz, laguntza ona izan zuten pelikula egiteko.

Sarrera txiki honen ondoren, gatozen gureru, euskarazko zinemagintzara. Egia da azken aldi honetan loraldia egon dela euskarazko zinemagintzan, bai kopuruan eta bai kalitatean ere. Zortea izan dugu euskaraz egindako pelikulak ugaltu egin direlako eta, gainera, historia ederrak kontatzen dizkigutela. Eta hor sartzen da *Errementari*, Paul Urkijok zuzendutako fantasiazko pelikula, 2017an estreinatua. Bigarren Karlistaldiaren ondoren kokatzen da, XIX. mendean, Araban. Eta guri interesgarri egin zaigu *Errementari*ren kasua, publikoki adierazi delako hizkuntz laguntzaile bat izan dutela. Eta horrek adierazten du euskarari garrantzia eman zaiola.

Gorka, Nola iritsi zinen *Errementari* lan egitera?

G.L.: Egun on, ezer baino lehen. Bada, iritsi nintzen txiripaz, esan dezagun. Nik eginak nizekion Pauli [zuzendariari] itzulpen txiki batzuk, bere au-

rreko bi film laburretarako, eta luzean egin behar zuen momentuan esan zidan ea itzuliko ote nion berak aldeztu aurretik gaztelaniaz idatzitakoa. Eta bueno, itzulpena egin eta gauzak konplikatzen joan ziren, konplikatzen edo, erabakia hartu genuen unetik, bada euskara batuan egin ordez euskalkien edo sasi euskalkian, arabar kutsua zuen hizkera mota hori sartu genuenetik, gauza pixka bat konplikatzen joan zen. Ikusi zuten filmean, erroldatzen eta abar, horren gainean egoteko pertsona bat beharrezkoa izango zela. Sartu nintzen, eta hori izan nuen lehen esperientzia. *My Fair Lady*n Ladefoged fonetikalarik oso garrantzitsu eta ezaguna hartu bazuten, bada kasu honetan hartu zuten batere esperientziarik ez zuen pertsona bat. Eta konfiantza izan zuten nigan. Nik ahal nuen bezain ondo egin nuen eta emaitza, nik uste dut, txukun samarra gelditu dela.

O.J.: Kontua da garai hartako euskara islatu nahi izan duzuela pelikulan, ezta?

G.L.: Bai, hori nahita egindako aukera da. Hori Paulek buruan zeukana zen. Berak, nolabait, zineman eta antzerkian, halakoetan, zaintzen den bezala jantzitegia, musika eta bestelako ambientazio lan guztia, berak ikusten zuen hizkuntza bera beste elementu bat izan zitekeela hori guztia indartzeko. Beste elementu bat. Eta hori buruan, ikusita zein garaietan kokatuta zegoen pelikula, euskara zaharra nahi zuela eskatu zidan. Eta «euskara zaharra» pentsatuta, ez dakit nondik, nik ez nekien behintzat nondik heldu euskara zahar horri. Eta ikusten hasi ginen non kokatuko zen pelikula, garaia bagenekien, eta, hori ikusita, bi koordenatu horiek jakinda, bada burua zuzenean joan zitzaigun garaian Araban zegoena islatzera. Pixka bat irakurtzen hasi nintzen horri buruz, ezer gutxi nekien eta. Ikusi genuen egingarria zela hainbat elementu hartu eta zerbait ulergarria aurkeztea.

O.J.: Araba aipatu duzu, baina pelikulan hizkera bat baino gehiago entzuten dira. Hizkera aniztasuna entzuten da, Arabakoa baino hizkera gehiago, aldagarritasuna.

G.L.: Bai, eta ez da lehenengo kolpean atera zen kontua. Hainbat proba egin genituen, hasieran testua batuan genuen, eta gero geruzak eransten joan ginen. Pertsonaia batzuk, argi genuen, Arabako hizkera edo sasi hizkera horretan arituko zirela. Baina gero beste batzuekin zalantza izan genuen.

Bada pelikula ikusi duzuenok jakingo duzue badela, alde batetik, demonioa, diputazioko funtzionario bat ere bai, eta pentsatu genuen pertsonaia horiei guztiei euskara bera ematea. Probak egin genituen eta, gure erabakia izan zen, infernua eta diputazioa instituzio gisa hartuta, horiei behintzat batua ematea, euskara estandarra ematea. Haien testuek ere berez hizkera jasoa goa, erregistro formalagoa zuten herritarrenek baino, eta bueno, batuak lagun zezakeen hori azpimarratzen.

Erabili ditugun beste hizkerak izan dira izaerak azpimarratzeko. Keinua egin genion J. M. Barandiarani narratzailea Ataungo hizkeraz mintzaraziz, «Patxi Errementaria» istorioa Barandiaranek jasoa baita. Bada kinkaila-saltzaile bat herriz herri dabilena, eta hura kanpotik datorrela azpimarratzeko, edo gutxienez koloretxo bat emateko euskara bat aukeratu behar zen. [Gotzon] Sanchez [aktorea], Oiartzun aldekoa da, eta, bueno, pentsatu nuen, ahalik eta naturalen interpreta zezan, Oiartzun aldeko halako euskara batean idaztea. Baina gero, berak [aktoreak] nahasketa du, eta libre utzi nion nahasketa horiek guztiak egiten.

O.J.: Hurrengo galdera ere pixka bat alde horretatik doa. Aldagarritasun hori garbi ikusten da, bai dialektologikoa, eta estilistikoa ere bai. Eta hurrengo galdera litzateke ea nola egin zenuen hori aktoreekin (aipatu duzu Gotzon Sanchezena), pixka bat libre utziz aktoreari, intuizioz joka zezan...

G.L.: Gure kasuan hizkera naturala bilatu nahi zen, baina taldea osatu nahi genuen, hau da, herritarrek antzera hitz egin behar zuten. Ezin zuen bakoitzak bere modura ahal bezala egin. Herri txiki bateko jendea da, eta gainera, zailtasun erantsia zen guk asmatutako aldaera batean aritu behar zutela. Guk egin genuena izan zen –besterik gabe, ez du meritu handirik– *Arabako euskara* liburuan oinarritu, Koldo Zuazok jasotako ezaugarrietan. Nahiko modu sistematikoan eta eskematikoan dagoenez, erraza izan zen haren *Arabako euskara* liburuan oinarritzea. Beste hainbat iturrietatik ere edan nuen, baina batez ere hortik. Eta izan zen horko elementu enblematiko batzuk hartzea eta euskara batuaren gainean aplikatzea. Gero, zaintzen duzu esateko moduak klasikotasun bat izan dezan. Baina betiere, lehenengo mailan ulergarritasuna jarrita, eta horren arabera hainbat geruza jarritz, kenduz, berriz ere atzera eta aurrera gidoian, horrela ibili ginen, betiere ulerga-

rritasunaren mesedetan. Elementu horiek finkatuta, aktoreari eman genion gidoia. Paperaren aurrean bakoitzak nola esango duen hori desberdina izan daitekeenez, ahoskeraren aldetik ere, istilu batzuk zehaztu genituen. Horretarako Koldoren [Zuazoren] laguntza izan genuen gutxi gorabehera guztiek sinesgarritasun hori lortzeko. Gero proposatu nien *tik* batzuk gehitzea, bada «a!, ba...» halako txikikeriak edo «ba... ba...» edo antzekoak.

O.J.: Mmm.

G.L.: ...herriko moda-edo pixka bat islatzeko, eta batzuetan gehiegi zen. Eta gero hori errodajea, bertan, kendu egiten zen. Halako keinuak, tranpa txikiak, gutxi gorabehera homogeneousutasun hori lortzeko.

Euskara batuari dagokionez, instituzioetako ordezkariak eman genien 87. araua, ahoskerarena, estandarra egin zezaten besterik gabe. Hor utzi genien libre, konfiantza nuelako Eneko Sagardoik eta Ramon Agirrek egingo zutela.

O.J.: Hori esan behar nizun, aktore guztiak ez da berdina izango. Ramon Agirrek edo Kandido Urangak daukaten ibilbidea eta hasiberri batek izan dezakeena ere ez da berdina. Orduan hor ere lana ez da berdina izango.

G.L.: Eta gainera, oso aditua denez [aktore] jende hori, haiengandik ere jaso nituen gero, errodajea bertan eta irakurraldietan ere, «hau ez da hobeto horrela esaten badugu?» eta antzekoak. Iradokizun horiekin ere, nik uste dut, hobetu genuela gidoia. Lan asko –hori Juliak [Marinek] esan du, noiztik dabilen lanean horretan–, nik uste dut lan txukuna egiten ari direla eta euskara batuan ere modu sinesgarrian eta freskoan egitea badagoe-la. Eta besteekin gauza bera, besteekin ere, lantzea da.

O.J.: Hor beste aldagai bat izan daiteke dialektodunak/euskalkidunak diren aktoreak. Euskalkiduna baldin bada, baliabide hori ere badu, nolabait ere, sortze lan horretan, baina ez badu, zalantzak izan ditzake...

G.L.: Nik uste dut, ikasi daitekeela baita ere. Banuen aktore bat, adibidez, euskara oso gutxi menperatzen duena, oso gutxi dakiena. Etxera etorri zitzaidan behin, deitu zidan eta esan zidan «lagunduko didazu pixka bat? Estu nabil-eta gidoiarekin». Egia esan, egin dugun saiakera honetan, nahiko

erraz genuen, testuak berez ez direlako oso luzeak. Hizketaldi luzeenak dira funtzionarioarenak eta demonioarenak. Apaizak ere, Jose Ramon Argoitia aktoreak, badu nahiko hizketa zaparrada handi samar bat elizan, baina oro har dira nahiko testu laburrak. Baina hala ere, aktore honek bazuen beldur hori: «nik ez dakit eta, ondo esango dut?». Eta egin genituen saio batzuk, berak bere modura hartu zituen apunteak, azentuak eta markatzen, eta nik uste dut, oso txukun geratu zela bere interpretazioa. Eta gainontzekoek, batzuek bazuten euskalkia, baina baziren aktoreak ez zeukatenak euskalkia eta nahiko ondo egin zuten.

O.J.: Orain, Julia [Marin] gure lagunari deitu nahi nioke berak ere eskarmentu handia duelako horrelako lanean eta, ziurrenik, baduelako zeresanik.

Julia Marin: Nire esperientzia da, euskalkia daukanarentzako, batuan hasten zara lanean eta gero egoerak esaten dizu euskalkietara jotzeko aukera badagoela. Baina, euskalkidun aktore bati esaten diozunean «eta hemen zure hizkera erabiliko bagenu?», «baina guk oso gaizki egiten dugu, gurea oso zatarra da» izaten da erantzuna. Eta orduan hor konplexu guztiak azaltzen dira. Eta orduan da pixka bat erantzukizun hori aktoreari ematea: joan herrira, galdetu familian, gerla horretan jartzea. Gero ikusten duenean hizkera horrek balio duela oholtza gainean, orduan izugarri aldatzen da, baloratu egiten du. Eskolatik atera eta hasten direnean haiek antzezlanak-eta egiten, poz handia ematen dit ikusteak nola bereizten dituzten erregistroak, nola diren gauza haien euskalkia sartzeko. Diferentea da norberarena ez den euskalki batean egin behar denean. Hor konplizeen beharra duzu. Adibidez, baneukan [eskolako] bideo bat... aktoreak ziren tolosarra eta Legorretako bat, eta Aretxabaletako hizkeran egin behar zuten. Orduan, nola lortu hori? Inguruan zegoen Kepa Errasti [Aretxabaletakoa], gurekin zebilen eta haren bitartez, konplizearen bitartez.

G.L.: Bai, gurean konplize gutxi, esan genezake, zeren Arabako kasu honetan...

J.M.: Gainera zinean askoz ere bizkorrago lan egiten da!

G.L.: Bai, baina tranpa egiteko aukera gehiago dago.

J.M.: Bai, hori bai.

G.L.: Eta egiten dira tranpak, baina askotan tranpak egiten dira argia ez dagoelako ondo, atzean maleta bat agertu delako..., eta hizkuntza geratzen da... ; gurean garrantzia ematen zitzaion, han ibiltzen nintzen oharrak hartzen, non esan duen gaizki, non esan duen ondo. Baina, klaro, hori ez da lehentasuna. Eta tranpa hori badago. Antzerkiak bat-batekotasun hori dauka.

J.M.: Baina entseatzeko aukera gehiago.

G.L.: Baita ere, baita ere, eta, zineman ere, egia da lan jardunaldiak oso luzeak izaten direla, nekea ere nabaritzen da, eta azkeneko burua ez doa behar duen moduan.

J.M.: Garestita da, oso.

G.L.: Oso garestita, bai.

O.J.: Eta aktoreek nola hartzen dute zuen esku-hartzea edo laguntza?

J.M.: Adibidez, *Goenkalen* eta horrelako serieetan komisarioak zeuden. Orduan, komisario lana izaten zen «gaizki esaten duzu», «hori ez da horrela!», eta horrek aktore bati sekulako amorrua ematen dio. «Badator Euskal-tzain-di-a!», horrela esaten dute. Baina gero ikusten dutenean lan hau egiteak haien sinesgarritasunean sekulako saltoak emateko aukera ematen diela, orduan taldekide bezala hartzen zaituzte. Hor lana egin behar da, sekulako lana dago kontzientzia lan hori egiteko. Orain gertatu zaigu etorri dela krisialdia, eta nik azkeneko zazpi-zortzi urteetan ez dut antzerkirik egiten. Oso antzezlan txikiak egiten dira, oso diru gutxirekin, eta obra handiak-eta, ez dira egiten. Ez dago dirurik hor pertsona bat hizkera zaintzen egoteko. Orduan, ez dakit, iruditzen zait pixka bat egin dugula galdu. Baina bazegoen, giro hori bazegoen, konturatu ziren hitzak zenbateko garrantzia daukan, egin daitekeela, lagundu egiten duela pertsonaia eraikitzen, interpretazioan. Bai, jendea sinesten hasia zegoen.

O.J.: Bai, eta horregatik deitu genion Gorkari. Guri heldu zitzaiguna izan zen lehenengo aldiz bazegoela norbait pelikulan horretaz arduratu zena. Ziur nago besteetan ere egon dela, eta lan egin dela. Baina ez horrela irudi bat, publikoki agertu dena gainera, zeren galdetu izan diogu horretan dabi-

len jendeari, «hau nola egiten duzue edo nola baliatzen zarete honetaz?», edo, «ezagutzen duzue norbait honetan dabilena?». Eta erantzun garbirik ere ez dugu jaso.

G.L.: Egia da ez dela aipatzen. Gurean agian deigarria zenez Arabako sasi hizkera horretan egitea, agian horrek nabarmendu zuen figura hau. Entzun izan dut beste nonbaiten aritu izan dela.

J.M.: Bai, ni ibilia naiz zinema egiten, bai.

G.L.: Bai, bai, aritutakoek beti sentsazio hori daukagu, ahal dugun moduan egiten ari garela, erreferentziarik izan gabe.

J.M.: Bakar-bakarrik.

G.L.: Segurtasun handirik gabe, egin ahala ikasiz.

J.M.: Bai. Gero asko da ere, zuk esan duzu, zuzendaria bera konturatu zela premia horretaz. Zuzendariaren eskuetan ere badago hori, berak ez badu ikusten... Eta entzuten duenean berdin baldin bazaio natural, ez natural... hau da, testua normalean uzten da aktorearen esku, eta egin ezazu ahal duzuna. Eta gero, hori... zer egoera barregarriak, antzerkian hori orain pixka bat modan jartzen ari da, euskalkian lan egitea eta, baina ikusten duzu, adibidez, familia bat edo herri bateko kuadrilla bat, eta bakoitza bere euskalkian!

O.J.: Obra berean?

J.M.: Bada, horretarako hobe batuan, ez? Ez dakit, arraroa da, ezta?

O.J.: Euskalki desberdinen erabileraz bideo bat ikusiko dugu.

[Bideoa ikusten da]

J.M.: Hau da *Beldurra*, obraren titulua da, eta herri txiki bateko plazan gertatzen zen, eta niri batuan iruditzen zitzaidan ez zela oso naturala. Eta orduan Aretxabaletako hizkerara eraman genuen Kepa Errasti tartean zebilelako.

O.J.: *Beldurra* lanak erakusten digu ikas daitekeela, saiatuz gero ikas daitekeela.

J.M.: Ondo pasa ere.

O.J.: Ondo pasa.

J.M.: Eta zuk lehenago galdetu duzunarekin lotuta, lan hau egiten denean, hitza lantzen denean, berdin da zein euskalkitan ari zaren, publikoak ulertu egiten du. [Emanaldi] hau Donostian zen, eta ikusten duzu jendea barre algaraka, ulertu egiten da.

G.L.: Askotan kezka izaten da euskara ikasten ari diren horiek ulertuko ote duten. Eta, zalantza hori, «A2n edo B1en dauden ikasleek ulertuko dute?». Baina nik uste dut, entzutearekin ohitu egiten dela belarria, eta komeni dela baita ere euskararen koloreak entzutea. Hori ere ikasi egiten dela.

O.J.: Bai, denbora behar da horretarako ere.

J.M.: Baina ereduak eskaini ere bai.

O.J.: Hori da.

J.M.: Komunikabideetan eta.

O.J.: Ederki, hementxe utziko dugu.

Eranskinak

Euskaltzaindiaren araua: “Euskara batuaren ahoskera zaindua” (1998)

Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena
“Ahoskerak axola du” (2015)



Euskaltzaindiaren araua:

“Euskara batuaren ahoskera zaindua” (1998)

87

EUSKARA BATUAREN AHOSKERA ZAINDUA (1998)

Atarikoak ¹

Batasuna zertarako

Arantzazuko Biltzarrerako prestatu zuen txostenean, Euskara Batua euskara idatzirako zela mugatu zuen Koldo Mitxelena eta, euskara idatziaren barrutian, irakaste lanetarako. Irrati eta telebista euskaldunak ditugunetik bereziki ahoskeran ere batasunerako irizpideak ematea beharrezko iruditzen zaio bati baino gehiagori. Eskari horri erantzunez ematen ditu ondoko arauak Euskaltzaindiak, beti ere gogoan izanik hizkera zaindua, maila jasokoa, erabili behar denerako direla, irrati-telebistetako berri-emanaldietarako, jendaurreko hitzaldietarako, eskolako azalpenetarako eta horien antzeko egoeretarako.

Bestalde, ahoskera-kontuetan ohiturak aldatzea zein zaila den kontuan izanik, ohartzen gara oraingo arau hauek denbora gehiago eskatuko dutela idatzirako ematen direnek baino.

Zer da Euskara Batuaren ahoskera zaindua

Euskara Batuaren ahoskera zaindua (EBAZ) ahozko hizkuntza estandarra izango da, alegia hiztun ororen erreferentzia tresna, hizkuntzaren maila formaletan erabili beharko dena.

EBAZ ez da orain arteko hizkeren ordezkotzat hartu behar, osagarritzat baizik. Ez da Euskara Batua ahoskatzeko modu bakarra eta are gutxiago, noski, euskalkiak ahoskatzeko era.

Besteak beste, horrek esan nahi du EBAZ ingurukoaz edo irakaslearen ahoskera biziaz gainera irakatsi beharko dela eta ez haren ordeiz. Era berean, on da, komunikabideek ere askotariko eredua edo eredu malgua ematea.

Ahoskeraren aniztasuna eta arauen malgutasuna: Arauak nola ulertu behar diren

Arauak ematean, aintzat hartu dira:

1. Euskalki ezberdinetatik datorkigun nahitaezko aniztasuna eta, EBAZ erabiltzean, ezberdintasun minimoak izango direnak (<hau> esatean, <h> ahoskatzen dutenak eta ahoskatzen ez dutenak; <agian> esatean, <ia> silaba bakarrean ahoskatzeko erritmoan hitz egiten dutenak eta hitz hori hiru silabatan neuritzen dutenak; <garaje> esatean, <j> belarra egiten dutenak egungo gaztelaniaz bezala eta egungo frantsesaren erara egiten dutenak). Aniztasun hori gaindiezina da hizketa berri bat asmatzen ez bada behintzat eta ez da euskara berri bat asmatu nahi, duguna erabilera zaindurako baliabidez jantzi baizik.

Ahoskera arauak euskalki- edo hiztegi-eremuaren arabera gutxieneko aldakortasuna islatzen du. Ahoskera zaindurako artamenduetan aukera bat baino gehiago daudenean, aukera horiek adierazten dira ².

¹ Adibideetan hitzen forma ortografikoa letra etzanean agertzen dena da: *jateko* yateko. Bigarren formak ahoskera adierazten du. Batuaren ortografian ez dauden ikur batzuk erabili behar izan dira ahoskera islatzeko: <ç>: sabaiaurreko ahostuna (Lekeitioko *ogiça* azken kontsonante hori); <y>: <j> letraren ahoskera sabaikaria adierazteko gardentasunaren izenean eta askotan egiten den <j>-<x> belarrarekiko loturaren haustea grafikoki nabarmentzeko; <x> igurzkari belarra da (gazt. *jamón* hitzaren lehen kontsonantea).

² Arauen zenbaki erromatarren ondoan zenbaki arabiarak ematen dira, ulertetasunagatik araua zatitu denean (esate baterako, III. eta III.a).

2. Bada hizkuntzaren bizi-iturri den aniztasunaren beste alderdi garrantzitsu bat: hiztun bakoitzaren gertatzen dena. Hizkuntzaren funtsezko ezaugarri da, izan ere, hizketa gertatzen den egoerara, gai duen edukiari, entzulearen ezaugarriari, hizketa-lagunen arteko distantziari eta abarri egokitzea. Horregatik, hizketa egokia hizketa malgua da: ahoskerari dagokionez oso garrantzitsu da (eta erabat beharrezko EBAZak euskara aberastuko badu) ongi ulertzea euskaraz ere, beste edozein hizkuntza osotan bezala, ez dela berdin ahoskatu behar testu akademiko baten jendaurreko irakurketan eta adiskide edo senideekiko elkarriketan, berrien mikrofono aurreko aurkezpenen eta ama eta haurren arteko elkarriketan. EBAZen lekua lehenengo erabilera horietan dago ez bigarrenetan.

Horrela, hizkuntza baten ahoskera behar bezala ezagutzea esaldi beraren ahoskera bat baino gehiago ezagutzea da. Esaldiak formaltasun mailari egokitzeko gaitasuna guztion esku egon dadin, beharrezko dirudi erabilera zaindurako araukin batera, gainerako mailetarako proposamenak ere ematea³. Oso da aintzat hartzekoa asko direla gure artean hizkuntza etxean ikasi edo ikasten ez dutenak eta, horretaz gainera, hizkuntza maila formal gehienetan lehen aldiz ari gairela erabiltzen gure belaunaldietan.

Aniztasuna, dena den, ez da kaosa eta hizkera zainduenetatik arduragabeagoetarakinoko mailak gauzak nahasi gabe egin behar dira. Horregatik arauetan ematen diren adibideak lekuan-lekuko edo norberaren sistemaren arabera hartu behar dira. Esaterako, ahoskera zainduko *etxea etxea*, erabilera arduragabeagoan *etxia* izango da *ea > ia* ordezkatzeari egiten den euskara batean, bokal bilkura horretan ordezkatzetik egiten ez den euskararen *etxea etxea* izango da hizkera maila guztietan. Era berean *mila mila* eta *maila mila* esaten duen baztandarraren ahoskera bere horretan uzten du VII. Arauak.

Beraz, ahoskera malgua eta askotarikoa dela esatean ez da esan nahi edozein nahaste egokitzen ematen dela. Hizkera zainduenetik (EBAZrako arauak erabiltzen dituenetik) informalagoetarakinoko mailaketa euskalkietan barrena egingo da. Adibidez, II.b Arauak ez dio inori baimenik ematen batzuetan *ogixa*, beste batzuetan *ogiya* nahasirik hitz egiteko hizketa arduragabearen aitzakian.

* * *

ARAUAK

Bokalak

I. <a, e, i, o, u> Idatzi bezala ahoskatu: [a, e, i, o, u]; sei bokaleko sistema duten Iparraldeko euskaretan <u>-ren ahoskera biak onartzen dira ([u] eta [ü]) hala eskatzen duten hitzetan eta baita ere euskalkiaren erabilera zainduan.

Bokal bilkurak

II. Bokalak bokalen ondoan daudenean ere idatzi bezala ahoskatuko dira hizkera maila zainduetan: *etxea etxea*, *geroago geroago*, *mendia mendia*, *burua burua*.

Gainera aintzat hartu behar da:

II.a. <ea, oa> idazten direnen bestelako ahoskerak egoki eta zuzen direla gainerako hizkera mailetan (hala nola: *etxia*, *etxie*; *geruago*, *telefonua* eta kidekoak).

II.b. <ia, ua> idazten direnen bestelako ahoskerak egoki eta zuzen direla gainerako hizkera mailetan (hala nola, zerbait tartekatuz: *mendiya*, *mendixa*, *mendiza*; *buruba* eta kidekoak edo, bigarren bokala aldatuz edo kenduz: *mendie*, *mendi*; *burue*, *buru* eta kidekoak).

III.1. Bokal bi elkarren segidan daudenean, lehenengoa <i> edo <u> bada, bokal bilkura bi silabatan ahoskatuko da (hala nola: *abi.an*, *sozi.ala*, *zi.ur*). Dena den, badira hitz batzuetan *ui* diptongoak.

III.2. Bokal bilkura hauek silaba bakarrean (diptongoan) ahoskatzen dituzten Ekialde eta Iparraldeko euskalkietako hitzunean hizkera zaindutat hartuko da ahoskera hori.

IV. Bokal biren artean <h> idazten denean, <h> ahoskatzen ez den euskalkietako hitzunean ere bokal bakoitza silaba batean ahoskatuzera joko dute hizkera maila zainduan (hala nola: *za.harra*; *na.hi* du; *bi.hurturik*; *a.hula*; *be.hi*).

³ Arauaren zenbakia irakurketa gehitu zaizkio, ulerterraztasunagatik araua zatitu denean (II.a eta II.b).

Kontsonanteak

V. Idatzi bezala ahoskatuko dira hizkera maila zainduan

<b, d, f, g, k, l, ll, m, n, ñ, p, r, rr, s, t, ts, tx, z>

Beraz:

1. <g> <e> eta <i> bokalen aurrean beste bokalen aurrean bezalaxe ahoskatu behar da ahoskera zainduan behintzat (hala nola *geologia*). Azken orduko maileguetan, salbuespenak banan-bana markatuko dira. Esaterako, dagoeneko onartua dugun *gin* (edaria).

2. <s, z> eta <ts, tz> Hizkera zainduenatarako pare hauek bereiztea hobetsiko da. Bestalde <z> euskaraz beti (eta areago hizkera zainduetan) zistukaria da eta gaitzetsi egin behar da gaztelaniazko ahoskera hortzartekoa (gaztelarazko *zapato* hitzaren lehen kontsonantea, alegia). Beraz, *eskizofrenia* hitzaren lehen eta hirugarren kontsonanteak zistukariak dira (bata apikaria eta bestea bizkarkaria); halaber *soziologia* hitzaren lehena eta bigarrena.

3. <b, d, g, r> bokalarlean gertatzen direnean, hurrenkera honetan handiagotzen den oparotasunaz desagere do alda daitezke hizketa arduragabeen (hala nola: *ari naiz* ai naiz, *horiek* (h)oiak, *egon* eon, *edan* ean, *eran*, *etab.*). Ahoskera horiek erabat egoki eta bidezko dira gainerako hizkera mailetan, baina hizkera zainduan bokalarleko kontsonanteak ahoskatu egin behar dira.

4. <r, rr> euskaraz beti (eta areago hizkera zainduetan) hortzobikari dira eta gaitzetsi egin behar da frantsesezko ahoskera ubularra (frantsesezko *rue* hitzaren lehen kontsonantea, alegia).

VI. <h> Letra hau hostuna den Iparraldeko euskalkietako hitzunez idatzi bezala ahoskatuko dute hizkera zainduan. Letra hoskabea den Hegoaldeko euskalkietako hitzunen ahoskera zainduan ere <h> ez da ahoskatuko. Letra horren mututasunaren salbuespen bakarra Hegoaldekoen ahoskeran *zihoan*, *zihoazen* bezalakoetan gertatzen da, hor <h> [x] belarraz ahoskatzen delarik (gaztelaniazko *jamón* hitzaren lehen kontsonanteaz, alegia).

<h>az esanak berdin balio du <ph, th, kh> ahoskeretarako: erabat egoki da ebakera hasperenduna halakoa duten Iparraldeko euskalkietako hitzunen (hala nola *eperra* epherra eta kidekoak).

VII. <il, in> letra bilkura hauek <(i)ll> eta <(i)ñ> (hala nola: *mila* *milla* edo *mailua* *mallua*, *bina* *biña* edo *baino* *baño*) ahoskatzen diren euskalkietako hitzunen bustikuntza hori ahoskera zainduan ere egoki da (ahoskera zaindua <ll> —*milla*— da eta ez <y> —*miya*—). Bustikuntza hori ez duten euskalkietako hitzunen, noski, bustidurarik gabea izango da ahoskera zaindua ere (hala nola: *mila* *mila* edo *mailua* *mailua*, *bina* *bina* edo *baino* *baino*).

VIII. <j> letraren euskarazko ahoskera oinarritzkoa <y> da eta hori da hizkera zaindurako hobesten den ahoskera oro har. Halaz ere eta beraz:

VIII.1. <j> hitz hasieran <y> ahoskatuko da (hala nola *jateko* yateko, *jokalariak* yokalariak).

Badira [x] belarraz ere ahoska daitezkeen hitzak. Hitz horietako batzuk hizkera maila zainduetan gertakortasun urrikoak dira, beste batzuk (*Heg.* marka daramatenak) Hegoaldean erabiltzen dira (hala nola *jertse*, *jipoi*, *jira*).

VIII.2. <j> hitz barruan gertatzen denean, <y> izango litzateke ahoskera zainduena. Hala ere, gaurko egoera kontuan izanik, Hegoaldeko [x] belarra (gazt. *jamón*) eta Iparraldeko <ç> sabaiaurrekoa ere (fr. *jambon*) onartzen dira hizkera zainduan *garaje*, *ijito* bezalako hitzetan.

IX.1. <x> Ahoskera sabaikaria du lehengo euskal hitzetan: *xagu*, *xoxo*, *Xabier*.

IX.2. <x> Maileguetan bokalarleko <ks> ahoskatzea hobesten da hizkera zainduan (hala nola: *se-xua* seksua, *taxian* taksian, *faxe*z faksez). Hitz amaieran oso gutxitan agertzen da eta hitz bereziak dira. Horietan ere [ks] ahoskera egin daiteke.

Kontsonante bilkurak

X. <zb, zd, zg> Ahoskera zaindurako ere ez adberbioaren ondoren ondorengo <d> kontsonantea (aditz formen hasieran agertuko dena) ahoskabe ebaki behar da (hala nola *ez da: ezta*). Ez adberbioaren ondorengo <b, g> kontsonanteak ere ahoskabe ebakitzea hobesten da (hala nola: *ez gara: ezkara*; *ez bada*:

ezpada). Hortik kanpo ere <z> eta <b, d, g> ahoskeran biltzen diren guztietan ahoskabetzea onargarria da hizkera maila zainduan ere.

XI. <zz> Ahoskera zaindurako ere *ez* adberbioaren azkeneko <z> kontsonantea eta ondorengo <z> (aditz formen hasieran agertuko dena) batera ebaki behar dira afrikatua osatuz (hala nola: *ez zara: etzara; ez zetozela: etzetozela; ez zenion: etzenion; ez zuen: etzuen*).

XII. <nz, lz, rz> eta <ns, ls, rs> Letra bilkura horietako zistukaria (<z, s>) afrikatu (<tz, ts>) egin ohi da euskaraz (hala nola unibertsitate, Frantzia, faltsua). Hitz mugan ere ordezkatzeko hori egiten den euskaretan afrikatzea onartzen da ahoskera zainduan (hala nola *esan zuen: esantzuen; eman zion: eman-tzion*).

XIII. <zn, zl, zh> Ahoskera zaindurako ere *ez* adberbioaren ondoren <n, l, h> kontsonantez hasitako aditz formak agertzen direnean, euskara batzuetan <z> ez da ahoskatzen. Ahoskera zaindutat hartuko da horrelakoetan <z> ahoskatzea eta baita ez ahoskatzea ere (alegia, *ez naiz: eznaiz edo enaiz; ez luke: ezluke edo eluke; ez haiz: ezaiz edo ehaiz*).

(Euskaltzaindiak, Donostia, 1998ko ekainaren 26an onartua)

Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena (*Ahoskerak axola du*) (2015)¹

Informe de la comisión de Fonética de Euskaltzaindia
(La pronunciación importa) (2015)

Rapport de la commission de Phonétique
d'Euskaltzaindia (La prononciation est importante)
(2015)

Report by the Pronunciation committee of
Euskaltzaindia (Pronunciation is important) (2015)

OÑEDERRA, Miren Lourdes
UPV/EHU (Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila)
eta Euskaltzaindiko ahoskera batzordeburua

ELORDUI, Agurtzane
UPV/EHU (Euskal Hizkuntza eta Komunikazio Saila)

EPELDE, Irantzu
IKER UMR-5478 (Baiona)

ETXEBERRIA, Pilartxo
UPV/EHU (Euskal Hizkuntza eta Komunikazio Saila)

JAUREGI, Oroitz
UPV/EHU (Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila)

SALABERRIA, Jasone
IKER UMR-5478 (Baiona)

¹ Artikulu hau *Euskera* agerkariko 2015, 60, 2 zenbakian argitaratu zen lehenbiziko aldiz. Agerkariko arduradunei eta jardunaldiko antolatzaileei egokia iruditu zaie zenbaki honetan txertatzea.

Euskara Batuak ibilbide luzea egin zuen ahoskera arautu gabe; 1998an argitaratu zituen Euskaltzaindiak Euskara Batuaaren Ahoskera Zaindurako arauak. Ahoskera Batzordeak lan honetan proposatzen du ahoskeraren bidez eredu batu zaindua euskalkiekin lotzea, euskarak erabilera oso eta normalerako behar dituen hizkera-maila guztiak gara ditzan. Ahalegin horretan arreta berezia jarri behar da hizkera formal batuenetik lagunarteko euskara desberdinetarainoko bideak zaintzean (edo, ez badaude, eraikitzean).

Hitz-gakoak: Ahoskera, estandartzea, hizkera-mailak, euskalkiak, prosodia.

El euskera unificado realizó un largo viaje sin normativizar la pronunciación; Euskaltzaindia publicó en 1998 las normas para la Pronunciación Reglada del Euskera Unificado. La comisión de Pronunciación propone en este trabajo y por medio de la pronunciación en sí, unir el modelo formal con los dialectos, para que el euskera desarrolle todos los registros necesarios para un uso amplio y normalizado. En ese esfuerzo hay que poner especial atención en cuidar atentamente los canales entre la lengua formal unificada y los diferentes registros del euskera utilizado coloquialmente (y si no los hubiere, en construirlos).

Palabras clave: Pronunciación, niveles de habla, estandarización, dialectos, prosodia.

Le Basque Unifié a parcouru un long chemin avant que la prononciation ne soit normalisée ; en 1998 Euskaltzaindia a publié des normes de prononciation du Basque Unifié. La commission de Prononciation propose dans cet ouvrage, par l'intermédiaire de la prononciation, d'unir le modèle formel aux dialectes, pour que la langue basque développe tous les registres nécessaires à un usage large et normalisé. Dans cette démarche il convient de veiller attentivement aux canaux qui existent entre la langue formelle unifiée et les différents registres de la langue basque utilisée familièrement (et s'ils n'existent pas il faut les créer).

Mots-clés : Prononciation, niveaux de langue, standardisation, dialectes, prosodie.

Standard Basque was developed for a long time without regulating pronunciation, but in 1998 the Royal Academy of the Basque Language (Euskaltzaindia) published its rules for Careful Pronunciation of Standard Basque. The Pronunciation Committee proposes linking careful standard Basque with the dialects through pronunciation, so that Basque can develop all the necessary registers for complete and normal use. In the context of that effort special attention needs to be paid to preserving the connections between formal standard Basque and the various registers used colloquially (or, where they are lacking, to developing them).

Keywords: Pronunciation, standardization, registers, dialects, prosody.

1. Euskara Batuaren historiaren inguruan

Hirurogeiko hamarkadaren hasieran, industriaren gorakadarekin besteak beste, aldakuntza giro handia sortu zen Euskal Herrian: immigrazioa hastearekin batera, politika eta kultura arloko mugimendu eta ekinbide berriak sortu ziren, horietatik bat aipatzeko, gau eskolak eta ikastolak jaiotzea, hauek zuten testu premia gorriarekin. Horrez gain, idazleek, kazetariak, kantariak, bertsolariak eta bestek ahalik eta jende multzorik zabalenera iristeko nahia zuten, euskara gizarte hiritarrean txertatzeko eta kultura esparruetan hedatzeko. Euskal Herriari nazio estatusa eman nahia indartzeak ere eragin handia izan bide zuen.

Aldakuntza giro honetan batuaren aitzindari izan zirenen artean, bi izen behintzat nahitaez aipatu beharrekoak dira: Aresti eta Txillardeggi. Lehen, 1960ko *Maldan behera* poeman artean sortzeko eta arautzeko zegoen euskara batu-antzekoa erabili zuelako; bigarrena, berriz, Baionan 1964an egin zen biltzarrerako proposamen zehatzak biltzen zituen txostena apailatu zuelako. Bi izenokin batera, Luis Villasante eta Koldo Mitxelena izango dira, ziurrenik, euskara batuaren lehen urrats haietan pisu handiena izan zuten euskalariak. Euskaltzaindiak bere jaiotzaren berrogeita hamargarren urteurrenaren kariatara egin beharreko ospakizunetarako euskara batuaren batasuna finkatzeko txostena egin zezan agindu zion Mitxelenari, eta honek bere gain hartu zuen halako ardura eta erantzukizun handia. Mitxelenak 1968an Arantzazun izan zen batzarrerako prestatu zuen lanak bost atal zituen: ortografia, euskal hitz eta aldaera lexiko zaharrak, hitz berriak, morfologia eta sintaxia.

Arantzazuko 1968ko batzarraren ondotik, ortografia alorreko erabakiak etorri ziren 1971n, aditz laguntzailearen ingurukoak bi urte geroago, eta aditz trinkoari buruzkoak 1977an. Hurrengo urtean, 1978an, Arantzazun hartutako erabakiak betetzen ziren edo ez ikusteko hamar urteko epea bukatzen zela eta, beste biltzar bat egin zen Bergaran, eta euskara batua idazle eta irakasle gehienek onartua zutela ikusi zen. Zenbait urte geroago, 1994an Leioan egindako batzarrean, *Arauk* izeneko bilduma sortzea erabaki zen, Euskaltzaindiak hartutako erabakiak bildu eta jendarteratzeko. Garaitsu hartan (1994an lehenengo, 1998an biribilduta) etorri zen, lehenengo aldiz, ahoskeraren inguruko EBAZ (Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua) araua.

Batuaren sorreraren garaiak desberdin ziren oso oraingoarekin konparatuta. Arestian aipatu bezala, beharra handiagoa zen, gizartearen gogoia ere oraingoa baino sutsuago euskara zaintzearen aldekoa. Ahoskera estandarizatzeko garaiak, beraz, hotzago harrapatu gintuen salbuespenak salbuespen, eta, gainera, ahoskera berez da galtzaile hizkuntzaren beste atalen ondoan. Gramatika eta hiztegia idatziz ere adieraz daitezke, eta sarri balidurike idatzia dela horien gauzatze nagusia, nahiz uste ustela den hori. Ahoskera, bestalde, idatziz mozorrotzeko aukerarik ez dago, eta gauza ezaguna da jende ikasiak (arauemaileak barne) idatziari eman izan diola lehentasuna. Hori dela eta, Milroy eta Milroy-ri hitzak ostuta (2012: 55), ahozkoa egintzat eman ohi da.

Ahoskera ez da normalki irakasleen ebaluazio eta prestakuntza-curriculumean agertzen (Rindal: 2014). Irakaskuntzan, oro har, ez zaio leku handirik ematen ahoskerari. Irakasleek ez dute horretarako heziketarik izaten; oro har, ahoskera hizkuntzaren gainerako atalak baino kontrolagaitzagoa gertatzen zaie. Ikasleentzat, baina, berebiziko garrantzia du, oso inportantea delako bere hiztun-ziurtasunerako. Ahoskera da, hain zuzen, hiztun baten hizkuntz gaitasunaz hartzen den lehen inpresioa.

1968ko txostenean, berariaz nabarmendu zuen Euskaltzaindiak (1968: 203) estandartzea literatura euskarari buruz egina zela, eta honen arrakasta edo porrota irakasleen eta idazleen esku geldituko zela:

Ezin-bestekoa, il-edo-bizikoa, dela uste dugu euskera batasun-bidean jartzea. Haur eta gazteei euskeraz irakasten baldin bazaie, eta euskeraz irakatsi behar euskera biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea. Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta, euskera, idatziaren barrutian, irakaste-lanean dugu beharrenik batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura «ederrean» baino areago.

Euskaltzaindiak 1993 bitartean ez zuen ahoskera, gai zentral moduan, langai izan. Urte horretan, hizkuntzalari talde bat lanean jarra-raziz zuen, lehenengo aldiz, gaiaren inguruan. Lehen txostenaren idatzaldi bat 1994an aurkeztu zen (Oñederra 1994a, b), eta, ondotik,

hizkuntzalariz eta irakaslez osatutako talde batek lanean jarraitu zuen, 1996 eta 1998 bitartean. 1998 bukaera aldera argitaratu zen, azkenik, *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua*. Geroztik, ahoskeraren arautze lanari dagokionez, eten bat gertatu zen, 2013. urtea bitarte (lehenengo haren 20 urtera). Urte horretan, Ahoskera batzorde berri bat sortu zuen Euskaltzaindiak.

Batu idatzirako arauak kaleratu zirenetik ahozkorako ezer azaldu arte, denbora tarte luzea izan zen (1968-1998). Urte horietan ez zen idatzi baka-rrik, gehienak behintzat hizketan aritu ziren batez ere, ahal izan zuten be-zaia, ahal bezain ongi beteaz hizkera batuari zegokiona, batua bera noiz edo nork egin behar zuen inork argitu ez bazuen ere (cf. Euskaltzaindia: 2004). Oro har eta ahozkoari zegokiola, erabiltzailea umezurtz zegoen euskara be-riaren forma idatziaren aurrean.

1998ko araua atera zen, indar handirik gabe, edo guztien ulermenik gabe behintzat, gero eta ozenago baitira arau estuagoak eskatzen dituz-ten ahotsak. Horren aurrean, batzorde honen ustez honakoa genuke erronka: 1998koa komunikazioaren aldetik garatu eta praktikara erama-teko moldeak bilatu, araugintza irakaskuntzaren praktikarekin lotuz besteak beste.

Orain, (ahoskeraren arautzearen XXI. mendeko aro honetan) dagokigu euskara batua euskalkiekin bateratzea, ez aldamenean edo gainean gera-tzea. Hori gertatuko da (ari da gertatzen) gauzak bere horretan utzita: batua ahal den bezala «irakurri» eta etxekoa (dutenek) atera bezala egin, ongi iruditzen zaionean bakoitzari. Ez da gauza erraza bateratze hori bera-riaz egitea. Ezinezkoa ere gertatuko da, elkar hartzen ez badugu estandar-tze bilakabideko eragile guztiok: arauemaile, irakasle, ikasle, esatari eta gainerako hizlariak. Denok izan behar dugu garbi (a) ahoskera estandar-tzeak neurri batean euskalkiak bateratzea dakarrela, baina (b) ahozkoaren aldagarritasuna idatziarena baino askoz handiagoa dela eta ahozko estan-darrak bat baino gehiago izango direla: euskalki koloreak izango dituela batuaren ahoskerak. Hau dagoeneko gertatzen da gehiago edo gutxiago, modu ez-erregularrean, bat-batekoan, egoeraren, hiztunen eta bestelako faktoreen arabera.

2. Ahoskera estandartzearen beharrik?

2.1. Estandarra

Ahoskera estandartzeaz ari garenean, aldaera estandartzat zer hartzen dugun argitzea komeni da; *estandarra* terminoak, berez nahikoa termino lausoa edo labainkorra dena (Couplan & Kristiansen 2011: 11), adiera desberdinak hartu baititu euskararen kasuan ere.²

Auer-ek (2005: 8) jasotzen du estandarraren funtzionaltasuna: (1) eremu zabal baten hizkera komuna da (eremu horren barruan aldaera geografikoak ere hartzen dituena), (2) eskolan irakatsitako eta eremu publikoetan erabiltzeko aldaera funtzionala da, bereziki idatzirako eta testuinguru formaletan erabiltzekoa, (3) aldaera kodetua da, betiere kodetze-lan instituzional bat ez badago ere. Auer-ek bildutako ezaugarriok maila handiagoan edo txikiagoan betetzen dira hizkuntzetan zehar: estandartasuna, beraz, mailakatu daitekeen nozio soziolinguistikoa dela esan daiteke (Auer & Spiekerman 2011: 164).

Gradualtasun hori ondo lotzen da, Roeland van Hout (2014) hizkuntzariak eskaintzen digun estandarraren ikuspegiarekin. Bere hitzak itzuliaz: hizkuntza estandar prototipikoa bizia da (*vital*); alegia, elkarteko gehienek erabiltzen dute formaltasuna eta neutrotasuna dagokien egoera guztietan eta estandarra da erabili egiten den neurrian.

² Gaminde et al.ek (2014) euskara batua eta estandarra bereiztea proposatzen dute, eta haien lanean proposamenak egiteko orduan «euskara estandarraz» ari direla diote, euskara batuari buruzko proposamenak Euskaltzaindiari dagozkiola argudiatzen dutelarik. Guk, beriz, ez dugu uste euskara batuaren eta euskara estandarraren artean bereizkuntza ontologikorik dagoenik. Euskara batua eremu geografiko jakin bati ez dagokion aldaeratzat har daiteke gaur egun. Batua testuinguru zainduetan ez ezik, beste hainbat testuingurutan ere jazo daiteke (familiar, lagunartean, etab.) eta testuinguru horietan guztietan erabiltzeko erregistroak garatzen ari da (lagunartekoa barne). Baina hori batuaren (edo estandarraren) garapen soziolinguistikoa da. Edozein estandar, erabilia den neurrian, aldatuz joango da diakronikoki bai ardatz geografikoan, bai ardatz estilistikoan. *Batua* da, beraz, hemen estandarrari eman zaion izena.

Aurreko atalean esan bezala, estandarraren erabilera ez da idatzia bakarrik: oso maiz aldaera estandar hori ahoskatu egin behar da. Testuinguru horretan kokatu behar dira EBAZ arauak eta hemendik aurrerako estandar-tzearen inguruko gure lana. Ahozko estandarraren ezaugarritze honetan garrantzitsu iruditzen zaigu hurrengo bi ideietatik abiatzea:

- a) Estandarrak ez du zertan bat eta bakarra izan. Estandarren uniformetasunaren auziak eztabaida oparoa izan du soziolinguistikan. Milroy & Milroyk (2012 [1985]) aldagaiztat hartzen dute estandarra eta erabateko uniformetasun hori kritikatzeko du Milroyk (2006: 133) ere, «estandarraren ideologia» salatzen duenean. Beste soziolinguista batzuek, berriz, estandarren kontzeptu malgu defendatzen dute eta azpiestandar geografiko (Grondelaers & van Hout 2011) zein funtzionalak (Auer 2005, 2011) bereiz daitezkeela diote. Gure proposamenak bigarren ikusmolde horrekin egiten du bat. Euskarari buruzko lanetan ere, bereziki aintzat hartzen ditugu batuari izaera aldakorra aitortzen diotenak, ardatz geografiko (Zuazo 2000, 2005; Camino 2005) zein funtzionalean (Elordui & Zabala 2009).
- b) Estandarraren kontzeptualizazioan bereziki saihestu behar dugu Milroy & Milroy-k (2012 [1985]) estandarren ideologiaren gehiegikerien artean ematen dutena: estandarra garbia, zuzena (edo aukera zuzen bakarra) izatearekin lotzea; euskararen kasuan sarritan «jatorra» izan ohi da aipatzen dena. Ona da euskara batuak prestigioa izatea eta nahi genuke ahozkoa ere prestigidun gertatzea, baina euskararen gainerako aldaera geografiko eta funtzionalei prestigiorik kendu gabe. Estandar/ez-estandarren inguruko gizarte-ebaluazioaz diharduten hainbat ikerlarirekin (besteak beste, Coupland 2009; Kristiansen 2009; Kristiansen & Coupland 2011) bat egiten dugu soziolinguistika barietazionistak «estandarra»ren eta «prestigio»aren artean sortu duen lotura kaltegarri eta sinplista kritikatzeko dutenean.

Autore horiek agerian utzi dute prestigioaren auzian beste aldagai ideologiko asko hartu behar ditugula gaur egun aintzat: besteak beste *dinamiktasuna* (*dynamism*) aldarrikatzen du Kristiansen-ek (2009) bereziki kontuan hartzeko parametroen artean. Soziologiaren alorrean Modernitate Beran-

tiarra («Late Modernity»: Giddens 1991) deitu den honetan aldaera ez-estandarrek bereganatu dute *dinamikotasunarekin* loturiko prestigio hori. Europa mailako hainbat hizkuntzaren inguruko azterketek (ik., bereziki, Kristiansen & Coupland 2011) agerian uzten dute guneanitzeko unibertso ideologiko bat dugula egun estandarren eta ez-estandarren gizarte-ebalua-zioan eta, erabilera-eremuaren eta funtzioaren arabera, estandarrak ala dia-lektoek hartzen dute prestigio-mailan lehentasuna. Antzeko ondorioetara eramaten gaituzte euskara batuarekiko eta euskalkiekiko jararren inguruan egin diren ikerketek ere (Amorrortu 2012; Bereziartua 2014; Lantto 2015).

2.2. Zenbateraino behar da ahoskeraren estandartzea?

Lehenengo galdera da euskarak ahozkoan aldaera formalik behar duen. Euskaltzaindiak 1993an abiatu zuen ibilbideak galdera horri baiezkoka *de facto* eman ziolakoan, horren ahoskera (ahoskera *zaindua*³) egokia nolakoa izango zen aztertu behar izan zen.

Baten bati bestela irudituko balitzaio ere, beste hizkuntzetako ahoskeren berariazko estandartzeak gertatu dira, baita akademiarik ez duten hizkuntzetan ere. Halako egitekoa bete zuten ingelesezko ahoskera-hiztegiek (Buchanan, 1757; Sheridan, 1780, 1791, apud Tieken-Boon van Ostade 2012: 41): «get rid of accent» («libra zaitez azentutik») aholkua ematen omen zuten. Inguruko Akademiak ere gurea baino askoz lehenagokoak dira eta horregatik irudi lezake gauzak libreago direla (Italierarena 1582, Frantsesarena 1635, Espainolarena 1713, Suedierarena 1786).

Beste inolako hizkuntzen menpe ez dauden hizkuntza horiek errazago bizi litezke estandartze gabe, ahoskeraren estandartze gabe bederen (ikus honen

³ Mitxelaren proposamena da *zaindu* terminoa. Labur esanda ahoskera zaindua litzateke hizkera formal edo jasoari legokiokiena, hain zuzen ere hizkera horretan hiztunak arreta ematen diolako (beti bezala) edukiari, baina halaber eduki hori adierazten duen forma fonetikoa zaindu egiten du (gainerako hizkera mailetan ez bezala; hortik gainerako horiek -formari dagokionez- *arduragabetzat* hartu ahal izatea).

azpiko (c) paragrafoa). Haatik, uste dugu euskarak ahoskeraren berariazko estandartzea behar duela. Hona behar horren zenbait eragile:

- a) Euskal aldaera guztietako hiztunek orain hedabide komunak dituzte. Komunikabideen presentzia gero eta handiago da, produkzio libre gero eta ugariagoarekin. Informazio teknologia berriei esker esatari profesionalek ez ezik, medioetako erabiltzaile-sortzaile arruntak ere, ahozko estandar baten beharra du: buruan ditugu testuinguru akademikoetan euskal neska-mutilek egunero sortzen dituzten *booktraile-rrak* eta eskolarako bideoak, esaterako.
- b) Gainera, unibertsitatean eta administrazioan erabiltzen denez, esparru horietako erabilera zenbaiterako behintzat egokiagoa dirudi, lekuan lekuko euskalkia baino, estandarrak dakarren hizkera neutro eta formalagoa.
- c) Euskara hizkuntza gutxitua izateak areagotu egiten du ahoskera arautzearen beharra. Hizkuntza osasuntsu indartsu batek berez (Milroy 1994: 21) gara dezake aldagarritasun funtzionala (hizkera desberdinak, egiteko desberdinetarako), baina euskarari mende luzeetan zehar beste hizkuntza batzuek bete diote estandarrari legokiokkeen eremua. Ez zegoen, beraz, ohitura kolektibo bateraturik, ez dago hizkera zaindurako eredu sendorik, ezta euskalkietan ere.⁴
- d) Bi hizkuntzaren menpean da, gainera, hizkuntza gutxitu: horrek ere arautze batuaren beharra azpimarratzen du, joera exonormatiboak euskararen zatiketa indartzen duelako. Ezin ahaztu dugu, gainera, frantsesa eta gaztelania araututa daudela. Alegia, estandarturik daude bai kodetzearen aldetik, bai aldaeren banaketa funtzionalaren antolaketaren aldetik (frantsesa gaztelania baino areago).
- e) Hiztunen elebitasuna. Ez dago honezkero hiztun elebakarrik. Bestela esan, hiztun bakar bat ez dago beste hizkuntza baten eredu fonologikorik gabea (euskaraz-kanpoko beste eredu horren nagusitasun erlatiboa hiztunaren biografia linguistikoaren zenbait eragileren arabera-

⁴ Elizak erabilitako aldaera zenbait lirateke horri gehien hurbilduko litzaizkiokeenak.

koa delarik): zaindurako erreferentzia hizkuntzaren barrenetik ematearen garrantzia azpimarratzen du horrek.

- f) Bestalde, idatzian ere berriki estandartua da. Horrek indartu egiten du *spelling pronunciation* edo letren ahoskera deitzen denaren arriskua: hiztunentzat idatzia forma berria izanik, letrak berdintzea erabat fone-mekin. Ahoskera berri bat egokitzen zaio horrela hizkera berriari. Horretarako, nahigabe eta besterik ezean, erdarara jotzen da eredu foniko berri horren bila.⁵
- g) Aldagarritasun soziologiko eta estilistiko mugatua: euskaradunok gizarte txikia osatzen dugu, desberdintasun sozial mugatukoa. Bestela ere hizkuntzak ez du oraintsu arte estilo formalen beharrik izan (ik. goragoko c).

2.3. Oraingo egoera

1998az geroztik dugun EBAZ araua (ikus Euskaltzaindia 1998) ezagutzen duten hiztun gehienak erabiltzaile bereziak dira: irakasle, ikasle, esatariak. Bai kopuruaren aldetik, bai beren eraginkortasunagatik, talde garrantzitsua badira ere euskal hiztunen artean, esan liteke Batua-ren gainerako atalak baino ezezagunagoa dela ahoskerarena. «Atarikoak» atala eta aldagarritasunaz 1998ko arauetan agertzen diren iradokizun zatikakoak dira errazen ahaztu direnak (ikus 3.1.f). Horrekin lotu daiteke, EBAZ arauaren erabiler-a kaotiko samarraren barruan, ahoskera desberdinen egokitze estilistikoa izatea hutsik handiena. Arauak hiztun batzuek bakarrik betetzea ez da berez txarra (ikus 3.1.e); kezkarriena da erabileraren banaketa nolakoa den.

Oro har ez da ohikoa euskararen egokitze funtzionala: Batua (EBAZ arauak betez edo ez) edozein egoeratan erabiltzen dutenen beste muturrean agertzen zaizkigu batua, egoki litekeenean ere, erabiltzen ez duten hiztunak.

⁵ Hau aspaldi, Batua berria zenean gertatu bide zen; baina orduan sortutako aukera egonkortu eta eredu gisa sendotu dela esan daiteke. Frantsesak eragin txikiagoa izan dezake gaztelaniak baino, ortografia fonetikoagoa duelako bigarrenak. Halere azentu kontuetan eredu aldaketa nabarmena da bi kasuetan.

Azken mota honetakoak euskalkiren bat menperatzen duten euskaldun zaharrak izan ohi dira. Beren jokaeraren arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke. Batzuek ez dakite batua erabiltzen, beste batzuek ez dute nahi, edo ez dute egoera desberdinetan hizkera desberdina erabiltzeko beharrik sumatzen, ezta batua sendotzekoa ere. Bigarren azpitalde honetan nabarmen dira batuaren aldeko ahaleginak bizi izan ez zituzten gazteak, baina badira, euskalkien babesaren argudioaz, horren alde egiten duten intelektualak ere. Ziurrenik badu honek Europa osoan gertatzen ari den bernakularizazio prozesuarekin zerikusia (Coupland 2009; Coupland & Kristiansen 2011).⁶

Arau gehiago eskatzen duenik ere bada zenbait alorretan (Alberdi 2014: 12). Ahoskera batzordean ez dugu uste arau gehiago eman behar denik. Dagoena garatzea proposatzen dugu, zehaztuz, esplizitu eginaz agian ilun litekeena: arauen kodetzea landu behar litzateke, edo kodetze hori zer den garbi azaldu, betiere ahozkoaren aldagarritasunari behar duen lehentasuna emanez.

Oraingo EBAZ arauaren erabilera desberdin eta aldizka kaotikoa ez da behar bezala konponduko arauen ezagutza nola edo hala hedatuz, ezta gogorrago betearaziz edo arauak ugarituz eta zailduz. Ahoskera estandartuko badugu, oso aintzat hartu beharko ditugu idatziaren eta ahozkoaren arteko desberdintasun eta loturak, estandartzeak zer esan nahi duen eta hizketaren aldagarritasuna.

2.4. Zer da gure ustez ahoskera estandartzea

Hizkuntza gutxitua izanik, erabilera esparru nahikorik izan ez duelako, euskararen hizkera formalik ezak hizkera-mailen arteko egiturarik eza dakar. Horrek hizkuntzaren antolaketa estilistikorik eza esan nahi du. Alegia, ez da garatu hizkuntzaren historian zehar hizkuntza indartsuagoek izan du-

⁶ Euskararen kasuan ere zantzu argiak aurkitzen ditu Elorduik (2015). Kristiansen-ek joera nagusi biren inguruan hitz egiten digu Europako hizkuntzez diharduela: *desestandarizazioa* eta *demotizazio* prozesuak. Bietan estandarren eta dialektoen arteko banaketa ideologiko berriak aurkitzen ditu (Kristiansen 2009; Kristiansen and Coupland 2011: 27).

ten esparru soziolinguistiko mailakatua, ez behintzat gizarte osoan. Testuiguru horretan ulertu behar dira EBAZ arauen malgutasuna eta bide-aniztasuna: hizkuntzak historian zehar izan ez duen aldagarritasuna, neurri batean behintzat, berariaz antolatu beharreko zerbait da euskararen kasuan. Hizkuntzalariok badakigu hori ez dela erraza eta ezin dela erabat kanpotik programatu. Kontu handiz egin beharrekoa da eta ez genuke saiatu behar erabat lotzen (ez ontasunaren, ez jatortasunaren, ez beste ezeren izenean) hizkuntzaren berezko garapena izan behar lukeena.

Euskararen estandartzeak, leku guztietako hiztunentzako aldaera komun finkatzeaz gainera, eskatzen digu hizkuntzaren unibertso osoa egituratzea. Beraz, aldaera estandar abstraktuaz gainerako hizkerak ere presente egon behar dute estandartze-egitasmoan. Estilo zaindu eta arduragabeek, lekuko hizkerak, talde sozial ezberdinenek, gazteago eta zaharragoenak bakoitzak bere egitekoa izan behar du egitura egitasmo horretan:

[A] complete language has its formal and informal styles, its regional accents, and its class or occupational jargons, which do not destroy its unity so long as they are clearly diversified in function and show a reasonable degree of solidarity with one another. (Haugen 1966: 932)

Nolabait esan, euskararen ahoskera estandartzearen helburu litzateke hizkuntza normaltzea ahozko erabileran. Horretarako, unibertso osoa antolatu behar da, ez soilik estandararen ahoskera. Atalaren lehen paragrafoan aipatu EBAZ arauen malgutasuna eta bide-aniztasuna ardatz estilistikoan (*dittu/ditu*, *etxia/etxea*) eta dialektologikoan⁷ (*mina/miña*; *esan zun/esantzun*) gertatzen dira hurrenez hurren.

Aldagarritasuna berezkoa du ahozkoak, besteak beste alor dialektalean, eta ez du ahoskera bakarrik harrapatzen noski: *dan/den* bezalakoak elkarren segidan gerta daitezke, Batuan aritu nahi duenaren hizketan ere (eta *handi/*

⁷ Euskalkien artekoa ez da aldagarritasun sozio-fonologiko bakarra, noski. Gazte eta zaharren arteko desberdintasunak, euskaldun zahar eta berrien artekoak edo herritar klase desberdinen artekoak lirateke bete-betean aldagarritasun soziofonologikoaren erakusle, baina lan honetan arauen analisirako ez dira erabiltzen, nahiz zeharka eta tarteka aipatzen diren horietako batzuk lanaren beste leku batzuetan.

haundi, niretzat/neretzat, euskara/euskera, baina/baino, dut/det); baina ahoskera da dudarik gabe hitzunaren kontrolpetik errazen askatzen dena: *iruittuko zaizue, úrrengoako komponduko dewlè*, esaterako, egoera formal batean jasoak dira.

Batzordeak ez du euskalki guztietako hitzunentzako ahoskera bakarra proposatzen: hizkera estandarra erabili behar denerako gutxieneko gida bat baizik (*gida* eta *gutxieneko*, biak azpimarraturik). Ideia hori izan zen gaizki ulertu den EBAZaren funtsa. Ikuspuntu honetatik doinu eta azentuek behar dute libreen, horiek direlarik kontsonante eta bokalen ahoskeren baldintzatzaile neurri handi batean. Itzuliko gara berriz ere prosodia kontueta-ra 4. atalean.

Malgutasun estilistikoa ere aintzat hartu behar da. Batzordeak ez du edozein egoeratarako ahoskera bakarra proposatzen. Ondo daude *ditut* [ditut] eta *dittut* [dicut], *etxea* eta *etxia*... zein bere erabilera esparruan. Euskalkiekin bezala, mailen artean ere aldagarritasuna bizia da oso ahozkoan eta ez da ahoskera kontua bakarrik: *tagon/dagoen* bezalako desberdintasun morfolo-
gikoa segundo gutxiaren buruan egin zuen mikrofono aurrean hizlari batek. Izan ere hauxe da praktikan aldagarritasun ardatz zailena: hizkera-mailen berezko desberdintasun dinamikoaz eta irristakorraz gain, orain arteko euskararen aldagarritasun estilistiko murrizagatik.

Euskalkien eta estiloen aldagarritasun-ardatz bi horietan oinarrituta, hizkuntza ahulduaren normaltasunerako indartu behar litzatekeena lortzeko, dinamika horien alde jarri behar dute bai euskara txikitatik dakitenek, bai heldutan ikasi dutenek ere.

Taking care of the weakness of a threatened language should go hand in hand with giving way to its functionally necessary resources, such as an orderly varied pronunciation. (Milroy 1994:20)

Euskaldun zaharrek estandartzen ikasi beharko dute (alegia beren euskalkiko aukeretatik ateratzen eta batua erabiltzen hala dagokionean). Euskaldun berriek desestandartzen ikasi beharko dute (alegia ikasi duten euskara batua euskalkian urtzen gehiago edo gutxiago egokieraren arabera). Zehazki ahoskerari dagokionez, bokal arteko *r* jaten duenak etxeokokin (*ari* > *ai*), ohitu beharko du halakorik ez egiten eskolan aurkezpen bat egitean.

Idazten diren *r* guztiak ahoskatzen dituenak beti, ikasi beharko du bokalar-teko batzuk behintzat jaten tabernako elkarrizketetan. Mailak bereiz daitezke halakoetan: *r* bat ere ez jatetik (mikrofono aurrean, irakurtzean, etab.); agian ez hain estu, batzuk bakarrik isiltzera azentuaren eta arretaren edo ohituraren arabera (aurkezpen libreagoan); denak kentzeraino (etxeko sukaldean). Mailakatze zehatzaz ez genuke sobera arduratu behar, hori berez etorriko baita, malgutasunaren eta aldagarritasunaren norabidea behar bezala bereganatzen baditu erabiltzaileak.

2.5. Euskaldun berriak

Euskaldun berria oso termino zabala da, bere baitan errealitate oso plurala hartzen duena. Lan honetan, deitura hobeagorik ezean, termino hori erabiliko dugu euskara umetan (gutziz) bereganatu ez dutenak izendatzeko.

Euskara batua sortu zenean, are euskara ofizialdu zenean lurralde batzuetan, euskaldun berriak ugaritu ziren. Egun, oraingo belaunaldietan, euskaldun berriak asko dira: Hegoaldeko hiztunen erdia baino gehiago ziren 2011rako 16-24 adinekoen artean. 2013ko azken inkesta soziolinguistikoa-ren arabera, adin tarte horretako hiztunen artean % 52 ziren euskaldun berri Autonomia Erkidegoan, eta % 54 Nafarroan. Iparraldeko datuen arabera, % 38,6 ziren euskaldun berri adin tarte hori zuten hiztunen artean (Eusko Jaurilaritza 2013). Euskara Batua izan da horietako gehienek euskalkia.

Euskaldun berriekin batera, Euskara Batua hots bihurtzerakoan, ezjakintasunagatik edo bestela, beren jatorrizko euskalkia erabili ez zuten hiztunak ere asko izan ziren, eta dira. Halako hiztunen ahoskerak izan dira maiz Euskara Batuaren ahoskeratzat hartu direnak: horiek egituratu dute euskara batuaren fonologiatzat hartu ohi den eredua askotan. Beren euskalkia erabiltzen ez zutenen artean asko irakasle ziren edo dira lanbidez, guraso eta aiton-amona izateaz edo direnez gain. Beraz, eredu transmititzaile ere izan dira.

Irakaskuntzarekin jarraituz, gurearen moduko egoera soziolinguistikoe-tan, hizkuntza idatziaren estandartzea erlatiboki berria denean, hiztunek beraien hizkera egoera berrira moldatzeko idatzizkoa irakurtzea izan ohi da

ohikoena. Moldaketa horretan, euskalkiari edo dialektoari dagozkion bilakabide eta erregelak saihestu egiten dira nagusiki. Egun, irakasle askok idatzizkoa irakurriz jarraitzen dute, 1960. hamarkadan Euskara Batua sortu berri zenean lehenengo irakasleek egin zuten gisara.

Bereziki azpimarragarria da irakasleek duten garrantzia estandartze orekatua lortzeko bidean. Euskara bigarren hizkuntza duten ikasle gehienek ez dute harreman zuzenik izango euskalkien ahoskerarekin, irakasleek eskolan ezaugarri dialektalak saihestu egiten badituzte. Arazoa zaildu egiten zaigu gaurko hizkuntz irakasle asko euskaldun berriak direla kontuan hartzen baldin badugu.

Euskal ahoskeraren estandarizazio prozesuaren helburuetako bat hiztun guztiek aldakortasun estilistikorako bidea ezagut dezaten izanik, gai izan behar genuke ahoskera zaindurako arauak lagunarteko mailetan euskalkietako formekin nola harmonizatu irakasteko. Euskaldun berriek besteongandik, irakasleengandik gutxienez, ikasi behar lukete aldakortasuna. Euskaldun berriari, euskalkirik etxetik ez dakarrenari, ez litzaioke estandar zurrin maila-bakarreko bat eman behar soilik. Horrek lekarke euskaradun berria hiztun oso ez izatea, estilo bakarreko hiztuna bailitzateke. Eskolatik kanpo erabileran ondorio larriak etor litezke eta, ziurrenik, izan ditu honezkero euskararen kasuan (Soziolinguistika Klusterra 2012) komunikazio-egoeratarako egokitze estrategietan baliabide linguistiko eta estilistikorik gabe uzten baitu hiztuna (Giles et al. 1991).

Gainera, hiztunen arteko euskaldun berrien kopuru erlatiboak direnak izanik aldagarritasun disfuntzionalak sortzeko arrisku handia dago. Esan nahi baita, euskaldun berriek erregistro maila zaindua ikasten badute soilik beste aukeren berririk gabe, maila zaindu hori hizkuntzaren egokiera guzti-guztietarako erabiliko dutela, eta egoera horrek hizkuntzaren ahoskera unibertsoa desitxuratuko duela.⁸

Euskaldun berriei buruzkoa osatze aldera, aipatu behar da hizkuntzaren une historiko honetan, neurri batean edo bestean denok garela euskaldun

⁸ Gauza bera esan daiteke kontrako egoeraz ere, alegia maila zainduenetan ere etxeko hizkera erabiltzeaz.

berri hizkuntz erabilera esparruren batean, hizkuntza bera ari garelako erabiltzen lehen aldiz zenbait eduki adierazteko. Euskararen zenbait egoera, funtzio eta estilo aski berriak direnez, euskara ere berria da eremu horietan. Orain ari da sortzen egokiera berri horietarako hizkera. Hain zuzen ere, hizkuntzaren alor berri horiek dira ahoskera zaindua erabiltzeko aukera gehien dutenak: zientzia hizkera eta berau erabiltzeko egokierak, hala nola hitzaldiak, eskolak, eztabaida zientifikoak, eta abar. Esparru horiei dagokie, halaber, mailegu berri askoren erabilera, hizkuntzan ahoskera berritasunak sartzeko bide izan ohi dena, adibidez, *genoma* hitza, zein *semasiologia*.⁹

Gauzak horrela, ahoskera araupezeak euskaldun berriak kontuan hartzea ekarri du eta euskaldun berriek eta hizkuntzaren erabilera berriek ahoskera kontuan hartzea.

3. EBAZ arauak nola ulertu behar liratekeen

3.1. EBAZ arauen helburu eta irizpide orokorrak

- a) Euskara batuak hartutako bideari jarraiki, helburua ez da euskararen aldaera bat lehenestea besteak baztertzeko, ezta adituek asmatutako euskalkien gainetiko aldaera (aldiera supradialektal) artifizial bat proposatzea.
- b) Nahiz estandartze prozesu orok dakarren aldaeren gutxieneko murriztea ukazina izan, ahoskera estandarrak ez du aldakortasun geolinguistikoak sortutako aberastasun dialektala ordezkatu edo desagerrarazi behar. Helburua da euskarari erregistro formala eskatzen duten egoeretan baliabide funtzionalak eskaintzea. Nolabait esan, EBAZ Batuan idatzia (edo idatziko litzatekeena) ahoskatzeko da funtsean.

⁹ Garrantzitsua da ideia honen jabe izatea, izan ere, euskara batuaren ahoskera zaindua erabiltzeko egokierak ez dagozkio jende guztiari etengabe. Gauzak horrela kokatuta, alegia formen erabilera esparru mugatua eta markatua aintzat hartzen denean, kritika zein desadostasun asko baretu egiten dira.

- c) Ahoskera estandartzeko proposamenak hizkuntzaren batasuna du helburu: EBAZen zenbait arauk, hizkera desberdinen artean eta, baitik bat, Iparraldeko eta Hegoaldeko euskalkien artean gero eta handiagoa den haustura dialektala leuntzea dute xede nagusi eta (ahal balitz bidenabar) soziolinguistikoa.¹⁰
- d) Estandarrak malgua behar du: batuaren aukera linguistikoak hizkerekin lotu nahi dira aldagarritasun ardatz estilistiko eta soziologikoak (ikus 2.4) emankor izan daitezen euskaraz. Ez da ahoskera bakar bat bilatzen, bateratu bat baizik, erreferentzia gune bakarrekoa.
- e) EBAZek hiztun ororen *erreferentzia* izan behar du; hiztun batzuek erabiliko dute hizkera-maila jakin batzuetan bakarrik. Gainerako hiztun guztien ezagutza pasiboak bermatuko du aldaera zainduaren errealtatea eta sendotuko du hiztunengan euskalki desberdinekiko bateragarritasuna (lotura).
- f) EBAZ arauen bertuterik handienetakoa da esplizituki agertzen dela estandarraren erabilera zaindurako direla arauok. Arauok hizkera batuaren ahoskera zaindua eskatzen duten egokieretara mugatzeak nahitaezko egiten du aldagarritasun estilistikoa eta geografikoa aintzat hartzea arauak azaltzeko orduan, ahoskera zaindua hizkuntzaren egitura osoan txertatuko bada. Aldagarritasun hori arauen adierazpean agertzen diren iruzkin zenbaitek iradokitzen zuten. Batzuetan aldagarritasun dialektala islatzen da, hala nola III.1. mugatzen duen III.2. arauan, edo VIII.1. eta VIII.2. «j» letrari buruzkoetan. Hizkera-mailaren araberako aldagarritasunak ere badu bere lekua, esaterako, II.a eta II.b arauetan.¹¹ Egia da aldagarritasuna ez dela berdin adierazten arau guztietan eta batzuetan ez dela ezer esaten alde horretatik.

¹⁰ Nabarmen da mota honetakoa *j*-ren ahoskera palatala (y edo [j, j], palatal ez txetxekaria) artamendatzen duen VIII. araua. Gauza bera esan liteke *g*-ren ahoskera ahostuna gomendatzeaz.

¹¹ Ikus adierazpen osorako http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf (= Euskaltzaindia, 1998).

Ez da ulertu behar haatik aukera bakarra ematen denik, baldin eta hizkuntzak berez aldaera gehiago eskaintzen baditu.¹²

- g) Hitzunen muga fonemikoak aintzat hartzen dira, hizkera formala euskalkien benetako ezaugarri fonetikoen begirunetik abiatzen dela aintzat hartuz. Horregatik, euskalkien ahoskeraren hesiak ez bortxatzea zaindu da: hau da, ez zaio inori fonemarik gehituko ez debekatuko EBAZen izenean: /h/ duenak badu, ez duenak ez du; berdin /y/ edo «ü» rekin, definizioz delako *fonema* berariaz egin daitekeen hotsa. Harelere, onartu behar da gauzak ez direla erabat aseptiko, eta esandakoa inbentarioen arteko desberdintasun oso-oso zahar eta onartuei dago-kiela: arauk hobesten dutela euskalki hedatuenean fonema aurkako-tasunak egitea (funtsean txistukariak eta albokari bustia); gainera ez da onartzen /R/ (frantsesezko *Rome*), ezta /θ/ (gaztelaniazko *Zaragoza*) ere, nahiz horiek honezkero euskaradun askoren fonema inbentarioko unitateak izan, lehena Iparraldean, bigarrena Hegoaldean. Alegia oraindik bizirik dauden euskaren jatorrizko sistema fonemikoen alde egiten da. Horrek esan nahi du «z» edo /s/-rik ez duenak, «ll» /ʎ/-rik ez duenak, «tt» /c/-rik ez duenak, «rr»/r/-rik ez duenak ez duela /h/ ez duenaren tratua bera... Beste arrazoi batzuek medio, /ɜ/ txetxekari ahostuna ere lekuri gabe gelditzen da EBAZen (hedadura erlatiboki urrikoa delako /ɟ, j/ren ondoan «j» letraren ordain gisa adibidez) ez bada frantsesetikako maileguetan (adib., *gara[ɜ]a*). Beraz, batzuetan hautua erabat da «politikoa», alegia hizkeren arteko batasuna gainjartzen zaio irizpide fonologiko garbiari. Eransketa litzateke gomendagarri fonologiaren arabera hizkera zaindurako *-ia-* elkarketetan (*mendiya*, *mendixa*, etab.), baina euskalki desberdinetan eransketa-aren gauzatze fonetiko desberdinak gertatzen direnez eta, gainera, ez

¹² Arauen adierazmoldeen homogeneousutasunik eza bere ibilbide akademikoaren historiatic dator funtsean (1993-94 batzordetik 1997-98 Lantaldeta eta hortik Euskara Batua batzordera eta, azkenik Osokora). Sor litezkeen gaizki-ulertuak saihesteko Ahoskera lantaldearen errendapen txostena (Oñederra, 1998) EBAZ arauen osagarri gisa hartu behar litzateke. Egia da baina Euskaltzaindiak argitaratu zituen bezala argitaratu zituela eta egia da EBAZ arauak bakarrik direla erakunde osoarenak.

denez euskalki guztietan gertatzen, batasunaren izenean ez zen ahoskera hori gomendatu hizkera zaindurako.¹³

3.2. Estandarraren artifizialtasuna edo batasunak zenbat axola duen

Artifizialtasun kritiken aurrean gogoeta bat egin nahi genuke. Hautu linguistikoak (fonologikoak) badu osagai kulturala eta borondate politikoa, estandartzearen beraren inspirazio eta zio dena (1968koaren bidetik) eta arau banakoetan ere islatzen dena: euskalki eta hizkera desberdinen batasunaren auzia (ik. 3.1.c). Hitzun banakoaren neurri bateko edo besteko artifizialtasun sentipena saihetsezina da, besteren aukerak bere egitean. Ez dago gaizki ere: hori da estandarraren bereizgarri, definizioz hitzunaren etxekotik, arduragabetik desberdin izan behar baitu. Erabilera aktibo zein pasiboak eta denborak leundu egiten dute hizkera baten artifizialtasuna, azken batean arrotasuna ohiturarik ezak sortzen baitu.

Artifizialtasunari hesia jarri zitzaion erabakitzean arauen ondoriozko formak inorentzat nonbaiten litekeen ahoskera izatea. Besteak beste *-logia* termino askotako hitz-atalarekin sortzen da arazoa, Iparralde (/3/) vs. Hegoalde (/x/) zatiketaren aurrean. Kontuan hartu zen, batetik, zatiketa gaztelaniazko *-logía* (/x/) eta frantsesezko *-logie* (/3/) kanpoko aukeren araberakoa dela; bestetik eta garrantzitsuago dena, /x/ ez dagoela Iparraldeko hitzunen fonemen artean, ezta /3/ Hegoaldeko askorengan: alegia ez dute balio ez bata ez besteak ahoskera batzeko. Urrutixeago (alemanez, esaterako) euskaradun guztiek duten /g/ etimologikoa bizirik badago, zergatik ez proposatu hori euskararen hizkera zaindurako? Kontua ez baita, ez behintzat funtsean, zer egin *logika* hitzarekin elkarrizketa batean edo Hegoalden *almeja* nola ahoskatu behar dugun, baizik *genoma* edo *semasiologia* lehen aldiz entzuten dituenak nola entzuten dituen. Ez baitzaio arrotz gertatuko lehen aldi horietan irakasleek ahostunaz ebakitzen baditu.

¹³ Eransketak *fortitio*ak dira eta bilakabide fonologikoen tipologia funtzionalaren arabera, hizkera zaindua da *fortitio*en gertaleku naturalena (Donegan/Stampe 1979: 141).

3.3. Arau motak

EBAZ arauen artean lau mota bereiz daitezke aldagarritasunari ematen dioten aukeraren arabera. Gainera, arau bakar batek osagai desberdinak izan ditzake aldagarritasunari dagokionez. Horregatik arau bakarra sailkapen honen leku desberdinetan ager daiteke. Hemen aipamen laburrak egingo dira testua gehiegi ez luzatzeko. Ikus hemen sailkatzen diren arauen adierazpen osorako www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf edo Euskaltzaindia (1998).¹⁴

a. Mota honetako arauak artamendatutako aukera edozein hizkera-mailetan da onena:

I, bost bokal nagusiei berez dagokiena; V, kontsonanteei dagokiena; V.2, gaztelaniatikako maileguetako *z*-ri dagokiona; V.4, frantsesetikako maileguetako *r*-ari dagokiona; IX.1, jatorrizko hitzetako *x*-ri dagokiona; X, *eginez* gero > *eginez*kero bezalakoak biltzen dituenak.

b.1. Beste arauotan ahoskera zaindurako artamendatutakoak gainerako hizkera mailetan ere erabil litezke:

IV, bokal-h-bokal bilkurei dagokiena; V.1, *ge* eta *gi* bilkurei dagokiena; V.2, *s-z* bereizkuntzari dagokiona; VII. *ll* edo *il* albokari egiteari dagokiona; VIII. «j» sabaikari ahoskatzeari dagokiona; X. *z* ondoko kontsonanteen ahoskerari dagokiona; XI. *zz* kontsonante bilkurari dagokiona; XII. kontsonante ondoko *z* eta *s*-ri dagokiena.

b.2. Arauek ahoskera zaindurako artamendatutakoarekin batera, etxeko edo ikasitako euskalkiaren bestelako aukerak gogoratu edo irakatsi egin behar lirateke beste hizkera-mailetarako:¹⁵

II, bokal bilkurei dagokiena II.a eta II.b azpiatalek osatua; V.3, bokalar-tean mututu daitezkeen kontsonanteei dagokiena; IX.2. maileguetako *x*-ri dagokiona.

¹⁴ Gogoratu 2.3.ean esana EBAZ hasierako «Atarikoak» ideien garrantziaz.

¹⁵ Hauek noski b.1 dira bestelako aukerarik ez duenarentzat edo eman ez zaionarentzat. Atal honetakoek emango diote hizkuntz irakasleari lan handiena.

c. Arauek ez dute aukera bakar bat lehenesten. Euskalkien arabera ahoskera desberdinak onartzen dira Batuaren maila zaindurako:¹⁶

I. arauak *ü* bokalari dagokion zatia; III, hiato (III.1.) eta diptongoei (II.2.) dagozkienak; VI. hasperenari dagokiona; VII, (des)palatalizazioari dagokiona; XII, hitz hasierako *z* kontsonante ondoan gertatzeari dagokiona; XIII, *ez* hitzaren ahoskerari dagokiona.

Euskalki barreneko aldagarritasun funtzionala (egiteko desberdinetarako ahoskera desberdina) *b* motako arauetan dago eta euskalkien artekoa, *c* motakoetan. Euskara irakastea ahoskera horrela azaldu behar litzateke (bereziki kalean euskara gutxi aurkituko duten ikasleekin). Azpimarratu nahi genuke halere arauak ez direla banaka irakatsi behar. Banaka analizatzea hizkuntzalari eta irakasleon zeregina da, baina ikasleei ez zaizkie erregela gramatikalak bezala irakatsi behar, arauak betetzen dituzten hitzak esaldi osoetan txertaturik baizik. Era berean, ez dugu uste bokal eta kontsonanteen ahoskera azentu eta doinuetatik aparte landu behar litzatekeenik. Euskal ikasleari ez zaizkio arauak irakatsi behar, arau horien arabera ahoskatzen baizik.

4. Prosodia

Prosodia kontsonante eta bokal ezaugarriekin batera ahoskatzen den beste hori da: azentu gorabeherak, doinu aldaketak, silabakatzea, lastertasuna, eta abar. Juan Goytisoloren hitzak itzuliaz, hitzen musika.¹⁷ Dena delako, eta, besteak beste, ezin zenba daitekeelako bokalak eta kontsonanteak zenbat ditzakegun moduan, prosodia da hizkuntzalariarentzat hizketaren ezaugarri harrapagaitzena, deskribatzen eta sailkatzen zailena. Hortik estandarra

¹⁶ Eremu geografiko zabalen desberdintasunekin gertatzen da hori: euskalki palatalizatzaile vs. despalatalizatzaileak, frantsesarekiko elebitasuna vs. gaztelaniarekikoa.

¹⁷ Javier Valenzuelaren elkarriketa, *Babelia* (2003.II.15). Mesedegarriago litzaiguke agian *kantaz* hitz egitea *musikaz* baino, bokal eta kontsonanteen (kantaren «letraren») ezaugarri zenbait ere prosodiari baitagozkio.

arautzean ere bihurrien gertatzea eta irakasteko zailena, iheskorrena, kontrolagaitzena.

Oro har (ez euskaraz bakarrik) ahoskerari ez zaio hizkuntz eskoletan leku handirik egiten. Azterketetan ere hizkuntzaren beste osagaiei baino garrantzi txikiagoa ematen zaio, batere ematen bazaio. Hiztun berriei, ordea, ziurtasunik eza sortzen die eta hitzun ez-osotzat nabarmentzen ditu.

Dirudienez haurtzaroan bertan bermatzen da prosodiaren lehentasuna, lehen hitzetako hotsak ere egitura prosodikoetan txertatzen baitira. Donegan eta Stampe-ren (1979: 142) ustez, ahoskeraren eragile garrantzitsua da. Izan ere, hizketaren alderdi prosodikoek neurri handi batean baldintzatzen dute bokal eta kontsonanteen ahoskera.

Esate baterako, ondoko kate segmentalak fonemikoki bera izanik, ahoskera ezberdinak sor litezke hitzak egitura prosodiko desberdinetan txertatuz: *etórri eztenák* vs. *Etórri dirà, baña éz denák*. Funtsean, *ez* eta *denak* bakoitzak azentu nagusi bat izateak ematen dien beregaintasun prosodikoak kontsonanteen arteko asimilazioa ekiditen du. Era berean, *erakuts daiteke* esan edo *erakustaiteke* esan estu dago lotua ahoskeraren ezaugarri prosodikoekin, funtsean hitz bilkura horren azentua bakarra izatearekin eta azentu horren indar erlatiboarekin (indar handiagoak silaben arteko gertutasuna areagotuz).

Oro har hizketa-jarioa ohargarritasun gorabeheraz osatuta dago: bokal-kontsonanteak, ozentasun gailur-ibarrak silabaka, azentua-azenturik eza, doinuaren igotze-jaisteak, etab.

In the phonological structuring of language, we find antagonistic structural principles at nearly all levels of analysis (consonant–vowel sequences, syllable structure, foot structure, etc.). They are paradigmatically the result of opposite tendencies, creating a dissimilate order with maximally alternating perceptual cues in the sequencing of elements. (Hurch 2006: 720)

Kontraste egitura horien zehaztasunak hizkuntzak eta dialektoek desberdin antola ditzakete. Horregatik, uste dugu batuaren ahoskera euskalkiekin lotzean oso kontuan hartu behar dela alderdi prosodikoen eta ez-prosodikoen arteko banaezintasun hori.

4.1. Egungo egoera

Prosodia da ziurrenik errazen itxuraldatzen dena, euskara zaharren bat etxetik dakiten hiztunek Batua erabiltzen dutenean, hotsetarako letra oinarri hartzearekin batera. Halaber, prosodia berri horretan egoten da maiz Batua lehen hizkuntz eredia izan dutenen ahoskeraren ezaugarri nabarmenena (bai euskara heldutako bigarren hizkuntza izan dutenena, bai halakoen eredia izan dutenena euskaraz jabetzean). Izan ere, horrela irakatsi izan da eta irakasten da hizkuntza, halakoa izan baita batuarekin lotu den ahoskera.

4.2. Prosodia berriaren ezaugarriak

Askok ozen arbuiaitzen duten prosodia berri horren ezaugarri garrantzitsu batzuk ondokoak direla esango genuke:

- a. Azentuaren leku finkoa (azken aurrekorako joeraz)
- b. Hizka banatzea azentua
- c. Homogeneotasuna (ziurrenik Iparralde/Hegoalde isoglosarekin)

Hala uste izan badugu ere (Alberdi 2014; Oñederra 1998b), arazoa ez da ziurrenik azken aurreko azentua, edo ez hori bakarrik behintzat: behe-
ragoko adibideetako *hemén*, *lastér*, *maitasúnaren* hitzetan azentua, azken aurreko silaban egon gabe ere, desegoki gertatzen da. Euskararen ohiko prosodien aldaerazle garrantzitsuena azentua hizka kokatzea delakoan gaude: *hemén zegóen*; *igánde batéan*; *lastér egóngo gára*; *nire adiskideak*, *nire konplizeak*, *artistak díra*¹⁸; *maitasúnaren gáia*; *éskolaz kanpóko mundúak*; *erlóju guztíak aldátu bēár ditúgu* vs. *Erlóju guztiák aldátu bēèàr ditugù*. Alegia, azkenari erreparatuz:

¹⁸ Hizkako azentu hori zatikakoa izan daiteke eta hizketaldien amaiera aldera indartzen dela dirudi. Hemen txartzat ematen den ereduaren konponbidea ez da bakarra, esaterako: *artisták dírà*, *ártistak dírà*, etab.


 erlóju guztíak aldátu bēār ditúgu
 erlóju guztíak aldátu bēār ditúgu

Halakoetan hitz bakoitza kokatu da azentu nagusi baten pean, ez esaldi (*phrase*, sintagma) osoa euskarari legokiokeen bezala. Hizkuntza buru-azken eta komunztadura sistema konplexuak dituztenetan erritmoaren bereizgarri izan ohi da esaldi osoak edo, esaldi luzeetan, sintagmak azentu bakarraren azpian biltzea (Donegan & Stampe 1996; Oñederra 2015).


 erlóju guztíak aldátu bēār ditugù

Prosodia berriaren arazoak konpontzeko, berriz ere eskatuko dugu (1998an bezalaxe) azentuak esalditan eta ez hitzetan irakastea. Azentua ez denez hizketaren osagai segmentala, oker litzateke segmentuekin lotzea (zein bokal edo silabatan dagoen ohartaraztea zuzenean ikasleari). Horretaz gain, azentuaren banaketarako hizkuntzak erabiltzen duen unitatea ez bada hitza, hizka irakasteak ere ez dirudi egokien. Azenturik egokiena ere hitz zerrendetan irakasten bada, esaldien prosodia ez da egokia izango. Azken batean, azentuaren egiteko garrantzitsuenetako bat erritmoaren euskarri izatean datza, baina bai fonologi-fonetiketan oro har, bai euskararen azterketetan azentua berez eta bereiz aztertu izan da, erritmoa oso gutxitan azaldu delarik lan linguistikoetan.¹⁹

4.3. Proposatzen den eredu askotarikoa, euskalkiak

EBAZ arauetan bokalen eta kontsonanteen ahoskera bat baino gehiago sartzen diren bezala, prosodiak ere askotarikoa izan behar duela uste dugu.²⁰ Ederki asko dakigu honek zailtasun handiak dakartzala, lehenengoa, irakas-

¹⁹ Honetan salbuespen dira Donegan eta Stamperen ikerketa sinkroniko eta diakroniko bide-erakitzailak (Donegan & Stampe 1978: 1996 eta tipologiazko guztiak).

²⁰ Ik., bestelako proposamen baterako, Hualde (2011).

kuntzaren aldetik formula bakar eta itxi bat ez izateak arauemaile eta hartzaileoi sortzen digun deserosotasuna. Baina iruditzen zaigu hala izan behar duela: oro har, zuberotarrak, hizkera zaindua erabiltzea egokitzen zaionean, prosodia zuberotarrean ahoskatu behar lituzke gramatika batu estandartuaren bidez egituratutako, hiztegiko aukerez osatutako eta kode formaleko fonema eta hots bilkuretan mamitutako esaldiak (jarri, *zuberotar*-en lekuan, *bizkaitar*, *goierritar*, *nafar*, etab.).

Proposamen honetan nolabaiteko kontraesana ikus lezake bakarren batek. Neurri batean behintzat konbentzioz kodetutako forma segmentala (EBAZ), ez datorrena beti eta guztiz bat euskalki bakoitzaren aukerekin, nahi dugu berezko prosodia askorekin bateratu, jakinda eta aitortuz prosodia dela aukera segmentalen eragile nagusia. Komeni zaigu ikustea kontraesanak non sortuko liratekeen, alegia EBAZen proposatutakotik zer ez den ondo kokatzen hizkeraren baten eredu prosodikoetan. Euskararen hitz azentuaren ahultasun, malgutasun eta esaldiaren menpekotasunagatik, gauza ezaguna da erraz dela edozein doinu kantatzea hitz berekin. Ez dirudi beraz, azentuak arazoak ekarriko lituzkeenik. Izatekotan, silaba kopuru desberdinak izan daitezke arazo. Hor leudeke, egotekotan, arazoak, garbi baitago *j* palatal ahoskatu beharrak ez duela arazo prosodikorik sortzen (ohiturarik ezak ekar dezakeen prosodiaren berregituratze orokorra ekiditen asmatzen bada behintzat). Arazo prosodiko posibleak, *a priori*:

- *Nahi* eta *zahar* silaba bakarrean ahoskatzen ohitu denak (*nai* eta *zar*), bina silabatan (*na.i* edo *za.ar*) esan nahi baditu hizkera zainduaren ize-nean;
- *Burua* atzizkia ahoskatu gabe bi silabatan (*burú*) ahoskatzeko ohitura duenak, hiru silaba (*bu.ru.a*) erabili behar baditu hizkera zainduan;
- *Ari* silaba bakarrean ahoskatzen ohitu denak (*ai*), bi silabatan eta bokal arteko kontsonanteaz (*ari*) esan behar badu hizkera zainduan.

Horiek dira bereziki zaindu, aztertu beharko ditugunak irakasle eta hizkuntzalarion esparrua hedatuz. Arazo hauei irtenbidea bilatzean, antzezleei, musikariei, kantariei eta kidekoei ireki behar zaizkie atek.

Aurreko atalean azentuaren irakaskuntza eraginkorra izan dadin, esalditan, eta ez hitzak banaka hartuz, ikastea gomendatu da. Hemen, euskalki desberdinen ezaugarri prosodiko nagusiak gordetzeaz ari garela, irakaskera bera proposatzen dugu. Izan ere, tokietako prosodiak ikasteko askoz hobe da esaldiak «kantatzen» ikastea, hitzez hitz edo, are okerrago, morfemaz morfema, atzizki atzizki edo erro-atzizkika aritzea baino.

5. Proposatzen den eredua

Jakin badakigu alderdi teorikotik proposatzen denak, ezertarako balio izango badu, maila praktikoan, alderdi didaktikotik osatu behar dela nahi-taez. *Osatze* hitza erabiltzen bada ere hemen, ez dugu atal hori bigarrenka-ritzat hartzen, araua bera bezain garrantzitsutzat baizik. Araua arrakastatsu izango bada, irakaskuntzak benetan eraginkor izan behar du; horrela baka-ririk lor liteke, hizkera zainduaren estandartzearekin batera, hizkuntzaren ahozko erabilera maila guztiak behar bezala egituratzea.

5.1. Hizkera-konstelazioa

Dudarik gabe eta definizioz, estandartze bilakabide batek (eta halakoa da EBAZ) ezinbestean ahultzen ditu euskalkien bereizgarriak, kode estanda-rrak prestigioa eta, beraz, eredugarritasuna hartzen dituen neurrian. Ahul-tze horri hesia jarri nahi izan zitzaion EBAZ arauetan gorago (2.4) aipatu aniztasun eta malgutasunaren bidez. Aukera desberdinak onartuz, gainera, ebakera zaindua hiztunentzat sinesgarriago, onargarriago, benetakoago, hurbilago gertatzea bilatzen zen, Milroyk (1994: 20) kontsentsu arau dei-tzen dituenen antzera. Azken batean, euskalkiak biziko badira, beharrezko da ez ahanzte eta, Batuak erregistroak izango baditu, euskalkiek bizi behar dute.


Alde horretatik, gogoan izan behar da EBAZ arauak artamendatutako guztiak euskalkiren batean edo bestean gertatzen diren ahoskerak direla. Aukera ezberdinen artean bat hautatzeko, irizpide fonologikoak eta, sozio-logikoak ere erabili ziren. Forma zaindu bezala aukera bi eskaintzen dituzten

arauetarako, kontuz neurtu zen zein euskalki bereizgarrik zuen aski eremu handia (c motako arauak, 3.3).

Oraingo erronka da zein hizkera mailatan eta nola berreskuratu gainerako euskalki-ezaugarriak, maila zainduenetatik kanpo gelditu zirenak. Ez da zeregin erraza. Izan ere hizkera mailen banaketa ez da sinplea. Ez daude bi maila banandu eta berezi. Zaindua eta arduragabea etenik gabeko *continuum* baten ertzak dira. Tartean, batetik besterainoko maila eta aldaerak, erlazio gradual ez-diskretuan daude, zenbatzen eta hesitzen gaitz (edo ezinezko) gertatzen diren mailetan. Hori aintzat hartzea oso garrantzitsua da ahoskera irakaskuntza praktikora eramateko orduan.

Dena den, zailtasun teorikoek ez dakarte nahitaez zailtasun handiagoa praktikan. Ahoskera batzordeak, noski, teoriatik eskaintzen ditu gogoetak. Horien garapena, haatik, irakaskuntzak eta erabilerak ekarri behar dute. Araugintzatik ezin da gehiago egin, ez litzateke egin behar. Arauek ezin dituzte bete aldagarritasun saihetsezinaren zuloak, ezta hizketa biziaren konplexutasuna erraztu. Bokalkontsonanteen elkar moldaketak baldintza prosodikoen jarioari egokitzen zaizkio, hitz bakoitzak hiztunari dakarkion arreta mailari, egoera sozial edo subjektiboak ematen dion barne egoerari, eta abarri.

Arau-emaileak eta erabiltzaileak bidea elkarri begira egitean legoke gakoak, betiere hizkerek osatzen duten konstelazio osoa gogoan izanik. Hara hona nola irudikatzen dugun euskararen ahoskeren egitura osoa:



Gauza izan behar genuke bakoitzaren etxeko euskaratik erabilera zaindueneraino etengabeko *continuum* bat eraikitzeko. Hiztun banakoaren jato-

riak baldintzatuko luke zein lerrotan dagoen eta lerroaren zein puntutan kokatzen den bere hasiera zein bukaera. Euskara bigarren hizkuntza duenaren lerroa ez da ziurrenik euskaldun zaharrarena bezain urruti iritsiko «etxe-kotasunean».

Beste muturrari gagozkiola, inoiz mikrofono aurreko hizketa egiten ez duenaren lerroa EBAZen biribilera iritsi gabe geldituko da ziurrenik. Esaterako, herrikoentzat emandako hitzaldi batek ez ditu, nahitaez, euskaldun guztientzako Lehendakariarenak bete behar lituzkeen adina ezaugarri hartu behar EBAZetik. Gaiaren, egokieraren, irakurri/ez-irakurri estiloaren, hiztunaren nolokotasunek zeresan handia dute lerroko kokalekuak finkatze honetan.

Beti ere, EBAZ erreferentzia da, norabidea, etxeoagotik formalagora goazela. Alderantzizko norabidean, berriz, hizkera maila laxatu ahala, erreferentzia etxekoa izango da. *B* motako arauetan (3.3.) adierazten den aldagarritasuna lerro hauen mailakako dinamikan gauzatuko litzateke.

EBAZak bat baino gehiago izango dira noski, ezinezko baita ahoskera bakar beti berdin bat. Euskalkien koloreez gainera, ahozkoaren bestelako aldagarritasun eragile guztiak adierazten ditu plural horrek. Aldagarritasun hori ezinbestekoa da forma zaindua ere benetako hizkera izango bada.

Hizkuntza irakatsi eta erabiltzean ahalegin berezia egin behar genuke, euskalkien presentzia handiagoa edo txikiagoa hizketaren maila sozial edo estilistiko desberdinekin parekatzeko. Horretarako, aldagarritasunaren inguruko ideiak garbi izateaz gainera, aldagarritasun hori nola gauzatu eta irakatsi asmatu beharko da. Gorago esan bezala (2.2) euskararen historia-gatik kaleak, leku batzuetan batez ere, ez du asko laguntzen.

Guk, orain apenas dauden aldaera horiek finkatu egin behar ditugu, lefroetan kokatzeko. Finkatzeak noski irristakor eta malgu izan behar du hiztuna *continuum* batean mugiarazi nahi bada. Baina, nola gizarteratu arau malgu bat? Ahoskera ez da ikasten aditz formak edo kasu atzizkiak bezala. Lan honen hasieran ere adierazi da zaila dela berez. Nola bateratu, gainera, estandar berri bat aldeztu aurretik zeuden hizkerekin modu sistematiko eta zentzudun batean, bata bestea ordezkatu gabe erabat? Nola gorpuztu estandarren eta euskalkien arteko banaketa osagarria?

1996-1998 bitartean jardun zuen Ahoskera Lantaldearen ondorioetako bat izan zen ahoskeraren irakaskuntza gertuago dagoela kantatzen irakastetik, edo antzerki tekniketatik, gramatikatik edo hiztegitik baino (Oñederra 1998a). Hori gogoan hartuta bildu beharko dira alor desberdinetako profesionalen eskarmentu eta gogoak.

5.2. Jarrera osoak irakatsi

Aipaturiko zailtasun guztien ondoan, bada gure aldeko zerbait, erraztasun bat: ahoskera gauza «naturala» da. Ez da, alegia, konbentzionala gramatika eta hiztegia konbentzional diren neurri eta zentzuan. Horien erregela eta formak buruz ikasi behar dira. Ahoskeraren estandartzeak behar bezala funtzionatzeko, ordea, aski da funtsean hitzunak ideia ulertzea, gakoa harapatzea. Horretarako jakinaren gaineko arauetara indar handiegia ematen dienari (arauemaileoi, irakasleei, ikasleei) hitzun arruntaren askatasuna berreskuratzen utzi behar zaio, horretarako baimena eman.

Egoera zainduetarako erreferentzia da nahita eta buruz ikasi behar litzaitekeen bakarra. Hortik abiatuta eta hori beste askoren arteko maila bat dela aintzat hartuta, gainerakoak egoeraren arabera gorputza laxatzearekin letozke. Ahoskera gorputz kontua da neurri handi batean; gure gogo linguistikoa, gramatikalki antolatu eta lexikoki betea, gure belarriek entzun eta ahoak ebaki ditzakeen uhin bihurtzea, hori da ahoskatzea.

Garbi dago, noski, buruz ikasi beharreko erreferentzia abstraktu hori ere, erabili behar duenak benetako ahoskera gisa bereganatu behar duela, gainerako hitzunekin eta gainerako hizkerekin gutxieneko zilbor-hestea gorde nahi bada. Iruditzen zaigu, hori egiteko, letrak oinarri eta unitate nagusitzat ez hartzeaz gogoratu behar genukeela, eta esaldien doinua ez galtzeaz.²¹ Horregatik proposatu dugu goragoko ataletan esaldiak baliatzea ahoskeraren irakaskuntzan.

²¹ EBAZ arauen alde onenetakoa malgutasuna den bezala (ik. 2.2.f), txarrenetakoa da azalpena Batua-ren letra banakoetan oinarritu izana. Horrek hizkuntzaren fonologiari dagozkion erregularitasunen adierazpena errazten badu ere, idatzia ahozkoaren ondoko dela ulertzea zailtzen du.

Konpondu nahi diren arazoen datuak ikusita eta aipatutako irizpide teoriakoak aintzat hartuta, ahoskera esaldika eta esalditan irakastearen alde gaude: hori litzateke gure aldarri garbia. *Ez dakit* [estakit] ahoskatzen arauz ikas daiteke eta buruz gogoratu, baina horrek bakarrik ez du ahoskatzen irakasten. Horrela hitz eta morfemen formak ikasten dira. Haatik, hitz egiterakoan, hiztun jatorrak ez ditu doinu eta azentuak hitz edo morfema kateetan jartzen, alderantziz, esaldiak txertatzen ditu azentuz eta doinuz osaturiko eredu erritmikoetan. Beraz, eragiketa bakarrean, bide batez, irakatsiko litzateke esaldi-doinua (*intonazioa*). Esaldietan erabilia ikasi behar lirateke, ezaugarri prosodikoekin batera, bokal-kontsonanteei dagozkien EBAZ arauak, ez banaka, adibide zerrenda gehituaz arau bakoitzaren formulazioari.

Arauen betetze neurriaren eta aukera desberdinen bidez bereiziko lirateke maila estilistiko desberdinetako testu irakurriak (esaterako, saiakera zati bat eta elkarrizketa arin bat), irakurria eta buruz ikasitakoa, buruz ikasitakoa eta hizkera librea, etab. Zenbat eta gehiago urrutiratu erabilera maila formalenetatik gutxiago bete behar lirateke EBAZ arauak, gradualki txertatuz tokian tokiko ahoskera hautuak. Zenbat eta arau gehiago estuago bete, gertuago ahoskera zaindutik.

Naturala delako, berezko du, eredu berritik abiatuta, ostera aldaerak sortzea. Batzuetan aldaera horiek izango dira lehendik dagoen formaren azaleratzea berriaren ondoan: esate baterako, *filologia* esatean [ɣ] ahostuna eta [x] ahoskabea biak agertzea hiztun beraren hizketan. Halakoek arauzale estuegiak izutzen badituzte ere, ezinbesteko dira hizketa bizian eta hizketa bizirik gabeko hizkuntzarik ez dago. Euskararen bizitzaren aro hau egokitu zaigu, hizkuntzaren beste aro egonkorrago baterako aitzinsolasa izango ahal da gure eztabaida.

Bibliografia

Alberdi, A., 2014, *Ahoskera*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Amorrortu, E., 2012, «Talde estrategikoen euskararekiko jarrerak: gazte euskaldunak, erdaldunak eta euskaldun berriak», in *Marcos interpretativos de la realidad*

social contemporánea / Egungo gizarte errealitatea interpretatzeko bideak, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 43-56.

Auer, P., 2005, «Europe's sociolinguistic unity, or: A typology of European dialect/standard constellations», in N. Delbecque, J. Van der Auwera & D. Geeraerts (arg.) *Perspectives on Variation. Sociolinguistic, Historical, Comparative*, Berlin/New York: Mouton de Gruyter, 7-42.

——— & H. Spiekerman, 2011, «Demotisation of the standard variety or des-standardisation? The changing status of German in late modernity (with special reference to south-western Germany)», in T. Kristiansen & N. Coupland (arg.), *Standard Languages and Language Standards in a Changing Europe*, 161-176.

Bereziartua, G., 2014, «Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo», Doktoretza-tesia, UPV/EHU.

Camino, I., 2005, «Euskal Soziolinguistikaren atarian», in P. Etxeberria & H. Knörr (arg.), *Nerekin yaio nun: Txillardegiri omenaldia*, IKER-17, Bilbo: Euskaltzaindia, 157-187.

Donegan, P. & D. Stampe, 1978, «The syllable in phonological and prosodic structure», in A. Bell / J. B. Hooper (arg.), *Syllables and Segments*, North Holland, 25-34.

———, 1996, «Rhythm in Holistic Typology», *Workshop on Typology and Naturalness* mintegian aurkeztutako hitzaldia, SLEren 24. Biltzarrean aurkeztua, Klagenfurt, 1996.IX.5.

Elordui, A., (2016), «Elebakartasunetik heteroglosiara: *Gaztea*, bernakulizazioa gazte-komunikabideen diseinu sozioestilistikoan», *Uztaro* 97, 31-52.

——— & I. Zabala, 2009, «Euskara Batuaren garapen lexiko-diskurtsiboa: batasunetik aniztasun funtzionalerantz», in R. Etxepare, R. Gómez & J. Lakarra (arg.), *Beñat Oihartzabali gorazarre*, ASJU 43 (2009) 231-246.

Euskaltzaindia, 1968, «Literatura euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiaren agiria», *Euskera* 13 (1968) 250.

———, 1998, «Euskara batuaren ahoskera zaindua», *Euskera*, 43 (1998) 485-490 (http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf).

———, 2004, «*Adierazpena*, euskalkien erabileraz», *Euskera*, 49 (2004) 426-429 (http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0137.pdf).

Eusko Jaurlaritza, 2013, *V. Inkesta Soziolinguistikoa*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Gaminde, I., G. Aurrekoetxea, A. Etxebarria, U. Garay, A. Romero, 2014, *Ahoskera Lantzeko Argibideak eta Jarduerak. Laguntzarako materiala: Teoria eta Praktika*, Bilbo: UPV/EHU.

Giddens, A., 1991, *Modernity and self-identity. Self and Society in the Later Modern Age*, Cambridge: Polity.

Giles, H., J. Coupland, N. Coupland, 1991, *Contexts of Accommodation*. New York : Cambridge University Press.

Grondelaers, S. & R. van Hout, D. Speelman, 2011, «A perceptual typology of standard language situations in the Low Countries», in T. Kristiansen, & N. Coupland (arg.), *Standard Languages and Language Standards in a changing Europe*.

Hualde, J. I., 2011, «Hitz-mailako prosodiaren azterketa eta tipologia: Zenbait ondorio euskararen hezkuntzarako», in G. Aurrekoetxea & I. Gaminde (arg.), *Prosodiaz eta hezkuntzaz I. jardunaldiak*, Bilbo: UPV/EHU, 11-27.

Hurch, B., 2006, «Dissimilation», in K. Brown (arg.), *Encyclopedia of Language & Linguistics*, Philadelphia: Elsevier, 719-722.

Kristiansen, T., 2009, «The macro-social meanings of late-modern Danish accents», *Acta Linguistica Hafniensia* 41 (2009) 167-192.

——— & N. Coupland (arg.), 2011, *Standard Languages and Language Standards in a changing Europe*, Oslo: Novus Press.

Lantto, H., 2015, *Code-switching in Greater Bilbao: A bilingual variety of Colloquial Basque*, Doktoretza-tesia, Helsinkiko Unibertsitatea, Helsinki.

Milroy, J., 1994, «The notion of “standard language” and its applicability to the study of Early Modern English pronunciation», in D. Stein & I. Tieken-Boon van Ostade (arg.), *Towards a Standard English: 1600-1800*, Berlin-New York: Mouton de Gruyter, 19-29.

——— & L. Milroy, 2012 [1985], *Authority in Language: Investigating Standard English*, Londres: Routledge.

Oñederra, M. L., 1994a, «Ahoskera araupetzeaz», *Euskera* 39 (1994) 1523-1526, 1589-1605.

- , 1994b, «Abiaburu zehatz batzuk», *Euskera* 39 (1994) 1533-1542.
- , 1998a, «Ahoskera lantaldearen errendapen txostena», *Euskera* 43 (1998) 265-274.
- , 1998b, «Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak», *Euskera*, 43 (1998) 439-449.
- , 2015, «Tipologia eta hizkuntzaren erritmoa: Stampe eta Doneganen ideien inguruan», in M.-J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, Bilbo: UPV/EHU, 491-499.
- Rindal, U., 2014, «Perceptions of Norwegian accented English among teachers», *SLÉren* 47. Biltzarrean aurkeztua, Poznań 2014.IX.11.
- Tieken-Boon van Ostade, I., 2012, «The codification of English in England», in Raymond Hickey (arg.), *Standards of English. Codified Varieties around the World*, Cambridge: Cambridge University Press, 34-54.
- Van Hout, R., 2014, «Planning Dutch in the Netherlands and Flanders: destandardisation, regional languages, multilingualism», *Language Planning. Theory and practice in dialog* mintegian aurkeztua, Center for Multilingualism in Society across the Lifespan, Osloko Unibertsitatea, 2014.X.13.
- Soziolinguistika klusterra, 2012, *Hizkuntzen kale-erabileraren VI. neurketa*. Andoain: Soziolinguistika klusterra.
- Zuazo, K., 2000, *Euskararen sendabelarrak*, Irun: Alberdania.
- , 2005, *Euskara Batua. Ezina ekinez eginga*, Donostia: Elkar.



Euskaltzaindiaren mendeurrena: *Euskal Hiztegi Historiko- Etimologikoaren aurkezpen jardunaldia*

Bilbon, 2019ko uztailaren 4an

Euskera. 2019, 64, 2, 2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Atarikoa

LAKARRA, Joseba Andoni eta MANTEROLA, Julen
Euskaltzaindia-Euskararen Hiztegi Historiko-Etimologikoa (EHHE)

2009ko Euskaltzaindiaren Barne Jardunaldietan egitasmo bezala onartu eta hurrengo urtearekin hasi eta ia hamar urtez garatutako EHHEren lehen prestaketa (EHHE-200) 2019ko udaberriarekin amaitu zen, inprimategiko ia urte eta erdiko lanaren ondoren.

2019ko uztailaren 4ko goizean, bezperan euskal lurralde guztietako agintari politikoeekin eta hainbat kazetariren aitzinean eginiko aurkezpen ofizialaren biharamunean, EHHEren Aurkezpen Jardunaldia egin zen Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Jardunaldi honetan, EHHEren oinarri, ezaugarri eta helburuak aurkezteaz landa, inguruko eta haragoko tradizioetako hiztegi historiko-etimologikoen testuingurua bistaratu zen.

Aurkezpen jardunaldi honetaz gain, aurkezpen xumeago bat egin zen Baionako UPPAren campusean, 2019ko urriaren 8an, Joseba Lakarraren eta Julen Manterolaren aurkezpen hitzaldi banarekin. Hasiera eta amaiera hitzak, hurrenez hurren, euskaltzainburuak eta euskaltzainburordeak egin zituzten.

Euskera aldizkariaren ale honetarako, Bilbon uztaillean eginiko ahozko aurkezpenen aitzakian, artikulua bana idaztea eskatu zaie aurkezpen jardunaldi hartako hizlariei, ordukoak hizpide hartuta eta, beharrezko iritziz gero, zabaldua. Bost artikulua dakartzagu hona, beraz:

- a) José Antonio Pascualek “El *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* de Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Iñaki Segurola visto por un his-

Euskera. 2019, 64, 2, 2. 1041-1046. Bilbo
ISSN 0210-1564

panista” izeneko artikulua dakarkigu. EHHEren gaineko bere irakurketaren berri ematen digu bertan, etimologiagintzari buruzko gogoeta zenbait eginez eta nabarmenduz zer dakarkien hispaniar ikasketa etimologikoei gure hiztegiak.

- b) Reina Bastardasek “Préstamos latino-románicos sucesivos en vasco” izenburuko artikulua ondu du. Erromanista batek euskal datuetara egin lezakeen sarbidearen erakusgarri da artikulua hau: hizkuntza latino-erromantzeen eta euskararen arteko etengabeko harremanean, erakusten digu nola sartu den hitz latin-erromantze bera harreman horretako historiaren garai ezberdinetan.
- c) Joakin Gorrotxategik “Etimologia, filologia indoeuroparra eta euskara” izenburua dakarren artikulua eskaintzen digu. Hizkuntza isolatu baten etimologiagintzak dituen erronken berri ematen digu, aitzin-indoeuropearen berreraiketan dauden auzi batzuk aipatuz. Eta, era berean, datu filologikoak ongi erabiltzearen beharra, alderdi formalak bezala semantikoak ere berreraikitzearen garrantzia, erro teoria on baten onurak... gogoratzen dizkigu.
- d) Joseba Lakarrak, “Euskal ikerketa diakronikoak eta EHHERanzko bidea” lanean, EHHEren oinarri teorikoen berri ematen digu: Mitxele-naren eredutik harago, erro teoriaren oinarriak aurkezten dizkigu, eta hark ekarritako emaitzen berri ematen. Horren osagarri, etimologiagintzan garrantzitsu diren beste zenbait puntu ere aletzen ditu, hala nola gramatikalizazioa, hitz-familien eta motibazioaren garrantzia, enparauko tradizioetako paralelismoak, etab.
- e) Julen Manterolak “Euskaltzaindiaren *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* (EHHE-200): etorkizunari begirako aurkezpen bat” artikuluan EHHEren ezaugarri eta atal nagusiei gainbegiratua ematen die, eta etorkizuneko edizioetan egin daitezkeen moldaketan ildoak markatu.

Nabarmentzekoa da, era berean, izan dela EHHEri loturiko bestelako aurkezpenik, liburua argitaratu eta Bilbon aurkeztu baino lehenagorik. Horrela, Joseba Lakarrak eta Julen Manterolak, euskaltzain osoen aurreko

aldian aldikoez landa, zenbait kongresu internazionaletan eman dute EHHEren aurrerapenen berri, *Plazaberrin* iragarri bezala:

- a) Erroman, 2016ko uztailaren 20an, *XXVIII Congresso Internazionale di Linguistica e Filologia Romanza* (CILFR 28)-ren baitan: “El Diccionario Histórico-Etimológico Vasco y etimología románica: aportaciones formales, semánticas y documentales”.
- b) Helsinkin, 2017ko maiatzaren 17an, *Contextualizing historical lexicology conference* kongresuaren baitan: “Basque etymological studies: loanwords, roots and a new etymological dictionary”.
- c) San Antonion (Texas), 2017ko uztailaren 31n, *23rd International Congress of Historical Linguistics* (ICHL 23)-ren kariatara: “The new Basque Historical-Etymological Dictionary: advancements on the reconstruction of the Basque lexicon”.
- d) Londresen, 2019ko martxoaren 3an, SOASEk antolaturiko *Recent Advances in Comparative Linguistic Reconstruction Workshop* lantegian, “The contribution of medieval data to the reconstruction of proto-Basque: lexicon and morphology”. Zeharka aipatzen zen hitzaldi horretan EHHE.

2019ko uztailleko jardunaldiek izan dute, gainera, bestelako ondoriozik, izan ere bertatik sortu baita erromanistekiko lankidetza aberatsa. Horren emaitza da Reina Bastardasekin batera Julen Manterolak Europa osoan eredugarri den *DÉRom*-en hirugarren liburukian argitaraturiko artikulua, “Pour un traitement digne du 21^e siècle des emprunts au protoroman du basque dans le DÉRom” izenburukoa. Eta, jardunaldiekin zerikusirik izan gabe baina ildo beretik, *Zeitschrift für romanische Philologie* aldizkarian argitaraturiko egile beraren “Aportaciones del vasco medieval a la reconstrucción del léxico protorromance”, biak ala biak 2020an argitaratuak eta Euskaltzaindiak bere-berea duen zabalkunde akademikorako ahaleginaren lekuko.

Azken boladan ikusi ahal izan dugunez, EHHE ari da, pixkana, bere bidea urratzen euskal gizartean. Honen adibide dira uztail hasierako irratzaioak eta prentsako zein telebistako aipuak (besteren artean, *El Correo*

egunkarian eginiko erreportajea, 2019ko abuztuaren 31ko alean argitaratua); baita, orobat, aldian-aldian egoitzara iristen diren informazio eskaerak, hitz honen edo haren etimologiaz edo euskarak erdaretan izandako eraginaz galdezka. Espero dezagun etorkizunean ere harrera ona izaten segitzea egitasmoak gure gizartean, horixe baita egileon eta Euskaltzaindiaren helburu behinenetako bat.

Horretan lagunduko du EHHE-200en 2. edizioak, sarekoa izango baita. 2021eko maiatzean sareratzear dago, Aitor Maritxalarren eskutik. Funtsen, paperean argitaratua bera bada ere, hainbat egokitzapen eta hobekuntza ere egin dira, gehienbat nabigazioa hobetzeko eta, bide batez, baita formari eta aurkezpenari dagozkion moldaketak egiteko ere. Besteak beste, Wartburgen, Corominesen eta Corominas-Pascualen hiztegiei egiten zaizkien erreferentziak ohikoak diren FEW, DECat eta DCECH laburdura-formatuaren bidez eman dira, eta, bereziki, Mitxelenaren lanei egindako aipu ugariak zehaztu eta bateratu dira, Koro Seguiolaren laguntzarekin, berriro ere. Edukiarekiko aldaketak ere, urriago baina badira, zenbait eztabaida etimologiko edo familia-kidetasun batzuri dagozkienak. Euskalari, gainera, ko hizkuntzalari nahiz zale orok aurkituko ahal du bertan egungo eguneko (ez atzoko edo iazko) lanabes eta laguntzarik.

Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa *Aurkezpen jardunaldia*

Helburuak: Hainbat espezialista entzutetsuk dioskunez, etimologia azterketa ez da hitza esparrutzat harturik hizkuntzaren barne-historia eraikitzeke diakroniaren alderdi ezberdinen analisiak konbinatzen dituen jarduna baizik.

Jardunaldi honen helburu nagusia EHHE Egitasmoaren eta, bereziki, EHHE-200 argitaratu berriaren -hots, bere izaera, helburu, metodo eta lorpen garrantzitsuenen gehi ondoko urteotarako asmoen-aurkezpen orokor bat egitea da.

Horrekin batera, alorrek inguruko eta urrutiagoko hizkuntza eta hizkuntza familietan diren zenbait aurrekari eta arestia goko edo abian diren paralelo eta aitzinamendu eta hein batean eredutzat har ditzakegun zenbait kasu aurkeztu nahi ditugu, egitasmo eta alor horietako goi-mailako espezialista zenbaiten eskutik.

Non-noiz: Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2019ko uztailaren 4an.

Egitaraua

08:45-09:00 **Harrera eta material-banaketa.**

09:00-09:20 **Hasiera ekitaldia.**

- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Bilboko Udala.
- Joseba Lakarra (euskaltzain osoa, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* egitasmoaren zuzendaria).
- Andres Urrutia (euskaltzainburua).

09:20-10:10 **Lehen hitzaldia.**

- Aurkezlea: Blanca Urgell (euskaltzain urgazlea, Euskal Herriko Unibertsitatea).
- Hizlaria: Jose Antonio Pascual (Real Academia Española, Universidad Carlos III). “*Saludos de un etimólogo hispánico al Nuevo Diccionario Histórico-Etimológico Vasco*”.
- Hitzaldiak (40’) eta elkarrizketarako tarteak (10’).

- 10:10-11:00 **Bigarren hitzaldia.**
- Aurkezlea: Julen Manterola (Euskaltzaindiaren *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* egitasmoa).
 - Hizlaria: Reina Bastardas (Universitat de Barcelona). “*El Dictionnaire étymologique roman (DÉRom): aportaciones de su metodología a la etimología idioromance: el caso del catalán. Y posibles aportaciones extraromances*”.
 - Hitzaldiak (40') eta elkarriketarako tarteak (10').
- 11:00-11:50 **Hirugarren hitzaldia.**
- Aurkezlea: Blanca Urgell (euskaltzain urgazlea, Euskal Herriko Unibertsitatea).
 - Hizlaria: Joakin Gorrotxategi (euskaltzain urgazlea, Euskal Herriko Unibertsitatea). “*Etimologia, filologia indoeuroparra eta euskara*”.
 - Hitzaldiak (40') eta elkarriketarako tarteak (10').
- 11:50-12:10 **Atsedena / Kafea.**
- 12:10-13:00 **Laugarren hitzaldia.**
- Aurkezlea/moderatzailea: Joakin Gorrotxategi (euskaltzain urgazlea, Euskal Herriko Unibertsitatea).
 - Hizlaria: Joseba Lakarra (euskaltzain osoa, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* egitasmoa). “*Euskal ikerketa diakronikoak eta EHHErantzko bidea*”.
 - Hitzaldiak (40') eta elkarriketarako tarteak (10').
- 13:00-13:50 **Bosgarren hitzaldia.**
- Aurkezlea/moderatzailea: Joakin Gorrotxategi (euskaltzain urgazlea, Euskal Herriko Unibertsitatea).
 - Hizlariak: Joseba Lakarra, Iñaki Segurola eta Julen Manterola (*Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* egitasmoa). “*Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoaren aurkezpena*”.
 - Hitzaldiak (40') eta elkarriketarako tarteak (10').
- 13:50-14:00 **Ondorioen aurkezpena eta agurra.**
- Joseba Lakarra (euskaltzain osoa, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* egitasmoaren zuzendaria).

Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa de Joseba A. Lakarra, Julen Manterola e Iñaki Segurola visto por un hispanista

PASCUAL, José Antonio
Real Academia Española

No parece necesario decir que a estas alturas, en el caso del euskera se han dejado ya de lado las fantasías que otrora parecía imposible sortear para ocuparse de su estudio. En cuestiones etimológicas se lleva tiempo pisando ya un terreno firme, que permite seguir dando pasos seguros en la construcción del protovasco. Es algo que va más allá de saciar la curiosidad –por otro lado tan comprensible– de quien quisiera que le asegurasen de dónde viene su apellido, pues para el lingüista la etimología no es un juego entretenido; es simplemente un reto en el que, por otra parte, no siempre se puede triunfar o se logra hacerlo solo a medias. Por ello, quien se acerque al *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* de Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Iñaki Segurola pensando que les va resultar divertida su lectura, está muy equivocado. Se va a encontrar con algo muy distinto a lo que pensaba: el estudio de 200 familias de palabras. Y esto no es poca cosa, pues, aparte de proporcionar la etimología de muchas voces, supone la presentación de una red de hechos entrelazados que abre muchas puertas para penetrar en los tiempos antiguos de la lengua.

Las cosas son más complejas de como las presento y habría que matizar mucho, empezando por señalar que esos caminos, cuando nos toca recorrerlos tratándose de una lengua románica, son mucho, muchísimo más llevaderos. A diferencia de los vascólogos contamos los hispanistas con una amplia documentación del pasado de nuestra lengua, desde la alta Edad Media, aparte de disponer de una protolengua relativamente bien documentada. Es lo que nos permite recurrir a la comparación con otros idiomas, que nos

Euskera. 2019, 64, 2, 2. 1047-1058. Bilbo
ISSN 0210-1564

conduce hasta el latín, del que parte el español (o a alguna lengua germánica o al árabe, etc.): si yo tengo *trujal* y *conejo* y el catalán dispone de *trull* y de *cunill*, se entenderá que cuando me tope en castellano con *toalla*, junto al catalán *tovalla*, piense que esa palabra no puede pertenecer al fondo patrimonial de la lengua y que haya que buscársele una justificación a su comportamiento excepcional. No nos planteamos la posibilidad de que se hubiera tomado en tiempos antiguos del germánico, sencillamente porque lo impide la ruptura de una regla evolutiva. Lo que explica que unos pensemos razonablemente que haya llegado a nosotros partiendo del germánico, pero a través del catalán y otros, razonablemente también, a través del portugués. Lo nuestro debiera haber sido *tovaja*, como de hecho lo fue, aunque esa forma haya quedado relegada, frente a la triunfadora, *toalla*.

Un proceder como este en la búsqueda de los étimos de las palabras no es el normal en el euskera, pues los etimólogos han de llegar a la protolengua sin el apoyo que hubiera supuesto disponer de algo que correspondiera al latín formal a que llegan los romanistas, del que se puede pasar a ese otro latín coloquial al que llamamos latín vulgar, pues se me reconocerá que las inscripciones aquitanas no pueden compararse con nuestros textos latinos. Pero el euskera tampoco ha podido disfrutar del apoyo que le hubiera brindado contar con parientes que hubieran permitido a los reconstructores recorrer por medio de la comparación el mismo camino que hemos seguido nosotros para llegar a *torculare* / *torculu* y *cuniculu*, como base de las palabras romances que he citado antes, a la vez que para saber que *toalla* tenía que ser un préstamo. Con todo, Luis Michelena había recurrido a una serie de posibilidades de reconstrucción interna, a la vez que encontró un apoyo en los préstamos que saltan del euskera a otras lenguas y de los de estas al euskera, todo un andamiaje que permitía una comparación en cierta medida parecida a la que practicamos los romanistas para llegar a esa protolengua, es decir, la capa lingüística que en nuestro caso corresponde a ese latín vulgar, del que parten el castellano y el catalán. Con todo, aparte de estas diferencias de método con que nos manejamos unos y otros, se añaden otras más, como es la masa de documentación escrita que tenemos desde el siglo IX para el español.

Con distintos grados de dificultad que hace muy distinto nuestro trabajo, hay algo en lo que coincidimos: la necesidad de colocar un filtro, en forma

de leyes evolutivas, para dejar de lado las coincidencias casuales que pudieran darse entre algunas palabras de nuestras respectivas lenguas con las de otras. Es algo difícil de hacérselo comprender a quienes no se dedican a estas cosas y piensan que todo vale, con solo que se le pase a uno por el magín lo que hubo de ser el pasado. Pero la imaginación personal, por fuerte que sea, por interesantes que nos parezcan nuestras ideas y por más que estén estas abonadas por los mejores deseos, sirven de poco, salvo para atreverse a escribir textos como los dos siguientes (pudieran ser otros de sentido opuesto) por medio de los que se han explicado algunos retazos de la historia de España. Ese género de disparates del que tenemos una muestra relevante en *Gárgoris* y *Habidis*. El primero de los textos anunciados se debe a un político muy leído, pero en cuya biblioteca debió faltar un manual de lingüística:

... aseguró asimismo que el euskera es una lengua prehistórica y, además, “de museo”. En declaraciones a TVE, destacó que “el gallego es una lengua romance, hermana del portugués, hermana del castellano y que se habla naturalmente”, mientras que la lengua vasca “es un idioma prehistórico que los vascos, en un momento determinado tienen que completarlo con una adaptación del latín”. (*La Razón*, 3.5.2001)

El segundo es de alguien a quien no conozco, A. Arnaiz Villena, que posiblemente sea muy mentado por aquí, que escribe con la pretenciosidad del “científico” que se siente capaz de explicar aquello que desconoce:

Desgraciadamente, [la lingüística] es una ciencia envuelta en un fuerte dogmatismo especulativo que ya viene durando mucho tiempo [...]; se hace necesaria una revisión de métodos y entrar de lleno en una lingüística experimental que, con la ayuda de la genética, es ahora posible. De este modo nosotros hemos identificado, junto con Jorge Alonso, unas relaciones entre lenguas y gentes antes ocultas (vasco, ibero, etrusco, bereber, egipcio). (A. Arnaiz Villena *El País*, 6.12.2000: 40)

Alguien podrá pensar, Joseba, que con tales opiniones quizá no fuera necesario que os tomarais tantas molestias. ¿Para qué el esfuerzo de manteneros en el dogmatismo especulativo? Pero dejemos de lado la broma para

reconocer que nada de esto tiene sentido, frente al vigor de las ideas y el refinamiento del método con que habéis escrito este diccionario.

La cosa empezó con el salto que dio Luis Michelena por encima de la obra de Schuchardt y de otros lingüistas importantes de su propia época, para imponer, frente a ellos, esos filtros férreos para la reconstrucción del euskera que contiene su fonética histórica (deudora, en realidad, de la mejor fonología de entonces), que se completaba con el refinado trabajo filológico que había emprendido con su lengua, y con la atención que prestó –sorprendente en las condiciones en que hubo de investigar– a la lingüística teórica.

Quedaban también atrás los intentos bienintencionados de abrir las vías a un diccionario etimológico del euskera, que Antonio Tovar impulsó, partiendo de un método más propio de la romanística o de la indoeuropeística y llegando a recurrir incluso, si resultaba conveniente, a una difusa combinación de lo vasco y lo ibérico. De ahí que, al dejarse de lado ese diccionario, Joan Corominas diera entrada en su *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico* a una serie de etimologías vascas (varias de ellas insostenibles), que había ido cosechando como aportación suya al diccionario etimológico vasco propiciado por Tovar. Reconozco (y no eludo la responsabilidad que yo haya contraído en ello) que no siempre se justifica en un diccionario etimológico castellano la aparición de unas cuantas palabras que estaban en esta situación, enganchadas a un artículo en algunas ocasiones por los pelos.

Así (s. v. *andosco*), que es una ‘res de ganado menor’, cita Corominas un bearnés *anesque* ‘oveja de un año’, que nada tiene que ver etimológicamente con *andosco*, y lo explica a partir de *neska* ‘muchacha’, de origen prerromano, las NISKAS de los Plomos de Arles-sur-Tec. En su estudio sobre estos Plomos, dado que no resulta fácil pensar en encontrar una forma vasca a 30 km. del mediterráneo, explica que conviene contar con la posibilidad del ibérico, lo que le lleva a pensar que ese NESCA, que se conocía por las inscripciones aquitanas, perteneciera a los elementos léxicos comunes al vasco y al ibérico. Yo, tras la argumentación de Lakarra y colaboradores, me conformaría con quedarme en que el eusk. *neska* no tiene etimología

clara; desde luego, no tiene nada que ver con *nescius* ni con el céltico, como pensaba Bähr, pero tampoco parece que esas *niskas* aquitanas puedan ser tomadas como protovascas.

A muchos de los excesos de los sustratos indoeuropeos y prevascos, que vinieron después, Lakarra y quienes trabajan con él se han negado, con toda razón, a arrojarle de cabeza.

El hecho es que se parte en este diccionario de unos fundamentos sólidos de partida para construir un número importante de etimologías sobre el euskera. He dicho un número importante y alguno pensará que eso no es suficiente, preocupado por saber cuándo se podrán resolver todos los enigmas etimológicos de este idioma aislado. Cuando quien dirigía el *Nuevo Diccionario Histórico del Español* recibía a diario la pregunta de por qué letra íbamos en él, no se sorprendería porque haya personas que se estén preguntado si son muchas o son pocas estas 200 familias de palabras que hoy se presentan aquí. No son suficientes, desde luego, para saciar la curiosidad que pueda tener alguien que quisiera saber el arranque de todas las palabras de su lengua y adentrarse además por una parte de su historia. Pero el trabajo etimológico que ha dado lugar a este libro supone el estudio sistemático de la información –fónica, morfosintáctica, semántica e incluso pragmática o cultural–, encapsulada en cada voz. Se trata del andamiaje que permite disponer de una gramática histórica que pueda afrontar en las mejores condiciones la explicación de la evolución diacrónica de una lengua, tal y como se explica, siguiendo el juicio de Mario Alinei: la etimología es el camino para llegar por medio de la información de las palabras a la descripción de los estadios más antiguos de la lengua, es decir, en palabras del prof. Lakarra, “la base de la lingüística histórica”.

1. La necesaria evolución del trabajo etimológico

Me he referido antes al hecho de que Luis Michelena estableció los fundamentos para la construcción de la etimología vasca; pero he de añadir la importancia que ha tenido haber creado una escuela de filólogos y lingüistas estudiosos del euskera, que no se asentara en el recuerdo melancólico del

tiempo pasado (que es algo que, como se ve, me va ocurriendo a mí), sino que supiera dar un paso más allá de los maestros, como corresponde a los permanentes cambios a que está sometido el pensamiento científico. Es la escuela a la que pertenecen Joseba Lakarra y quienes con él firman este libro, que se puede caracterizar por combinar el conocimiento de la lingüística teórica aplicada a la diacronía, con una atención cuidadosísima a los datos que aporta la filología vasca, en la misma línea crítica en que se movía su maestro.

Continuadores que han sabido dar un paso más, que ellos explican con argumentos muy atendibles. Tiene que ver con haber tomado en consideración la cronología, con la que era más difícil de contar en el pasado; haber matizado en ese pasado al que se pretende llegar por medio de la etimología, entre un protovasco y un vasco común antiguo; manteniendo el soporte que supone para la etimología la fonología, pero sometida a una permanente crítica, a partir de las conclusiones a que se llega sobre determinados hechos por otros caminos; sistematizando los propios hallazgos; yendo más allá en el plano de lo tipológico; tomando en consideración los procesos de gramaticalización, que parecen caminar en sentido inverso al de la reconstrucción; pero, sobre todo, dando protagonismo a la forma canónica de la raíz en el análisis etimológico.

En distintas ocasiones he hablado con Joseba Lakarra de su idea –o, mejor, me la ha explicado él con su conocido apasionamiento– de la forma canónica de la raíz, que le lleva a buscar en protovasco antiguo el sistema inicial bajo la forma más simple. Para ello disiente de Michelena en que esas raíces simples fueran bisílabas. Su idea, que para mí es la clave en que se sustentan las dovelas de este arco reconstructivo que forma la parte fundamental de la arquitectura de este diccionario, lo lleva no solo a dar con nuevas raíces, sino a detectar también nuevos préstamos o procesos morfológicos antes desconocidos e incluso a revisar las bases de una fonología diacrónica del euskera que a muchos nos había parecido definitiva.

Este hecho fundamental de suponer un tipo de raíz en el estadio más antiguo de la lengua al que podemos acceder no es, de partida, producto de una intuición de vascólogo, sino que supone la aplicación de la compara-

ción tipológica, distinta de la comparación genética. Pues se parte de ver si aquellos procesos que podemos considerar universales, ocurridos en otras lenguas no emparentadas, pueden servir para el euskera. Una comparación para la que Lakarra toma en consideración lo que ocurre en lenguas como las de la familia urálica, sinítica y austronesia. Es el caso de la estructura morfé mica del pre-proto-japónico, donde encontramos un predominio de las raíces monosilábicas cuyo tipo canónico era *(C)VC, de la que se pasó a tipos más complejos bisilábicos y polisilábicos.

Si la etimología que se cultivaba a mediados del siglo pasado en el dominio del vasco no era comparable a la que se había practicado antes, la aparición de este diccionario supone ahora un cambio importante de aquel modo de trabajar que hace un poco más de medio siglo podía considerarse vanguardista. Este proceder de ir más allá de los maestros se toma en las ciencias experimentales como algo no solo normal, sino imprescindible para el avance de la ciencia; pero en el campo de las humanidades los cambios de este tipo se interpretan muchas veces como una falta de lealtad para con quienes han abierto los caminos por los que nos movemos, en lugar de reconocer que con ello mostramos que, gracias a ellos, podemos mirar más lejos de lo que se podía llegar a ver en su tiempo.

2. La importancia para el castellano

Llegados aquí, alguno se habrá hecho la pregunta de qué hace en este lugar una persona que, como yo, no tiene ningún mérito referente al estudio del euskera (si es que tiene alguno en otros campos). Me consta, en efecto, –lo he dicho en muchos lugares y no pocas veces– que la filología vasca goza, sin la menor duda, de una buena salud en el ámbito de lo histórico, de forma que es hoy un referente –lo es, y sin la menor duda también, en el ámbito de lo lingüístico– para quienes nos dedicamos a un trabajo paralelo sobre otras lenguas. Salud a la que indudablemente contribuye la trayectoria científica de personas como Joseba Lakarra, a quien si alguna crítica me atreviera a formular esta sería su perfeccionismo, que ha sido precisamente la razón de por la que unos cuantos hemos hecho apuestas sobre cuándo se

terminaría este libro, largo tiempo esperado. Claro está que participar en esta presentación no se debe a mis méritos en ese terreno, que obviamente no los tengo, sino a otra razón, que se confirma con el hecho de que, aparte de otros participantes, intervenga aquí Reina Bastardas: ella desde la perspectiva de la romanística, y yo desde la del castellano.

Estamos aquí sencillamente porque compartimos la idea de que todo lo que se logre avanzar en cualquiera de nuestras lenguas resulta útil para los avances que esperan a las demás. Lo cual es más importante aún cuando esas lenguas han coincidido a lo largo de la historia, como he ejemplificado antes, por medio de la actitud de Coromines en este campo.

Esa razón es aún más fácil de entender ahora, cuando buscamos en los canales de comunicación el intercambio de la información. Esta situación, largamente esperada, permite comprobar que cualquier paso dado por alguien en el conocimiento de su lengua no lo convierte en competidor de las otras, sino, por el contrario, en que puede apoyarlas. Esta es la razón por la que estoy aquí en esta ocasión –y agradezco de corazón que se haya contado conmigo para ello–, porque al castellano cuya filología goza, a mi juicio, también de muy buena salud, necesitaba, sin embargo, de una obra como esta. Quienes nos ocupamos ahora, por ejemplo, de sus etimologías, nos beneficiamos del desarrollo que en estos tiempos han experimentado los métodos de trabajo, de la mejora que ha llegado a nuestra filología, del incremento de los materiales. Sí, pero también nos apoyamos, de una forma que antaño hubiera sido impensable, en los recursos de otras lenguas, imprescindibles para el estudio de la nuestra, como ocurre con los textos franceses que nos proporciona la Bibliothèque nationale de France, a través de la *Gallica*, o con el acceso al *TLF* o al diccionario de Wartburg, etc., a través del *ATILF*; por no especificar los materiales que en el campo del catalán, gallego, portugués, italiano, etc., se nos ofrecen en la red.

¡Pues ahora vamos a poder apoyarnos en este diccionario! Si me ha interesado estar hoy aquí es precisamente para reconocer que en el ámbito de nuestras lenguas, este avance en el plano etimológico del euskera apoya también la mejora del conocimiento de otras lenguas: desde luego del castellano.

He leído como he podido, y no sin gran dificultad, moviéndome en un modelo muy especial de Pentecostés, algunas partes de esta obra, gracias, en parte, a lo que conocía de antemano de algunos adelantos metodológicos de ella publicados en castellano. Luego, mis ideas previas sobre estas cosas que aprendí de mis maestros, además de algunas ayudas familiares, me permitieron abordar un poco por encima la lectura del libro. No lo entendí todo, pero sí pude darme cuenta de la importancia del núcleo práctico del diccionario en que se describen las familias de palabras. Se da en él mucho más de lo que se promete en este diccionario, que aún la etimología con la historia del léxico: para explicar una amplia red de palabras emparentadas, construida a partir de una documentación a la que era difícil acceder hace uno pocos años, que llega a asentarse, en muchos casos referentes al pasado, en un grupo importante de nombres de persona y de lugar, muchos de ellos, encontrados en la documentación romance. Y sobre todo en la posibilidad de contar con el diccionario que ha llevado a buen puerto Ibon Sarasola.

Veamos, aunque sea muy por encima, echando mano de algunos ejemplos, cómo, en efecto, esta obra puede contribuir la mejora del trabajo etimológico sobre el castellano.

2.1. Empecemos por la motivación semántica

Al hilo de la publicación del *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa*, en este artículo se dan a conocer los diccionarios etimológicos publicados en el ámbito de las lenguas indoeuropeas. Tras analizar los diccionarios impulsados por los neo gramáticos, se analizan las características del diccionario histórico-etimológico del latín de Ernout-Meillet que tuvo gran repercusión en su disciplina. Entre otros se han tratado los siguientes puntos: la necesidad de los *Thesaurus* producidos por los filólogos, labor que en el caso del euskera ha desempeñado el Diccionario General Vasco, la influencia de las teorías de la raíz de Benveniste en el estudio de las lenguas indoeuropeas, la nueva perspectiva que han generado las investigaciones de las últimas décadas y las consecuencias que ha tenido en la lexicografía de las lenguas indoeuropeas, sobre todo en el proyecto de la escuela de Leiden. Por último, se ha comentado el aspecto semántico de la etimología.

Palabras clave: Lexicografía etimológica, lingüística indoeuropea, Benveniste, teoría de la raíz, lingüística vasca diacrónica.

Suite à la publication du Dictionnaire historique et étymologique du basque *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa*, cet article nous présente les dictionnaires étymologiques publiés dans le domaine des langues indo-européennes. Après une analyse des dictionnaires produits par les néo-grammairiens, nous analysons les caractéristiques du dictionnaire historique et étymologique du latin d'Ernout-Meillet qui connut un grand retentissement dans sa discipline. Nous avons traité en particulier les points suivants : la nécessité des *Thesaurus* produits par les philologues, travail qu'a réalisé pour le basque le Dictionnaire Basque Général, l'influence de la théorie de la racine de Benveniste dans son étude des langues indo-européennes, la nouvelle perspective qu'ont engendrée les recherches des dernières décennies et les conséquences induites dans la lexicographie des langues indo-européennes, surtout dans le projet de l'école de Leiden. Enfin, nous avons traité l'aspect sémantique de l'étymologie.

Mots-clés : Lexicographie étymologique, linguistique indo-européenne, Benveniste, théorie de la racine, linguistique basque diachronique.

Following the publication of the *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa*, this article presents the etymological dictionaries published in the field of Indo-European languages. After analyzing the dictionaries promoted by the neo-grammarians, are analyzed the characteristics of the historical-etymological dictionary of Latin by Ernout-Meillet, which had a great impact on his discipline. Among others, the following points have been dealt with: the need for the *Thesaurus* produced by philologists, a task that in the case of Basque has been carried out by the General Basque Dictionary, the influence of Benveniste's root theory on the study of Indo-European languages, the new perspective generated by research in recent decades and the consequences it has had on the lexicography of Indo-European languages, especially on the Leiden school project. Finally, the semantic aspect of the etymology has been commented.

Keywords: Etymological lexicography, Indo-European linguistics, Benveniste, root theory, Basque language diachronic linguistics.

1. Nire esker beroenak euskaltzainburu den Urrutia jaunari, jardunaldi hauen batzorde akademikoari, Euskaltzaindiari eta Joseba Lakarrari aurkezpen honetara gonbidatu izanagatik.

Lakarra jaunak aurkezpen honetan parte hartzea eskatu zidanean, ezin izan nion ezetik esan, alde batetik, konturatzen nintzelako gaurko eguna egun handia izango zela euskal hiztegitzarako eta batez ere hiztegi honen egile nagusiarentzat, duela ia 30 urte hasi zuen ikerlanari nolabaiteko burutzea eman diolako. Badakit, bestalde, ekitaldi honetan egoteko arrazoia Joseba Lakarrarekin aipatu urte guztietan izan dudana harremanarengatik dela eta inolaz ere ez euskal hiztegitzantzan edo etimologia kontuetan egin-dako nire ikerketa edo lanarengatik.

Testu honetan ondorengo gaiak eztabaidatuko ditut: sarrera gisa, zenbait hitzen lehen agerraldia aurreratzeko egin dudana ekarpena aipatu ondoren (§ 2), etimologiagintzaren ezberdintasuna euskal eta indoeuropar alorretan (§ 3). Gero neogramatikariaren ekarpena (§ 4) tratatuko dut Ernout-Meillet-en hiztegi eredugarria (§ 5) aztertu baino lehen. Ondoren filologiaren ekoizpenak diren *Thesaurien* beharra, gure kasuan *Orotariko Euskal Hiztegiarena*, nabarmenduko da (§ 6), Benvenisteren erro teoriak IE-ren ikerketan izan zuen eragina (§ 7), azken hamarkadetako ikerketek ekarri duten ikuspegi berria (§ 8), aurrerapen hauek IE-zko hiztegitzantzan, batez ere Leidengo eskolaren egitasmoan, izan duten ondorioa (§ 9). Azkenik etimologiaren alde semantikoa eztabaidatuko da (§ 10).

2. Esan dudana bezala, ez naiz hiztegitzalea ez eta euskal zein erdal hiztegitzaren ikertzailea, aurkezpen honetan parte hartu duten batzuk bezala. Gehien jota, hiztegi erabiltzaile arrunt bat naiz, edo nahi bada, hiztegitzalea.

Arlo honetan egin dudana ekarpena hutsa edo hutsaren hurrengoa da: hauen artean, Lakarrak askotan aipatutako (beti begi onez, gainera) nire “Vasco-Celtica”, non tradizioan zeltatzat emandako euskal maileguak aztertu eta kritikatu nituen (urteak dira eta beste saio bat mereziko luke

¹ Lan honek ondoko laguntzak izan ditu: a) PID2019-106606GB-C3-2 ikerketa proiektua (Espainiako Zientzia eta Ikerketa Ministerioa) eta b) Euskal Unibertsitate Sistemako IT1344-19 Ikerketa Talde Kontsolidatua (Eusko Jaurlaritzak).

gaiak), edo XVI. mendeko Andrés de Poza lizentziatuak aipatu zituen euskal hitzen eta esapideen azterketa, hitz batzuen lehen agerraldia aurreratzeko eta esapideren baten esanahia argitzeko aukera eman zidana.

Azken urteotan, Hesperiaiko proiektuari, hau da, inskripzio paleohispanikoen edizio digitalak sarean zabalduko dituen egitasmoari eskaini diot ordu asko eta horren arrimura modu batera edo bestera Hispaniako eta Galiako izen propioen batze eta aztertzeari. Bertako izen indigenen bila nabilela, behin baino gehiagotan suertatu zait inskripzio berri ezezagun batzuekin topo egitea. Normalean ez dute interes handiko informazioa ematen, baina Frantziako Bourges hirian, antzinatean Bituriges Cubitarren hiriburua zen hartan, ofizio izen interesgarriak dakartzaten erromatar garaiko bi inskripzio latindar agertu dira.

Batak *acucularius* “orrazgile” hitza lekukotzen du, *-arius* latin atzizkiaren bitartez *acucula* ‘orraz txikia’ hitzetik eratorria.

Hitza orain arte iturri berantiarretan lekukotzen zen soilik, Isidororen *Hermeneumata* obraren eskuizkribu batean (CGL III 309, 26), forma edo irakurketa okerrean gainera (*cudarius*, grekozko *ραφιδοποιός* itzulpenari esker, *acucularius* zuzendua izan dena).

acūcula hitza ‘orraz txikia’ IV. m. Bordeleko Marcellus eta Plinius Valerianusen obra teknikoetan lekukotzen da, pinuen orraz orriekin egindako edari bat aipatzen dutenean. Gure inskripzioak, beraz, gutxienez bi mendez aurreratzeko du lehen agerraldia. Jakina da latin klasikoan orratza *acus* zela eta forma honek erromantzeen artean sardinieraz eta Korsikako hizkeraz *acu*, *agu*, italieraz *aco*, *ago* eta errumanieraz *ac* formetan bakarrik izan duela jarraipena.

Mendebaldeko erromantzeetan *acucula*-k, *acus*-en txikigarriak, hartu zion tokia: fr. *aiguille* (fr. zah. *aguille*), prov. *agulha*, cat. *agulla*, esp. *aguja*, pg. *agulha*. Dokumentazioaren arabera Rohlf's erromanista handiak (Rohlf's 1979, 197-8, oh. 421) uste izan zuen aldaketa ez zela IV. mendea baino lehenago gertatu; orain aldaketaren (hau da, bata besteak ordezkatzearen) garaia zehatz jakin gabe ere, badakigu II. mendean *acucula* hitzak konpetentzia egiten ziola *acus* hitzari Galiako erdigunean.

Bigarren epitafioak, hain garbia ez izan arren, badu bere interesa. Hemen ere hildakoaren izenaren ondoren haren lanbidea adierazten da: *Cintusmo C/Garrigario* (datiboz).

Lehenagokoaren antzera, hitzak *-arius* latin atzizkia du, ogibide izenak, *carpentarius*, *lapidarius* bezalakoak eratzeko erabiltzen zena. Baina zein da hitzaren oina? *Carrico* /-a ez da latin hitza. Etimologia egiten hasiz gero, bi aukera bururatzen zaizkit.

- bata, zeltazko *carro*- ‘gurdi’-tik *-ico*- zelta atzizkiaren bidez osatutakoa, “gurdiaiekiko” esanahia izango lukeena, “gurdibidea” kasurako, nondik gure *carrigarius*-ek bidearen nolabaiteko kudeaketa edo zaintza bere gain hartzen duenaren lanbidea adieraziko lukeen.
- bestea, latinaurreko **karra*- ‘harri, haitz’ hitzetik abiatzea; hor dugu gask. *garric* ‘rocher’, ‘haitz’. Hala balitz, **karrika*- ‘harrobia’ izango litza-teke eta *carrigarius* ‘hargina’. Epitafioak dakarren irudia kontuan hartuko bagenu, bigarren aukera honi emango genioke lehentasuna.

Dena den, hitzaren oina bata edo bestea dela, hitzaren lehen eratorpena zeltazko *-ico*- atzizkiaren bidez egindakoa da, gure hitzean ahostundu egin dena. Luze eramango gintuzke zehazteak bokal arteko herskariaren ahostuntzearen hedadura eta kronologia zein izan zen mendebaldeko latin arruntan; azkenengo urteetan, bestalde, antzeko ahostuntzea galieran ere gertatu zelako frogak agertu dira, eta ezin jakin gure kasuan galierari edo latin arruntari egotzi behar diogun bilakabidearen erantzukizuna.

3. Euskararen lehen hiztegi etimologiko eta historikoaren aurkezpenean gaude. Orain arte ez da egon gure artean izen hori merezi izan duen obrarik. Lakarrak berak liburuaren hitzaurrean Tovar-Agud eta Trask-en saioak aipatu eta kritikatu ditu. Zerbait izatekotan etimologikoak dira, eurenak ez ezik beste askoren etimologiak batu eta komentatu dituztelako, baina inola ere ez historikoak, hitzen historia euren eginkizun eta interesetik kanpo gelditu zelako.

Tovar-Aguden hiztegiak XX. mende hasierako obra dirudi, euskara munduko hizkuntza ezagun gehienekin konparatzen zen garaikoa. Ez da harritzekoa, ordea, hizkuntzen arteko ahaidetasunez Tovarrek uste zuena jakin-

da. Haren ustez hizkuntza ahaidetasuna ez zen soilik jatorri bat eta bakarra izatetik hizkuntza multzo batek partekatzen zuen izaera, ahaidetasuna lortu baitzitekeen historian zehar aldameneko hizkuntzekin izandako ukipenen ondorioz ere: ukipenezko ahaidetasuna –“parentesco por contacto”– zeritzon. Halako ideiekin ez zitzaion batere ezinezkoa egiten euskarak bere hiztegian hizkuntza askorekiko erlazioak gorde izana, eta seguruak ez baziren ere, zeinek daki, haren ustez ez ziren guztiz baztertzeoak.

Iruditzen zaigu halako jokabidea euskararen arloan gertatu ohi dela soilik, baina gure kasuan joerak marka ederrak lortu dituela ukatu gabe, ez da ahaztu behar zenbait hizkuntza indoeuoparretako hiztegiatan ere antzeko joerak izan direla, batez ere jatorrizkoak ez diren hitzak azaltzeko orduan. Arrazoia begi-bistakoa da: zenbat eta ilunagoa izan azaldu behar den hitza edo hitz multzoa, orduan eta ugariagoak substratuzko eta edozein hizkuntza ezezagunen bidez emandako argibideak. Euskararen eta hizkuntza indoeuoparren arteko ezberdintasuna honetan datza: grezieraren kasuan jatorri ez indoeuoparreko, hau da, printzipioz jatorri ezezaguneko, hitz multzoa mugatua da; euskararen kasuan alderantziz da: latinetik eta erromantzetik datorrena kenduta, beste guztia da –hitz eratorri garbiak izan ezik– printzipioz ezezaguna.

Edozein hiztunek daki *betilea* begi azaleko ilea dela eta *sehaska* ume txikientzako *aska*. Ez du horretarako hiztegirik behar. Beste gauza bat da hitz horiek noiztik, zein esparrutan eta zein bizitasunekin lekukotuta dauden edo historian zehar edozein motatako aldaketarik egon den jakin nahi badu; horretarako, hiztegi historiko batera jo beharko luke. Baina, behar bada, *otsein* bezalako hitz baten aurrean ez luke asmatuko morfemen banaketa egiten eta osagaiak identifikatzen. Kasu horietan behar du hiztun batek hiztegi etimologikoa, zeinen eginkizuna den hain zuzen osagaien arteko erlazioa, aldaketen ondorioz ilundu eta moztaratu dena, bere aurreko gardentasuneran eramatea: **ogi-sein*, “ogiaren truke bere familiarena ez den etxe batean bizi eta lan egiten duen sein”.

Baina zer egin *begi*, *bihotz*, *zaldi*, *behor* eta antzeko hitzen jatorria jakin nahi badu? Antza denez, hitz horiek euskarak bereak ditu, inondik hartu gabekoak, eta ez dakigu noiztik dauden bizirik hizkuntzan eta zein forma

edo itxura zuten lehenago, ezberdina baldin bazen behintzat. Hemen espainolezko ordainak diren *ojo*, *corazón*, *caballo* edo *yegua*-ren jatorria jakin nahi bagenu, ez genuke Corominas-Pascual-en hiztegira joatea besterik latinezko *oculus*, *cor*, *caballus* eta *equa* hitzetatik datozela jakiteko. Azalduko digu, gainera, *caballus*-ek lehenagoko *equus* ordezkatu zuela, eta ordezkapen honen kronologia eta arrazoia. Hori espainolez ez ezik, inguruko erromantzeetan ere gertatu zela gehituko digu. Gure jakin-mina urrutiago eramán nahi badugu, ikasiko dugu hitz horietatik hiruk jatorri indoeuropar garbia dutela:

- lat. *oculus* < **h₃ok^w-(e)lo-* : gr. ὄψ /ōps/, ὄσσε: skr. *akṣī* : esl. *oči* ‘begi biak’: got. *augo*. Oinarrizko erroa **h₃ok^w-* da eta protohizkuntzara eramán daiteke. Latinaren eraketa ez dago zabaldua eta horregatik pentsa daiteke bilakabide partikularra izan dela.
- *cor*, *cordis*: **kēr* < **kérđ-/kǵđ-V-* : hit. *ker*, *kard(i)-* : skr. *hrd* : gr. κῆρ /*kēr*/: got. *hairto* /*herto*/ < **kerđ-on-*. Latinaren bokalismoa *ɾ* bokalikotik erregulariki sortutakoa da. Aipagarria lat. *crēdo* ‘sinistu’ aditzaren etimologia: **kred-d^heh₁-* ‘bihotza jarri’.
- *equus*: **ékwo-* : skt. *ásvāḥ* : av. *aspō* : irl. *ech* : got. *aihwa-* : gal. *epos* : gr. ἵππος /*híppos*/. Hizkuntzalariek aspalditik dakite **ékwo-*, eraketaren aldetik, ez dela beste biak bezalakoa, desinentziaren aurretik bokal bat duelako, bokal tematikoa deitzen dena. Uste izan dute, gainera, eraketa molde hau, aitzin-hizkuntzarena izanik ere, azken fasekoa dela, eta hitza lehenagoko forma atematiko batetik eratorria dela, anatolikoaren lekukoek azken urteotan agerian jarri duten bezala; baina hortik aurrera konparazioak egitea zaila da. Batzuek, kontuan hartuta grezierazko eta sanskritoazko poesian formula ihartu gisa *ókées híppoi* eta *ásvāḥ* ‘zaldi azkarrak’ agertzen direla, **h₁k^wo-* edo **h₁k^u-* ‘zaldia’ gr. ὠκύς ‘azkar’ hitzarekin lotu dute, azken honen protoformatzat **h₁o-h₁k^u-* proposatuz (Beekes 2010).

Azken burutapen hau, guztiz erakargarria izan arren, espekulazioaren eremuan gelditzen da, barne berreraiketaren ondorioa den neurrian ez duelako konparazioaren aldetik erabateko onarpena jasotzen: printzipioz ὠκύς eta *ásá-k* *h₃* laringala eskatuko lukete; **ékwo-*, hitzak, ordeá, *h₁* laringala, eta gauzak areago konplikatzeko latinezko *acu-pedius* ‘oin bizkorduna’ eta

enparauak ὠκύς eta *āsá*-ren kognatuak badira, orduan h_2 laringala egongo litzakete jokoan; bestalde proposatutako $*h_1o-h_1k-ú$ protoformak *o*-graduko erreduplikazio ezohikoa eskatzen du.

Hitz hauen protoformak segurantza nahiko handiarekin duela sei mila urte inguru kokatzeko gai bagara, metodo konparatiboak hizkuntza familia barneko materiala konparatuz eta landuz lortzen duen berreraiketari esker da.

4. Hizkuntza indoeuropar bateko hiztegia bi multzotan zatituko dute hiztegitileek: jatorrizko hitzak eta arrotzak. Lehenengoez, osorik edo zatika, familiaren beste hizkuntzetan ordainak izango dituzte, soinu korrespondentziak erregulariki betetzen dituzten neurrian kognatutzat har daitezkeenak. Izen arrotzei jatorria bilatu beharko zaie, hemen ere kandidatuak izan daitezkeen artean konparazio lana eginaz: informazio linguistiko eta historikoaren aberastasunaren arabera multzo hau argituz joango da. Kontu hauek apur bat irakurri duen edozeinek dakien bezala, multzo bateko aurrerapenak badute bigarrenen bere eragina. Ezaguna da armenieraren sailkapenarekin gertatutakoa: hasieran indo-iranieraren adarrekoa zela uste zuten, iranieratik mailegatutako onomastika eta hitz multzo handiagatik, harik eta Hübschmannek 1877an armenieraren bilakaera propioak argitu zituen arte.

Forma eta aldaketa fonetikoak / esanahia eta aldaketa semantikoa.

Hizkuntzalaritza zientzia bihurtu baino lehenago, etimologistek Varroren definizio famatu hartan “*cur et unde sint verba*” [zergatik eta nondik datozen hitzak] zergatiari ematen zioten pisu handiena, hitzen esanahien arrazoia kanpoko errealitatean aurkitzen saiatzen zirelarik. Hala jarraitu zuen kontuak, XIX. mendera arte, gure apologisten obrek ondo erakusten duten legez.

Horregatik, Humboldték bere aurreko jakitunen gehiegikeriak saihestu nahian, etimologiazko jardunetan hitzaren alde formala kontuan hartu behar zela aldarrikatu zuen (cf. Humboldt 1821, 12, eta nire iruzkina, Gorrotxategui 2019, 282-3).

Neogramatikariak izan ziren, dudarik gabe, soinu korrespondentziak eta lege fonetikoaren erregulartasuna agerian jarri zutenean, etimologia egiteko

modua errotik irauli zutenak. Harrez geroztik proposamen guztiek nahiz esanahiaren zein formaren aldetik ongi justifikatuta egon behar dute, hitzaren bilakaeran gertatu diren aldaketa semantikoak zein fonetikoak hizkuntzaren historian zehar izan direnekin zehatz identifikatu ondoren. Teoria mailan eta hizkuntzalaritza historikoaren ekintzan izan ziren aurrerapenak hiztegi etimologikoetan bere oihartzuna izan zuten. Hauetako bat Boisacqen grezieraren hiztegi etimologikoa da. Lehen argitaraldia 1916an izan zuen hiztegi honen izenburuak (*Dictionnaire étymologique de la langue grecque, étudiée dans ses rapports avec les autres langues indo-européennes*) garbi erakusten du hizkuntza familia barneko konparazioan hartzen duela etimologiak bere sendotasuna eta aurrera egiteko bidea. Baina konparazioa neogramatikarien erregelekin egin behar da, Boisacqek hitzaurrean dioen bezala: “*Le sporadischer Lautwandel, à quoi Curtius consacrait la moitié de son livre, a vécu*” [“Soinu aldaketa esporadikoa”, zeini Curtiusek bere liburuaren erdia eskaintzen dion, igaro da (hiztegi gintzan edo etimologiagintzan)]. Eta lege fonetikoaren garrantzia garbi gelditu dadin, Boisacqek 7-8 orrialdetan IE-tik grezierara gertatzen diren aldaketa fonetikoaren zerrenda dakar: “*Les sons de la langue grecque dans leurs rapports avec ceux de l’indoeuropéen commun*”.

Neogramatikariaren eraginari esker hizkuntza askoren, ez bakarrik indoeuroparren, gramatika historikoak eta hiztegi etimologikoak idatzi izan dira, hizkuntzalaritza historikoa eta konparatua bere urrezko garaira eraman dutenak. Joan den mendearen lehen herenetik hasita hizkuntza indoeuropar zahar garrantzitsu gehienek hiztegi etimologiko berriak aurreko belaunaldiak egindakoen tokia hartzen joan ziren. Hor ditugu latinen eremuan Hofmannek Walderen hiztegi zaharrea oinarrituta ekoiztu zuena (Walde-Hofmann 1938) eta Ernout-Meilleten hiztegi eredugarria. Urte batzuk geroago Mayrhoferrek indiera zaharrena argitaratu zuen, Uhlenbecken hiztegi zaharkitua guztiz eguneratuz (Mayrhofer 1956-) eta, grezierari dagokionez, gauza bera gertatu zen Friskek Boisacqen hiztegia ordezkatu zue-nean (Frisk 1960-).

Urte askotako konparazio praktikari esker, hiztegi gileak indoeuropar jatorriko hitzekin sentitzen ziren seguruen eta hiztegien zatirik handiena eta baliotsuena hitz horien etimologiari eskainita dago; horregatik dira aldi be-

rean indoeuropeazko hiztegi etimologikoak. Euren artean, bai eta euren eta Pokornyren indoeuropeazko hiztegi etimologikoaren (IEW) artean ere erlazio estuak sortu ziren, elkarri egiten dizkioten etengabeko aipamenak erakusten dutenez.

Gainera hiztegi kritikoak dira, ordura arte emandako etimologiak aztertu, kritikatu eta zuzenak ez zirenak alboratu zituztenak. Itzelezko lanaren ekoizpenak dira.

Baina, bestalde, hiztegiak normalean produktu kontserbadoreak dira, ikerketaren aurrerapenak astiro eta egilearen iritzien galbahetik igaro ondoren onartzen dituztenak. Frisken hiztegia adibide ona da.

XX. mendearen erdialdean argitaratzen hasia izan arren, eta ordurako laringalen teoria aspalditik arloan ezaguna eta erabilia izan arren, Friskek bere hitzaurrean justifikatu egiten du berreraiketa tradizionalen alde egitea. Frisken iritziz ez zen ezer irabazten ᾗω-ren etimologia egitean haren jatorria *aǵ- proposatu ordez *h₂eg- proposatzearekin.

Mizenikozko materiala ere ez du erabiltzen, hau ulergarriagoa bada ere, ezen lineal B idazkera 1953an deszifratu baitzen eta han irakurtzen zena greziera arkaikoa izan arren, artean lan filologiko latza egiteke zegoen. Eta, azkenik, jatorri arrotz eta ilunekoak azaltzeko orduan substratuzko hizkuntza bat onartzen du, pelasgikoa deritzona, hau da, greziarrak bere lurralde historikora sartu baino lehen batzuen ustetan Grezia aldean egiten zen indoeuropar jatorriko hizkuntza.

5. Latinaren alorrean Ernout-Meillet-en hiztegi famatua aipatu behar da.

Dictionnaire étymologique de la langue latine. Histoire des mots (1932) izenburuak aditzera ematen duen bezala, hiztegian sarrerek bi zati dituzte, bata filologikoa, non hitzaren lehen agerpena, hedadura, erabilera eta pareko esanahiko hitzekin duen erlazioa azaltzen diren, besteak beste, eta zati etimologikoa, askoz ere zehatz eta laburragoa. Gainera, idazkera bateratua izan arren zati historikoaren arduraduna A. Ernout izan zen, eta etimologikoa-rena A. Meillet. Hiztegia eredu bihurtu zen eta lau agerraldi izan zituen, azkena 1959an, bakoitzean zuzenketak eginaz eta datu berriak gehituaz, nahiz eta ia guztiak zati historikoan eginak izan ziren. Laugarren argitalpe-

nean Ernoutek aldaketa asko egin zituen, baina espresuki dio “J’ai très peu modifié la partie étymologique; les étymologies présentées par A. Meillet restent toujours valables, et, de celles qu’on a proposées depuis sa mort, il est bien peu qu’il eût acceptées, en raison de son caractère incertain ou arbitraire” (EM, 1959, xvi) [Meilleten proposatutako etimologiak oraindik onargarriak dira, eta haren heriotzaren ordutik hona proposatu izan direnen artean gutxik mereziko zuketena haren oniritzia].

Arrazoiak du Ernoutek esatean Meilleten etimologiak onargarriak direla; kontua da gaurko ikuspuntutik ikusita onargarriak izan zitezkeen beste asko dudazkotzat eman zituela, hau da, oso hertsia edo zorrotz jokatu zuela kognatuak onartzeko orduan.

Un rapprochement qui n’est que possible ne saurait servir à faire l’histoire d’un mot. Les vocabulaires des langues ind-eur. sont divers; les alterations phonétiques ont eu pour conséquence que beaucoup de phonemes de la plupart des langues admettent plusieurs origines, et parfois huit ou dix origines distinctes, ainsi *f*- initial en latin; les procédés de formation des mots sont multiples; les sens sont flexibles. Ceci posé, c’est merveille si, en se bornant à l’élément radical du mot, on ne trouve pas, dans une ou l’autre des langues de la famille, deux consonnes et un sens vague qui permettent un rapprochement à un comparatiste exercé disposant de beaucoup de dictionnaires. (EM, 1959, vii-viii)

Balizko alderaketa batek ez luke balio izan behar hitz baten historia egiteko. Hizkuntza indoeuroparren hitzek iturri bat baino gehiago dute; beraz, aldaketa fonetikoaren ondorioz hizkuntza gehienetako soinu askok iturri bat baino gehiagotatik etor daitezke, batzuetan zortzi edo hamar iturri ezberdinetatik, latineko hasierako *f*-a bezala. Hitzen eraketak ere askotarikoak dira; zentzuak malguak. Hau hala izanik, ez da harritzekoa ikertzaile trebe batek, hitzaren erroa mugatzen bada eta hiztegi kopuru dezentea eskuragarri badu, arazorik ez izatea [IE] familiako hizkuntzetako batean bilatzen duen alderaketarako bidea eman dezaketena bi kontsonante eta esanahi lauso bat aurkitzeko.

Konturatu behar gara Meillet ez dela ari urrutiko hizkuntzekin egiten diren eraketek buruz, hots, substratuzko hitzak, mailegu ilunak eta antzekoak azaltzeko orduan egiten diren eraketa mota ohikoei buruz, baizik eta

familia bereko hizkuntzen arteko erkaketez. Hau da, metodoak eskatzen duen zorroztasun osoa familia barruan aplikatu behar dela aldarrikatzen du.

Jatorrizko hitzetan, etimologiak, onargarria izango bada, baldintza batzuk bete behar ditu:

- Hitz baten etimologia onargarria izan dadin, ez da nahikoa hitz hori IEzko erro bati atxikitzea: hitz horren egitura, balorea eta erabilera zehazki argitu behar dira. Ez da nahikoa latinezko *ferō* aditz forma grezierazko φέρω /ferō/ eta sanskritoazko *bhārāmi* formekin lotzea. Argitu behar da, zergatik latinak flexio mistoa, tematikoa eta atematikoa duen, zergatik forma batzuk monosilabikoak diren eta beste batzuk bisilabikoak, aditzaren esanahia burutugabea edo inperfektiboa den, aditzaren orainaldian bakarrik erabilia, ezen erroak ez du aoristorik ez perfektorik eratzten; horretarako erro ezberdina erabiltzen da: *tuli* – *latum*.

Hitzaren familia barruko hedadura ere azpimarratu behar da: orokorra den edo eskualde batekoa soilik. Orokorrekin aukera gehiago dute proto-hizkuntzaren garaikoak edo ondare zaharrekoak izateko, familia eremuaren muturretan lekukotzen diren hitzek bezala: *credo*, *rex* edo *lex*. Bestalde, *porcus* ‘txerrikume’ hitzaren hedadura (eta beste askoren hedadura berdina) ikusita, pentsa daiteke latinak mendebaldeko hizkuntzekin, hau da, zelta eta germanikoarekin, harreman estuak izan zituela, aipatutako hizkuntzetan soilik lekukotzen baita hitza.

Meilletek garrantzi handia eman zion hitzaren gizarte mailari eta erabileari, ez baitira hitz guztiak berdinak: batzuk oinarritzkoak dira (ideia orokorrenak, ekintza funtsezkoenak, etab. adierazten dituzte), beste batzuek, ordea, izaera herrikoia dute (alde formalean ere antzeman daitekeena: *a* bokalismoa, geminazioa, eta afektibitate kutsua darie) eta aurrekoak baino aldakorragoak dira. Hitz jasoek eta herrikoiek bilakabide ezberdina izan dezakete. Erromantzeen historian hau gauza ezaguna da, erromantze guztiek dituztelako latingetik eskolaren edo liburuen bidez hartutako hitz jasoak (kultismoak) eta herrikoiak, ahozko tradizioaren bidez sortutakoak, *capitulo* eta *cabildo* bikoteak eta ehunka halakok erakusten duten moduan.

Hizkuntza indoeuropar zaharren historian idatzizko eragina ia ezinezkoa da, baina hala ere uste du zenbait hitzek –*lingua* ‘mihia’, *os* ‘hezurra’, *lien*

'barea' bezalakoak—, beste batzuek baino aldakortasun handiagoa erakusten dutela, *lingua*-k hasieran *l*- duelako, germanierazko *tongue*-k **d*- eskatzen duen bitartean, eta *ossum*, *os* hitzek (cf. skr. *asthi*, gr. *osteon*) beste inon gertatzen ez den *-*st*- > -*ss*- bilakaera dutelako, latinean bertan erregularlari jasotakoetan gertatzen ez dena, cf. *hostis* : germ. **gasts*.

Idea erakargarria egiten zait, nahiz eta aipatu gorputz zatien adibideetan zaila den azalpen garbia aurkitzea. Mingainaren kasuan, esaterako, ematen du herrikoia izatean baino gehiago tabuak ukitzen duen gorputz zatia izatean dagoela aldakortasun horren arrazoia. Dena den, hizkuntza baten barruan hitzek modu ezberdinean jokatzen dutela sumatzen denean, hau da, batzuek erregela finkoei hurbiletik jarraitzen dietela eta beste batzuek aurrekoek markatutako erregularitasunetik ihes egiten dutela, orduan pentsa daiteke hizkuntza horretan gizarteak nolabait baldintzaturiko bi kanal edo lekto egon direla. Agian halako egoera bat behar-ko genuke onartu, baldin eta lat. *voluntate*-tik eusk. *borondate*-ra daraman bilakabidea eta Lakarraren ustez lat. *lacrima*-tik eusk. *negar*-era daramana uztartu nahiko bagenitu. Ez da ahaztu behar, dena den, erromantzezko adibide klasikoan hitz jaso eta herrikoia, biak datozela ama hizkuntza beretik, aipatutako euskal adibidean biak maileguak diren bitartean, maileguen egokitzean gertatzen diren prozesu irregularren isla izan daitezkeenak.

Ernout-Meilleten hiztegia beste hiztegi askoren eredua izan da, batez ere maisu handiaren itzalean lan egin zuten ikasleentzat. Hor ditugu P. Chantraine-ren *Dictionnaire de la langue grecque-Histoire des mots*, ereduaren zati-keta bikoitza hertsu jarraitu zuena, edo Vendrysek hasi eta oraindik burutu gabe dagoen *Lexique étymologique de l'irlandais ancien*. Alde historikoari horrenbeste garrantzi ematen ez zioten hiztegieta ere, hala nola lehen aipatutako Frisken edo Mayrhoferrean, Meilleten eragina nabaria da: guztiak arduratzen dira lehen agerraldia edo aldaera dialektalak ematen, konposatu eta eratorrien multzoa zehazten eta hitzak ondorengo hizkuntzetan izan duen hedadurari buruz zerbait esaten.

Esan behar da Mitxelenak estimu handian zeukala Ernout-Meilleten hiztegia.

6. Euskarara bihurtuz, eta Mitxelena aipatu dudanez gero, garbi dago Mitxelena izan zela neogramatikarien metodo zehatza euskarari zuzen eta zorrotz aplikatu zion lehen hizkuntzalaria. Ez dut hemen maisuaren figura eta itzelezko ekarpena tratatuko, pare bat ideia izan ezik.

Metodo konparatiboaren eginkizuna kognatuak bilatu, ziurtatu eta euren arteko erkaketaren bidez aitzin-hizkuntza berreraiki eta hizkuntza bakoitze-ko formen historia modu argi batean azaltzea da. Hizkuntza isolatuek, hala ere, badute konparazioa non egin, maileguez jatorrizko hizkuntzan duten kognatuekin erkatuz.

Bide hori jorratu zuen Mitxelenak beste inork baino hobeto, eta, barne berreraiketarekin batera, duela bi mila urteko euskal sistema fonologikoa- ren berri eman zuen, harrezkeroztik euskal soinuek jasan dituzten bilakae- rak azalduz. Halan XX. mendearen hasieran indoeuropeistek grezieraren, latinaren edo erromanistek erromantzearen historia eta etimologiari ekarri zieten ziurtasuna eman zion Mitxelenak euskal hizkuntzalaritzari.

Bere liburu eta artikuluko guztietan azalpen etimologiko asko eman arren, Mitxelenak ez zuen hiztegi etimologikorik idatzi. Bazegoen bestelako pre- miarik eta eginkizunik; hauen artean, *Orotarikoa* prestatzea, hain zuzen. Tovarrek euskararen hiztegi etimologikoan parte hartzera gonbidatu zue- nean, ikusi zuen ezin zitekeela etxea teilatutik hasi, filologiaren tresna au- rreratu guztiak erabilia euskararen historia hobeto ezagutu baino lehen. Etimologiak egin baino lehen, idatzizko eta ahozko ondarea jaso eta aztertu behar zen. Meilleten ereduari jarraituz, hitzen lehen agerraldia, aldaera dia- lektalen forma, hedadura eta erabilera jakin nahi bazen, *Orotarikoak* zuen lehentasuna; latindar hiztegi- gintzan filologo klasikoek urteetan zehar bildu- tako *Thesaurus linguae Latinae*-ren funtzioa betetzera zetorren gure kasuan *Orotarikoa*. Eta *Orotarikoa* daukagunez gero, egin ahal da gaur itxurazko hiztegi historiko bat. *Orotarikoari* gehitu egin behar zaizkio, dudarik gabe, azken 30 urteetan euskararen historiaren ezagueran egin diren aurrerape- nak; hor dugu Gasteizko eskolaren eskutik argitaratu berri den *Euskararen Historia* (Gorrotxategi et al. 2018).

7. Indoeuropar arlora itzuliz, Benvenisteren ekarpena aipatuko dut, bes- teak beste, aurkezten ari garen EHHE honetan eragin handia izan duelako.

Benveniste bere garaiko hizkuntzalaritza indoeuroparraren egoeraz kexu da, ez duelako berreraiketa lanetan sistematikotasunik ikusten. Urteak igarota zeuden De Saussurek eta ondokoek laringalen teoria plazaratu zutene-tik eta ez ziren honen eraginak gramatika eta hiztegieta nabaritzen. Esan dut lehenago, Frisken grezierazko hiztegia aipatzean, zein astiro joan ziren ideia berriak hizkuntzalarien artean zabaltzen. Hurrengo aipuan ondo ikus-ten da Benvenistek bere garaiko berreraiketari egin zion kritika.

Ce qu'on a enseigné jusqu'ici de la nature et des modalités de la racine est au vrai, un assemblage hétéroclite de notions empiriques, de recettes provisoires, de formes archaïques et récentes, le tout d'une irrégularité et d'une complication qui défient l'ordonnance. On enregistre des racines monosyllabiques (*BHER-) ou dissylla-biques (*g^weyə); des racines bilitères (*dō-), trilitères (*per-), quadri-litères (*leuk-), quinquilitères (*sneigwh-), des racines à voyelle inté-rieure (*men-) ou à diphtongue (*peik-); à voyelle initiale (*ar-) ou à voyelle finale (*pō-); à degré long (*sēd-) ou à degré zéro (*dhək-): à diphtongue longue (*srēig-) ou brève (*bheudh-), à suffixe ou à élargissement, etc. On serait en peine de justifier et même d'énumé-rer complètement tous les types de racines qui sont attribués à l'in-doeuropéen.

Il y a ici un abus de mots qui trahit une doctrine indécise. On n'obtient pas de l'indo-européen en additionnant les diverses formes indo-européennes d'un thème verbal ni en projetant dans la préhis-toire des particularités d'un état de langue historique. Il faut essayer, par de larges comparaisons, de retrouver le système initial sous sa forme la plus simple, puis de voir quels principes en modifient l'éco-nomie. (Benveniste 1935: 147)

Aipu luze honetan bere garaian onartzen ziren erro mota gehienak ze-rrendatzen ditu. Monosilabikoak eta bisilabikoak antzinako indiar tradizio-tik zetozen, eta besteak, alorrak mende oso bateko ikerketaren ondorioz sortutako tipoak ziren. Baina De Saussurek garbi utzi zuen alde batetik bi-silaboak *ultima laryngalis* erroak zirela, eta bestetik bokal luzeko biliteroak (*dō-*, *fē-*) eta bokalez hasten zirenak (*ag-*, *ed-*) bukaeran edo hasieran larin-galen bat zuten erroak zirela (**deh*₃-, **dheh*₁- / **h*₂*eg-*, **h*₁*ed-*).

Benvenistek 1935ean erro teoria berri bat proposatu zuen proto-indoeuroperarako. Teoria horren arabera, (aditz eta izen) erroa monosilabiko eta trilateroa da, CeC egiturakoa: **ped-*, **b^her-*, **h₁es-*, **deh₃-*. Ez dago, beraz, bokalez hasten edo bukatzen den errorik. Ikusten denez, laringalen teoriaren ondorio zuzena da. Erroak bokal bakarra onartzen du bere erdigunean, egoera neutroan /e/ dena, baina azentuarekin lotuta dauden baldintza batzuetan beste bi aldaera dituen: /o/ eta zero: **ped-* (lat. ak. sg. *ped-em*) / **pod-* (gr. ak. sg. πόδα) / **pd-* (skt. *upa-bdā-*); txandaketa horri Ablaut deitzen zaio.

Baina zer egin hiru “letra” baino gehiago zituzten ustezko erroekin, **jeu_g-* ‘uztartu’ (gr. *zeúg-numi*, cf. lat. *iugum* ‘uztarria’) edo **snei_g^{wh}-* ‘elurra egin’ (lat. *ninguit*, esl. zah. *sněgъ* ‘elurra’) bezalakoekin? Benvenistek dio ez direla benetako erroak, baizik eta erroa gehi luzapena: **jeu_g+g-*, **(s)nei_g+g^{wh}-*. Erro luzatuen ebidentzia lehenagotik ere ezagutzen zen, ondoko adibidean ikus daitekeen bezala: skr. *ju-hó-ti* eta gr. *χῆFω* [k^héu-ō] ‘isuri’ aditz formek **g^heu-* erroa eskatzen badute, lat. *fundō* azaltzeko **g^heu-d-* erro luzatua behar da (kontuan izan erdiko *-n-* orainaldiko temaren morfema dela, erroaren bokalik gabeko zero gradua **g^hu-* eskatzen duena, hau da **g^hu-n-d-*). Konparazioa Benvenisteren azalpenaren alde dator lehen aipatutako **jeu_g-* ‘uztartu’ erroan, ezen skr. *yuv-áti* ‘lotzen du’ aditz formak garbi erakusten du luzatu gabeko **jeu-* erroatik datorrela.

Baina erro luzatuak bi motatakoak izan daitezke haren iritziz: atzizki batez sortutakoak erroarekin batera txandaketa jokoan sartzen direnak, eta luzapen hutsak. Lehen motako adibideak dira: **d_jéu-* (skr. *dyáu-* ‘ortzi’: gr. *Ζεύς*) / **déi_u-* (skr. *devá-* ‘jainko’, lat. *deus*) edo **pléh₁-* ‘bete’ (gr. *πίμ-πλη-μι* [pímplēmi]) / **pélh₁-* (skr. *pārī-nas-* ‘ugaritasun’), formalki ondoko txandaketa honen adibideak direlarik: CCéC / CéCC. Hau kontuan hartuta, **snei_g^{wh}-* ‘elurra egin’ erro tradizionalak formalki hiru osagai izango lituzke, haren ustez: **sen-* erroa + *-i-* atzizkia (CCéC egituran, **snei-*) + *g^{wh}* luzapena. Analisi eta zatiketa mota honekin indoeuroperazko erro guztiak formalki azaldu daitezke, baina kasu askotan (**snei_g^{wh}-* ‘elurra egin’ erroarekin gertatzen den bezala), ebidentziak ez du baimentzen osagai txikiagotan erroa zatitzea eta, bestalde, ez da ikusten zein izan zitekeen atzizki eta luzapen horien funtzioa.

Benvenisteren erro teoriaren oihartzuna handia izan da, ez bere osotasunean onartua izan delako, ezen gaur egun indoeuropeista gutxi jarraitzen dute haren 1935eko teoria, baizik eta agerian jarri zuelako ezin zela berre-raiketak egin erro eta morfema egiturari buruzko teoriarik gabe. Oraingo eskuliburuetan, morfologiaren zatiarekin hasi baino lehen, normala da erroaren egiturari eta Ablaut txandaketaren bitartez hartzen dituen aldaerei zenbait orrialde eskaintzea. Gaur egun hedatuen dagoen iritziaren arabera, indoeuropar erroa monosilabikoa da, eta sonoritatearen erregelaren arabera egituratuta dago, non $C_1C_2eC_3C_4$ egitura bateko erroan muturreko C_1 eta C_4 ezin diren erdiko C_2 eta C_3 baino ozenagoak izan. Badaude gainera konsonanteen konbinazioak mugatzen dituzten legeak. Baldintza horien barruan erro mota bat baino gehiago onartzen dira, ohikoenak ondoko egiturakoak direlarik: CeC, CeRC, CReC, CReRC.

8. Joan den mendearen azken bi edo hiru hamarkadetan aurrerapen handiak egin ziren indoeuropar izen morfologiari dagokionez; ikuspegi tradizionalak desinentzien aurreko fonemaren eta flexioaren arabera izenak hainbat tematan sailkatzen zituen, izenen deklinabidean parte hartzen zuten beste fenomenoei, Ablautari edo azentuaren kokapenari, esaterako, garrantzi handia eman gabe. Baina, alde batetik, erroaren eta atzizkien egitura kontuan harturik, eta, bestetik, Ablautaren eta azentuaren arteko erlazioa hizkuntzetan nola gertatzen zen ikerturik, hizkuntzalariak lau flexio edo deklinabide mota nagusi identifikatu zituzten izen atematiko zaharretan: azentu finkoa duen akrostatikoa, eta azentu mugikorra duten hiru, lehena azentua erroaren eta atzizkiaren artean txandakatzen duen protodinamikoa, bigarrena atzizkiaren eta desinentziaren artean mugitzen duen histerodinamikoa, eta hirugarrena errotik desinentziara igarotzen duen holodinamikoa. (Ik. ikuspegi berri hau indoeuropar aditzaren eta izenaren berreraiketan kontuan hartzen duten LIV eta Wodtko et al. 2008).

Aurrerapen hauek guztiek bere ondorioa izan dute azken urteetan argitaratu diren hiztegi etimologikoetan. Adibide batekin hobeto ulertuko delakoan, hona hemen 'lurra' adierazten duen izenarekin gertatutakoa. Hizkuntza askotan lekukotuta dagoen izen honen kognatuek (gr. nom. sg. $\chi\theta\acute{o}\nu$, gen. sg. $\chi\theta\omicron\nu\acute{o}\varsigma$, lok. sg. $\chi\alpha\mu\acute{\alpha}\iota$ 'lurrean': skr. ak. $kṣām$ -, gen. $j\acute{m}á\bar{h}$, loc. $j\acute{m}án$: aves. zam -, $z\acute{a}m\bar{o}$: lit. $\check{z}\acute{e}m\acute{e}$: esl. zah. $z\acute{e}mlja$: irl. zah. $dú$, don , etab.)

hasierako kontsonantearen lekuan hots korrespondentzia berezia eta nahi-ko arraroa erakusten dute: grekozko lokatiboak, avesterak, lituanierak, eslavierak eta sanskritozko genitiboak *gh- eskatzen dute, irl. zaharrak *dh- eta greko eta sanskritozko beste formek soinu konplexu bat: *ghd̥, thorn deitua izan dena. Izenaren bokalismoari eta Ablautari erreparatuta ondoko forma nagusiak berreraikitzen ziren: ak. *ghdēm-, ghđōm-, gen.-abl. *gh(đ) m-és, eta bokal luzeko nom. *ghđōm-, Pokornyren IEW hiztegiak dakarren bezala. Grezieran hitz bukaerako -m > -n bilakatzea erregularra da, gero deklinabidera, antzinako lokatibora izan ezik, zabaldu dena. Tokharierazko tkam eta batez ere hititerazko teekan 'lurra' lekukoak agertu zirenean, garbi gelditu zen Pokornyk onartutako protoforma oker zegoela.

Modu batera edo bestera, berreraikitzen zen formak bi herskari zituen hitz hasieran erroaren egitura kanonikotik urruntzen zutenak, eta bestalde hititerak kontsonante bi horien artean zuen bokala zaharra izan zitekeen. Orain hitzaren analisisia beste modura egiten da: *d^hg^h- ez da erroaren hasierako kontsonante konplexu bat, baizik eta *d^heg^h- erroaren C₁ eta C₂ kontsonanteak, zeinei -em- atzizkia gehituaz *d^heg^h-m- egiturazko hitza erator-tzen den. Hizkuntzetan agertzen diren formen jatorria ondoen azaltzen duen deklinabide mota holodinamikoa izan daiteke: nom. *d^hég^h-om, ak. *d^h(e)g^h-ém-m, gen. *d^hg^h-m-és. Deklinabide hau (edo oso antzeko bat) ez da inon bere osotasunean gorde, ez eta hititeraz ere, hizkuntza partikularretan analogiazko berrikuntzak egon direlako. Aurrerapen hauek guztiak, alde batetik filologiak eskaini duen materiala eta bestetik hizkuntzalaritzak proposatu dituen azalbideak, jasoak izan dira azken urteetan argitaratu diren hiztegi etimologikoetan, hititeraren hiztegian esaterako ikus daitekeenez (Kloekhorst 2008, s.v. *tēkan* /*takn*-).

Indoeuropar protoformaren berreraiketarako hititeraren formak duen garrantzia ez izan arren, aurkikuntza berri batzuk hizkuntza ezagun bateko hitzen historia hobeto ulertzeko lagungarri izan dira. Lehenagotik ere onar-tzen zen irl. zah. *dú*, *don* 'lurra' eta *duine* 'gizakia'-ren arteko erlazioa gr. *χθών* 'lurra' eta *χθώνιος* 'gizakia'-aren artekoa bezalakoa zela, bikotearen bigarrena -jo- atzizkiaren bitartez eratua; gero irlandearren historiaren momentu ba-tean hasierako kontsonante multzoak lehen belarra galduko zuen kontso-nante horzkaria utziz. Vercellin aurkitutako inskripzio galiar batean irakur

daitekeen TEUOΨTONI[O]N /dewo-χdoniōn/ dvandva motako hitz elkar-tuak (latinezko zatian “deis et humanis” itzuli izan zena) garbi utzi du pro-tozeltan ‘gizakia’ χdonios edo γdonios zela, metatesia izan duen *ghdhom-formatik datorrena. Italikozko lekukoek, ordea, ez dute metatesia pairatu (lat. *homo* < *(dh)ghom-on-).

9. Aipatu dudan adibideak eta honek bezala beste askok garbi erakusten dute azken hamarkadetan indoeuropar hizkuntzalaritzan egin diren aurre-rapenek eta bereziki erroaren egiturarekin eta ablaut-azentuari buruzko deklinabidearekin zerikusia duten azalpenek hiztegi etimologikoetan bere ondorioa izan dutela. Pokornyren hiztegia, datuetan aberatsa eta alde horretatik oraindik erabilgarria izan arren, zaharkitua gelditu da, ez duelako islatzen gaur egungo hizkuntzalaritzak duen ikuspegia. Horretara dator Lei-dengo eskola aurrera eramaten ari den egitasmoa. Azken helburua den in-doeuoperaren hiztegi etimologiko gaurkotua egin ahal izateko pentsatu dute hizkuntza partikularren hiztegietatik hasi behar zutela. 2005ean jada lehen hiztegia (frisiera zaharrarena) argitaratu zenetik beste hamabi hiztegi argitaratuak izan dira, grekoarena eta latinarena barne. Helburua Indoeu-roperaren hiztegia egitea delako, aipatutako hiztegi gehienak jatorrizko hi-tzak bakarrik tratatzen dituzte, izenburuetan bertan aditzera ematen den bezala: hititeraren *Etymological Dictionary of the Hittite Inherited Lexicon* (Kloekhorst 2007) edo eslavieraren *Etymological Dictionary of the Slavic Inherited Lexicon* (Derksen 2007), esaterako. Alde horretatik ez dira aurreko belaunaldiak sortutako hiztegiak bezalakoak, ezen substratuzko hitzak eta maileguak, edozein hizkuntzaren lexikoaren zati direnak, ez dira tratatuak izan. Leidengo sail honetan salbuespen nabariena Beekesek idatzitako gre-zieraren hiztegi etimologikoa da (Beekes 2009). Garbi dago egileak azken hamarkadetan Greziako substratuzko hizkuntzari buruz egindako hainbat ikerketa hiztegian sartu nahi izan duela, bere ustez Friskeren hiztegiak alor honetan zituen akatsak eta hutsuneak zuzendu eta bete nahian.

Sail bateko aleak izan arren, irakurlea konturatuko da hiztegi guztiak ez direla metodo berbera erabiliz idatziak izan, batzuk datu baseen ondorioak direlarik beste batzuk aurreko tradizioko hiztegien ustiatzean oinarritu bai-tira. Dena den, badute guztiek ezaugarri bat aurreko belaunaldikoek nor-malean ez zutena: hiztegia egiteko orduan kontuan izan dituzten teoriak,

ikusuntuak eta hautuak berariaz azalduak izatea. Hau guztia hitzaurreei emandako orrialde kopuruan islatzen da. Ernout-Meilleten hiztegiari, formatu handikoa izanda ere, hitzaurreak sei orrialde besterik ez bazuen hartzen –Walde-Hofmannen LEW edo Frisken GEW askoz ere laburragoak ziren–, Leidengo hiztegi berri hauetan hitzaurreak 20 orrialdetik gorakoak dira normalean, batzuk hizkuntzaren gramatika historiko osoa aurkezteko aukera hartzen dutelarik, Kloeckhorstek 150 orrialdeko hitzaurrean egiten duen bezala. Hitzaurre horiek ez dituzte egile guztiek gauza berberak azaltzeko erabili, nork bere interesen edo ikuspegiaren arabera baizik. Hala, Derksenek balto-eslavieraren azentuaren bilakaerari ematen dio garrantzia, zenbateraino izan zitekeen bilakaera hori amankomuneko ezaugarri bat eta hortik nola joan zen aldatuz adar bakoitzean geroago. Ikusten denez, zuhaitz filogenetikoaren ikuspegi batean balto-eslavierak izan zezakeen izaeraren eta existentziaren beraren auzia dago egilearen burutapenen azpian. De Vaan (2008), latinaren eta italikoaren hiztegia moldatzerakoan, italikoa nola uler daitekeen azaltzeaz gain, hizkuntzaren periodizazioaz arduratzen da, kontu honi orrialde batzuk eskainiz. Beekesek, ordea, 35 orrialdeko hitzaurre luzean substratuzko hizkuntza –Pre-Greek deritzona– nolakoa izan zitekeen azaltzen saiatzen da, haren sistema fonologikoa eta beste zenbait ezaugarri grezierak hartu dituen maileguetatik ondorioztatuz; material hori ikertu ahal izateko lehenago irizpide metodologikoak azaltzen ditu, bereziki substratuzko hitzek erakusten dituzten aldaeren ugaritasuna. Garbi dago EHHE, hitzaurreak liburuan duen luzerari dagokionez, joera berri honetan lerratzen dela.

10. Orain arte etimologiaren alde formala aztertu dugu, nahiz lege fonetikoaren erregulartasuna zein erro eta morfemen egitura, horretan ikusi duela indoeuropar hizkuntzalaritzak bere burua seguruen. Etimologiak badu, ordea, alde semantiko bat, esanahiaren bilakaerarekin lotuta dagoena eta berreraiketa lanetan berreraiki behar dena ere. Hizkuntzalariek badakite aldaera semantikoak tipologia ezagun batzuetan sailkatu daitezkeela, hala nola esanahiaren esparrua zabaltzea edo murriztea, balorea goratzea edo gutxiatea, metaforaren eragina, tabua, ukipenaren ondoriozko transferentzia, etab. Hizkuntza guztietan atzeman daitezke aipatu aldaketak, baina soinuen aldaketekin ez bezala normalean aldaketa semantikoak banan-ba-

nan azaldu behar dira. Hiztegi historiko batean, materialaren ugaritasunaren arabera, ez da zailegi izango hitz baten bilakaera semantikoa jarraitzea. Baina berreraiketan hizkuntza familia bateko kognatuen esanahiak elkarrengandik urruti daudenean, nahiko zaila izaten da protoformaren alde semantikoa zehaztea, batez ere erroen kasuan. Egoera honen aurrean Pokornyren (IEW) joera ahal den esanahi zabalena eta orokorrena proposatzea izan zen, gero familiako hizkuntza bakoitzak esanahiaren esparrua zentzu batean edo bestean murriztuko zuena. Hau da, aldaketa mota guztietatik bat bakarrik, murriztearena, erabili zuen berreraiketarako tresna gisa, arrazoi honengatik kritikatu izan zelarik.

Herri edo garai bateko kulturen errotutako usadio edo ohiturak ulertzea beharrezkoa da hitzen esanahiaren bilakaera eta kognatuen arteko harremana behar bezala azaltzeko. Behin baino gehiagotan gertatu da alderdi formalengatik sumatu besterik ez zegoen kognazioa guztiz egiaztatu dela esanahien arteko ezberdintasuna modu egoki batean azaldu denean.

Hona hemen adibide gisa lat. *damnum* ‘kaltea, galera, xahupena’ hitzaren kognatuekin gertatutakoa. Ernout-Meilleten hiztegiak, hitzaren esanahia, erabilera eta gainerako datu filologikoak eman ondoren, etimologiari dago-kionez hau dio: “Le rapprochement avec *daps*, souvent proposé, est indémontrable; toutefois, l’identité de *damnum* et des mots arm. *tawn*, v. isl. *tafn* est séduisante. Peut-être ancien terme religieux. V. *daps*”. Formaren aldetik *damnum* **dap-no-m-en* bilakaera erregularra da, *somnum* ‘loa’ **sop-no-m* formarena den bezalaxe; bigarren honek hitz familia bereko du *sopor* eta kognatutzat skr. *svápna-* eta gr. *hupnos* ‘loa’. Era berean, lat. *daps* ‘sakrifizioa, bazkari errituala’ hitzak agerian du *damnum* hitzaren **dap-* erroa, baina esanahiaren aldetik urruti dago. Bestalde, arm. *tawn* ‘jaia’ eta islandiera zah. *tafn* ‘sakrifikatuko den animalia’ esanahiaren aldetik lat. *daps*-ekin lotzen dira, eraketaren aldetik lat. *damnum*-en parekoak direlarik. Jatorrizko **dh(e)h₂p-* erroaren esanahia proposatzerakoan gehienek ‘sakrifizioa’ edo ‘sakrifizioaren ondoko oturuntza’ lehenetsi dute, lat. *damnum* eta gr. *dapáne* ‘nekea, xahupenak’ bankete handiek dakartzaten xahupen eta galerak adierazten dituztelarik (ik. De Vaan 2008, s.v. *daps*: “PIE **dh₂p-* is attested for the specific meaning ‘cutting pieces of meat from a victim, preparing a sacrificial meal’”). C. Watkinsek irl. zah. *dúan* ‘poème, chant poétique’ lat. *dam-*

num-en kognatutzat hartu zuenean (Watkins 1976), hitz familiaren barruko erlazio semantikoak modu ezberdin batean ikusi zituen. Zer partekatzen zuten irl. zah. *dúan* ‘poema’-k eta lat. *damnum*-ek? Antzinako Irlandako kulturen agintarien ekintzak, normalean, zerbaiten truke poeta profesionalek sortutako poemen bitartez goratuak izaten ziren: printzeak edo agintariak jasotako poemarengatik ordainsaria ematen zion egileari. Watkinsen ustez *-no-* atzizkiz eratutako hitzek hartu-emanetan sortzen diren opariak eta ordainsariak adierazten dituzte: nahiz saritu behar den poema (irl. zah. *dúan*), nahiz ordaindu behar den kaltea edo galera (lat. *damnum*), nahiz jainkoen faboreengatik egiten diren sakrifizioak. (ik. LEIA, s.v. *dúan*).

Ez nuke Buck-en hiztegia aipatu gabe zati honekin bukatu nahi. Buck (1949) ez da hiztegi etimologiko bat, hizkuntza indoeuropar nagusietako sinonimoen bilketa baizik, hau da, egileak sarrera kontzeptual baten barruan hizkuntza partikularretan kontzeptu hori adierazten duten hitzak batzen ditu, euren jatorri etimologia gehituz. Hiztegi guztiz originala da, eta, ohiko zentzuan ez bada ere, konparatiboa, helburu horretarako, esanahia hartu arren konparaziobide eta ez jatorrizko forma. Hiztegiak aukera paregabea ematen du hitzen arteko harreman semantikoak aztertzeko eta, batez ere, familiaren adar bakoitzean hitzen ordezkapenak nola suertatu diren ikertzeko. Aldaketa semantikoak banakakoak direla ahaztu gabe, adibide argigarri asko aurki dezakete hiztegi honetan ezaguera gutxiko hizkuntza familietako edo euskara bezalako hizkuntza isolatuetako etimologiagintzan ari diren hizkuntzalariek.

11. Aurreko ataletan indoeuropar hiztegiak izan dituen arazo batzuk erakutsi ditut, eta azaldu dut nola egin zaien aurre familiaren ezaguera eta hizkuntzalaritzaren ikerketak aurrera egin ahala. Euskararen hiztegi etimologiko bat egitea askoz ere lan zailago eta neketsuagoa da, baina hala ere hemen aurkezten ari garen EHHEk bikainki gainditu ditu oztopo guztiak. Garbi dago hiztegiaren alderdi historikoa bestea baino ondorio sendo eta seguruagoetara heltzen dela, urte askotarako baliagarria izango dena. Gora go esan dudana bezala, horren atzean ez bakarrik *Orotariko Euskal Hiztegia*, baizik eta azken 30 urteko ikerketa filologiko sakonak daude. Hiztegi honetan irakurleak agian etimologia bitxi eta harrigarriak aurkituko ditu, baina inolaz ere ez Blevinsen etimologiaren antzekoak, zeinek *asmo* gazt. zah. *as-*

mar-ekin zerikusirik ez duen hitz jatorrizkotzat hartzen duen edo *Izpea Axpe* 'haizpe'-ren aldaera gisa hartu beharrean 'secret' bezala ulertzen duen (< *hitz* + *behe*). Cf. Blevins 2018, 358 eta 204. Honek esan nahi du lekukoen ezaugarri guztiak, batez ere agerraldien kronologiari, hedadurari eta testuinguru filologikoei dagozkienak, kontuan hartuak izan direla azalbide historiko eta etimologikoetan.

Lekukoen azterketa hertsitasunez egin arren, etimologiagintzan beharrezkoa da denboraren ardatzean atzera egitea eta lehenagoko fase bateko egoera berreraikitzea. Hori bakarrik lortzen da, eta euskararen kasua ez da berezia, kognatuen arteko konparazioaren bidez. Eta hauxe da, nire ustez, hiztegi honen ekarpen nabariena: dozenaka lotura aurkitu direla ustez erlaziorik gabeko hitzen artean, kognatu aurkitu berri hauek askotan hitz familia zabalak osatzen dituztelarik. Baina indoeuropar hizkuntzalaritzan ez bezala, non kognatu berriak lehenagotik ezagutzen den hizkuntza arteko kognatu zerrendan sartzen diren (ikus irl. zah. *dúan*), hemen hitz familia osoak agertzen zaizkigu, erroaren teoria berriak eta zenbait bilakaera fonetikok eskatzen dutenaren arabera hitzak analizatu ondoren. Erroaren teoriarik gabe ezinezkoa zitekeen askotan erroa identifikatzea eta familiako hitz ezberdinetan izan dituen aldaketak azaltzea, hala nola metatesia, asimilazioa, desagertzea, etab. Egia da horietako bilakaera askok ez dutela niri gusatuko litzaidakeen ziurtasunik, gehienbat ez dagoelako kanpotik laguntza eman dezakeen kognaturik. Hasiera-hasierako erkaketan esanahia kontuan izan arren, erro teoriaren alde formalak hartzen du lehentasuna eta konparatutako hitzak, semantikoki urruti egon arren, kognatutzat hartzeko joera dago, gehienetan homonimiari esparrurik utzi gabe. Oztopoak gainditzeko, hitzen kasuan, aldaketa semantikoen paraleloak bilatzen dira, eta, morfemen kasuan, gramatikalizazio prozesuez baliatzen dira. Esan behar da paraleloak eta adibideak munduko hizkuntza familia askotan aurkitu dituztela, eta ez horrenbeste oso ondo ikertua izan den indoeuropar familian. (Ik. Gorrochategui 2020: 305-306).

Hiztegi honek ez du aitzindaririk euskal hiztegiagintzan, bide berriak ireki baititu euskal lexikoaren etimologiagintzan. Seguru nago proposamen jakin batzuk oniritzi handia erdietsiko dutela eta beste batzuk ez dutela iraungo, baztertuak edo aldatuak izango direla, jakina, baina, liburua proposamen

interesgarri eta iradokitzailez josita dagoenez gero, etorkizuneko ikerketaren bidea markatuko du. Ez zait gelditzen hiztegi honen egileak zoriontzea baino, euskaldun arrunten eta filologoek jakin-mina beteko duen obra bikain eta miresgarri hau gure eskuetan jartzeagatik.

Erreferentziak

BEEKES, R. (2010). *Etymological Dictionary of Greek* (2 tomo), [Leiden Indo-European Etymological Dictionary Series 10]. Leiden / Boston: Brill.

BENVENISTE, É. (1935). *Origines de la formation des noms en Indo-européen*, Paris : Maisonneuve.

BLEVINS, J. (2018). *Advances in Proto-Basque reconstruction with evidence for Proto-Indo-European-Euskarian hypothesis*, New York / London: Routledge.

BOISACQ, É. (1916). *Dictionnaire étymologique de la langue grecque, étudiée dans ses rapports avec les autres langues indo-européennes*, Heidelberg / Paris 1916 (1938³ aurkibidea gehitua).

BUCK, C.D. (1949). *A Dictionary of Selected Synonyms in the principal Indo-European languages*, Chicago.

CGL = *Corpus Glossariorum Latinorum*, a Gustavo Loew inchoatum ed. Georgius Goetz, III, Leipzig 1892.

de VAAN, Michiel (2008). *Etymological Dictionary of Latin and the other Italic languages*, [Leiden Indo-European Etymological Dictionary Series 7], Leiden / Boston: Brill.

DELG = P. CHANTRAINE (1968-1999). *Dictionnaire étymologique de la langue grecque*. Paris.

DERKSEN, R. (2008). *Etymological Dictionary of the Slavic inherited Lexicon* [Leiden Indo-European Etymological Dictionary Series 4], Leiden / Boston: Brill.

EHHE = J.A. Lakarra, J. Manterola, I. Seguro (2019). *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

EM = A. ERNOUT & A. MEILLET, *Dictionnaire étymologique de la langue latine. Histoire de mots*, Paris, 1932 - 1939 - 1951 - 1959.

GEW = FRISK, H. (1960-1979). *Griechisches etymologisches Wörterbuch* (3 tomo), Heidelberg: C. Winter.

GORROCHATEGUI, J. (1987). «Vasco-Celtica», ASJU 21: 3, 951-959.

——— (2019). *Opera Selecta Joaquín Gorrochategui II: Palaeohispanica. Indoeuropea*, Vitoria-Gasteiz 2019: UPV-EHU.

GORROTXATEGI, J., IGARTUA, I. & LAKARRA, J.A. (arg.) (2018). *Euskaren Historia*, Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritza.

GORROCHATEGUI, J. (2020). «*Fontes Linguae Vasconum: orígenes y documentos para una Historia del Euskara*», Santazilia, E. et al. (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte*, Pamplona-Iruña: Nafarroako Gobernua, 295-313.

HUMBOLDT, W. von. *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens vermittelt der Vaskischen Sprache*, Berlin: Dümmler [gazelaniaz: *Primitivos pobladores de España y lengua vasca*, F. Echebarria (arg.), Madrid 1959].

IEW = POKORNY, J. (1959). *Indogermanisches etymologisches Wörterbuch*, Bern /Stuttgart.

KEWA = MAYRHOFER, M. (1956-1980). *Kurzgefaßtes etymologisches Wörterbuch des Altindischen* (4 tomo), Heidelberg.

KLOEKHORST, A. (2008). *Etymological Dictionary of the Hittite inherited Lexicon*, Leiden /Boston: Brill.

LEIA = VENDRYES J. et al. (1959). *Lexique étymologique de l'irlandais ancien*, Dublin : DIAS.

LIV = RIX, H. et al. (2001). *Lexikon der indogermanischen Verben. Die Würzel und ihre Primärstammbildungen*, Wiesbaden: Reichert.

ROHLFS, G. *Estudios sobre el léxico románico*, Madrid 1979: Gredos.

WALDE, A. & J.B., HOFMANN (1938). *Lateinisches etymologisches Wörterbuch* (3 tomo), Heidelberg 1938 (1982^o): Winter.

WALDE, A. & J. POKORNY, J. (1927-1932). *Vergleichendes Wörterbuch der indogermanischen Sprachen* (3 tomo), Berlin – Leipzig.

WATKINS, C. «The etymology of Irish *dúan*» *Celtica* 11, 1976: 270-277.

WODTKO, D., IRSLINGER, B., SCHNEIDER, C. (2008). *Nomina im indogermanischen Lexikon*, Heidelberg.

Euskal ikerketa diakronikoak eta EHHErantzko bidea

Los Estudios diacrónicos vascos y el camino hacia el
Diccionario Histórico-Etimológico Vasco

Les recherches diachroniques basques et la voie vers le
Dictionnaire historique et étymologique basque

Basque diachronic studies and the way into the *Basque
historical and etymological Dictionary*

LAKARRA, Joseba Andoni
Euskaltzaindiaren EHHE egitasmoaren zuzendaria
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
joseba.lakarra@ehu.eus

Noiz jaso: 2021-01-10

Noiz onartua: 2021-03-20

Euskera. 2019, 64, 2, 2. 1103-1164. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskararen Hiztegi Historiko-Etimologikoa (EHHE200)-ren argitalpena dela eta, haren helburu, oinarri eta ezaugarri nagusien azalpenarekin batean, euskal etimologia-ikerketen bilakabide eta egoera laburtu nahi izan dugu lan honetan, funtsean aurretiaz Bilbon (Euskaltzaindiaren Egoitza, 2019/07/03) eta Baionan (Euskal Ikasketen Fakultatea, 2019/10/08) egindako aurkezpenak bilduz.¹

Hara bere egitura: 1. Etimologia eta hiztegi historiko-etimologikoak. Etimologia zeri deritzo?; 2. Euskal etimologiaren historiaurrea; 3. Hizkuntzaren ustezko ahaidetasunen emaitzak (edo emaitza faltak); 4. Mitxelena paradigma: 4.1. Mitxelenaren oinarrizko sistema fonologikoa; 4.2. Mitxelenaren etimologia-jarduna; 5. Forma kanonikoa eta etimologia: 5.1. Zergatik eta nola aldatu Mitxelena paradigma?; 5.2. Erroaren Forma Kanonikoaz; 5.3. Lehen urratsak eta lehen emaitzak; 5.4. Forma Kanonikoa eta Etimologia Formal; 6. Metodoaren hedadurak: 6.1. Hasperena, etimologia eta berreraiketa; 6.2. Hitz-familiak eratuaz eta etimologia sendagoak hedatuaz; 6.3. Gramatikalizazioa, lexikalizazioa eta etimologia; 6.4. Etimologia konparatua eta motibazioa; 6.5. Nola egin etimologia gehiago eta hobeak; 6.6. Kognatu sareak hedatuaz; 7. Emaitza eta ondorio zenbait; 8. Bibliografia.

Gako-hitzak: Diakronia, etimologia, filologia, etimologia formal, etimologia konparatua, forma kanonikoa, gramatikalizazioa, motibazioa.

En este trabajo, además de describir sus objetivos, fundamentos y características básicas, hemos querido sintetizar la situación y el recorrido del *Diccionario Histórico-Etimológico del Euskera* (EHHE 200). Para ello, hemos desarrollado lo expuesto en las presentaciones de Bilbao (sede de Euskaltzaindia, 03/07/2019) y Baiona (Facultad de Estudios Vascos, 08/10/2019).

He aquí su estructura: 1. Etimología y diccionarios etimológicos. ¿A qué se llama etimología? 2. Prehistoria de la etimología vasca; 3. Resultados (o falta de ellos) del análisis de hipotéticos parentescos del euskera; 4. Paradigma de Mitxelena: 4.1. Sistema fonológico básico de Mitxelena; 4.2. Actividad de Mitxelena en el campo de la etimología; 5. Forma canónica y etimología: 5.1. ¿Por qué y cómo superar el paradigma de Mitxelena?; 5.2. Forma canónica de la raíz; 5.3. Primeros pasos y primeros resultados; 5.4. Forma canónica y Etimología Formal; 6. Extensiones del método: 6.1. Aspiración, etimología y reconstrucción; 6.2. Familias de palabras; 6.3. Gramaticalización, lexicalización y etimología; 6.4. Etimología comparada y motivación; 6.5. ¿Cómo hacer más y mejores etimologías; 6.6. Ampliando las redes de cognados; 7. Algunos resultados y conclusiones; 8. Bibliografía.

Palabras clave: Diacronía, etimología, etimología formal, etimología comparada, filología, forma canónica, gramaticalización, motivación.

¹ Batean eta bestean izandako entzulegoaren galderak eta iruzkinak eskertzen ditut. Hemen laburregi ukitu edo atzenduriko hainbat alderdiz Lakarra et al. 2016ra eta, batez ere, Lakarra 2018a eta 2019a-etara jo liteke hala nahi edo behar izanez gero.

Dans ce travail qui décrit les objectifs, les fondements et les caractéristiques de base du *Dictionnaire historique et étymologique du basque* (EHHE 200), nous avons voulu faire une synthèse de la situation et des étapes des études étymologiques et historiques sur la langue. Pour ce faire nous avons développé les présentations faites à Bilbao (le 03/07/2019 au siège de l'Académie de la langue basque) et à Bayonne (le 08/10/2019 au Département d'Etudes basques).

En voici la structure : 1. Étymologie et dictionnaires étymologiques. Qu'appelle-t-on étymologie ? 2. Préhistoire de l'étymologie basque. 3. Résultats ou absence de résultats de l'étude de l'hypothétique parenté de certaines langues avec la langue basque. 4. Le Paradigme de Mitxelena : 4.1. Système phonologique de base de Mitxelena. 4.2. Activité de Mitxelena dans l'étymologie basque. 5. Forme canonique et étymologie : 5.1. Pourquoi et comment dépasser le paradigme de Mitxelena ? 5.2. Forme canonique de la racine. 5.3. Premières étapes et premiers résultats. 5.4. Forme canonique et étymologie formelle. 6. Extensions de la méthode : 6.1. Aspiration, étymologie et reconstruction. 6.2. Familles de mots. 6.3. Grammaticalisation, lexicalisation et étymologie. 6.4. Étymologie comparée et motivation. 6.5. Comment construire des étymologies nouvelles. 6.6. Sur l'élargissement des cognats. 7. Résultats et premières conclusions. 8. Bibliographie

Mots-clés : Diachronie, étymologie, étymologie formelle, étymologie comparée, forme canonique, grammaticalisation, motivation, philologie.

The aim of the EHHE200 has been to create the bases for the **Basque Historical Etymological Dictionary*, which we would like to complete at some point, as soon as possible, establishing for that purpose the most important details (modular, organised by family) and basic criteria (similar aspects of historical grammar's work). This project is, therefore, located at the point where diachronic linguistics and philology intersect and it is indebted to the beginnings and analytical developments of both. It would have been impossible to launch something like this if the "Mitxelena paradigm" in Bascology had not been advanced, if the search for the supposed origins of B. had remained in well-intentioned and limited amateur hands.²

² «Monumenta Linguae Vasconum. V. Periodización y cronología» [FFI2016-76032-P] Espainia-ko Gobernuak MINECO-k eta «Lingüística Histórica e Historia de la Lengua Vasca» [GIC. IT1344-19] Eusko Jaurlaritzak sustatuko Egitasmoen barnean egindako lana. Eskerrik beroenak aldizkariaren bi errebisatzaile anonimori eta lan hau asko txukundu duten Hizbea-ko lagunei, nahiz inoiz edo behin ez jarraitu haien iradokizunak eta baita Battittu Coyos eta Julen Manterolari beren zuzenketengatik.

Laburdura garrantzitsuenak: OEH = Mitxelena-Sarasola 1987-2005; AEM = Aitzineuskara Modernoa; AEZ = Aitzineuskara Zaharra; EBZ = Euskara Batu Zaharra; MEZ = Mendebaleko Euskara Zaharra; EHHE = *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*; FHV = *Fonética histórica vasca*; OEH = *Orotariko Euskal Hiztegia*; FK = Forma Kanoniko; C = kontsonante; R = ozen; S = txistukari; T = herskari, V = bokal; E1 = Lehen errebisatzailea; E2 = Bigarren errebisatzailea.

In the M.'s paradigm and beyond that too, the practice of etymology is linked to "the best linguistic theory and most accurate philology", as Meillet stated several times. The addition of the important necessary information required to make new constructions or update previous ones is limited or scarce: as the comparative method in Bascolology spread, so the charms of frivolous kinship discoveries were long since exhausted, and, as M. pointed out half a century ago, because the benefits of rich and enriching research on borrowing were about to be exhausted, we have turned to a more accurate philological method and new analytical perspectives and had to do so if the field is not to perish in the future.

In this presentation, we have sought to demonstrate how the new directions in the general development of diachronic linguistics included here have influenced or can influence the study of etymology –as in more advanced traditions: i. e., the study and spread of the Canonical Root Form (§5), improvements in achieving Formal Etymology (§5.4) and Word Families (§6.2); Grammaticalisation (§6.3); Comparative etymology and motivation (6.4) –because that, typically, is where the main opportunity lies to make significant progress. Here, however briefly and by necessity, as well as mentioning all this, we have not of course overlooked the findings of those philologists that followed Mitxelena (cf. Lakarra 2019a) and, likewise, it was essential for us to complete and disseminate the underdeveloped strong-points of the previous paradigm (§6.1), after examining and recognising its main foundations (4.1) and strong rich points (4.2). In order to continue assembling and refining this *EHHE*, we have also included "How to do more and better etymology" (6.5), and "Extending cognate networks" (6.6), acknowledging its importance.

We selected 200 families (about 100 of them borrowed and an equal amount) from the native lexicon and joined them, although often new members had to be incorporated into some of the earlier ones –mostly from the native lexicon–, in order to be able to reveal still hidden kinships. In those 200 families, up to 2,600 entries and subentries have been collected, as explained in the introductory section of the *EHHE* by means of a description of the micro- and macro-structure.

Little of the analysis is wholly ours; nevertheless, none of it is merely taken or picked up completely from someone else. There are also many variants, chronologies, dialectal extensions, protohistories and formal or semantic details which are considered good or useful with etymologies... we have added the novelties and details of many aspects (especially in proto-history and the oldest periods), often until questioning or changing what many of us had taken as the "definitive" or "true" etymological analysis.

The *EHHE-200* is not, and we would not want the future **EHHE500* or **EHHE1000* to be, just a pretty ornamental but empty coffin of B. words. The *EHHE* is a tool with which to study the evolution of B. (to make a Historical Grammar of the language) and, therefore, it must be used provisionally rather than kept closed in its pretty wrapping. We have already made noticeable advances in the lexicon, phonology, morphology and diachronic dialectol-

ogy; that is what we would like to have done, at least. However, we think that even more could be done henceforth in the study of all these aspects and in the history of the language. That is what we find on the paths developed by our mentor K. Mitxelena, reconstructing and extending them.

Keywords: Diachrony, etymology, formal etymology, comparative etymology, canonical form, grammaticalization, motivation, philology.

1. Etimologia eta hiztegi historiko-etimologikoak. Etimologia zeri deritzo?

On ne s'attend pas à ce que la physique atomique de 1935 soit celle de 1983. Au contraire tous les étudiants de physique actuelle sont présumés savoir, et sont examinés sur des choses totalement inconnues aux plus grands physiciens du monde il y a 50 ans. Ce n'est que naturel, et il en est de même en linguistique. L'indo-européen actuel n'est pas à puiser aux livres, même ceux qui ont fait époque et dont la connaissance parfaite est indispensable, obligatoire. L'indo-européen actuel est dans les esprits de nos étudiants et nos auditeurs. Espérons seulement qu'il voie le jour, pour que nous puissions en profiter (Watkins 1984: 294; "fisika" eta "indoeuropea"ren ordez, irakur bitez "etimologia" eta "aitzineuskara").³

Berandu arte euskalaritza osoaren bibliografia gehiena hizkuntzaren "jatorriez" izan da, hitz hau "ustezko ahaidetasun teoriak" adieran ulertuaz. Bertatik datozkigun etekinak edozein aldetarik begiraturik urri edo ezerez dira, are urri eta ezerezago etimologia eta hizkuntzaren benetako historia- renetik, Traskek zuhurki markatu bezala (1997: §6) "bongo-bongo" izan baita horrelako aztertzaileek erabili duten ia metodo bakarra, eta ez ikerketa tradizio garatuetan duela azken 150 urteotan errota eta zabaldu histori-ko-konparatu estandarra (ik. zabalago §3n).

Hizkuntzen historiaren funtsezko alderdiak ezagutzeko hiztegi etimologiko eta historiko-etimologikoak komenigarri eta are beharrezko izan arren, ez dira noiz- eta nolanahiko egitekoak, amateur hutsen pare aritu nahi ez bada bederen. Sakontasunetan murgildu beharrik gabe, bistako da lanak ezinbesteko maila hori Mitxelenaren paradigma barruan baino ezin lor ze-

³ Cf. "La investigación de la historia del vasco puede servir de modelo para el estudio de otras lenguas aisladas" (Campbell 2011: 38). Egile beraren *Historical Linguistics*en 2013ko 3. argitalpean erantsi atal batean –"§6.2.2. How can we advance knowledge of the history of language isolates?"–, barne berreraiketaz, berreraiketa konparatuaz, mailegaketaz, "gauzak eta hitzak" metodoaz, mundu osoko hizkuntzalaritza historikoko ikasleek eskura dezaketenen adibide gisa, gure hizkuntzaren diakroniazko ikerketan azken hamarkadetan (gehien-gehiena K. Mitxelenarri esker) lortutakoa da egileak aurkezten duen ia guztia (170-2).

zakeela gure artean, maisuak euskalaritza diakronikoan ezarritako oinarriei, filologiaren nahiz diakroniaren alorrean ekarri analisi aurrerapenez eta ikerketarako aurkeztu hipotesi, irizpide, ohitura eta tresnez baliatuaz. Hots, aurkeztu dugun EHHE200 hau legezkoak soilik *Fonética Histórica Vasca* eta *Orotariko Euskal Hiztegia*n gauzatu zen iker-sailaren eraldaketaren ondorengo izan litezke, bi mugarri erraldoi aipatzearen; bestela esan, hori dena ezinezko zatekeen, aurrekoak baino mehe eta ezezagunago baina haiek bezain funtsezko ditugun *Sobre el Pasado de la Lengua Vasca* eta, bereziki, ororen oinarrian den *Lenguas y Protolenguas* gabe.

Egoera honetan –paradigma estandarraren abaroan “egonean goxo” jarraitu beharrean–, aurrera egin asmoz aurkeztu genuen gure egitasmoa 2009ko martxoan Euskaltzaindiak Urkiolan egindako XVI. Barne Jardunaldiaren; ondoko urteotan ez EHHE osoa –1000 familia eta 6000-8000 hitzetik gorako, beste hizkuntza batzuetakoen antzeko hiztegi historiko-etimologikoa–, baina bai hori noizbait atundu ahal izateko abiapuntu eraginkor behar zuen izan gureak. Horretarako eta lehen urrats gisa, “100 bat hitzetako prototipoa zeinetan honelako lan batek aurkeztu dituen arazoez eskarmentua harturik zabalago horren muinaren zirriborroa izango dugun, mikro- eta makroegiturazko arazo nagusiak, horientzat ereduak, sarreraren hautaketarako irizpideak, barneko diseinua, horietako azpiatalak betetzeko etxeko eta kanpoko bibliografia, etab. landu[ko ditugu]” genioen 2009ko txostenean.⁴ Ondoko plangintzetan, 200 familiatako egitura hartu genuen oinarrizko helburutzat eta hori ipartzat dugula aritu gara aldi honetan.

Ofizioaren etimologia ez da hitz zenbaiten jatorriei buruzko interes handi edo exkaxeko anekdota bilduma, nahiz hitzok kultura, erlijioa edo bestelako alderdiren baten ikuspegitik merezimendurik handieneko izan (cf. Watkins 1990 eta 2000koaren sarrera). Aldiz, etimologiari dagokio gramatika historikoak hizkuntzaren eboluzio diakronikoa ikertzeko beharrezko duen zeinahi hitz eta forma linguistikotan gorde edozein informazioaren –foniko, morfosintaktiko, semantiko edo pragmatiko-kulturalen– azterketa. Azterketa eta azalpen hori, idealki, berreraiketa bidez eskura

⁴ Gai horietarik zenbait zehatzago aipatzen dira bilduma honetako J. Manterolaren txostenean.

genezakeen aitzinhizkuntza zaharrenetik lekukotasun modernoenetara hedatzen da (cf. Durkin 2009 bikaina). Hortaz, etimologiak hizkuntzalaritza historikoaren oinarri izaten jarraitzen du (cf. Watkins 1990, ofizioko gailur baten lekukotasun argigarria), eta haren azalpen edo garapen falta zuzenean loturik dugu berreraiketa eta diakroniari buruzko ikerketen egoerari. Hau, ordean, metodo historiko-konparatua ezartzerakoan hautatu eta jarraitutako oinarri, irizpide eta lekukotasunen azterketaren kalitatearen menpe (ik. Mitxelena 1950, 1956; Lakarra 1997a); halaber, unean-uneko etimologialariaren ezagutza, arta eta trebeziak ere baduke, segurki, zeresan aipagarririk.

“The term [etymology] is also used more broadly to describe the whole endeavour of attempting to provide a coherent account of a word’s history (or pre-history). As we will see in the course of this book, many of the basic methodological assumptions made in etymological research are the same regardless of whether we are looking at well-documented periods of linguistic history or at periods earlier than our earliest documentary records” diosku Durkinek (2009: 2) eta guk ere ez dugu uste funtsezko ezberdintasunik denik hiztegi etimologiko eta historikoen artean, “historiaren” eta “historiaurrearen” artean ez den (edo behar ez lukeen) bezala. Zorionez, *uniformitarismoa* gero eta hedatzenago da euskalaritzan ere, eta on litzateke ez nahastea ikergaiaren benetako natura, –bat eta bera aldi batean zein bestean–, eta hori miatzeko espezialistari sor dakizkiokeen eragozpen eta aukera hain ezberdinak, nahi lukeen bezalako lekukotasun corpora ez izatea, edota horren ezagutza sakonerako era guztietako prestalanak ere ez nahi lituzkeen bezain aitzinatuak aurkitu ezina, esaterako. Espezialisten artean historiaurrea nahiz historia analizatzeko erabilia metodo bera da, beraz, –historiko-konparatua–, hitz jakin baten garairik urrunenak zein arestikoak argitzeko.⁵

⁵ Lan honetan, bestela ere luzeegi eta, ezer gutxi esango dut guztiz ezinbesteko den filologiaren garapenaz (eta horren faltaz); aspaldiko Lakarra 1997a-z landa, ik. Urgell 2000b bikaina garai bateko edizioetako ohitura bitxiez eta horren jarraipen eder den Zuloaga (2021), *EHHE200*-ko §§10-11 atalez landa, Regueroren (2020) Nafarroako testu zaharren bilduma. Zilegi bekit eranstea geroztik Bilbao eta gainerakoen Lazarragaren argitalpen berri osotuagoa eta Gómez & Zulaikaren Pomieren bikaina ere azkenik agertu direla eta inprimategirako bidean dela Ulibarrik prestatuturiko *Dotrinazko Sermoitegi* garrantzitsua ere.

2. Euskal etimologiaren historiaurrea

Euskarazko etimologiaren historiaurrea ia hizkuntzarena berarena edo protohistoria bezain luze da, hein batean. Alabaina, nahiz informazio interesgarria dugun, gutxienez, Goi Erdi Aroko *Izpea* ‘subtus penna’ edo *Aker Çaltua* ‘saltus hircorum’-ez geroztik, Ibarguen-Cachopín Kronika (c. 1600) eta beste hainbat –larramenditar “bataioak” barne (cf. Urgell 2000, 2004)–, esan genezake K. Mitxelenaren eskutik eta haren lanen bidez sortu zela euskal etimologiaren garai zientifikoa. Segurki, 1950-70 baino lehen ere (hots, haren jardun etimologikoaren gailurraren aitzinetik) asko idatzi zen, –beharbada ondoko garaietan baino gehiago–, euskal hitzen jatorri eta bilakabideaz, baina kantitatea eta kalitatea ez zihoazen bat, inolaz ere. Aipatu 1950eko mugarri horren aurretik bada, izan, hainbat eta hainbat hurbilketa beste hainbeste euskal hitzen eta urliak edo sandiak une jakin batean euskararekin ahaidetu nahi zukeen dozenaka haietako anitzekin (ik. Mitxelena 1950, 1964, 1968; Trask 1997; Lakarra 1997a, 1999) baina oso bestelakoak dira batzuk eta besteak berehalakoan ohar gaitzkeenez.⁶

Mitxelena aurreko saio hits horietan zenbait euskal hitzek kaukasierazko, iberierazko, afrikar leinu ezberdinetako, paleosiberiar edo bestelako hizkuntzetakoekin lukeen ustezko eta axaleko antza da oinarri (aitzakia, hobe) kasu bakoitzean botatako ahaidetasun aldarrikapenetan. Horietan bildu ohi dira gainerako tradizioetan zaletu eta amateurren lanetan markatu hainbat huts, akats eta bidegabekeria, metodo erkatuaren zorrotzasunetik urruti: forma modernoan eta zein aitzinhizkuntzatik datorren ez dakigun hainbat

⁶ Cf. Campbell 1988, 2013; orobat Blust 2015 austronesioaren ingurukoez, Blevins tonga-austronesioarekiko saio xelebre batekiko (cf. Lakarra 2018a horren iruzkin luzeago baterako). Itxaroten dut ez ni izatea hizkuntza erkaketarenean ere, bizitzako beste arlo batzuetan bezala, bakoitzaren aurrekariak ezagutzea ezinbesteko dela deritzon bakarra. Bakker 2020k ez dio berebiziko garrantzirik ematen puntu honi; “As I lack the detailed knowledge to assess the specific reconstructions, I will discuss a handful of ways to evaluate long-distance relationships” (575) eta “Thus, I have added a number of potential cognates to those presented by Blevins, without, however, working out the exact details of the sound laws, and *without being able to judge the quality of my sources. I will leave that to others*” (581) edo “As far as I can see (but I am not an expert in all of the areas, let that be clear)” (587) botatzen dituenarengan ez da harritzeko ere.

hitzen erabilera, maileguak erkaketaren alderdi batean edo bestean (are guztietan), morfema analisi ezohiko, trakets edo interesatuak, esanahi oker edo faltsuak, etab. (ik. Lakarra 2018a), Trask 1997ko “bongo-bongo”-arekikoak gainditzeke eta horretarako berariazko asmorik gabe.

Lan-deslan horretan ez ziren *homologiak* bilatzen, hain ezberdin eta hain deusez diren *analogia* hutsalak baizik;⁷ ordea, lehenak dira baliagarri soilik azterketa diakronikoan, loturik daramatzaten lege fonetiko, aitzinhizkuntz(ar)en berreraiketa eta erkatutako hizkuntzen historien ikerketa sakonak direla bide. Kontrako norabidean egindako saio hauen emaitzak, itxaron zitekeen legez, ezin etsigarriago dira, ez soil euskararentzat ahaideak bilatzeari dagokionez, baizik eta, batez ere, aldarri horiek guztiak agor eta antzu direlako haren egitura eta bilakabideaz eskain dezaketen (eskaini behar luketen) informazioari doakionez.

Areago dena –eta komeni da honen inguruan une batez gogoeta pausatzea, gertakari hau ez baitute ez batzuek ez besteek behar bezala ezagutzen ez aitortzen– euskal etimologiaren eta hizkuntzalaritza diakronikoaren antzinako ohitura “jator” hauek (paleolitiko ala neolitoko ote?) zailtasun eta oztopoak areagotzen dituzte lehen ere berankor, urri, asimetriko, ñabardura gutxiko eta, batez ere, gutxiegi ikertu eta behar bezain ezagun ez den corpuseko hizkuntzaren azterketan (cf. Lakarra 1997a, Ulibarri 2013), nahiz antzeko jardunak antzina baztertu eta atzendu diren tradizio diakroniko garatuetan (cf., esaterako, Dixon 1997 glotokronologiaz).

Ez da harritzeko 1953 aldera gertakari hauek eta bildu ahalko lirartekeen enparauko hainbatek salatu etimologia eta hizkuntzalaritza diakronikoaren egoera etsigarriaren aurrean, alor hauek askorentzat ez izatea erromanisten eranskin edo kolonia kulturala baizik –hitzak, badaezpada ere, Mitxelena-renak berarenak dira–, handik zein hemendik zetorkeen edozein “argitu” edo “xelebreren” menpe (ik. Mitxelena 1954c). XIXaren akabuan eta XXaren lehen zatian metodo konparatuaren aurkako heterodoxiak eta etsaigoak biltzen eta, bereziki, aitzinhizkuntzak ez direla hizkuntza historikoen jatorri aldarrikatzen duen ospe handiko hainbat ikertzaile (Schuchardt, Trombet-

⁷ Ikus *Lenguas y Protolenguas* hizkuntzalaritza historikoan erabateko den bereizkuntza horretaz.

ti, Uhlenbeck edo Tovar, ad., cf. Lakarra 2003 [2008]) ditugu korronte horren ordezkari nagusi euskalaritzaren esparruan. Horrenbestez, aipatuak eta beste kaxkarrago zenbait ere, *ahaidetasun* hitzari ohiko adiera sendoa kendu eta edozein garai eta tokitako hizkuntzak “ahaide” bilakatzen eta berdintzen saiatu ziren usu. Honelako hurbilketek –gehi bilatu ohi zituzten zehaztu gabeko sustrato eta familia bat baino gehiagotako kideekiko ahaidetasunek–, ezin ekar zezaketen benetako aurrerapenik, aldian aldiko zaratara noiz handi, noiz txiki lortzeaz besterik (cf. Trask 1997: §6, Gorrotxategi 2001, Lakarra 2003 [2008], 2018a); ik. §6.2n aipatu Geene eta van der Voort (Uhlenbeck tarteko) beste tradizio batzuez.

3. Hizkuntzaren ustezko ahaidetasunen azterketaren emaitzak

If we want to say, with Greenberg, that demonstrating genetic relationship does not require any kind of reconstruction, then I think it's appropriate to ask what the purpose of our genetic classification is. I believe that most historical linguists value the classifications because they help us find out about the histories of the languages in a family. We reconstruct parts of their common protolanguage and then use those reconstructions to study and compare the changes that have occurred in the various daughter languages. In other words, *to be useful to a historical linguist, a hypothesis of genetic relationship must be fruitful: a valid genetic grouping will permit reconstruction and thus lead to be a better understanding of the member languages and their histories. If a genetic hypothesis does not lead to new insights of these kinds, therein it is sterile and, within linguistics, useless* (Thomason 1993: 494; etzana nirea da [JAL]; bitxi da Bakker 2020-k aipu honen berri ere ez izana).

Zer ekarri diote euskararen diakroniaren azterketari euskarak hainbat hamarkadatan ahaide-bila jasandako erkaketa zenbakaitzek? Ezer ez. Hots, ezer on eta interesgarririk ez euskalaritzaren eta euskal diakroniaren helburrerako; bai, aldiz, lan franko horiei aurre egiten eta atzerapen, oztopo eta luzamendu gehiegi alorreko benetako jardun eta egiteko probetxagarriagotarako. Meilletek behin eta berriro aldarrikatu legez, halabeharra, «kasuali-

tatea», da hizkuntzalari historiko eta konparatzaileak bere jardunean (ik. Mitxelena 1963 zein de Lamberterie 1998) izan lezakeen arrisku eta etsai larriena, eta ezin bestelako atarramenturik itxaron oinarri ez helburu estandarrik gabeko erkaketa hauetarik.

Castaños (1979), Trask (1997) eta, bereziki, Agud eta Tovarrek (1988-95)⁸ ustezko kognatu edo maileguen zerrenda luzeak bildu eta inoiz iruzkindu ere zituzten, baina ez da horien artean euskararen egitura eta hauen bilakabide, irregulartasun edo iluntasunik nimiñoena argitzeko eta alorreko benetako ikertzaileen egarri handi ez txikirik asetzeko asmorik. Hizkuntzalaritza historiko-konparatua modu egokian garatu den ikerketa-tradizioetan gertatuaren aurka, euskalaritzan aipatu saiootan ez dugu, beraz, aurreko bibliografian markatutako benetako arazorik askatzeko urratsik. Ez jakin euskararekin erkatzen ziren hizkuntzen egitura edo bilakabidea argitu nahi ziren –ez dirudi, egia esan, eta auzokoez ere beren etxeetan guk gurean aurkitutakoa bera kausitzen omen–,⁹ ala egileen Egoei lagunarte edo txokoetan haize emateko trikimailu; hots, behin ere ez ditugu miraz eta esker onez aipaturik ikusten ustezko ahaide horiekiko ofizioen benetako ikerketetan (ad. kartveliko, uraliko zein berbererarekikoetan). Salbuespen bakan iberierazale zenbait bide da, agian iberierak tutik ulertu gabe jarraitzen

⁸ Leku faltaz ez ditugu aipatzen hemen “Mitxelena paradigma” aurreko edo landako Agud eta Tovarren hiztegi bukatugabea edo Morvanek Orpustanen laguntzarekin prestatutakoak, ezta –amaitu izan balu aurrekoetarik aski ezberdina izan zatekeen (Mitxelenaren lan sakabanatuak modu pedagogikoan aurkeztea zuen funtsean helburu)–, Trasken ia hasi-berritan utzi eta haren heriotzaz geroztik bestek sareratua ere. Nahi izanez gero horiezaz ikus litezke Lakarra 2003 [2008], Lakarra et al. 2016 eta Lakarra 2018a eta 2019a-etako oharra.

Ezin argi eta egokiago dira Trask 1997ko azken ataleko iruzkinak konparazio saio ugarien balioaz, eta, bidenabar, haren iritzia ez da gurea baino hobea eta ez bide litzateke hobetuko ere gutxiegi ukitu ohi zuen etimologiaren alderdi filologikoa eta, oro har, euskarazko lekukotasunetik arreta zertxobait areagotu izan balu. Agud-Tovar eta Trasken bildumetako estandar (eta iturri) filologikoak zein diren ohartzea ez da zaila; konparatzaileenez hobe ez ezer esan. Ik. orain Ugartek (2019[2021]) dakarren lekukotasuna Mitxelenak Agud-Tovar hiztegiak zuen iritziaz eta baita Gorrotxategi (2019) ere.

⁹ Ikus Lakarra 2018a-n Morvanen ustekizun eta jardunaz uralikoak dakitenek estali ez duten iritzi ezin okerragoa; ez bide zen garaiz iritsi aldizkari honetan bertan duela zenbait urte haren saio barregarria onartu zutenen ezagutzara. Chaker-ek dioenez (1984: 241) espezialistek ez dute Murkovskyk berbereaz erabilitako lanabes eta irizpideetan fede izpirik.

duelako (ik. De Hoz 2010-11); ez da aditua izan beharrik gertakari honetatik datozen ondorioez jabetzeko, nagusienaz eta okerrenaz batez ere.

Teoria eta hipotesi horiek ez dituzte hizkuntzalaritza historikoaren eta gramatika konparatuaren hatsarre eta metodoak jarraitzen, hori hertsiki betetzea ezinbesteko den arren ahaidetasun zein sailkapen berri baterako edozein proposamen kontuan hartu eta egokitzea izateko, eztabaida-gai nahiz kitzikagarri bilakatzeko. Baldintzok hainbatetan azaldu eta zedarritzatu dira, ez Hampen (1998: 13-5)-eko sintesi lan bikainean bezain egoki, ordea:

1. datuak ez dira erkatutako hizkuntzetan espezialistek aztertu eta onartuak;
2. adituek zein erkagaiak ama-hizkuntzat dituzten hiztunek datu horiek ez lituzkete analizatuko (ezta morfemak zatituko ere) saioetan behin eta berriz egin bezala;
3. egileok ez dituzte erabiltzen konparaketa baino lehen ongi finkatu datu eta analisiak edo –gutxiagorekin ase behar badugu– horiekiko diferentzia gramatikal eta kronologiko ezagun eta onartu eta ongi ezarriak;
4. erlazio genetikoak frogatutzat aurkezten dira, horiek formalizatu-ko lituzkeen zuhaitzak espezialistek ontzat eman aurretik, inoiz glotokronologiak eta konparaketa masiboak ohi bezala (cf. Lakarra 1997b eta Campbell 2013 beste askoren artean);
5. euskalariak ongi dakitenez, «claim» ugari aurkeztuaz ikertzaileen lanerako asti urria exkaxten dute, inoren okerrak bilatzera eta datu guztiak banan-bana miatu eta segurtatzera behartuaz: «The disassembly of illicit trees is a time-taking and potentially annoying business which displaces useful scholarly work»;

eta, azkenik,

6. «The dissemination of such extended claims gravely misleads the public, a public not equipped to test for such technical failures» (Hamp 1998: 15); hau ere ezagun eta usuko gure artean.

Atal honen amaieratzat nekez aurki liteke Mitxelenak 1954an Holmerri egin gutunetik hartu Boudaren metodoekiko ondoko paragrafoan zioe-

na baino egokiagorik; nago aipatu gainerako idazle gehienei ere aldaketa handirik gabe egoki letorkiekeela: “estoy plenamente convencido ahora de que una parte muy considerable de sus paralelos es errónea, y que esto puede demostrarse, que otra gran parte es absolutamente problemática, e incluso, que si alguna vez acierta, le ocurre esto por completa casualidad y a pesar de sus mejores esfuerzos para no conseguirlo” (Satrustegi 1997-99: 325-6).¹⁰

4. Mitxelena

4.1. Mitxelenaren sistema

D. Catalánek A. Martineten omenez Kanarietan argitaratu bilduma erraldoi baten barnean atera zen lehenik K. Mitxelenaren “Las antiguas consonantes vascas” (1957a), euskal ikerketa diakronikoen mugarri nagusietarikoa eta oraindik 60 urte geroago indarrean dirauen Aitzineuskara Modernoaren sistema fonologikoa –soilik kontsonantiko nagusia, zehatzago (ez bokalismoa eta aurrekoaren menpeko inbentario fonosinbolikoa)– postulatatu zuen. Herskarien neutralizazio puntu eta modu bertsua hedatu zuen Mitxelenak ozen eta txistukarietara herskari zaharretarako Martinetek (1950) proposatu [+/- bortitz] oposaketa, haren hipotesia alde eta moldez, –argudio teoriko egokien nahiz zehaztasun filologiko jakingarrien bidez, alegia–, indartu ondoren (Mitxelena 1951, 1954a, 1973, etab.). Izan ere, hipotesia modu aljebraiko hutsean eraikia zen, egileak ohi bezala, datu interesgarri berri eta frogatutako etimologikorik gabe, ez maileguetan eta ez ondare zaharreko hitzetan ere.

Mitxelenak hiru argudio-mota gehitu zizkion frantses hizkuntzalariarenei:

1. latineko eta erromantzeko maileguetako geminatuen bilakabide hain esanguratsua (*sabbatum* > *sábado* / *zapatu*, *peccatum* > *pecado* / *bekatu*, *cobdicia* > *codicia* / *gutizia*),

¹⁰ E1-i probarik eman gabe gogortxo iruditzen zaizkio Mitxelenaren hitzak Boudaz; probak, ordeak, modu ezin sistematikoagoan bildurik ziren dagoeneko haren “De etimología vasca”n. Traskek ere (1997: 259) ez du galtzen horra bidaltzeko eta Boudaren jardunaz erabateko aurkako iritzia gehitzeko aukera.

2. [f]aren bilakabidea, /p/ nahiz /b/ren alofono izana, benetako [+/-ahostun] hizkuntzetan gertatzen denaren aurka, eta
3. grafia eta lekukotasun akitaniarren eta Erdi Arokoen analisitik datozenak. Honela berreraiki sistema K.a. azken mendeetarako onartu zen, euskara eta latinaren kontaktua baino lehen eta horren hasierako garairako.

bortitzak t k ts tz N L R
 ahulak b d g s z n l r (gehi /h/)¹¹

Arkaismoari dagokionez, aitzineuskara XIX. mendearen azken herenean Luchairek, 1954an Mitxelenak berak eta 1984tik aurrera Gorrotxategik aztertu menderen batzuk beranduagoko idazki akitaniarretako hizkerarekin (K.o. I-III) parekatu da usu, baina lilura horrek ezin iraun lezake bataren eta bestearen ikerketa garatuaz, –eta tarteko 500 edo 1000 urteko etena beratuaz eta argituaz–, doan neurrian.¹²

FHV (1961), egileak 1959an aurkeztu tesiaren bertsio zuzendua dugu, eta izan zuen egilearen bizian bigarren argitalpen berriztatua ere (1977), atal guztietan hainbat ohar eta gehiketa eginaz, bereziki gehien landu zituen azentu eta hasperenketarenean. Edizio berrian ez da sartzen, aldiz, leheneko “Resumen del consonantismo” gogoangarria, zeinetan iradokitzen den *bortitz ozen eta txistukariak* ez ziratekeela berezko, C-taldeetarik sortuak baizen, nahiz egileak ezin garatu ideia hau hor zein ondoko lanetan froga (= etimologia) faltaz, berak aitortu legez. Froga horiek lau bat hamarkada geroago hasi ziren agertzen, CVC erroaren forma kanonikoaren ezagutzarekin, alegia.

¹¹ Hainbat tokitan zehaztu bezala, “debemos suponer, pues una pronunciación aspirada de las oclusivas fuertes” (Mitxelena 1957a: §9); barnekoak hasperenik gabe baina luze; hortik latinetikoinaileguetan geminatu ahostunak nahi ahoskabeak horien bidez ematea euskaraz testuan azaldu bezala. Bidenabar, ez bide zen leku-faltaz edo gelditu aztertu gabe bokalismoa Mitxelelenaren sistemaren laburpenean; alderdi horretan egoera historiko nagusitik oso atzerago joateako zailtasunak behin baino gehiagotan aipatu zituen (cf. FHV 47, etab.), diptongo gehien ahuleziak eta berritasunak gainera.

¹² EBZren inguruko azken urteotako interes eta emaitza ugari eta aberatsagoek ere lagundu ahal dute bide berean; cf. Gorrotxategi 2018 bilduma ederra eta Ariztimuño 2011 akitanieraz gehi Lakarra 2018a eta (prest.-b) AEZ eta AEMz; EBZz Lakarra 2014, Urrestarazu 2021 horren zatiketaren alderdi zenbaitez eta Zuloaga 2020 MEZz.

Mitxelenak bere jarduna ehunkadaren erdi-erdian hasia zuen eta hasi ere zerekin eta “Notas de gramática histórica vasca” (1949) eta labur baina alorrerako iraultzaile eta mugarri gertatu “De etimología vasca” (1950)-ekin. Aukeraren arabera eusko-kaukasista, eusko-uraloaltaista, eusko-paleosiberianista edo eusko-mundialista zen, –ondoko Bengtson eta besteren aitzindari–,¹³ Boudaren artikulu batzuek zirela eta idatzi zuen bigarrena, nahiz eta aipatu gabe beti (neogramatiko jator bezala) etsai nagusi zuen Schuchardti zuzendurik. 50 eta 60ko hamarkadetako beste hainbat lanetan eta are 30 urte geroago hil ondoko 1987koan Mitxelenak azaldu zituen berreraikitzaile, hizkuntza historialari eta etimologo gisa zituen irizpide eta hatsarreak, eta, usuenik, bere eta Meilleten ondoko hizkuntzalaritza historiko estandarraren jardunarekin aurreko euskalaritzak (neurri handi batean Schuchardten erruz) zituen ezberdintasun handiak ezkutatu gabe (1957b: 108). Baina, hurrenez hurren, berreraiketa teoriaren harribitxi eta euskararen azterketan horren aplikazio paregabe diren *Lenguas y protolenguas* (1963) eta *Sobre el pasado* (1964) bikainetara jo behar bereziki, FHVrekin batean Mitxelenaren lanaren hiruko nagusira hurbiltzeko (cf. Gómez 2013, Gorrotxategi 2013).

4.2. Mitxelenaren etimologia-jarduna

Berrogei urtez ezin utzizko izan eta gaur arte benetako hiztegi etimologiko batetik edozein baino hurbilagoko Arbelaizen tesinarako (1978) bilketa-lan

¹³ Bengtsonez, Trask 1997ko azken ataleko eta beste iruzkin monografiko batzuetakoak aski dira... nahiz hark oraindik ere lehengo lepotik izan burua: “As one who has been seriously investigating the genetic classification of the Basque language for the past two and a half decades...” hasten da hark Forniri egindako iruzkina (2013, JIESen onartu eta argitaratua!) eta hurrengo urtekoa (hau *Journal of the Association for the Study of Language in Prehistory*-n, hori bai), “The hypothesis explored here, that the mysterious and ‘isolated’ Burushaski language of the high mountains of Pakistan is genetically related to Yeniseian, North Caucasian, and Basque (and more remotely to other Dene-Caucasian languages)...” eta “Cultural vocabulary shared by the same languages, including words for domestic sheep and goats, dairying, cultivated grain crops (and processes connected with them), and for other artifacts, suggests that the speakers of the proto-language ancestral to these languages (Euskaro-Caucasian or Macro-Caucasian) dispersed as early as 7000 to 9000 years BP in association with the spread of animal domestication and the cultivation of grain” amaitzen. Astirik (eta eroapenik) izanez gero bada non eta zerez ase.

onuragarriaren arabera, Mitxelena 1400/1500 etimologiaren sortzaile litzateke.¹⁴ Etimologia horiek dira euskal gramatika historikoaren oinarri: noiz kognatuen bidez lege fonetikoaren adibideak biltzen dituzte (*-n- > -ø- : *ardo* : *ardan*- ‘konposizioko forma’ :: *balea* : *balen*-, etab.), eta noiz lekukotasun zahar berreskuratuak dakartza (akitanierazko zein Erdi Aroko, Euskara Arkaikoko nahiz hizkera moderno atzendu bateko) edo *bazkari* < *pascuarium* bezalako Schuchardten etimologia ezinezkoak desegin eta analisi berrien beharra aldarrikatzen zutenak: cf. *barazkari* < **baratze-hari*; inoiz esanahiak eta aurreko analisiak zehazten ditu... eta, oro har, *LyPL* eta *SPLVn* hobetsi bezala, forma arkaiko, hedatu eta informatiboagoen aldekoak eraikitzen.¹⁵

Mitxelenaren etimologien oinarriak bikoitzak dira: antzinako konposatu-eratorpenen analisisa eta lehenagotik hainbat ikertzailek aztertu maileguena. Alabaina, hark burutu maileguen azterketa aurrekoena baino askoz finago da, Martinetengandik baina baita Bloomfield, Jakobson eta enparauengandik hartu fonologia estrukturalista eta diakronikoari eskerrak. Maileguak zabal eta xehe aztertzeak, -ik. 1974ko data daraman baina 10 bat urte lehenagokoa den “El elemento latino-románico”, ezinbestean dakar haren berreraiketa sistema, ez barneberreraiketa soil, baizik eta “mixtotzat” (barneberreraiketa + maileguen azterketa) hartu beharra. Gogora bedi aski dela morfemak eurak kognatu izatea berreraiketa “konparatua” izan dadin, nahiz horien hizkuntzak ez izan ahaide (cf. Mitxelena 1964n proposatu eusk.-albaniera erkaketa, adib.).

Menéndez Pidalen *Manual de gramática histórica del español*-en eta *FHV*-n diren maileguen gainean eratu etimologia eta lege fonetikoaren kopuruak erkatzean ohartzen gara holakoak *FHVn* 10-20 bider gehiago direla; zail da aurkitzen orrialde oso bat mailegu latin-erromantzezkoren batez –eta hortik abia-

¹⁴ Askoz gehiago dira *FHV*ko bi zerrendatan bildu 1961 eta 1977ko edizioetan aztertuak (4200 inguru 1.aren aurkibidean eta 540-edo 2.arenean, hainbat behin baino gehiagotan); ugari dira *Apellidosekoak* ere, gainerako laburragoetakoak ez aipatzearren. Obra Guztien edizioiko XV. liburuan are gehiago, nahiz honetan bildu iruzkinak era guztietakoak izan, ez soilik etimologiko edo hizkuntzazko, hertsia-hertsian.

¹⁵ Ikus Mitxelena (1963: 14hh) arkaismo eta berrikuntzen edo alomorfo zahar eta berrien artean bereizteko irizpideez. Hertsia-hertsian barneberreraiketa soilik morfemen irregulartasunen gainean egina da, ez dialekto ezberdinen erkaketaren gainekoa, hau konparaketatzat hartu ohi baita ofizioen artean (cf. Ringe 2003).

tuaz ondare zaharreko berben eboluzioaz, noski– oharrik eta azterketarik ez duenik. Ez da horren parekorik gaztelaniaren edo gainerako erromantzeen gramatika historikoetan, ezta latinaurrekoei germaniko, arabierazko edo beselakoak gehituaz ere.¹⁶ Beraz, maileguen bilaketa ezin utzizko lana izan zuen Mitxelenak, *FHV* aitzinetik batez ere, baina baita ondotik ere. Haien berebiziko garrantziagatik, hain zuzen, Tovar eta beste aitzindariak baino irizpide eta iragazki hertsia goen alde egin zuen, batez ere urrutien –berreraiketa estandarrak baino milurteko erdi atzerago edo– eraman gintzaketen latinaurreko geruzen azterketan. *Sobre el pasado* (1964: 48) ondokoak aipatzen dira gairitu beharrezko baldintzat: 1) deribazio fonetiko eta semantiko egokia; 2) indoeuropartasun segurua; 3) erkaketak hitz osoen artean izatea, ez hitz eta erro edo erro eta erroen artean, 4) IE hitzak izateaz landa, euskararekin kontaktuan segurtasun osoz izandako dialekto IEren batekoak izatea, 5) euskarara zuzenean iristea ez latinaren eta erromantzeen bidez, bestela horiek ez baikenituzke zeltatikoak, *zapatu* latinetikoa dugun bezala eta ez semitikoa.

Baldintza hauek ustezko emaitzei ezartzean, haietarik oso gutxi diraute eta urri horiek dira, izatekotan, latinaurreko IEtik edo zeltatik euskarak hartu mailegutzat jo litezkeenak (cf. Gorrotxategi 1987). Mitxelenarengan biltzen dira –Meilletek (1925) konparatista (hots, diakronista) bati eskatu bezala– hizkuntza teoria garatuena eta momentuan eskura zitekeen filologiarik hobereena. Azken honi dagokionez, hark zuen lekukotasunen ezagutza –aurreko eta ondoko edozein euskalarirena baino sakonagoa, inola ere– akitaniar onomastikari (1954a), Erdi Arokoari, RS-i (1954b) edo Oihenarti egokitu azterketa bikainetan gauzatzen da, eta baita, halaber, Betolatzaren dotrina, *Viva Jesus*, TAV edo Landuccioren *Dictionarium Linguae Cantabrigiae*-ren argitalpen txukun eta beharrezkoetan, 50eko hamarkadaren bigarren zatian: DLC-renak, bidenabar, dialektologia diakronikoarekiko ikerketak aldatu zituen erroetik. Ez zituen argitaratu gabe utzi Bonaparteren hainbat eskuizkribu edo

¹⁶ Lakarra 2012n erakutsi legez, jokabide hau oso berezia da Europako alderdi honetan; cf., hain zuzen, Mitxelenak gogoko zuen Jackson 1953, zeltak hartutako maileguen azterketa sistematikoaren bidezko historiaurrearen berreraiketa. 2012an aipatu hausa, bereber, komantxe eta gainerakoek landa erants bedi mailegu germaniko eta beselakoaren erabilera suomiera eta samieraren historiaurrea argitzeko; ik. Aikio eta Kallioaren lanak bibliografian, adib. Orobat, ik. Irwin 2011 monografikoa eta Frellesvig 2010eko oharra japonieraz.

hark berak zuzenean bildu materialak ere, are hiltzeaz zen Erronkariko dialektoarenak (Mitxelena 1954d, Mitxelena et al. 1953). Are bere azken urteetan ere (cf. Mitxelena 1981b-c) grina berezia erakutsi zuen filologiaren langa goian markatzeko eta errazkeriak deuseztatzeko eta horretarako inorentzako akuilukadez landa, bere kabuz landutako harribitxiak (1986ko “Contra Leko-bide”) eta are benetako testukritikazko saio arriskutsu bezain harrigarria ere (1984 “Ad experiendum”) ere eman zizkigun.

Aipagarri da Mitxelenak 50eko urteen erdialdera abian jarri Azkueren hiztegiaren zuzenketa; izan, hori zen hasierako asmo edo jasotako mandatua, baina epe motzean oso bestelako hedadura eta maila eman zion, hazten eta garatzen zihoalarik 1984az geroz erakundeen laguntzaz *Orotariko Euskal Hiztegia* abiatu arte. Mitxelena 1987an hil eta hilabeteren bat geroago atera zen lehen liburukia, eta I. Sarasolak zuzendutako taldeak amaitu zuen hamaseigarrenarekin papereko edizioa (2005); geroztik, aldiro errebisatuaz doa Gabriel Fraileren eskutik, 2019an seigarren edizio elektronikora iritsiaz. OEH, izan, ez da benetako hiztegi historikoa eta are gutxiago etimologikoa, baina euskarazko beste edozein baino hurbilago da *desideratum* horietatik, euskal testu-tradizioa Azkuerenean zein beste edozeinetan baino askoz hobeto ordezkatuaz, zalantzarik gabe. Bidebatez esan dezadan, Mitxelenaren asmoak hiztegi horren inguruan ulertzeko ezinbesteko dela haren *Estudio sobre las fuentes de Azkue* (1970 [1965]), zeinen zordun diren lexikografia zaharraren azterlan guztiak (ik. Lakarra 1993, Urgell 1997, 2000, etab.).¹⁷

5. Forma Kanonikoa eta Etimologia

5.1. Zergatik eta nola aldatu “Mitxelena paradigma”

Azalpen egokiak emanez eta hizkuntzalaritza diakronikoaz ikerketa berriak sustatuaz eta alternatiba ezagunik gabe mende erdiz edo gehiago gara-

¹⁷ Liburu hori, agian, egokiago dei zitekeen *Fuentes del Diccionario de Larramendi*, nahiz atalen bat Azkueri berari egokitu, izan ere Larramendik euskal tradizioan izandako eraginak merezi bezala hari esleitu baitzion zatirik handiena. Ikerkizun hori eta beste asko, zabalago, B. Urgellen tesian (2000) eta egile horren aurreko eta ondoko hamarkadetako euskal lexikografiaren historiari lotutako hainbatetan aurki liteke.

tu den eta oraindik ere dirauen Mitxelena paradigma aldatu behar dela esatea ez bide da erraz ulertzen eta ez azaltzen.¹⁸ Gogora dezagun M. Haasek (1969) berreraiketak eta aitzinhizkuntzak aldatzeko eman zituen lau arrazoi eta bide ezagunak, funtsean, bitara bil litezkeela: 1) datu eta froga gehiketa, a) dela hau ahaide zuzenak aurkitzeagatik, b) dela tarteko aitzinhizkuntza berriak eraikitzea lortuaz, edo c) mailegu zahar gehiago aurkituaz; 2) teoria edo hurbilketa berriak garatuaz hobeki, lehendik ezagun ziren corpus berberak aztertzeke edo arazo zaharrei egokiago erantzuteke.

FHV ondoko euskararen ahaidetasunak bilatzeko saioek ez dute aurrekoek baino emaitza hoberik izan eta, beraz, Mitxelenak duela mende erdi markatu bezala latinetik eta erromantzetik maileguen lekukotasuna agortuxea izanik, bigarren bidea jarraituaz, lehendik ezagutu lanabesak hobeki aztertuz eta hurbilketa berri sakonagoak garatuaz beharko dugu aurrera egin berreraiketan eta etimologiagintzan:

Es evidente que, en materia de etimología, estamos cerca, demasiado cerca, de un límite: el de la accesibilidad de los medios actuales de reconstrucción. (..) Queda la esperanza de la publicación de materiales nuevos, que tiene que haber, [...] que darán nuevas luces: queremos en lo posible, hacer historia, no prehistoria lingüística. *Queda también la posibilidad de cambiar de ojos, de conseguir por un esfuerzo mental que lo familiar dado por supuesto se convierta en extraño y necesitado de explicación.* (Mitxelena 1970: 308; etzana geurea)

“Begi (edo buru) aldaketa” hori baino lehen, ordea, komeni da aipa ditzagun aurreko paradigmaren berreraiketa eta etimologia aztertzeke zenbait arazo: a) kronologia falta du; b) ez du sistematikoki bereizten AE eta EBZ, haren 1981eko “Lengua común y dialectos vascos”-ez geroz behar bezala (cf. Lakarra 2014); c) fonologiaz arduratzen da ia soilik, nahiz FHVn eta hainbat lanetan iruzkin eta emaitza morfologiko interesgarriak izan; d) bere

¹⁸ Lakarra (1997b)-n Mitxelenaren AE berreraiketako herskariaren azpisistemarekiko Trask (1985) eta Hualde (1997)ren alternatibak kritikatu ziren; beren kronologia oso berankorrez landa, ez bata ez besteak ez baitu Mitxelenaren etimologia bakar bat gaindi lezakeenik eskaintzen eta, beraz, nekez hobets daitezke. Ikus, halere, §4.2n /f/-aren jatorriaz Hualdek egindako aurrerapeanak; orobat, arestiko Egurtzegi eta Ariztimuño (2019).

aurkikuntza ugari eta sakonen sistematizazio eta hedadura falta zaio, adib., 1961eko “kontsonantismoaren laburpena” delakoan aipatu bortitzen sorreraz edo hor bertan *l-n* ondoko herskariez aurkeztutako alternatiba; e) hizkuntzaren tipologia modernoa inplizitoki betidanikotzat hartzen da, Trask 1998ren parera [baina cf. Trask 1977 !!] iritsi gabe, halere; f) ez da forma kanonikoa analisi-irizpide edo lanabestzat hartzen;¹⁹ g) usuenik etimologien motibazioa falta da.

Halere, IEn edo gainerako tradizioetan bezala, berreraiketen polimorfismo (ia) erabatekoa –monosilabo, bisilabo eta (askoz urriago) polisilabo; V-z zein C-z hasi edo amaitu, CC talde ezberdinak edo ez erdialdean...– mugatzeko orduan dugu ikusten hurbilketa berri baten beharra (cf. Lakarra 2003 [2008]). Badirudi 1950-90 garaiko euskal etimologiari egokitu ahal zaiola, aldeak alde baina aldatu-behar gutxiarekin, Benvenistek bere garaiko etimologia indoeuroparraz esana:

Ce qu'on a enseigné jusqu'ici de la nature et des modalités de la racine est au vrai, un assemblage hétéroclite de notions empiriques, de recettes provisoires, de formes archaïques et récentes, le tout d'une irrégularité et d'une complication qui défient l'ordonnance.
(1935: 147-8)

5.2. Paradigma berriari buruz: I. Erroen Forma Kanonikoa

IEz eta semitikoz aspaldi, austronesioz gero eta oraintsuago uralikoz, bantuz, dravidikoz, kartvelikoz nahiz txineraz edo tibeto-burmeraz, japonieraz zein beste zenbait familia eta hizkuntza diakronikoki garatutan gertatuaren aurka, ez da erroari buruzko lan samaldarik euskarazko ikerketetan, ez sinkroniko eta ezta diakronikoetan ere, argiro gutxietsiz analisi-esparru honen

¹⁹ Mitxelenaren etimologia zenbait ez dator bat berak (1979) iberierazko eta euskara zaharraren erroarentzako eman FK bisilabikoarekin eta usuenik (cf. **enazur* > *azur* / *hezur*, **ardano*...) ezin izan litezke inongo analisiren amaiera (ezta bere hatsarreen gainean ere) sakonago baten aldarri baizik. Bestalde, azterketa monografikoa merezi lukete mailegu (*alu*, *alha*) zein ondare zaharrekoetz (*adar*, *mando*, *erbi*, *ahitu*/*akitu*, *golde*, *sendo*) egindako analisi gehiegizkoek; ik. EHHE200 s.u. eta Lakarra 2020a-ko zenbait adibide.

garrantzia hizkuntz azterketarako.²⁰ Uhlenbecken erroarekiko hurbilketa (1942) euskarak omen zituen geruza-osagai ezberdinak erakusteko ahaleginaren barnean kokatu behar da. Egileak argiro aldarrikatu bezala, gurea “hizkuntza misto”-tzat hartzea ez zen apartekoa harentzat... Trombetti, Schuchardt, Boas edo Tovarrentzat ere ez bezala (ik. Lakarra 2003 [2008] eta gehi bekizkio Geene 2003 eta van der Voort 2009, Uhlenbecken lan algonkiar, indoeuropar eta eskimo-auleutiarretako hurbilketa beraren paralelo argiekin).

Lafonek euskal erroari buruz argitaratu ohar laburretan (1950), bere tesiari (1943) eta Uhlenbecken artikuluko garrantzitsuan esana gogoratzen bazuen ere, erro hori zehazteko oztopoak gainditze aldera, berarentzat *ultima ratio* zen konparazio euskara-kaukasikoaz landa, ez zen bertan ageri berre-raiketa sakonagoa lantzeko esperantza handirik:

Pour avoir du verbe basque une connaissance satisfaisante, il faudrait joindre à la connaissance de son système celle des rapports de forme, de sens ou d'emploi que certaines racines ont pu avoir entre elles, c'est-à-dire la connaissance de l'histoire et de la préhistoire des racines (Lafon 1943: I, 433).

B. *Racines simples*. Les racines simples du basque se composent d'une ou de deux syllabes. Les types suivants se rencontrent :

1° RACINES MONOSYLLABIQUES : a) une voyelle : *a-* “ être ” ;
b) consonne et voyelle : *go-* “ rester ”, *gi-* “ être fait ” ; c) voyelle et consonne : *bil-* “ marcher ”, *kus-* “ être vu ”.

2° RACINES DISSYLLABIQUES : *oa-* “ aller ” ; *augi-* “ venir ”, *aki-* “ être su ”, *zagu-* “ être connu ” (Lafon 1943: I, 421).

Un nom basque, s'il ne contient aucun préfixe ou suffixe connu et dont la valeur soit nette, ne se laisse généralement pas analyser ; ou, plus exactement, on ne possède aucun moyen direct de l'analy-

²⁰ Hala markatu genuen dagoeneko Lakarra (1998)n. Indoeuropeaz ik. bedi soilik Gamkrelidze-Ivanov 1984, ia edozein eskuliburuz landa, baita Gorrotxategi (2019) ere, orobat semitikoaz. Austronesioaz Blust 1988 eta 2009 ikus liteke eta uralikoaz Bakrò-Nagy 1992, bantuaz Teil-Dautrey 2008, dravidikoaz Krishnamurti 2001, kartvelikoaz Gamkrelidze 1966, Harris 1990, txineraz Karlgren 1934, Sagart 1999 edo tibeto-burmeraz Matisoff 2003 eta japonieraz Janhunen 1997.

ser. Mais on peut essayer de recourir à un moyen indirect, qui consiste dans l'emploi de la méthode comparative. Il faut chercher des mots appartenant à la même racine dans des langues apparentées génétiquement à la langue basque, c'est-à-dire dans les langues caucasiennes. (Lafon 1950: 508)

Ordea, ordurako Mitxelenak (cf. haren 1964ko azken atala eta 1969ko lana) oso bestela ikusten zituen gauzak eta 70 urteren ondoren ez da zalan-tzarik (cf. Lakarra 2018a) bide hori antzu eta oinarri ahulekoa zela –handik gutxira Lafonek berak (1951/1952) aitortu bezala– eta, arazoak arazo, askoz emankorrago gertatu dela berak eta bestek gutxietsi barne-berreraiketa.

5.3. Hurbilketa berriaren lehen urratsak

Ondokoa zetorren dagoeneko *Lenguas y protolenguas*:

Ejemplo típico de las actividades de reconstrucción proseguidas en el escalón más alto, conocido o restituído, que aspiran no sólo a penetrar en el pasado, sino también a comprender mejor las relaciones que entrelazaban los términos –cuyo número es siempre indeterminado en las protolenguas– son las investigaciones acerca de la “forma canónica” de morfemas o raíces; su configuración muestra curiosas limitaciones en semítico común que delatan las afinidades de los fonemas en el sistema, o en indoeuropeo, etc. De aquí teorías generales, como la de Benveniste sobre la constitución de las raíces indoeuropeas. (Mitxelena 1963: 40; etzana neurea [JAL])

Lakarra (1995) eta geroztiko lanetan erro lexikoen forma kanonikoa, –ez oso bestelako fonosinbolismoen eta partikula gramatikalen–,²¹ Aitzineus-kara Zaharrean CVC²² zela aldarrikatu genuen; ondorio horretara iristeko ondoko orokortasun eta hertsapenak hartu ziren kontuan:

²¹ Ezagun dira tradizio diakroniko garatuagoetan morfema lexiko, gramatikal eta fonosinbolismoen arteko bereizkuntza sistematikoak FKari dagokionez; ik., ad. Bakrò-Nagy (1992, uralikoa), Gamkrelidze & Ivanov (1984, IEa), Sagart (1999, txinera) edo Blust (1988, 2009, austronesiera).

²² CVR/S zehatzago, dakigunez herskariak onartezinak baitira berez kodan, mailegu berankor, fonosinbolismo edo konposizio-formez landa. C1-i buruzko murriztapenak ere aspaldi dira ezagun.

- a) **VC eta b) **CV lexiko monosilabo autonomoetan;
- c) **TVTV bisilabo soiletan.

TVTV asko da lekukoturik (200en bat edo) baina horiek guztiak sailka ditzakegu mailegu (*bike, bake, katu, kako ...*), konposatu eta eratorri (*begi, bide, dago, gabe ...*) edo fonosinbolismo (*tutu, taka, pupu, pita ...*) gisa eta, beraz, orokortasun hau zein bestea gordetzen dira aztertu nahi ditugun ondare zaharreko erro soilen artean.

Hizkuntzaren garai zaharrenerako erro monosilaboa proposatuaz berehala izan ziren emaitza eta ondorio garrantzitsuak haren lexiko eta gramatikaren azterketan:

1. lehendik ezagutu familia lexikoak zabaldu: *ubel, orbel, arbel... → gibel, sabel*,
2. erro berriak: **ger* : *akher, okher*; **bur* : *samur, labur*; **han* : *ahari, akher*. Inoiz baita mailegu berri edo ezagunen bat ere (**berna-zur* > **e(r)nazur* > *hezur / azur*),
3. erreduplikazioak: *eder* < *(*d*)*e-der*,²³ *adats* < *(*d*)*a-dats*, *gogor* < *gor*, *zezen* < **zen*, *ahal* < **nal*, *ihintz* < **nin-tz*, etab.;
4. aurrizkiak ISn: *sa-* (*samur, sabel, sahets*), *gi-* (*gibel, gizen, gihar*), *la-* (*labar, labur*), etab.
5. atzizki berriak: *-tz*: *hortz* < **hor-tz*, *beltz* < *bel-tz*; *-i*: **arrani* (> *arrai, arrain*),
6. (maila apalagoan) erkaketak mugatzea: euskara eta kartvelikoa-ren erroen arteko ezberdintasunak (AE CVC ~ Aitzin-kartvelikoa (C)(C)(C)(C)(V)(C)(C)) ikusiaz, erlazio-eza frogatzeko biderik ez den arren, baiezkua frogatzeko saioak zeharo ahulak izanik, kontrako diagnostiko sendoa dugu hau.

²³ Hortik jaldi da *adar* (**dar* : *jarri* : *larri* eta abarren familiakoa) nekez izan litekeela mailegu, Tovarrek eta uste bezala (cf. de Bernardo 2006 alderdi zeltarako); ik. §6.2 eta Lakarra 2018a. Gogoangarriak dira Galand 1984ko oharra berberearen erro-sare tupituek mailegaketari jarri oztipo bereziez.

Aditz erroen azterketak ere, Lafonen (1943) erro mono- eta bisilabo polimorfoen zerrenda luzea **e-(i)-(da)-(ra)-CVC*²⁴ formula konplexu baina bakar batean biltzera garamatza, eta horrekin berreraiki litekeen hizkuntza egoera zaharrenetik euskara historikora tipologia aldaketa (deriba) antzematera; orobat, morfema gramatikalen forma kanoniko ezberdinak gramatikalizazioaren garapen maila jakin zenbaitekin erlazionatzera (ik. Lakarra 2016, 2018a).

5.4. Forma kanonikoa eta etimologia formala

Mitxelenak ere ez zion uko egin maileguak ezagutzeko irizpide formalak erabiltzeari, iturri zehatzera beti ez iritsi arren:

(...) Por consideraciones formales sobre todo, uno se siente p.ej., inclinado a ver préstamos en vizc. *abagadaune* “ocasión” (con el suf. *-une* tratado en § 4.2.), occid. ant. *apukadu* “sucedido”, ronc. *atizatu*, *atxezatu* “comulgado”, *dollor* “ruín, malo”, *elikatu* “abstenido” y “alimentado”, vizc. ant. *endorea* “el alcalde”, *errexal* “árbol” en Landucci, etc., pero no se ha señalado que sepamos su origen preciso de manera solvente. (Mitxelena 1964: 33)²⁵

Uhlenbeckek ere etimologia-modu ez-atomista aldarrikatzen zuen dagoneko, nahiz orain inor gutxik onartuko lukeen euskal lexiko zaharreen omen diren sortzeko geruza mediterranearra, kaukasikoa eta hamito-semi-taren bilaketa izan haren helburu aitortua:

(...) je crois déjà rendre service aux études basque[s] en tâchant de ramener les nombreux radicaux nominaux et les racines verbales de la langue basque restés sans analyse à quelques types déterminés, qui doivent, selon toute probabilité, être considérées comme pyrénéens

²⁴ Ondorioz AErako ez sintetikoki jokaturako 6-7 dozena erro ezberdin baizik eta oinarritzko 25-30 ditugu soilik, aditz sail itxiko Australia, Ginea Berriko, Ameriketako eta beste zenbait tokitako hizkuntzetan bezala-bezalaxe; cf. Pawley (2006) eta Lakarra (2006b)-z geroztiko 2008, etab.

²⁵ 1979ko lanean erro bisilabikoak defendatu zituen iberiera nahiz euskara zahararentzat. Bide-nabar, orain, badakigu *abagadaune* eta *dollor vegada* eta *trollo-tik* datozela (ik. Lakarra 2003 [2008]), eta CVC zaharragora ez bada ere, Forma Kanonikoaren kontzeptura hurbiltzen da Mitxelenaren irizpide hau.

occidentaux anciens. (...) Si pareil élément lexical correspond à un type ancien, il devra passer pour pyrénéen occidental ancien, sauf la possibilité qu'un élément non originellement pyrénéen occidental ancien d'importation ultérieure –mot ou racine– se soit rallié secondairement à un type pyrénéen occidental ancien. Mais cette question est sans importance pour mes investigations, puisque *je recherche non pas des étymologies, mais des types*. Des éléments d'origine étrangère secondairement assimilés à d'anciens types indigènes contribuent, eux aussi à affirmer l'existence de types anciens (Uhlenbeck 1942: 567).

Nahiz metodologikoki hurbilketa honek garrantzi ezin ukatuzkoa izan ondoko edozein ikertzailearentzat, –baita beste helburu diakroniko egingarri eta interesgarriagoetarako ere–, Uhlenbecken etimologia egitasmo sistematikoak ez du funtsean jarraitzailearik izan euskalaritzan. Alabaina, Erroaren FK Monosilabikoaren Teoriari lotuaz (Lakarra 1995hh) etimologia formalak izan du emaitza aipagarriarik eta bere eraginkortasuna ez da agortu oraingoz. Esaterako, bide hori zein beste hartu, berben sailkapen boskoitza egin genezake hainbat hizkuntza eta analisi-bidetan aurki genezakeenaren antzera: 1) mailegu, 2) berrikuntza (ondare zaharreko nahiz mailegu), 3) konposatu eta eratorri, 4) fonosinbolismo eta 5) etimologia ezezaguneko.

Bistan denez, maileguz eta eratorri modernoz jositako edozein erro-eredu ezin da zaharra izan; eta are gutxiago fonema berrienekin (*m/f* edo sabaikariz, ad.) osatuak; orobat, izan zitezkeen erroen eta benetan lekukotuen arteko aldea larria izan dadinean, erro-eredua modernoa dateke, etab. Bada, noski, oraindik garatzea merezi lukeen beste zenbait iragazki eta hatsarre delako sailkapen boskoitz horren emaitzen azterketa fintzeko, baina batez ere bi aski ezagun eta erabilgarri aipatu nahi ditugu berariaz; gainerako lau sailetan kokatutako erroek ere beste helburu batzuetarako azterketa merezi duten arren, (5)-eko etimologiagabeak dira hizkuntza egoera zaharrago baten isla edo jarraipen izateko aukera duten bakarrak; horregatik horien azterketarekin jarraitzeko eta –jakiteko benetan diren garai zaharragoetako egituraren gordailu ala gure aurreko azterketaren hondar menderakaitz–, bi eratako iragazkiak ezarri behar dizkiegu, besteak beste: fonotaktikoak eta geografikoak. Lehenaren bidez, fonema edo fonema konbinazio modernoak zahartzat (*p-*, *t-*, *k-*, *l-*, *f-* / *-f-*, *m-* / *-m-*, etc.) hartzea oztopatzen da, eta biga-

rranak analisitik saihesten ditu beren hedadura eta distribuzio historiko urriarengatik banaketa dialektalaz (oso)²⁶ geroztiko diratekeenak (ik. Lakarra 2003 [2008] eta ondoko lanetako taulak).

Kalkuluak hitz autonomo gisa lekukotu erroak soilik gogoan hartuaz egin ohi dira; hau da, bai *hon* edo *gor* baina ez *beltz* eratorria eta ezta **-bel*, zenbait konposaturen bigarren osagaia; ez dira ere bildu *-thor-*, *-bil-*, *-khar-*, etab. (hau da, aditz erro “zaharrak”),²⁷ nahiz beren berreraiketa aho batez onartua izan. Beraz, ohikoei hauek edo azken urteotan berreraiki CVC erro guztietatik seguruena soilik erantsiz ere erro-eredu honen zifrak tauletakoak halako bi edo izango lirateke. Aldiz, bisilabo analizaezin eta fosilen kopuruak behera baino ezin egin lezake (dagoeneko asko egin du, egin ere), azken 15 edo 20 urteotako saioetan ikusi bezala, usu CVC monosilaboen alde: esaterako, Mitxelenaren **ardano* **ar-dan-o* bezala berranalizatzean dugu horrelako bat; **ena-/anezur* (> *hezur/azur*) **bema-zur*-era daramagunean bisilabo mailegatua eta ondare zaharreko monosilaboa kentzen ditugu trisilaboen zerrendatik... Ez da hone-lakorik izan eta, ziurrenik, ez da erraz izango ere alderantzizko zuzenbidean.²⁸

Lege fonetikoekin ere ohi den moduan, FK sistema heuristiko gisa ulertu behar da: hots, CVC ez den erro ustez zaharra bisilabo edo are handiago izan, ez da honako analisi honen amaiera, berri-sakonagoen beharraren aldarrikapen baizik; hots, edo delako erro hori ez zen uste bezain zahar (eta horretarako daude lehen aipatu iragazkiak eta filologiaren laguntza), edo CVCtik gorakoa bada, mailegu edo antzinako konposizio edo eratorpen fosilduren batez sortua dugu. Tamaina horretatik (CVC) behera, aldiz, erro higatu edo morfema funtzionalen bat dugu aztergai (ik. Mitxelena 1963,

²⁶ Bistan da dialekto modernoetatik abiatuz *gehienez ere* EBZra iritsi gaitzkeela (cf. Lakarra 2014, Urrestarazu 2021, etab.); ez da, haatik, garai zaharragoetarako beste iragazki geografikorik oraingoz; bestalde, EBZkotzat ulerturik ere, emaitza interesgarriak ditugu erro eredu ezberdinetan.

²⁷ Erro eta hitz hasierako herskari bortitzak fonetikoki hasperendunak ziren AEMn eta baita AEZn eta hortik “biluzirik” (aurrizki gabe) ziren kasuetan /h/ (eta gero inoiz ø) bilakatzea “Martineten Lege” deitu ohi dugun aldaketaren bidez; ik. Lakarra 2018a, §4.3.6.

²⁸ Errebisatzaille batek ikusten duen bezala, *-r* + *n-*, berez, ez da *-n-* bilakatzen; alabaina, **bema-zur*-en bada *bema-k* disimilazio arrunta gerta dadin falta duen *-R*, cf. **hertz-harri* > *eztarri*, **hertz-ger* > *ezker*, **orker* (< *oin-ger*) > *oker*, **bur-ger* > *muker*, **bar-z-her* > *bazter*, **bur(u)z-jarri* > (*b*)*uztarri*, etab.

Lakarra 2016). Beraz, *alu* eta *alha* ezin izan litezke “hitz zaharren egituraren ordezkari jator” (FHVen esandakoaren aurka), ezta *otso*, *atso* edo *etse* ere gehi genezake,²⁹ orain baitakigu mailegu garbi direla lehen biak eta eratorri ilun (= zahar), aldiz, azken hirurak. Hots, horiei buruz edo horien kideez badakigu etimologia zehatzak ezagutu aurretik ere erro zahartzat hartzeko beren desegokitasuna nabarmena zela.

6. Metodoaren hedadura

6.1. Hasperena, etimologia eta berreraiketa

Mitxelenak AEren inbentarioan beren-beregi ezarri zuen /h/ fonema, herskari, txistukari eta ozenentzat zirriboratu sistemaren barrenean bortitz/ahul oposaketatik kanpora gelditu C bakarra. Bestalde, lau jatorri etimologiko –lehenagoko segmenturen bat jarraitzen dutenak, ez hiato-hausle edo “halabeharrez” sortuak– ezarri zituen euskal hitz gehienetan historikoki lekukotutako hasperenen berri emanaz: 1) hitz hasierako herskari bortitzak (*Th- > h-); 2) *-n- ahulak; 3) lat.-errom. f-; 4) AE *h.³⁰

²⁹ Lehen germanikotik dator erromantzetik igaro ondoren (< gask. *hala* eta cf. gazt. *halar/jalar* eta fr. *haler*) [hauetaz ik. Corominas-Pascual 1980-91 eta Rey 2006]; bigarrenarentzat, cf. lat. *aluu(m)* ‘sabel, umetoki’ (Ernout-Meillet s.u.); -bu- > -u- aldaketa bera *labur* > *lau(r)*, *her-bur > *hiru(r)* edo *hil-bun > *ilhun*.

Bidenabar, CVC egitura hertsian harturik, ez da hor tokirik ez C taldeentzat eta ezta diptongoentzat ere eta VC(C)V-ren azterketak etimo zahar gutxi eta mailegu eta konposizio/eratorpen zahar asko aurki genezakeela iragartzen du urteotako emaitzek berresten duten legez.

³⁰ Errebisatzaile anonimo batek “Mitxelenaren sisteman ez dago Th-rik dio”; eztabaida eta azalpen antzuetan ez ibiltzeko FHV 208ko ondoko pasarteari nagoko, beti bezala: “La aspiración sería etimológica (...) cuando es el resultado de (...) 4) antiguas oclusivas sordas o fuertes en posición inicial”. Errebisatzaile berberak 3. “lat.-errom. f-”-ri buruz “hau ez da euskararen /h/-fonemaren iturri bat. Honetarako ez dago adibide bakar bat. Benetako iturria beste hau da: gask. edo gazt. zah. /h/” dio; laket zait irizkideak izatea, ez bainuen Lakarra 2015a baino lehen, gutxienez, horrelako baieztapenik idatziz aurkitu, are hori esateko aukera edo arrazoirik zuten lan ezagunetan ikuskatu arren; cf. “Ez litzateke harritzekoa talde honetara ekarri beharra Mitxelenaren 2. taldeko (lat.-errom. f- > eusk. h-) hainbat edo ia guztiak: hots, lat.-errom. f- > eusk. b- (gero p-, f-), errom. h- > eusk. h- (gero ø- edo (t)x- > z-)” eta horri egindako oharrean “97. Baliteke euskarak inguruko hizkuntzen hasperenen bilakabidean izan omen zuen egitekoa berpentsatu beharra datu hauen aurrean; cf. Quilis (1996-97) eta han aipatu lehenagoko bibliografia eta oraintsuago Igartua (2011)” (Lakarra 2018a: 94).

Mitxelenak azentuaren eta hasperenaren artean ikusi zuen erlazioa Traskek gero (1997) proposatuaz guztiz bestelakoa zen, nahiz bigarrena bere 1985eko herskari soil/geminatu proposamen heterodoxotik urrundu eta Mitxelenaren bortitz/ahul estandarrari lotu, azentu eta hasperenketa-
ren gai honetatik kanpoko guztian, behintzat. Hasperenketa, beraz, Mitxelenarentzat zein guretzat etimologikoa da bestelakorik frogatu ezean, –astiro-astiro azalduaz doazen salbuespen urrietan bezala–, eta, arrazoi erantsi ezagunekin edo gabe, ez erantsi baina erori egin ohi zen, esaterako azentu ondoko silabetan (galesez bezala); ez zen, hortaz, hiatoak hausteko, hitzak bereizteko ez enparautarako azentuak sortua. Horregatik ezarri zuen Mitxelenak fonema autonomotzat AEn eta ez azentuaren edo ezeren epifenomeno gisa; besterik da /h/ sekundario asko izatea (hau da, ez AEko */h/ zahar baten jarraipen baina bestelako segmenturen); komeni da, halere, hatxe sekundarioak eta ez-etimologikoak bereiztea: batzuek /h/ ez den hotsen jarraipen dira –ez /ø/-renak–; aldiz, bigarrenek ø lukete ordezkatzuko; ik., ad., Janhunén (2007) hizkuntza uralikoen eta gainerakoen hatxe primario eta sekundarioez.

Halaber, Mitxelenak erakutsi zuen /h/aren inguruan bazirela kontraesanak zenbait familia lexikoren barnean (*hire / eure, han / an(h)artean*) edo hizkera ezberdinen artean (*Z aragi / L haragi, S aizo / L hauzo*). Are gehiago, susmagarri irudituaz Zko monosilabo /h/-dunen proportzioa (cf. *hor, hur, hon*), kasuotan /h/aren orokortze edo hedadura izan zela aldarrikatu zuen, baita diptongo ondorengo kokagunean ere. Alabaina, ongi datozkien hasperenak kontuan hartzen eta ez datozkienak ahazten dituzten “berreraikitzaile” edo konparatista sasikoei bidea oztopatuaz, FHVren 2. edizioan argi utzi zuen /h/aren izaera etimologikoak zalantza gutxi zuela egilearentzat (525). Mitxelenarentzat, –gero Igartua (2001)rentzat bezala– /h/-aren bilakabidea hots honen galeraren kontaketa da, ez horren orokortze edo hedatzearena (cf. FHV, 219-20). Aipatu Traskez landa, aurretik askoren iturri izandako Gavelengandik ere (cf. 1920: 478) urrundu zen FHV puntu honetan: Gavelen ustez ez zen /h/rik euskararik zaharrenean (harentzat oraindik ez zegoen AErik), ezta Hegoaldeko dialektoetan ere, eta Iparraldean ere modernoak omen. Baina haren usteen aurka ozenki mintzo zen ez soilik berreraiketa baina baita Luchaireren bidez ordurako ezagut zezakeen (hobe,

ezagutu beharra zuen) lekukotasun akitaniar argia, hegoaldeko Antzinate zein Erdi Aroko gehienak soilik ondoko hamarkadetan argitaratu arren.

Mitxelenaren ondoko ikerketak “halabeharrezko /h/” edo “/h/ antietimologiko” asko uxatu ditu (ik. Lakarra 2009a-b-c, 2015a) modu erregularrean azalduaz haren parametroen barnean: horrela, demagun, hark Zren berrikuntzatzat zituen monosilabo zenbaiten hasierako /h/ak –zenbait Etxeparez geroztik ezagun dira dagoeneko handik landa ere– edo diptongo ondokoak; hauei buruz, markatzeko da bakar baten etimologiarik ez eman izana, bere ohiko joeraren aurka. Bada, guztienak oraindik ezagutu ez arren, azal ditza-kegunetan /h/ da zaharra eta etimologikoa eta haren aitzineko /i/ gehitua: cf. *saihets* < **sa-hets* (cf. *sa-bel*, *sa-min*), *oihu* < gask. *hou hou*, *eihera* < *eho*, etab. (ad. gehiago in Lakarra 2019b). Gainera, Mitxelenak finkatu /h/ren lau ja-torri etimologiko ezagunez landa, beste lau ere badira (cf. Lakarra 2015a):

5. *-r* > *-h* konposizioan eta deribazioan: *hor* + *alano* > [**hoh-alano*] > *ohalano*, *hur* + *arte* > [**huh-arte*] > *uharte*, etab.
6. mailegu gaskoi askotako *h*, –dela ezker (kontaktuaren lehen garaian hartu lekuan berean), dela metatesiz barneratu gainerakoak–: *hami*, *elhe* (<*hele*), *unhatu* (< *huna*), etab.
7. *hVl-* > *Vlh-*, *hVn-* > *Vnh-*, *hVr-* > *Vrh-* metatesiak, mailegu gaskoietan zein ondare zaharrean (*alhatu* < gask. *hala*, *ilhun* < **hil-(b)un*), *erhi* < **heri*, etab.
8. BN garaikideko zenbait herritan bokalarreko herskari ahostunetarik sortuak: *ibili* > *ihili*, etab.; antzekoa da, itxuraz, –nahiz hedadura dialektal eta kronologia ezberdina izan– Z modernoko *-r* > *-h-*, baina (errebisatzaile batek gogoratu bezala) egiatan *arhan*, *erho* > *ahan*, *eho* da lekukotasunetan aurkitzen duguna.

Lehen baino seguruago esan genezake, beraz, /h/aren izaera etimologikoa dela “zero hipotesia” eta gertakari hau aurrerapen larria dugula berreraiket-
tan zein etimologiagintzan ere.³¹

³¹ Dosieria ixteko, ohar bedi gask. *h-* > eusk. *ø-* kasuak ezagutzen ditugula (*hemne* > *eme*) baina ez kontrakorik, gask. *ø-* > eusk. *h-*rik, alegia. Hori bai, ezagunak dira aspaldi (cf. FHV) *hezakia*,

6.2. Hitz-Familiak³²

Mia bitez ondoko hitzak:

- | | |
|------------------------|----------------------------|
| a. Gazi, atze, jale; | b. Harbel, gordin, zaldun; |
| c. Gogor, zezen, adar; | d. Lagun, gibel, samur. |

(a) eta (b) sailetakoak (c) eta (d)-koak baino aztergai askoz erraza-goak dira. Haietan edozein euskaldunentzat bistan dira *gatz*, *jan* eta *-le* ‘egilea’ eta ez dirudi zailago *har* + *bel*, *gor* + *din*, *zal(di)* + *dun* bereiztea ere; (c) eta (d)-n, aldiz, zailtasunik bada **gor*, **zen* eta **dar*-era iristeko (c)-n eta (batez ere) (d)-ko, **la-*, **gun-* [*< *dun*], **gi-*, **sa-ra*. Hots, (a) eta (b)koak eratorri eta konposatu bezala azaltzen dira edozein gramatika edo eskuliburutan baina (c) eta (d)koak euskara garaikidean ez eze, haren historia eta protohistoria osoan –eta, seguruenik, historiaurreko menderen bat baino gehiagotan–, hitz soil gisa ulertzen, ez konposaketa ez eratorpen gabe. Zergatia ez da ezkutua: lehen bi taldeetan erro eta (atz)izki bizi eta emankorrak dira, gardenak, beraz, gaurko gramatika eta hiztegia menderatzen dituenarentzat; beste bietan ez da horrelakorik: erreduplikazioa lexikalizaturik (*gorri-gorri-gorri*ⁿ-k ez du kontatzen) eta

harroka eta beste zenbaiten arrazoiak eta oraintsuago (cf. Lakarra 2015a) baita E1-ek aipatzen dituen *harra*, *herratu* eta beste gutxi batzuenak ere, nahiz, beharbada, “arrazoigabeko” *h*-ren bat geldituko den oraindik. Alabaina; lege fonetikoaren emaitza ugarien eta horien salbuespen urrien artean sistematikoki bereiztera garamatza hizkuntzalaritza diakronikoaren 150 bat urteko jardun estandar bezain emankorrak, Mitxelena *FHV*² §11.6 hasieran egin bezala, bidenabar.

³² Atal honetarako bibliografia eredugarri asko da beste hainbat hizkuntzatan; adibide huts gisa, hara bukaera aipatu hausari buruzko Schurenak, txineraren inguruko Karlgreen eta Sagartenak, tibeto-burmerazko Matisoffenak edo austronesierazko Blustenak.

Onartezina litzateke “hitz familiak” lege fonetikoak ordezkatzeko edo hauetan ez ikertzeko erabiltzea Hill eta Fellnerrek Matisoffi eta sino-tibeteraren zenbait ikertzailei aurpegiratu bezala *Cahiers Linguistique Asie Orientale*-ko 2019ko ale berezian. Ez da hori Schuessler, Handel eta gainerako espezialisten iritzi ez asmoa (ikus ale bereko erantzunak) eta, Thurgood-ek iradokitzen duenez, baliteke Hill eta Fellnerren baieztapenak alorra behar bezain hurbiletik ez ezagutzetik etorri izana. Gure kasuan, badaezpada ere, euskal hitz-familien interes nagusia lege fonetiko eta morfologiko zehatz, zahar edo sakonagoak bilatzen eman dezaketen laguntzan datza (hots, momenturen batean familiak erabili gabe haiek eskuratzea ezinezko edo askoz zailago izanik eman diezaguketena, ez “allofam” eta antzeko deizioekin gure ezjakintasuna estaltzea).

aurrizkitzea fosildua dira duela 2000-2500 urte eta, horien aztarnarik ez delarik egungo hiltunen gaitasunean; euskalariak ere ez dituzte ezagun zahar.³³

Aditzaren sistemaren eraketan ikus liteke badela (bazela, funtzionalak zirenean) hainbat hitz-sare edo familia, erroa, zenbait aurrizki edo erro sekundarioz osatuak [atzizkiak berankorrako ohi dira]). Horrelako eraketak ez dira, halere, soilik Aditz Sintagman baina baita Izen Sintagman ere:

ER	ø-ER	e-ER	2. Os.	ERRE	Aurrizki Multzoa
*dar	: lar	: jar(ri)	: in-dar	: adar	: inar / txilar
*dats	: lats	: jats(i)	: al-dats	: adats	: arrats
*den	: lehen	: edeki	: ez-ten	: —	
*der	: ler	: —	: —	: eder	
*din	: *lin (> herio)	: jin	: gor-din	: idi	: *edaradin (jarrain)
*dol	: —	: jori	: ozkol, idol	: odol	
*don	: loh-i	: jo /idoki	: -do.i	: —	
*dur	: lur	: iurri	: (h)an-dur	: —	: inurri / txinaurri
*duz	: luz(e)	: (e)utz(i)	: —	: —	

(Legenda: E = erroa; 2. Os = 2. osagaia; ERRE = erreduplikazioa)³⁴

Zenbait txandakatze bada *l-* (forma soila) : *j-* / *d-* (aurrizkidun) : *-d* (2. osagai) : *ø-* (erreduplikazio)... AEko *dVC erroei dagozkien alomorfoetan;

³³ Euskara historiko aurritziberan ohikoaren erabat aurkako dugu baina horren zantzuak urrutitik datozkigu: ik. Trask (1977), Gómez (1994), Gómez & Sainz (1995) eta Lakarra (2006hh). Mitxelena *ma-* “sasi-aurrizki” fonosinbolikoa onartu zuen soilik, hasierako hotsen eraketak betetzeko edo sortua (FHV, 271-3).

³⁴ Bistan da, E1-ek gogoratu bezala, taulako forma guztien ustezko esanahi zaharren arteko lotura ez dela argia; batzuen, ordea, EHHE200n bertan erakutsi dugulakoan nago. Alabaina, gertakari hori ez da harritzekoa, Benveniste (1954) klasikoak eta bestek are lehenago markatu bezala, esanahiaren berreraiketak formarenaren atzetik joan beharra baitu gehienetan. Horrek ez dakar, ordea, homofoniak arrisku gaindiezintzat hartu behar direnik, homofonia-ustezkook izan duten bilakabide historikoa ikertu baino lehen, bederen (ik. §6.3 hasierako aipua).

bestalde, hauek IVC bilakatu ziren AE klasiko edo modernorako (cf. Mitxelena 1957a). Familia askoren ikuspegi orokorrak erakusten digu, hark (1961/77) zioenez, zein izan zen **d*- zaharren bilakabidea.

AEZko hitz-eraketaren gramatika minimoa gara liteke dagoeneko erreduplikazioa, aurrizkitzea eta konposizioa baliatuaz.³⁵ Atzizkitzea –aurrizkitzea baino askoz zabalduegia delarik eta ia edozein hizkuntza egituratan lekukotu ohi denez– egiantzeko da garai horretarako ere, nahiz garai historikoetan baino hainbatez urriago izan, are alde bat utzirik literatur hizkuntzekikoak (cf. Lakarra 1997a, Sarasola 1997).

Familia lexikoen azterketak orobat bultzatzen gaitu AEZko sistema fonologikoa ere –*ozen eta txistukariei dagokienez*– birpentsatzera, Martinez Aretak (2006) egin bezala orain baino oinarri etimologiko gutxiago zenean. AEZrako ez genituen hiru kokagune edo gehiago Mitxelenak C-entzat AEMren analisirako zituen bezala, –zehatzago, soilik C- eta -C ziren–, nahi eta nahi ez birformulatu behar fonotaktika aurreko garairako. Hasiera eta amaierako kokagunean ez baizik eta erdikoetan gordetzen da AEMn opoaketa bere gardentasunean, haren alde bakarra delarik hasieran eta bestea soilik bukaeran. Gauzak honela, AEZrako bi kokaguneetan fonetikoki bereiztera iritsiko balira ere bikote bateko soinuak, fonologikoki AEMn fonema kopuru erdiarekin aski genuke, hots horiek distribuzio osagarrian izanik ez baitira bi fonema txistukari apikari eta lepokari) eta hiru ozen (alboko, sudurkari eta dardarkari) baizik.³⁶ Hiru ozen eta bi txistukaritatik AEMko sei eta laura igarotzeko ezinbesteko gertatzen da ondoko garaietako bisilabismorako joera eta honekin doan CC taldeen sorrera; hots, txistukari eta ozen bortitzak AEZtik AEMra bitartean eratzen diren dozenaka CC talde-

³⁵ Gorrotxategi & Lakarra (2001)-ez oso bestelako ikuspegia dugu hau; hura tradizionalago zen, aurrizkiak kosta-ahala kosta saihestuaz eta atzizki- eta konposizio-bidezko hitz eraketa lehenetsiaz. Geroztikoak dira gorago aipatu erreduplikazioaren eta aurrizkien aurkikuntza edo erroaren zenbait hertsapenen formulazioa; cf. Lakarra 2011, etab. eta hemen gorago §5.2.

³⁶ Eta horrekin aski, metodo konparatuaren (eta, oro har, edozein zientziatiko oinarritzko teoriaren) arabera ez da berreraikitzen edo suposatzen arrastorik (beharrik) utzi ez duenik. Horrela, noski [m] eta [p]-ri dagokienez ere (cf. Mitxelena 1957a, FHV eta Trask 1996ko azalpen argia), Blevinsek eta bestek “argudio” tipologikoak eta hatsarre diakronikoak nahasiaz kontrako bidetik jo arren.

ren berranalisien emaitza dira, Mitxelenak 1957a-n eta 1961ean usnatu baina froga (etimologia) faltaz frogatu ezin zituenak:

L : **bel-le* > *bele*; **enon-le* > *ile*; *Haran-luze* > *Haraluze*,

N : **arran-no* > *arrano*; **ba-din-no* > *baino*; **-ra-din-no* > *-raino*

S : **hor-tz-so* > *otso*; **her-tz-(te)* > *etse*; **e-ra-khus-tz* > *erakuts*³⁷

Bokalismoan ez da ezer markagarriarik –beharbada inbentario zabalagoa itxarongo genuke aitzinmundan (cf. Donegan 1993, Donegan & Stampe 2004), aitzindravidieran (cf. Krishnamurti 2001) edo aitzinjaponieran legez (cf. Frellesvig 2010, Frellesvig & Whitman 2008)–,³⁸ ez bada diptongoen izaera berantiarraren (oso berantiarraren, usu) berrespena. Erroaren egitura monosilabikoak eta aurrizkiek bai hitzeko eta bai esaldiko goranzko azentua proposatzera garamatzate monkhmerrean bezala (mundarenaren aurka, beraz) Doneganek eta Stampek famatu kasuaren paralelismoekin jarraituaz.

6.3. Gramatikalizazioa, lexikalizazioa eta etimologia

If we dismiss every case of polisemy as accidental we deprive ourselves of the possibility of ever finding out whether the two functions are in fact related or not. If, in contrast, we try to discover a relationship, in the worst case we may find that non exist. But in an optimal case we may find out that a connection exists, and the explanation of this connection may send some light on the nature of language structure and of language change (Frajzyngier 1986: 233)

³⁷ E1-ek herskarientzat adibiderik ote den galdetzen du; nik ez dut ezagutzen (Trask 1985eko proposamenak ere gogoan izan arren); horregatik testuan zein beste lan batzuetan gertakari hau txistukari eta ozenetara mugatu dut, Mitxelenak ere susmatu bide zuen bezala.

³⁸ Lakarra 2018a-n gogoratu genuen Gilek (1986) markatu fonologiaren enparauko alderdietan legez, V inbentarioan ere hurbilago zirela VSO [Aditz-Subjektu-Objektu] eta SOV [Subjektu-Objektu-Aditz] hizkuntzak ezen ez horietakoak eta SVOkoak [Subjektu-Aditz-Objektu]; egoera zaharrak gehiagoren arrastorik ez utziak ez du besterik baimentzen eta, gainera, Gilen gogetak ulergarriago egingo luke AEZrako bokal haboro behar ez izatea, VSO AEZn onartuaz; cf. Gómez (1994) eta Gómez & Sainz (1995).

Beharbada gramatikalizazioa dugu teoria linguistikoak berreraiketari eta, ondorioz, etimologiari azken hamarkadetan eskaini bultzadarik garrantzitsuena. Nahiz Meillet dagoeneko gaiaz arduratu, –baita Kurylowicz eta beste diakronista handi asko ere–, azken hamarkadetan jaso du gramatikalizazioak inoizko arretarik gehien. Izan ere, haren definizio gisa eman ohi den formula ezagunak –“morfema lexikoak gramatikal eta gramatikalak are gramatikalago bilakatzea(ren azterketa)”– iragarri bezala, azterketa-bide honek berebiziko laguntza eskaini du hizkuntzen historia eta haien gramatikaren historiaurrearen ikerketan; hori bera gerta ailedi euskararenean ere.

Ezer baino lehen, gramatikalizazioaren izaera holistikoari erreparatu behar diogu; hau da, fenomeno honek morfemen alderdi foniko, morfologiko, sintaktiko, semantiko eta are pragmatikoak ukitzen ditu, –eta nahiz gertakari hau zenbait teoriko sinkronista dogmatikok oso gogoko ez izan–, argi da diakronistak alderdi horiek guztiak behar dituela kontuan izan bere berreraiketa lanean, eta ez bakarrik hitzez edo alegorikoki baizik eta ukitu azpialor orotako ohitura eta ekanduak jarraituaz eta gordeaz, denbora eta espazioan hurbileko eta urrunagoko paralelismoen analisi berezituerei ere lotuaz. Honela lortzen dugu gure lanerako laguntza berebizikoa, berreraiketa modu seguruan gidatuaz eta *l’embarras du choix* ahalik eta gehien mugatuaz, hots, analisi alor bakoitzaren argumentazio atomistetan oinarritu aukera kontaezinak ezabatuaz edo urrituaz. Bestalde, hizkuntza isolatu eta tipologikoki auzoetarik hain urrun den euskaran, –urrunago zenbat eta denboran atzerago jo (cf. Lakarra 2005, 2006, 2018a, etab.)–, gramatikalizazioak hura gabe berreraikitzen ia ezinezko liratekeen hainbat ezaugarri eta bilakabide eskuratzen dizkigu.

Lehen nola edo hala laguntzaile edo partikularen bat³⁹ berreraikia genuen; orain, ordea, horiei marka gramatikal asko erantsi ahal zaie, adib. Lafonek duela hiru mende laurden azertu harako *-ti* atzizki bikotea:

Je crois, enfin, que l’ablatif en *-ti*, élargi plus tard en *-tik*, est un ancien adjectif qui a été intégré au système de la déclinaison. Dans

³⁹ *al* galdetzailea norbaiti orokor eta betiereko iruditu arren, *bai/ezko* interrogazio marka huts legez, G-z lekukotua dugu soilik eta XVIII. mendearen ia amaieratik aurrera gainera (hots, lehen lekukotasunak, ez erabilera bakar eta ezta nagusi ere dialekto horretan bertan beste zenbait belaunalditan). Enparauko erabilera edo balio batzuk (‘uxala’, ‘segurki’...) askoz zahar eta orokorrago dira.

la vielle langue, en effet, un mot pourvu du suffix *-ti* et qui fait figure de complement à l'ablatif peut souvent être considéré comme un adjectif attribut ou placé en apposition.

Le proverbe 44 d'Oihenart, *Asiti bihia*, est une phrase sans verbe qu'un basque d'aujourd'hui traduirait par "le grain procède de la semence". *Asiti* est en effet l'ablatif actuel de *asi* (*azi*) 'semence' en souletin. [...] Mais Oihenart, qui avait un sens très vif de sa langue traduit: "le grain vient *tel qu'estoit* la semence"; les mots en italique "sont des adioutements faits au texte basque, pour vne plus ample explication d'iceluy". Ce proverbe signifie donc proprement "le grain est de la nature de la semence, semblable à la semence". (Lafon 1999 [1948]: 202-3)

Alabaina, datu markagarriak izan arren, azalpena ez da asebetegarri: zergatik da gertatzen fenomeno hori? Euskarazko bitxikeria bakarrik ote? Orain *hordi*, *geldi*, *handi*, *erdi* (eta, agian *irudi* ere) bezalako forma *sparitak* kontuan izanik (***horti*, ***gelti*, ***hanti*, etab.), bistan da *-di* zela, ez *-ti*, ADJ egiteko atzizkiaren forma zaharra eta, honenbestez, erro zaharreko fonologiara areago hurbiltzen (cf. **eden* → *-de* > *-te*). Hots, **din*-en 'bihurtu' adieratik dator atzizki ADJgilea (cf. Genetti 2008 antzeko kasu baterako).

Heine & Kutevak (2002), s.u. COME: "(a) ablative (locative, "(b) near past", "(c) benefactive)", "(d) change-of-state" [adjektiboak], "(e) future"... lekukotzen dute aditz horren gramatikalizazio gisa munduko hainbat eta hainbat tokitako hizkuntzetan. **Edin* aditz bera dugu ABL egiteko hainbatetan eta, nabarmenki, euskaraz **-di* alomorfo zaharretik *-ti* berria atara eta orokortu da. Ez da, beraz, ezer ezohiko edo ulertezinik Lafonen "bi atzizkien" erlazio eta jatorriari dagokionez. Are gehiago, Dimmendaalek dioenez (2011: 128-9) Nilo aldeko zenbait hizkuntzatan animalia izen batzuk COME aditzetik sortzen dituzte eta nekez gera gaitezke *zaldi*, *ardi*, *ahardi*, *idi* eta, beharbada, *behi* (< **be(he)-di*, cf. *behor* < **be(he)-hor*)-rekin lotura egin gabe. Paraleloak ez dira hor amaitzen: Heinek eta Kutevak diotenez COME-ren futurozko gramatikalizazioa oso aurreratua da bambaraz, suedieraz nahiz tamilez eta, beraz, eusk. arkaikoko *daidi*, *leidi* eta enparauen hondar silabaren jatorriak burukomin gutxiago bide dakarke.

Lehenik TV egiturako hizkiak aztertuaz eta gero ikerketa gainerako hainbat CVtara hedatuaz aurkitutako gramatikalizazio kateak asko dira: ASP

burutugabe/adlatibo marka (**da/-ta/-a* < **dar*, cf. *jarri* ‘SIT’), *-de/-te/-e* ‘FINISH’,⁴⁰ datibo (*-i* ISn, *i-* aditz izenean, **nin* ‘GIVE’tik), ABL-PROS eta ADJ-eratzaila (*-ti/-di* < **din* ‘TO COME’), *-do/-to/-o* ‘COMPLETIVE’ konparatibo marka (*-so* ‘TO SAY’), *-bo/-po* ‘IN GYRUM’, etab.; cf. Lakarra 2013a, 2017a eta Heine & Kuteva 2002.

Gramatikalizazioaren direkzionalitateak eta bere izaera (ia) unibertsalak ahalbidetzen du ez soilik abiaburuko formak baizik eta tartekoak ere berreraikitzea. Hau da, CVC delarik forma kanoniko lexikoa euskara zaharrean, *-tate* (*borondate*) edo *-zaha* (*Elhorzaha*) bezalako atzizki bisilabikoak mailegu edo morfema amalgama izan bide litezke, jakina denez morfema gramatikalizatu primarioak nonahi erroak (CVC) baino FK txikiagoa (CV) izan ohi baitu; cf. Lakarra (2016). -V edo -C tankerako morfemak soilik gramatikalizazio sekundarioak izan litezke C- edo -Vren erorketaz, hurrenez hurren (ik. gorago) eta, azkenik, -VC egiturakoak *CV-CVren bilakabidez (amalgamaz) soilik sor litezke: *-ak* ‘nom.pl.-erg.sing.-(erdi-mend. baita erg. pl.)’ < **ha-ga*, etab.

Bistan da kronologia erlatiboak eraikitzeke edo aspaldiko “zahar”/“berri” eztabaida eta are alomorfo ilunen jatorri zenbait erabakitzeke (gen. *-e* / *-en*, dat. *-o* < **bon*, etab.) hurbilketa honek izan lezakeen interesa. Traskek – intuitiboki eta gertakariaren alderdi guztiak aztertzeke asmorik gabe – aldarrikatu zuen -TV atzizkietan hiru alomorfo direnean (*-de/-te/-e* ‘3. pl. [> I. pl.]’, *-gi/-ki/-i* ‘datibo aurrekoa’), ahostuna zuela zaharrenak eta ahoskabea berrienak, bokal huts ez zenean; hatsarre horren hedapen eta osagarri zenbaitez ik. Lakarra (2013a).

Orobat, Lakarra 2014n gramatikalizazioak (*egin* / **ezan* / *iron*; **edutsi* / **enin* / **eradun*, *eradutsi*, adib.) dialektologia sinkronikorako eta, batez ere

⁴⁰ Ohar bedi (cf. Lakarra 2018a, prest-a) plurala (*-de/-te/-e*) eta ‘inperfektiboa’ (*-te* Ad.Iz.) ere jatorri beretik atera litezkeela (< **eden* ‘FINISH’) euskaraz zein beste hizkuntza batzuetan. E1-ek galdetzen duen lerro hauetan aipatu ahoskabetze guztien azken jatorria (testuinguru fonetiko erregularra) berbera bide da (txistukari ondokoa, diptongo ondokoak kronologia berriegia bide luke); ez da ahazteko, halere, analogiaren oinarritzko ondorioa (forma berriak funtzio nagusia hartzen duela eta zaharra bigarren mailakoetan baztertua gelditzen dela Kurylowiczek eta irakatsi legez), morfologizazioaz geroztik horrek baitu markatuko alomorfoen distribuzioa, ez hasierako testuinguru fonetikoak.

diakronikorako izan dezakeen egiteko eta interes metodologikoaren adibideak eman dira. Morfologia historikoaren eta etimologiaren alorreko azalpen-bide hau oraindik zirriborro hutsean da euskaraz baina, halere, ezin uka etimologia lexikoaren osagarri den gramatikalaren alderdirik emankorrena dugula (cf., zabalago, Lakarra prest.-a).

6.4. Etimologia konparatua eta motibazioa

(...) il devient impératif de s'assurer que les emplois permettent non seulement de rapprocher des sens qui paraissent différents, mais de motiver leur différence. Dans une reconstruction d'un procès sémantique doivent aussi entrer les facteurs qui provoquent la naissance d'une nouvelle " espèce " du sens. Faute de quoi la perspective est faussée par des appréciations imaginaires. (Benveniste 1954: 295)

Gramatikalizazioaren garapena baino lehen ere, –filologoaren intuizio hutsaz landa–, bazen etimologiagintzan den hurbilketa aukera eta “soluzioak” mugatzeko biderik, etimologia erkatua, esaterako. Horrela, Mitxele-nak *arrain*-en aldaera ezberdinak (*arrañ*, *arrain*, *arrai*, *arran*-) berreraikiaz **arrani*-ra iritsi arren soilik, ez dirudi ezinezko pixka bat aurreraxeago jozte: amaierako *-i*-k badu hainbat kide aditz zaharretan, *etorri*-n eta *ibili*-n baina baita *gorri*-n edo *gazi*-n nahiz beste askotan eta, beraz, partizipio marka zaharra dugu hor. Honainokoak hizkuntzaren barneko datu ezagunak baino ez dira; alabaina, urrutiegi gabe, gaztelera *pescado*-n bertan (= *pesc-ado*) aurki genezake euskarazkoarentzat egin analisiaren kidea, barne berreraiketaz lortua erkaketaren bidez berretsiaz; cf. Lakarra 1995. Halaber, *hortz* ere *hor* + *-tz* zatika genezake, *beltz* (*bel-tz*) edo *bortz/bost* (*bor-tz*) ... legez; ez, haatik, *gatz* (**ga-tz*, cf. **CV, §6.3); gogora bedi *colmillo*-ren sinonimo den *canino*, *can*-en eratorri dela, eusk. *hortz hor*-ena legez.

Lakarra (2002)n *barda/bart* ‘joan den gaua’ **gaur-da*-tik ‘*dagoeneko izan/iragan gau hau’ azaldu genuen.⁴¹ Gu ohartu ez arren, Watkinsek (1965) eraku-

⁴¹ Ezaguna da *gaur* < *gau* + *haur*; marka bedi bisilabismoaren hedadurari lotu *-r* > *-R* (cf. Lakarra 2017a.)

tsia zuen eraketa horren berorren kiderik IEz (latinean inon baino hurbilago: *nox, noctis*) eta are zenbait hizkuntza amerindiarretan (menominian eta ojigwan ad.). Gainera, gure 2002ko etimologia hori seguruago bilakatzen da ohartzean amerindiarretan konstrukzio berbera ez soilik ‘bart’-ekin baizik eta ‘joan den negu’ eta ‘joan den uda’-rekin ere erabiltzen dela. Geure ardietara itzuliaz, ez da gauza handirik egiteko alde honetatik, –dagoeneko Schuchardtek ikusi bezala–, mailegu gaskoia den *negu*-rekin; alabaina, besterik da *uda*-rekin. Honen aldaera interesgarri bakarra Mikoletaren *euda* da baina, arreta apurren bat emanaz B. Ariztimuñok egin legez, **eguda*-tik (= **egu-da* ‘eguzki – izan(dako)’ = ‘iragan uda’) hurbil jartzen gara; gero, aurreraxeago, lehendik azaldu *bar-da*-ren, latinezkoaren eta aipatu amerindiarren egitura berarekin. Hizkuntza horietako formekiko konparazioagatik izan ez balitz, *barda* eta *uda* arteko hoshkidetasuna antzematera ere ez bide ginen iritsiko eta ezta AEko gramatikako fosil baten hondar argigarri urri bezain paregabeen aurrean ginenik ere.

Lakarra (2002)n *ipurdi* < **ibi-erdi* (cf. *ipirdi*, aldaera zaharrena) proposatu baino lehentxeago de Lamberteriek (2000: 127-31) grek. *pro:ktos* eta armenierazko paraleloak aurkeztu zituen zuzenbide berean. Nahiz hemen idatziz xehetasun gordinenak saihestea konpli den, ezinutzizko –aski eta sobera gurearentzat ere– iruditzen zaigu haren iruzkina: “On met ainsi en évidence une *motivation*: l’orifice anal doit sa désignation au fait qu’il est l’endroit par où les matières fécales achèvent leur parcours, l’extrémité d’une “voie de passage”. De Lamberteriek (2000: 128) **prōk* erroaz ‘traverser, aller jusqu’au bout, accomplir un parcours jusqu’à son terme (Chantraine)’ nahiz ‘*traverser, franchir, passer*’ zela erakusten du, hots, gure **bi*-ren kide (> *b-*, *-i*, *biz-* [+ *-z* ‘instr.’]) *ibi*-n, *zubi*-n, *azpi*-n eta bestetan. Benvenistek (1954) ezarri zuen bezala, motibazioaren bilaketa da etimologiagintzan akuilu eta laguntza sendoena, eta beste horrenbeste esan bide liteke berreraiketaz ere:

Nous touchons ici à la notion de *motivation*, reconnue comme centrale en linguistique depuis Saussure, et où se manifeste la tension entre synchronie et diachronie. C’est un fait bien connu qu’un terme motivé dans une synchronie donnée peut devenir opaque dans un état ultérieur de la langue, car l’évolution disloque les familles de mots. (de Lamberterie 2000: 119)

Egile berak erakusten duenez, indoeuropeistek etenik gabe jardun dute gramatika konparatua sortu zenetik hitzen etimologia (= motibazioa) asmatu nahian eta horren adibide bezala ematen digu ‘4’-rena:

Voici un autre exemple de motivation. Selon une analyse d’Alfred Heubek largement acceptée aujourd’hui, le numéral hittite *mieyawas* “quatre” remonte à un adjectif i.-e. **méy-u* “amoindri, diminué”... [‘laburtu’ latinez eta grekoz eta ‘laburrago’ konparatiboa tarteko]... *cette dénomination fait référence à la main considérée sans le pouce.* (de Lamberterie 2000: 120-2 [etzanak geureak, JAL])

Asko da hor euskal alorrerako ere modukorik: lehenik *laur* eta *labur*-en artean, –usuko /u/ aurreko /b/ bokalarteko ahostunaren erorketaren bidez (cf. Lakarra 2010, 2020a)–, proposatu dugun loturaren kide bat; gero, zenbakikuntza sistema zahar gehienek oinarrian delarik etzanez eman dugun hatz lodiaren saihestea, Epps (2006)ren egungo amazoniar hizkuntzetako sistema lagun hartuaz euskarari dagoeneko ezarria. Izan ere, eskuaren aurreko zein atzeko aldean ditugu hatz hori saihestearen frogak: atzeko partean lau muinotxo dira (ez bost), bi eskuetakoak bilduaz *zortzi* (< *zorrortz-i*, cf. *okto* IE hizkuntzetan) eta beste askotan bezala ‘zorrotasun, mendi-kate’-tik; ik. Lakarra (2010)ko bibliografian *bortz-sei-zazpi*-rentzat eman paraleloak lurraldeotan eta enparauetan. Ez gara mailegu ez kalkoez ari, noski: norbaitek aurreko kideak hurbilegikoak etsiaz aski ez balu, hara gorago aipatu Etiopiako zenbait hizkuntzatan TO COME bitartez sortu animalia izenak, eusk. *idi*, *ardi*, *ahardi*, *zaldi*, *hordi*, *?behi* bezalakoxeak.

Dagoeneko aski garbi geratu bide da analisi formala aztertutik berben motibazioaren ikerketarekin osatu beharra; hara de Lamberteriek nola laburtzen duen Benvenistek (1954) proposatu eta gero bere *Les institutions*-en burututako programa (cf. Watkins 1984 ere):

(...) aborder la question du signifié dans le travail de reconstruction, c’est tenter de restituer non pas des formes (ce pour quoi le comparatiste dispose de règles éprouvées, il suffit de les appliquer avec rigueur), ni des *realia* (ce qui relève du travail du philologue et de l’historien), mais des concepts, c’est-à-dire des opérations mentales. Reconstituer la réalité immatérielle qu’est un procédé de désignation est une tâche d’autant plus délicate que les conditions his-

toriques ou et culturelles dans lesquelles un lèxeme donné a changé de sens ou a pris une acception particulière nous échappent. Or la prise en compte de ces facteurs est essentielle: c'est l'étape obligée pour accéder à une étymologie acceptable du point de vue scientifique, c'est-à-dire une histoire des mots et non seulement l'établissement d'une origine. C'est ici que l'extrapolation de l'histoire à la préhistoire se révèle être une tâche difficile, bien souvent hasardeuse, mais néanmoins nécessaire: la véritable étymologie est à ce prix. (de Lamberterie 2000: 120)

6.5. Nola egin etimologia gehiago eta hobeak

[...] “the trick”, if I may call it that, is knowing what to compare: finding the word in the first place, finding the meaning, finding the parallel, getting the phonology and morphology right, finding the spot of semantic overlap, finding the cultural fact. It is, as I have said elsewhere many times, the first law of the comparative method: you have to know what to compare. (Watkins 1990: 178)

Gure alorraren egoera urruti da Szemerényik aztertu gogo zuen IĒtik, ez berezko ezberdintasun gaindiezinik delako, segurki, bataren eta bestearen lekukotasun, ikertzaile (belaunaldi) kopuru eta kalitateagatik baizik. Alabaina, aldatu beharrekoak aldatu eta egokitu beharrak egokituz, eskura litezkeen filologiarik hoberena eta teoria linguistiko gaurkotuenak dira ardatz batean zein bestean. Lehen hiru erregelen sarrera gisa Szemerényik dioskunez, “begiratu fonetika, b. morfologia, b. semantika, b. dialektologia, (b. filologia)... eta seguru etimologia hobeak aterako zaizkizula” (1962: 45). Horregatik, delako etimo batek –funtsean bistako izan arren– zailtasun fonologikoak, hitz-eraketak edo morfologikoak izanez gero, ikertzaileak soluzio “ekonomikoagoak” bilatu behar lituzke; egileak dioenez “more often than not the result will be the discovery of an entirely different, evident, solution” (52). Hondar hiru erregelak hizkuntza geografiatik datoz: “4. Hitz bat segurtasunez IĒtik datorela esan ahal bada eta familiako hizkuntzaren batean lekukotua ez bada, gertakari hori azaldu behar da” (57); “5. IEzko hitz bat latinez lekukotzen bada, mendebaldeko gainerako hizkuntzetan antzeko eraketa duke” (64); “6. Mailegua ez den hitzak antzeko eraketa duke inguruko hizkuntzetan” (70).

Szemerényiren hobekuntzaren bat (inoiz bat baino gehiago) ezartzea komenigarri ez eze beharrezko ere badela erakutsi nahi genuke.

- a) *Golde*. Aspalditik lat. *culter*-en bidez azaldu ohi da, funtsean alferkeriaz, nahiz OEHra ere iritsi sasiazalpen hori. Hurbilketa horretan, nola-halako hoskidetasun batez landa (herskari belarra + atzeko bokala + *l* + hortzetakoa + *e*) badira zenbait “ezberdintasun” eta, batez ere, ez-egokitasun erabateko:

1. ez da azaltzen zergatik *-r* > *-ø* gertatu den, euskaraz horrelakorik (cf. *gor*, *zor*, *lapur*, *haur*...) ez delarik; badira, noski, *-r* > *-ø* gutxi-gutxi batzuk (*iru*, *au*) mendebaldean baina ez ekialdean [*golde* orokorra da]) eta bada horientzat azalpen ezagunik.
2. dagozkien kognatuetan ez da herskari ahoskaberik Z eta E-z ohi legez;
3. hori gutxi balitz, ez zaigu ezer esaten *culter*-en akusatiboaz (*cultrum*), agian jatorri gisa desegoki iruditurik edo, nahiz ia % 100ean hori izan maileguen sorbide (ez nominatiboa); zeharbiz sartzeko ere (cf. errom. *cuître*, etab.) hitz honek ez baitu aukera handirik, cf. EHHE s.v. *golde*.
4. ezta *golde* ‘goldez landa edo soroa garbitzeko, gorritzeko ekintza’-z ere;
5. ezta *-de* eta *-te*-ri buruz *urte*, *alde*, *galde*, *arte* eta beste hainbat hitz akaberaz eta biak batzen dituen Trasken Legeaz (ik. §6.3ko azken bigarren paragrafoa).
6. Aurreko guztiak erakusten du hitza ez datorrela latinetik, eta aldiz, *gor* / *gol*- alternantzia bera dela *abere* / *abel*-, *hari* / *al*- (*bazkari* / *bazkal*-, *euskara* / *euskal*-, *estari* / *estal*-, *bidari* / *bidal*-...) eta beste hainbat bikotetako forma aske / eratorpen alternantzian. Ik. EHHE s.v.⁴²

⁴² E1-ek gask./okz. *coltre* edo **colte* ere aukera bezala aipa litekeela dio; *possibilia non negabo* baina *entia non sunt multiplicanda praeter necessitatem*. Ezin interesgarriago iruditzen zait (kasu honetarako zein bestetarako) E1 berak aitortu bezala **colte* ez lekukotzea gaskoiz eta ezta *k*- edo *t*- duen aldaerarik ere Z eta Err.n. Bestalde, cf. OEHko «*Lur golde bat*» SP (sin trad.). «Arpent» Dv. «Fa-

b) *Sendo*. Lat. *exemptus*-etik ateratakotzat dakar Mitxelenak (FHV 82) baina hori onartzeko zenbait xehetasun estali edo baztertu behar:

1. lat. *s* → eusk. *s* [š] dugu eta ez mailegu zaharretan ohiko den *z* [s] (cf. *gauza*, *baradizu*, *zekiüri*, *zoru*...) eta ez *soro*, *para(d)iso*, *kausa*, *soka*... berriagoetan legez.⁴³
2. Bestalde, hitz horrek ez zukeen (cf. Corominas & Pascual, s.v.) lexiko oso berezitukoa izan beharko, ez garairik zaharrenetan mailegatua izan zitekeen lexiko arruntekoa.
3. Batez ere, ez genuke ezagutu beharko ondare zaharreko *sen* erro autonomoa, akitanieraz geroz eratorri eta konposatu ugari dituen: *seni*, *seme* (< *senbe*), *senhar*, *senhide*.
4. Halaber, komeniko litzateke *-do* alomorfo (cf. *-to/-o*) eta atzizkiaren berririk ez izatea (cf. Lakarra 2013a), nahiz “completive” eta adjektibogilea dela aspaldi susmatu (cf. Trask 1997).

c) *omen*: Ez dirudi hitz honen forma eta distribuzio bereziak ikertzaileak hitzaren diakroniaz eta jatorriaz ikertzeraz eraman dituenik, analisi sinkroniko hutsera mugatuko balitz bezala hartaz jakin genezakeen (edo jakin behar genukeen) guztia.

Esan izan den gutxia aski alferrikoa da: lat. *ōmen* ‘iragarpen’ ei dugu sorburua (hara bidaltzen gaitu Lhandek s.u.) eta horren euskarazko ordaina gramatikalizazioaren abiapuntu. Alabaina, lat. akus. *ōminem*-etik ***ōmihe* (cf. **areha*) eta ***homî(ê)/**omî(ê)* itxarongo genuke; ez da horien arrastorik, ordea, eta ez da harritzeko, erromantzeetan ere ez baitu aztararik utzi (ErMe-k asmatutzat edo dute). Are berri okerragoak ematen dizkigu OEhk *omen*-en aldaerez: argi da izena

nega de tierra. *Golde bat lur* (BNc), trozo de terreno que con una pareja de bueyes se puede labrar en un día» A. «28 áreas» A *Apend.* Cf. *infra* GOLDE-LUR”, *-de*-ren aditz-izen izaera bistakoagoarekin (cf. *gal-de*, *ol-de*, etab.)

⁴³ E1-en ustez *siku* bere bokalismoagatik oso zaharra izan ahalko litzateke; ordea, bada ia mende erdi, Mitxelenak (1974: 200) horren edo *gisu* eta *pizu*-ren liluraren ahulezia beren-beregi markatu zuenetik; are gehiago, *siku*-z “puede deber la vocal cerrada a la sibilante apical” esatera ere iritsi zen hortxe bertan.

baino zahar eta zabalduagoa dela partikula, batez ere honen aldaerak (*emen*, *umen*, *ümen*, *emon*) kontuan hartuaz. *Emon* eta *ümen*-era **emon*-etik abia gaitezke: dohainik, 1. kasuan (**emon* > *emon*) eta merke bezain eraginkor 2.ean (**emon* > **emun* > *emün*, cf. **e-non* > **enun* > *ehun* / *Z ehün*). Erdialdeko *omen* (eta hortik *emen*) azaldu behar da eta hori, *emon*-etik *omen*-etik bezain erraz izateaz landa, merkeago ere dateke, ez baita ezer asmatu beharrik: hor da *emon* (< **e-bon*) aditza Bn nahiz Er.n, euskal eremuaren bi muturretan. *Omen*-en jatorri eta distribuzioa zehaztu nahiak familiatik atera eta *ei* (< **e-nin*) sinonimoaz arduratzera garamatza (orobat, eki. *ehi*-ra); erkaketak bata-besteia argitzen du, are gramatikalizazioa bezalako esparru ustez ezagunean. Bidenabar, ez dirudi hitz familien azterketaren interes larria haren esparrura (eta alderantziz) zabaldu denik, baina gure jardun mugatuaren araberata besteari kalterik ez lekarkioke.

6.6. Kognatu sareak hedatuaz

Australiako hizkuntzen azterketa diakronikoa asko aurreratu da azken hamarkadetan eta horietako zenbait familia urrundu dira (beren ikerketa, hobe) 1950, 1970 edo are geroagoko irudi hitsetik; cf. Bower & Koch 2004. Halere, bertako ikertzaile nagusi den Kochek dioskunez, etimologiagintzak hurbilegi darrai harako glotokronologia-saioetarako prestatu zerrenda soilegiatarik. Aldaketa fonikoa aztertzeke edo hizkuntzen erkaketa edo are aitzinhizkuntzaren berreraiketa hasteko inoiz erabilgarri izan arren, metodo honek aldaketa semantiko, lexiko eta morfosintaktikoa ere saihesten ditu (Koch & Hercus 2013: 34) eta hizkuntza horien gramatika historiko eta konparatuaren oinarritzko frogia eta datuak oso txiro egiten. Sinonimia hertsia, gainera, erdi-kognatuak albo batera uzten ditu, eratorri eta konposatuak ez baititu bere langaitzat; alabaina, Kurylowicz eta besteri esker, badakigu horiek gordetzen dutela hainbat forma, adiera, funtzio... zaharragoren aztarna eta zantzurik: *Olagibel*-en *gibel* ‘atze’ zentzuan mendealdean galdua da aspaldi baina cf. RS 239 [= 466] *Quibel ecachari*, *bular aldi onari* (“Espaldas a la tempestad, pecho a la buena sazón”, vs. 141 *Gui-*

beleco on areco gasso “Lo que es bueno para el hígado dañoso para el baço”, ik. EHHE s.v.); *ardatz* hitzaren 2. zatiari dagokionez, cf. *latz* < **datz*; -*ro* atzizkia ere (*astiro*, *garbiro*) *oro* ‘gutziz’-etik dator (partikula bera ere bada RSn), etab.

Koch eta Hercusen ideietan inspiraturiko ikerketa zabala geure beharretara egokiturik, onuragarri izan liteke hitz jakin baten aldaerak soilik erkatu beharrean hitz horren familia osoa kognatu argi zein ilunagoak ere erabiliaz aztertzea, askoz aukera gehiago baikenuke forma bakoitzaren eta familia osoen fonologia, morfologia edo semantika nahiz beren hedadura zaharra asmatzeko, dela sisteman, dela hizkuntzaren geografian.

Proper etymological study consists of finding and listing all cognates, regardless of whether they are equivalent semantically or have shifted their meaning, whether they are whole words or just parts of words, and whether their relationships is transparent or obscure. Special effort may be required to find the non transparent, obscure cognates, which may survive only in a rather disguised form (...) Our aim in this paper is to explore the differential implications for comparative reconstruction of using obscure cognates rather than restricting one’s attention to obvious (especially semantically equivalent) cognates (Koch & Hercus 2013: 35-6).

Our experience suggests that the stock of cognate sets among Australian languages can be greatly increased if comparativists look beyond the obvious cognates. We suggest that this is not only desirable but necessary if we are to gain a true picture of how the languages are related historically. An adequate stock of cognates is required to establish (a) which subgroups of a language family (such as Pama-Nyungan) contain reflexes of a given etymon, (b) to what level (protolanguage or early areal group) a given etymon is reconstructible, and (c) what is the proper genealogical classification of the languages. *Such a method, one which goes beyond the obvious comparisons and seeks out the obscure cognates for the light they can provide on the linguist past.* (Koch & Hercus 2013: 50; etzana gurea [JAL])⁴⁴

⁴⁴ El-ek Koch eta Hercusen metodologia Blevinsenarekin berdintzen du baina gehiegikeria honetaz ohartzeko aski da Kochen australiar hizkuntzei buruzko lan eskutada bat ezagutzea, biblio-

Arestiko lan batean (Lakarra 2018b), hainbat etimologiaren oinarriak jarri ziren zuzenean eta beste askorenak zeharka, *ban-/bar-/bal-* familiara bilduaz euskal hiztegieta (eta azken mendeetako euskaldunen gaitasunean) zein bere aldetik, ardi herratu bezala zen hitz asko. Aztertu edo ikuskatu diren erroetan lortutako emaitzak itxaron baino oparoago suertatu dira, eta eginkizun dugu etorkizunerako hemen erabilitako C-/ø- txandaketen miaketak –nahiz T-/h-/ø- edo beste batzuk–, eta hitz-eraketako -n/-r/-l alomorfoak ezarriaz (eta -h edo -ø ere dagokionean)⁴⁵ euskal lexikoi zaharraren erraitan barrena sistematikoki hedatuz.

7. Emaitza eta ondorio zenbait

*EHHE-200*ren asmoa noizbait, –ahal bezain sarri–, garatu nahi genukeen **Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*-ren oinarriak ezartzea izan da, horretarako bere egituraren zertzelada nabarmenenak (modularra, familiaka antolatua) eta irizpide funtsezkoak (etimologia gramatika historikoaren alderdi nagusi eta ia sinonimo legez) finkatuaz. Egitasmo hau, horrenbestez, hizkuntzalaritza diakronikoa eta filologia gurutzatzen diren puntuan kokatzen da eta bietako hatsarre eta analisi-garapenen zordun da. Ezingo zen antzekorik abian jarri euskalaritzan “Mitxelena paradigma” izan ez balitz, hura gabe borondate oneko (eta ez hainbesteko) zaletuen eskuetan jarraitu balu, euskararen jatorri ustezko bezain ustelen bila.

Mitxelena paradigmaren eta gero ere, jardun etimologikoa unean uneko “teoria linguistikorik hoberenari eta filologia zehatzenari” lotua da, hark eta Meilletek hainbat aldiz aldarrikatu bezala. Berreraiketa berriak egiteko edo lehengoak berriztatzeko behar den informazio garrantzitsuen gehiketa

grafiako Koch & Bower (arg.) bildumako hainbat (Bower & Koch 2004 eta Koch 2004 tartean) eta haren IE hizkuntzetako formazioa. Blevinenaz oso bestelako sendotasuneko da haren ikerketa, nahiz helburuen, nahiz metodologia segurtasunaren aldetik (cf. Blust 2015eko egurra tonga-austronesierari buruzko proposamenaz). Nolanahi ere, “bere fruituetarik ezagutu ahalko da zuhaitza” *Liburuak* dioen bezala.

⁴⁵ Eman bekio so arin bat *EHHE200*n zur-en familia erraldoiari, baina gehiagorekin ere egin liteke antzeko saiorki.

konparatiboki mugatu edo urria da: aspaldi urratu ziren aliritziko ahaidetasun aurkikuntzen lilurak, metodo konparatua euskalaritzan zabaldu ahala eta mailegaketaren ikerketa aberats eta aberasgarriaren etekinak agortzear zirela Mitxelenak duela mende erdi markatu zuenez, filologia metodo zehatzago eta analisi ikuspegi berrietara jo dugu, eta horrela beharko etorkizunean ere alorra agortuko ez bada.

Hizkuntzalaritza diakronikoaren garapen orokorrean bilatu ditugun bide berriek gure etimologia ikerketei –tradizio aurreratuagoetan bezala– nola eragin dioten edo diezaioketen erakutsi nahi izan dugu aurkezpen honetan: Erroaren Forma Kanonikoaren azterketa eta honen hedadurak (§5), Etimologia Formalerako lortu hobekuntzak (§5.4) eta Hitz Familiak (§6.2); Gramatikalizazioa (§6.3); Etimologia konparatua eta motibazioaren analisisia (6.4) ... funtsean hor baita, ohi legez, aurrerapen esanguratsuak izateko aukera nagusia. Hemen, labur beharrez aipatu ez arren, ez ditugu ahaztu nahi, noski, Mitxelenaren ondoko filologiaren emaitzak (cf. Lakarra 2019a) eta, halaber, ezinbesteko izan zaigu aurreko paradigmaten indargune garatugabeak osatzea eta hedatzea (§6.1), honen oinarri nagusiak (4.1) eta emaitza sendo eta aberatsak aztertu eta aitortu ondoren (4.2). *EHHE* hau eraberritzen eta osatzen jarraitzeko “Nola egin etimologia gehiago eta hobeak” (6.5) ere gogoratu nahi izan dugu, eta baita tartean “Kognatu sareak hedatzeak” (6.6) lukeen garrantzia ere.

Duela zenbait urte, 200 familia hautatu genituen langai (100 bat mailegatu eta beste hainbeste ondare zaharreko) eta egitura horri lotu gatzazkio, nahiz zorionez, –baina ez lan eta buruhausterik gabe–, kopuru horiek mantentzeko usu kide berriak sartu behar izan lehenagoko zenbaiten –gehienik ondare zaharrekoen–, ahaidetasun artean ezkutuak bistaratu ahala. 200 familia horietan 2600tsu sarrera eta azpisarrera bildu da, *EHHE*ren hitzaurrean ataletan mikro- eta makroegituraren deskribapenaren bidez azaldu moduan.

Analisi gutxi dira guztiz geureak; alabaina, bat ere ez soil inorengandik osotoro hartu edo ikasia. Ontzat edo baliagarritzat jotako etimologiekin ere, asko da aldaera, kronologia, dialekto-hedadura, protohistoria nahiz zertzelada formal edo semantiko... alderdi askotarik berri eta zehaztasunak gehitu ditugu (partikularzki protohistorian eta historia lekukotuaren garairik zaha-

rrenetan), sarri “azken” edo “benetako” analisi etimologikotzat genuena osatu, aldatu edo zalantzan jarri arte.

Hasierako Watkinsen hitz gogoangarrien izpiritutik inoiz baino hurbilago gara: ez genuke nahi *EHHE200* hau eta ez etorkizuneko **EHHE500* edo **EHHE1000* ere euskal hitzen edergailuzko hilkutxa polit huts izan litezen. *EHHE* euskararen bilakabidea ikertzeko (honen Gramatika Historikoa egiteko) lanabesa da, eta, hortaz, behin-behinekotasunean bizi behar du, ez betirako itxi eta beztidura ederretan bildua. Gaude dagoeneko antzemateko moduko aitzinamenduak lortu direla lexikoaren, fonologiaren, morfologiaren nahiz dialektologia diakronikoaren aldetik; hala nahi genuke, bederen. Haatik, uste dugu are gehiago dela horietan guztietan eta hizkuntzaren historia osoaren ikerketan lor litekeena hemendik aurrera *EHHE 200*en laguntzaz. Hori da bilatzen duguna gure maisu K. Mitxelenak urratu bideetan barrena, haiek berreginaz eta aitzinatuaz.⁴⁶

8. Bibliografia

AGUD, M. & A. TOVAR (1988-95). *Materiales para un diccionario etimológico vasco* (A-orloi), Donostia: ASJUren Gehigarriak, 7 lib.

AIKIO, A. (2006). “On Germanic-Saami contacts & Saami prehistory”, *Soc. Finno-Ougrienne* 91: 9-55.

——— (2007). “Etymological Nativization of Loanwords: a Case Study of Saami and Finnish”. In I. Toivonen & D. Nelson (arg.), *Saami linguistics*. Amsterdam-Philadelphia: Benjamins, 17–52.

——— argitaratzeko, “Proto-Uralic”. In M. Bakró-Nagy et al. (arg.), *The Oxford Guide to the Uralic Languages*. Oxford U.P.

⁴⁶ Ohar lotsagabe bat amaierarako: ezaguna da araugileentzat etimologia ez dela 3. edo 4. mailako argudio ere, eta diakronia ikertzailearentzat kasuan kasuko araudia soilik ikergaitzat dela interesgarri; horregatik beragatik, on litzateke <h>-aren 1970etik 1980 bitarteko araugintzan izandako gorabeherak garai bereko eta ondoko fonologia diakronikoan izan aitzinamenduekin erkatzea. *OEH*-ren bidez lexikografia eta lexikologia historikoan izandako aurrerapenak araugintzan ekarri zutena are bistakoago da, noski, nahiz hainbat non sarriegi egitasmo horren benetako helburuak erabiltzaile zenbaitenekin nahasi ohi diren.

ARBELAITZ, J.J. (1978). *Las etimologías vascas en la obra de L. Michelena*. Tolosa: Kardaberatz.

ARIZTIMUÑO, B. (2011), *Antzinateko euskal idazkunak eta aitzineuskararen berreraiketa: corpusa, analisia eta ondorioak*. UPV/EHUko Master Tesi argitaragabea.

BAKKER, P. (2020). "Review. [J. Blevins] *Advances in Proto-Basque Reconstruction with evidence for Proto-Indo-European-Euskarian Hypothesis*", FLV 130: 563-592.

BAKRÒ-NAGY, M.Sz. (1992). *Proto-Phonotactics. Phonotactic investigation of the PU and PFU consonant system*. Studia Uralica 5, Wiesbaden: Harrassowitz.

BENGTSON, J. (2013). "Comments on "Evidence for Basque as an IE languages" by G. Forni", *Journal of Indo-European Studies* 41: 1-9.

——— (2014). "Burushaski and the Western Dene-Caucasian Language Family: Genetic and Cultural Linguistic Links", *Mother Tongue* 19: 181-222.

BENVENISTE, É. (1935). *Origines de la formation des noms en indo-européen*. Paris: Maisonneuve.

——— (1954). "Problèmes sémantiques de la reconstruction". Berr., *Problèmes de linguistique générale*. Paris: Gallimard 1966: 289-307.

——— (1969). *Le vocabulaire des institutions indo-européennes*. Paris: Minuit.

BERNARDO, P. de (2006). «Las lenguas célticas en la investigación: cuatro observaciones metodológicas», *Cuadernos de Filología Clásica. Estudios Griegos e Indoeuropeos* 16: 5-21.

BILBAO, G., GOMEZ, R., LAKARRA, J.A., MANTEROLA, J., MOUNOLE, C. & URGELL, B. (2020). *Lazarraga Eskuizkribuaren edizioa eta azterketa*. I. Sarrera, gramatika, hiztegia eta adizkitegia; II. Testua. UPV/EHU, Leioa, 2 lib.

BLEVINS, J. (2007). «A long lost sister of Proto-Austronesian? Proto-Ongan, mother of Jarawa and Onge of the Andaman Islands», *Oceanic Linguistics* 46: 154-198.

——— (2018). *Advances in Proto-Basque reconstruction with evidence for the Proto-IE-Euskarian hypothesis*. Routledge: N.Y.

BLUST, R.A. (1988). *Austronesian root theory: an essay on the limits of morphology*, Amsterdam-Philadelphia: Benjamins.

——— (2009). *The Austronesian languages*, Canberra: ANU.

——— (2015). «Some recent proposals concerning the classification of the Austronesian», *Oceanic Linguistics* 53: 300-391.

BOWERN, C. & H. KOCH (arg.) (2004). *Australian languages. Classification and the comparative method*, Amsterdam-Philadelphia: Benjamins.

——— (2004). "Introduction: subgrouping methodology in historical linguistics", in Bower & Koch (arg.): 1-15.

CAMINO, I. et al. (arg.) (2020). *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. K. Zua-zori gorazarre*, Bilbo: UPV/EHU.

CAMPBELL, L. (1988). "(Iruz.) *Language in the Americas* by J.H. Greenberg", *Language* 64: 591-615.

——— (2011). "La investigación histórica de las lenguas aisladas, o ¿es raro el vasco?". In J.A. Lakarra, J. Gorrotxategi & B. Urgell (arg.), *2nd Conference of the Luis Michelena Chair / Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra / II. Congreso de la Cátedra Koldo Mitxelena*, Gasteiz: UPV/EHU: 23-40.

——— (2013). *Historical Linguistics, an introduction*. 3. arg. Cambridge: The MIT Press.

CASTAÑOS, F. (1979). *El euzkera (sic) y otras lenguas*, Bilbo: Foru Aldundia.

COROMINAS, J. & J.A. PASCUAL (1980-91). *Diccionario crítico-etimológico castellano e hispánico*, Madril, Gredos, 7 lib.

CHAKER, S. (1975). "L'apparement de la langue berbère". Berr. in id, *Textes en linguistique berbère*. CNRS, Paris 1984: 232-245.

DIMMENDAAL, G.J. (2011). *Historical linguistics and the comparative study of African languages*. Benjamins: Amsterdam & Philadelphia.

DIXON, R.M.W. (1977). «Where have all adjectives gone?». Berr. in *Where have all adjectives gone? And other essays in semantics and syntax*, Berlin: Mouton de Gruyter, 1982: 1-62.

——— (1997). *The rise and fall of languages*, Cambridge: Cambridge U.P.

DONEGAN, P. (1993). «Rhythm and Vocalic Drift in Munda and Mon-Khmer», *Linguistics in the Tibeto-Burman Area* 16: 1-43.

——— & STAMPE, D. (2004). «Rhythm and the synthetic drift of Munda», *The Yearbook of South Asian Languages and Linguistics 2004*, Berlin-NY: Mouton de Gruyter: 3-36.

DURKIN, Ph. (2009). *The Oxford Guide to Etymology*. Oxford: Oxford U.P.

EGURTZEGI, A. & B. ARIZTIMUÑO (2019). “/f/-ren sarrera eta sorrera euskaran”, in I. Epelde & O. Jauregi (arg.), *Bihotz ahots*. M.L. Oñederra irakaslearen omenez, Bilbo: UPV/EHU: 197–213.

ERNOUT, A. & A. MEILLET (1979). *Dictionnaire étymologique de la langue latine*, 4. arg, Paris, Klincksieck.

EPPS, P. (2006). “Growing a numeral system. The historical development of numerals in an Amazonian language family”, *Diachronica* 23: 259-288.

FRAJZYNGIER, Z. (1986). «From preposition to equational copula». *Berr.*, 2002, 233-50.

——— (2002). *Studies in Chadic morphology and syntax*. Louvain-Paris: Peeters.

FRELLESVIG, B. (2010). *A history of the Japanese language*. Cambridge: Cambridge U.P.

——— & J. WHITMAN (arg.) (2008). *Proto-Japanese. Issues and prospects*, Amsterdam-Philadelphia: Benjamins.

GALAND, L. (1984). “Le comportement des schèmes et des racines dans l’évolution de la langue: exemples touaregs” in J. Bynon (arg.), *Current Progress in Afro-Asiatic Linguistics: Papers from the Third International Hamito-Semitic Congress* (Amsterdam: J. Benjamins): 305-315.

GAMKRELIDZE, T.V. (1966). “A typology of Common Kartvelian”, *Language* 42, 69-83.

——— & V.V. IVANOV (1984). *Indo-European and the Indo-Europeans* [Errusierazko originalaren ingelesezko itzulpena] Mouton de Gruyter, Berlin & N.Y. 1995.

GAVEL, H. (1920). *Éléments de phonétique basque*, RIEV 12: 1-542.

GENEE, I. (2003). “An Indo-Europeanist in the Prairies: C.C. Uhlenbeck’s work on Algonquian and Indo-European”, in *Papers of the 34th Algonquian Conference*, ed. H.C. (Winnipeg: University of Manitoba): 147-164.

GENETTI, C. (2008). "A note on the history of adjectival verbs in Newar", *Bulletin of the Society of Oriental and African Studies* 71:3, 475-492.

GEORG, S. & A. VOVIN (2003). «From mass comparison to mess comparison: Greenberg's "Eurasianic" theory», *Diachronica* 20: 331-362.

——— (2005). «Iruzkina: [J. Greenberg] *Indo-European and its closest relatives: the Euroasiatic language family*, v. 2: *The Lexicon*», *Diachronica* 22: 184-190.

GIL, D. (1986). «A prosodic typology of language», *FL* 20: 165-231.

GÓMEZ, R. (1994) «Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSotik SOVra» in J.-B. Orpustan (arg.), *La langue basque parmi les autres*, Baigorri: Izpegi: 93-114.

——— (2013). «*Sobre el pasado de la lengua vasca-ren orainaz*», UPV/EHUko eskuizkribu argitaragabea.

——— J. GORROTXATEGI, J.A. LAKARRA & C. MOUNOLE (arg.) (2013). «*Koldo Mitxelena*» *Katedraren III. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU.

——— & K. SAINZ (1995). «On the origin of the finite forms of the Basque verb», in Hualde, Lakarra & Trask (arg.): 235-74.

——— & J. ZULAIKA (2020). *El Vocabulario Pomier. Edición y estudio de un diccionario manuscrito anónimo euskera-español*. Anejos de ASJU, LXXII.

GORROTXATEGI, J. (1984). *Onomástica indígena de Aquitania*, Bilbo: UPV/EHU.

——— (1987). «Vasco-celtica», *ASJU* 21: 951-959.

——— (1998). *Euskararen historiaurreaz zenbait gogoeta. Algunas reflexiones sobre la prehistoria de la lengua vasca*, 1998-99 ikasturte hasierako hitzaldia, Gasteiz, UPV/EHU.

——— (2002). «Planteamientos de la lingüística histórica en la datación del euskara», *XV Congreso de Estudios Vascos: Ciencia y Cultura y redes telemáticas*, Donostia, SEV: 103-114.

——— (2013). «Sobre Lenguas y protolenguas», in Gómez *et al.* (arg.): 613-642.

——— (2018). *Opera Selecta. I. Aquitanica / Akitaniera*. B. Urgell eta J. M. Vallejo (arg.), «KM Katedraren Argitalpenak», Gasteiz: UPV/EHU.

——— (2019). «Etimologia, filologia indoeuroparra eta euskara», *Euskera*, 64, 2, 2: 1077-1102.

——— & J.A. LAKARRA (2001). «Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco», in F. Villar & M.P. Fdez Álvarez (arg.), *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania*, Salamanca: Univ., 407-438.

——— (2013). «Why Basque is not, unfortunately, an IE language?», *Journal of Indo-European Studies* 41, 203-237.

HAAS, M.R. (1969). *The prehistory of languages*. The Hague: Mouton.

HAMP, E.P. (1998). «Some draft principles for classification», in J. Salmons & B. Joseph (arg.), *Nostratic. Sifting the evidence*, Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins: 13-15.

HEINE, B. & KUTEVA, T. (2002). *World lexicon of grammaticalization*. Cambridge: Cambridge U.P. Bada 2019ko edizio arrunt zabaldua ere.

HOZ, J. de (2010-11). *Historia Lingüística de la Península Ibérica en la Antigüedad*. I. Preliminares y mundo meridional prerromano. II. El mundo ibérico prerromano y la indoeuropeización. Madril: CSIC.

HUALDE, J.I. (1997). «Aitzineuskararen leherkariak», *ASJU* 31: 411-424.

——— J.A. LAKARRA & R.L. TRASK (arg.) (1995). *Towards a history of Basque*. Amsterdam: Benjamins.

IGARTUA, I. (2001). «La aspiración en vasco: ensayo tipológico y diacrónico», *ASJU* 35:1, 185-213.

IRWIN, M. (2011). *Loanwords in Japanese*. Amsterdam-Philadelphia: Benjamins.

JACKSON, K. (1953). *Language and history in Early Britain. A chronological survey of the Brittonic languages 1st to 12th c. AD*. W. Gillies-en sarrera, 1994ko 2. arg. (Four Courts Press, Dublin).

JANHUNEN, J. (1997). «Problems of primary root structure in Pre-Proto-Japanic», *Central Asian Studies* 2: 14-30.

——— (2007). «The primary laryngal in Uralic and beyond», *Mémoires Soc. Finno-Ougr.* 253: 203-227.

KALLIO, P. (2015). «The language contact situation in prehistoric Northeastern Europe». In R. Mailhammer et al. (arg.), *The linguistic roots of Europe*: 77-102. Copenhagen: Museum Tusculanum Press.

KARLGREN, B. (1934). «Word families in Chinese», *Bulletin of Museum of Far Eastern Antiquities* 5: 9-120.

KOCH, H. (1997). "Comparative linguistics and Australian prehistory", in McConvell & Evans (arg.), *Archaeology and linguistics: Aboriginal Australia in global perspective*. Melbourne: Oxford U.P., 27–43.

——— (2003). "Morphological reconstruction as an etymological method". In B. J. Blake & K. Burridge (arg.), *Historical linguistics 2001: The 15th International Conference on Historical Linguistics, Melbourne, 13–17 August 2001*: 271–291. Amsterdam & Philadelphia: Benjamins.

——— (2004a). "A methodological history of Australian linguistic classification", in Bower & Koch (arg.): 17–60.

——— (2004b). "The Arandic subgroup of Australian languages". In Bower & Koch (arg.): 127–150, 575–580.

——— & L. HERCUS (2013). "Obscure vs. transparent cognates in linguistic reconstruction", in R. Mailhammer (arg.), *Lexical and structural etymology. Beyond word histories*. Boston-Berlin: Mouton de Gruyter: 33–52.

KRISHNAMURTI, BH. (2001). *Comparative Dravidian linguistics. Current perspectives*. Oxford U.P.

LAFON, R. (1943). *Le système du verbe basque au XVIème siècle*. 2. arg. Donostia: Elkar 1980.

——— (1948). "Sur les suffixes casuels *-ti/-tik* en basque", in Lafon 1999, 199–207.

——— (1950). «Remarques sur le racine en basque», BAP 6: 303–308.

——— (1951–52). «Concordances morphologiques entre le basque et les langues caucasiques», *Word* 7: 227–244 eta 8: 80–94.

——— (1999). *Vasconiana*. IKER 11. Haritxelhar, J. & Xarritton, P. (arg.). Bilbo: Euskaltzaindia.

LAKARRA, J.A. (1985). «Larramendiren hiztegitzaren inguruan», ASJU 19: 9–50.

——— (1993 [2017]). XVIII. mendeko hiztegitzaren etorkiez, Tesia, UPV/EHU. UEUren arg. digitala.

——— (1995). "Reconstructing the Pre-Proto-Basque root". In Hualde, Lakarra & Trask (arg.): 189–206.

——— (1997a). «Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri», ASJU 31: 447–535.

——— (1997b). «Gogoetak aitzineuskararen berreraiketaz: konparaketa eta barneberreraiketa», *ASJU* 31: 537-616.

——— (1998). «Hizkuntzalaritza konparatua eta aitzineuskararen erroa», *Uztaro* 25: 47-110.

——— (1999). «Ná-De-Ná», *Uztaro* 31: 15-84.

——— (2002). «Etymologiae (proto)uasconicae LXV». In X. Artiagoitia, P. Goenaga & J.A. Lakarra (arg.), *Erramu boneta. Festschrift for R.P.G. de Rijk* ASJUren Gehigarriak 44: 425-442.

——— (2003 [2008]). «Hacia un nuevo paradigma etimológico vasco: forma canónica, filología y reconstrucción», *ASJU* 37: 261-391.

——— (2006a). «Protovasco, munda y otros: reconstrucción interna y tipología holística diacrónica», *Oihenart* 21: 229-322.

——— (2006b). «Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo», in id & J.I. Hualde (arg.), *Studies in Basque & Historical Linguistics in memory of R.L. Trask – R.L. Trasken oroitzapenetan. Ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz* (ASJU XLI/1-2): 561-621.

——— (2008). «Aitzineuskararen gramatikanantz (malkar eta osinetan zehar)», in X. Artiagoitia & J.A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan. Omenaldia Patxi Goenagari*. ASJUren Gehigarriak LI: 451-490.

——— (2009a). «Adabakiak /h/-aren balio etimologikoz», *ASJU* 43: 565-596.

——— (2009b). «Aitzineuskara berreraikiaz: zergatik ezkerra», *Euskera* 54: 17-98.

——— (2009c). « $*h_3/*h_2 > h_1$ eta horiei datxezkien zenbait fenomeno», *Lapur-dum* 13 ([2013]): 247-272.

——— (2010). «Haches, diptongos y otros detalles de alguna importancia: notas sobre numerales (proto)vascos y comparación vasco-ibérica», *Veleia* 27: 191-238.

——— (2011). «Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio», *FLV* 113: 5-114.

——— (2012). «Mailegaketa eta berreraiketa euskararen historiaurrearen ikerketan», in I. Igartua (arg.), *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza: 17-74.

——— (2013a). “Euskararen historiaurrearen berreraiketa sakonagorako: forma kanonikoa, tipologia holistiko diakronikoa, kronologia eta gramatikalizazioa”. In R. Gómez, J.A. Lakarra, eta C. Mounole (arg.), *3rd Conference of the Luis Michelena Chair / Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra / III. Congreso de la Cátedra Koldo Mitxelena*, Gasteiz: UPV/EHU: 275-324.

——— (2013b). «Monosyllabic root theory and the reconstruction of Proto-Basque: some aspects and consequences», in Mtnez Areta (arg.): 173-221.

——— (2013c). “Gramática histórica vasca o vasco-iberismo”, *Palaeohispanica* 13: 567-92.

——— (2014). «Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz», in I. Epelde, *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*. ASJU-ren Gehigarriak 60, Leioa. UPV/EHU: 155-241.

——— (2015a). «Hiru hasperen haboro», in M. J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta. Saillkideen omenaldia H. Knörr irakasleari (1947-2008)*. Bilbo: UPV/EHU: 349-378.

——— (2015b). «Saratsola eta (aitzin)euskar(ar)en geruzak», in B. Fernández & P. Salaburu (arg.), *I. Sarasola. Gorazarre. Homenatge. Homenaje* Leioa: UPV/EHU: 419-439.

——— (2016). “Gramatikalizazioa, morfemen forma kanonikoak eta berreraiketa morfologikoaren bide berriak”, in G. Aurrekoetxea et al. (arg.), *Txipi Ormaetxea omenduz. Hire bordatxoan*, Leioa: UPV/EHU: 175-192.

——— (2017a). “Basque and the reconstruction of isolated languages”, in Campbell, L. (arg.), *Languages isolated*, 59-99. NY: Routledge.

——— (2017b). “18. mendeko hizteigigintzaren etorkiez. 25 urte geroago”, in 1993 [2017]: i-xiv.

——— (2018a). “Prehistoria de la lengua vasca” in J. Gorrochategui, I. Igartua & J.A. Lakarra (arg.), *Historia de la lengua vasca*. Gasteiz: EJ: 23-244.

——— (2018b). “CVCren ertzetako alternantziak eta aitzineuskarako hitz-familien azterketarako hatsarriak: *ban/bar-/bal*-en zirriborroa”, ASJU 52: 437-486.

——— (2019a). “EHHE-ren Oinarriak”, in Lakarra, Manterola & Seguro, xv-cxl.

——— (2019b). “Bon/bor-/bol- familiaren berreraiketarako (II): Etimologia, partikulen historiaurrea eta hots-lege batzuen irregularitateez”. In A. Epelde & O. Jauregi (arg.), *Bihotz ahots*. M.L. Oñederra irakaslearen Omenez. Gasteiz: UPV/EHU: 377-395.

——— (2019c). “Euskal Gramatika Historikoa: 1970tik hona eta harago”. *Fon-tes-en* 50. Urteurreneko hitzaldi argitaragabea.

——— (2020a). “Berreraiketa zabalduaz eta familia erroiztuetako hitz arrotzuak senidetuaz: Banen urruneko hondar batzuk”, in Camino et al. (arg.): 335-66.

——— (2020b). “Nombres de parentesco y nombres relacionales en (proto)-vasco”, in M^a J. Martínez Alcalde et al. (arg.), *El español y las lenguas peninsulares en su diacronía: miradas sobre una historia compartida. Estudios dedicados a M^a T. Echenique Elizondo*, Valencia: Tirant Humanidades/Univ. Neuchatel: 329-62.

——— prestatzen-a, “Zenbait ohar supletibismoaz eta diakroniaz: aditz irregularrak eta datibo laguntzaileak”.

——— prestatzen-b, “Cronología y periodización del protovasco”.

——— prestatzen-c, “IS-tik AS-ra eta gibelera: Hainbat arrazoi ErIz-ak berre-raikitzeke”.

——— J. MANTEROLA & I. SEGUROLA (2016). “Los estudios etimológicos vascos: historia y perspectivas”, in M. Quirós (zuz.), *Etimología e historia en el léxico del español. Estudios ofrecidos a J.A. Pascual*. Madrid / Frankfurt, Iberoamericana / Vervuert: 845-871.

———, ———, ——— (2019). *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa -200*. Bilbo: Euskaltzaindia.

——— & I. RUIZ ARZALLUZ (arg.) (2011-12). *Luis Michelena. Obras Completas*, Donostia-Leioa: ASJUren Gehigarriak, 15 lib.

de LAMBERTERIE, Ch. (1998), «Sur la loi de Meillet», *Academie des Inscriptions* 142: 881-905.

——— (2000). “Problemes sémantiques de la reconstruction en IE”. In François, J. (arg.), *Théories contemporaines du changement sémantique* (Mémoires S.L.P., NS9): 109-134. Leuven: Peeters.

MANTEROLA, J. (2015). *Euskararen Morfologia Historikorako: Artikuluak eta Erakusleak*. Doktorego tesia, UPV/EHU.

——— (2019). “The contribution of medieval data to the reconstruction of Proto-Basque: lexicon and morphology”. *Recent Advances in Comparative Ling. Reconstruction*. SOAS, Londres, 3/27ko hitzaldi argitaragabea.

——— (2020). “Aportaciones del vasco medieval a la reconstrucción del léxico protorromance”, *ZfRPh* 136: 1-33.

——— (2021). “Euskaltzaindiaren *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*: etorkizunari begirako aurkezpen bat”, in *Euskera* 2019, 64, 2, 2: 1059-1076.

——— & BASTARDAS, R. (2020). “Pour un traitement digne du 21e siècle des emprunts du basque au protoroman au DÉRom”, in E. Buchi & W. Schweickard (arg.) *Dictionnaire Étymologique Roman (DÉRom)* 3: 217-242.

MARTINET, A. (1950). «De la sonorisation des occlusives initiales en basque». Berr., *Économie des changements phonétiques. Traité de phonologie diachronique*, Bern: Francke, 1955: 370-88.

MARTINEZ ARETA, M. (2006). *El consonantismo protovasco*, doktorego tesia, UPV/EHU.

——— (arg.) (2013). *Basque and Proto-Basque*, Frankfurt: Peter Lang.

MATISOFF, J. (1990). «On megalocomparison», *Language* 66: 106-120.

——— (2003). *Handbook of Proto-Tibeto-Burman*, Berkeley: U.P. of California.

MEILLET, A. (1925). *La méthode comparative en linguistique historique*, Paris. Berr. 1970.

MITXELENA, K. (1949). «Notas de gramática histórica vasca». Berr., OC VIII, 641-44.

——— (1950). «De etimología vasca», Berr., OC VIII: 645-658.

——— (1951). «La sonorización de las oclusivas iniciales. A propósito de un importante artículo de A. Martinet». Berr., OC VII: 33-46.

——— (1954a). «De onomástica aquitana». Berr., OC, V: 197-243.

——— (1954b). «Notas sobre algunos pasajes de los RS de 1596», Berr., OC XI: 131-39.

——— (1954c). “Problemas teóricos y prácticos de la lingüística vasca”. Berr., OC 10: 343-364.

——— (1954d). “La posición fonética del dialecto vasco del Roncal”. Berr., OC IV: 611-647.

——— (1956). “La lengua vasca como medio de conocimiento histórico”, Berr., OC X: 369-389.

——— (1957a). “Las antiguas consonantes vascas”. Berr., OC VII: 57-91.

——— (1957b). «Basque et roman». Berr., OC VIII: 601-613.

——— (1958). «Introducción», [N. Landuchio. *Dict. Ling. Cantabrigiae (1562)*]. Berr., OC XII: 202-232.

——— (1961-77). *Fonética histórica vasca*. Berr., OC V.

——— (1963). *Lenguas y protolenguas*. Berr., OC I: 1-98

——— (1964). *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Berr., OC V: 1-115.

——— (1968). «L’euskaro-caucasien». Berr., OC IV: 171-192.

——— (1970 [1965]). *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*. Berr., OC VIII: 29-191.

——— (1970). “Nombre y verbo en la etimología vasca”. Berr., OC VII: 235-267.

——— (1971). “Toponimia, léxico y gramática”. Berr., OC IV: 171-192.

——— (1973). *Apellidos vascos*. Berr., OC IX: 1-235.

——— (1974). “El elemento latino-románico en la lengua vasca”. Berr., OC V: 305-336.

——— (1977). “Notas sobre compuestos verbales vascos”. Berr., OC VII: 269-300.

——— (1979). «La langue ibère». Berr., OC III: 137-155.

——— (1981). «Lengua común y dialectos vascos». Berr., OC VII: 517-543.

——— (1981b). «Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak». Berr. OC XIII: 211-231.

——— (1981c). “Euskal literaturaren kondairarako oinarriak”. Berr., OC XIII: 233-246.

——— (1984). «Ad experiendum». Berr., OC XI: 381-389.

——— (1986). «Contra *Lekobide*». Berr. OC XI: 229-250.

——— (1987). “Baskisch = Hispanisch oder = Gallisch?”. Berr., OC V: 177-195.

——— BELOQUI, J., ELOSEGUI, J., SANSINENEA DE ELOSEGUI, P. (1953). “Contribución al conocimiento del dialecto roncalés”. Berr., OC VII: 571-608.

——— & I. SARASOLA (1987-2005). *Orotariko euskal hiztegia - Diccionario general vasco*, Bilbo, Euskaltzaindia.

OC (Mitxelena) = Lakarra & Ruiz Arzalluz (arg.), 2011-12.

ORDUÑA, E. (2005). “Algunos posibles numerales en textos ibéricos”, *Palaeohispánica* 5: 491-506.

——— (2006). *Segmentación de textos ibéricos y distribución de los segmentos*. Tesi argitaragabea, UNED.

PAWLEY, A. (2006). “Where have all the verbs gone? Remarks on the organisation of languages with closed verb classes”. Rice Univ.; argitaragabea.

POST, M. W. (2006). «Compounding and the structure of the Tani lexicon», *Linguistics in the Tibeto-Burma Area* 29: 40-60.

——— (2009). «Prosodic and typological drift in Austroasiatic and Tibeto-Burman: against «Sinosphere» and «Indosphere». 42nd Int. Conference on Sino-Tibetan, James Cook Uni., esk.

REGUERO, U., (2019). *Filologia eta dialektologia: Goi-nafarrera arkaiko eta zaharra: azterketa eta testuak*. ASJU-ren Gehigarriak, UPV/EHU.

REY, A. (zuz.) (2006). *Dictionnaire historique de la langue française*. Paris: Dictionnaire Le Robert [1. arg. 1992].

RINGE, D.A. (2003). «Internal reconstruction». *The Handbook of Historical Linguistics*, ed. by B.D. Joseph and R.D. Janda, 244–261. Oxford: Blackwell.

SAGART, L. (1999). *The roots of Old Chinese*. Amsterdam-Philadelphia: Benjamins.

——— & XU SHIXUAN (2001). “History through loanwords: the loan correspondences between Hani and Chinese”, *Cahiers de Linguistique de l'Asie Orientale* 30: 3-54.

SALABERRI, P. & L.M. ZALDUA (2019). *Gipuzkoako herrien izenak: lekukotasunak eta etimologia*. Euskaltzaindia.

SARASOLA, I. (1997). “Euskal hitz altxorraz”, ASJU 31. 2: 617-42.

SATRUSTEGI, J.M. (1997-99). «Información magisterial en la correspondencia de Holmer y Mitxelena», FLV 29: 241-264; 29: 77-96; 30: 297-328; 30: 429-468; 31: 109-134, 459-482; 32: 81-109, 441-466; 34: 323-352.

SCHUH, R. G. (2013). «Word families in Hausa», in O.-M. Ndimele et al. (arg.), *Language, literature and culture in a multilingual society. A festschrift for A. Rasheed*, Port Harcourt: M. & J. Grand Orbit: 579-598.

——— (2017). *A Chadic Cornucopia*. Ed. by P. Newman. eScholarship, California Digital Library: Oakland, CA.

SZEMERÉNYI, O. (1962). «Principles of etymological research in the IE languages». Berr., *Scripta Minora*, J.P. Considine & J.T. Hooker (arg.), Innsbruck 1987: 41-77.

TEIL-DAUTREY, G. (2008). «Et si le proto-bantu était aussi une langue... avec ses contraintes et ses déséquilibres?», *Diachronica* 25: 54-110.

THOMASON, S. G. (1993). «Copying with partial information in historical linguistics». In Aertsen, H. & Jeffers, R. (arg.), *Historical linguistics* 1989: 485-496. Amsterdam: Benjamins.

TRASK, R.L. (1977). «Historical syntax and Basque verbal morphology: two hypotheses». In Douglass, W.A. et al. (arg.), *Essays in honor of J. Bilbao*: 203-217. Reno: Desert Research Inst.

——— (1985). «On the reconstruction of Pre-Basque Phonology», in Melena, J.L. (arg.), *Symbolae L. Mitxelena Septuagenario Oblatae*, II, 885-91. Gasteiz: UPV/EHU.

——— (1996). *Historical Linguistics*. Londres: Arnold.

——— (1997). *The history of Basque*. Londres, NY: Routledge.

——— (1998). «The typological position of Basque: then and now», *Language Sciences* 20: 313-324.

——— (2008). *Etymological dictionary of Basque*, ed. for web publication by M.W. Wheeler. Sussex.

UGARTE, A. (2019 [2021]). «Luis Michelena (Koldo Mitxelena) y la creación del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”», *ASJU* 53, 1-2: 1-38.

UHLENBECK, C.C. (1942). «Les couches anciennes du vocabulaire basque», *EJ* 1 [1947]: 543-581.

ULIBARRI, K. (2013). «External History. Sources for Historical Research». In Mtnéz Areta (arg.): 89-117.

——— (inprimategian). *Dotrinazko Sermoitegia (~1780). Ikerketa eta edizioa*. ASJU-ren Gehigarriak, UPV/EHU.

URGELL, B. (1997). "Estudios en torno a la historia de la lexicografía vasca", *ASJU* 31: 643-85.

——— (2000). *Larramendiren Hiztegi Hirukoitzaren osagaiez*. Gasteiz: UPV/EHU, tesi argitaragabea.

——— (2000b). "Euskal edizioen historiaz (I): 1936 arteko ediziozintza", *Euskal testuen historiaz eta edizioaz* (I), UPV/EHUko Udako Ikastaroetako hitzaldia (2000/07/04).

——— (2004). «Etimologia eta neologia Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzean*», *Lapurdum* 9: 299-310.

——— (2020). "Arabako euskara zer da? Gogoetak euskalkien mugez eta haien saillkapenaz" in Camino *et al.* (arg.). 701-736.

URRESTARAZU, I. (2021). "Gogoetak Euskara Batu Zaharraren hausturaz". UPV/EHUko MALa.

VAN DER VOORT (2009). "The contribution of C.C. Uhlenbeck to Eskimo-Aleut linguistics", *Études / Inuit / Studies* 32, 2: 85-105.

WATKINS, C. (1965). "Latin *nox* 'by night': a problem in syntactic reconstruction", in Heinz, A. *et al.* (arg.), *Symbolae Linguisticae in honorem G. Kurylowicz*, Wrocław. Berrarg. 1994: 351-358.

——— (1984). "L'apport d'É. Benveniste à la grammaire comparée", in Serbat, G. (arg.), *Benveniste aujourd'hui*, I, 3-11: Louvain: Peeters.

——— (1990). "Etymologies, equations, and comparanda: types and values, and criteria for judgement", in Ph. Baldi (arg.), *Linguistic change and reconstruction methodology*. Mouton de Gruyter, Berlin-N.Y.: 289-304.

——— (1994). *Selected Writings: I. Language and Linguistics; II. Culture and Poetics*. Oliver, L. (arg.), (2 lib.). Innsbruck: Innsbrucker Beiträge zur Sprachwissenschaft.

——— (2000). *The American Heritage dictionary of IE roots*. 2th ed. Boston-NY: Houghton Mifflin Co.

ZULOAGA, E. (2020). *Mendebaleko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorantz*. UPV/EHUko tesia.

——— (2021). "Ibilaldia euskal klasikoen ediziozintza modernotik (1840-2020)". Inprimategian.

Euskaltzaindiaren *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* (EHHE-200): etorkizunari begirako aurkezpen bat

***Diccionario Histórico-Etimológico Vasco (EHHE-200):
Una presentación orientada al futuro***

***Le Dictionnaire historico-étymologique basque (EHHE-200)
de l'Académie de la langue basque : une présentation
à visée prospective***

***The Basque Historical-Etymological Dictionary
(EHHE-200) of the Royal Academy of the Basque
Language: a future-oriented presentation***

MANTEROLA, Julen

Euskaltzaindiaren Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoaren lantaldeko kidea
jmanterola@euskaltzaindia.eus

Noiz jaso: 2020-10-30

Noiz onartua: 2021-01-09

Euskera. 2019, 64, 2, 2. 1165-1212. Bilbo
ISSN 0210-1564

Aurkezpen artikuluko honek EHHEren ezaugarri nagusien berri ematen du. Hiztegiaren atalak zerrendatu ondotik, haren osakeraren gakoak xeheki aletzen ditu: bertan tratatzen diren hitzak aukeratzeko irizpideak azaldu, eta esplikatzeko da hitzoi dagozkien sarrerak nola egituratu diren familiak hiztegiaren testua osatzeko. Horretaz gain, hiztegiko sarrera bakoitzaren egitura deskribatzen da eta egitura horren barreneko ataletako bakoitzaren berri ematen. Jarraian, EHHEk dakartzan aurrerapenen zenbait adibide ematen dira. Azkenik, etorkizunari begirako ariketan, EHHEk hobekizun dituen puntu zenbait zerrendatzen dira, praktika etimologikoa buruzko zenbait gogoetarekin batera.

Gako-hitzak: EHHE, aurkezpena, makroegitura, mikroegitura, etimologiaren kalitatea.

Este artículo de presentación da a conocer las características básicas del EHHE (*Diccionario Histórico-Etimológico Vasco*). Una vez detalladas las secciones del diccionario, se explican sucintamente las claves de su contenido: explicar los criterios para elegir las palabras, como esta palabras (entradas) se han estructurado para componer el texto del diccionario en base a familias de palabras. Además se describe la estructura de cada entrada del diccionario y se dan a conocer los apartados de los que esta compuesta dicha estructura. Posteriormente, se citan algunos ejemplos de las novedades que trae consigo el EHHE (*Diccionario Histórico-Etimológico Vasco*). Para finalizar y en un ejercicio de carácter prospectivo, se detallan algunos aspectos a mejorar, junto con algunas reflexiones en torno a la práctica etimológica.

Palabras clave: EHHE (*Diccionario Histórico-Etimológico Vasco*), presentación, macroestructura, microestructura, calidad de las etimologías.

Cet article présente les caractéristiques de base du EHHE (*Dictionnaire historique-étymologique basque*). Il donne le détail des différentes sections du dictionnaire et explique de façon succincte les clés de son contenu : il explique les critères du choix des mots, comment ces mots (ou entrées) se sont structurés pour composer le texte du dictionnaire selon des familles de mots. De plus, il décrit la structure de chaque entrée du dictionnaire et présente le contenu de chaque paragraphe. Il donne ensuite quelques exemples des nouveautés de ce dictionnaire. Enfin et de manière prospective, l'article souligne quelques points à améliorer, ainsi que quelques réflexions sur la pratique étymologique.

Mots-clés : EHHE présentation, macrostructure, microstructure, qualité étymologique.

This article serves as a presentation of the main features of the EHHE (*Basque Historical-Etymological Dictionary*). After listing the sections that make up the dictionary, I dwell on some details of its composition, namely the criteria for choosing the words to be included in

the dictionary, and how they have been organized into lexical families. I also describe the structure of the entries, by defining the sections that form each of them. Thereafter I offer some examples that show the kind of advancements that the EHHE has made. Finally, I inventory the aspects that need to be improved in the EHHE, and I also reflect on the etymological practice with special attention to language isolates.

Keywords: EHHE presentation, macrostructure, microstructure, quality of etimologies.

1. Sarrera

Urtebete da EHHE kalean dela, eta orduan eginiko aurkezpena bere hartan hona ekartzeak partez galdu du bere zentzua orain: 12 hilabete igaro diren honetan, liburua bera da bere buruaren aurkezpena. Horregatik, egitasmoaren (§2) eta hiztegiaren ezaugarri nagusiak (§§3-4) eta haren emaitzak (§5) aipatzeaz gain, artikulua honetan argitaratu ondoko lan-norabideak, zuzenkizunak eta aldakizunak zerrendatu dira (§§6-7). Etorkizunari begirako aurkezpena da hau, hala esan badaiteke, hiztegiak, ikerketak berezkoa duen etengabeko aurrerapenean, egin beharko dituen etorkizuneko zuzenketei begirakoa.

2. Lantaldea eta lanaren banaketa

Joseba Lakarraren ekimenez eta Euskaltzaindiaren zuzendaritzak sustatuta –2009ko Barne Jardunaldietarako aurkezturiko egitasmo-txostena onartu ondoren– jarri zen abian Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoaren egitasmoa 2009ko bukaeran, bi teknikari kontratatuta, Iñaki Segurola eta Julen Manterola. EHHEren lantaldea, beraz, Joseba Lakarrak, Julen Manterolak eta Iñaki Segurolak osatu dute, eta laguntzaile gisa Koro Segurola eta Gabriel Fraile aritu dira.

Hastapen haietan, Joseba Lakarrak proposaturiko etimografiatzko bibliografia zabala irakurri eta beste hiztegi batzuetako egitura aztertu zuten bi teknikariek (ikusi §4.2). Lan horren ondotik, Iñaki Segurolak ekin zion lehen hitzen erredakzioari, sarrera prototipikoaren zirriborro eskematiko bat erdietsi arte. Lan horrek zedarritu zuen sarreren hezurduraren oinarriko egitura: hitzaren alderdi historikoaren atala, eratorrien atala eta berre-raiketa-proposamenaren atala (atal historikoa eta atal etimologikoa, funtsean). Segurola bera arduratu da hitzen alderdi historikoa lantzeaz, testuetako lehen lekukotasunak bilatzeaz eta eratorriak zerrendatzeaz, familiakoak izan daitezkeen beste batzuk ere aipatuz eta etimologian interesgarriak izan zitezkeen auziak eta loturak azaleratuz. Lehen idatzaldi horretan oinarrituta, hark abiarazitako sarrerak garatzen zituen Julen Manterolak,

alderdi etimologikoa landuta. Seguiolak eta Manterolak bata bestearena irakurri, eta alderdi historikoan zein etimologikoan egiten zituzten aldaketak eta zuzenketak. Azken emaitza behin-behineko hori irakurtzen zuen Joseba Lakarrak, eta bere zuzenketak, oharra eta aldaketa-proposamenak egiten zituen.

Alabaina, alderdi etimologikoa lantzeak bestelako doikuntzak ekarri zizkion sarreraren hasierako egiturari. Horrela, eratorri zenbaitek zehaztapen etimologikoak behar zituztela ikusi zen berehala, eta haiek ere tipografikoki nabarmenduta geratu dira, hain interesgarriak ez ziren eratorrien gainetik; azkeneko, puntu beltzarekin markatuta eta letra tamaina handiagoarekin ageri dira horiek. Bestalde, sarrera lexikoen hastapeneko egitura horrek berebiziko aldaketa bat izan zuen: etimologiaren atalean, hitzaren gorabehera etimologikoak lantzeaz batera, Erdi Aroko lekukotasunak corpus baten gainean sistematikoki arakatzeko zirenez, eta datu horiek bertan aletu, atal hori desorekatua geratzen zen, etimologiazko eztabaidak eta datu proto-historikoak elkarren segidan emanda, bereizgarri lexikografikoki gabe. Ekarpen mota berri hori txertatzeko irtenbidea izan zen datu proto-historiko guztientzat (akitanierazkoak barne) berriazko atal bat sortu eta atal historikoaren ondora eramatea. Orobat, substratuzko datuen eztabaidarako ere beste atal bat sortu zen, historiako eta proto-historiako atalen ondotik eta eratorrien aurretik jartzeko.

Beste maila bateko aldaketa izan zen hitzak familiak antolatzea; erabaki hori lotuta, Julen Manterolak familia bakoitzari buruzko diagnosi paragrafoa erredaktatu zuen. Familia bakoitza zein hitzek osatuko zuen, lantaldearen barreneko eztabaidetatik geratzen zen zedarritua.

Gabriel Frailek eta Koro Seguiolak berebiziko ekarpena egin dute EHHEren erredakzioan, batez ere hiztegiaren erredakzioak iraun duen 10 urteen bukaera aldera. Gabriel Frailek, Iñaki Seguiolarekin trebatuta, hainbat sarreraren lehen idatzaldia egin du, hitzaren alderdi historikoarekin eta eratorriekekin sarreraren hezurdura osatuz. Koro Seguiola, berriz, aurkibideekin aritu da buru-belarri, Joseba Lakarrarekin lanean, EHHEn aipaturiko datu-kopuru eskergak erauzten eta antolatzen. Lan nagusi horietaz gain, biek ala biek hainbat proposamen eta zuzenketa egin dituzte testu osoaren gai-

nean: hutsak zuzendu, testuetako adibideak egiaztatu, lehen lekukotasunen datak ziurtatu, etab. Asko irabazi du azken emaitzak haien lanarekin.

Ondoko zerrendan daude xehakatuta EHHEn paperezko argitalpena osatu duten atalak eta hartara iristeko burututako lanak, haiei loturiko arduradunekin batera:

- a) Hitzaurrea → Joseba Lakarra.
- b) Bibliografiaren kudeaketa → Julen Manterola.
- c) Testu historikoen laburdurak → Iñaki Segurola, Julen Manterola, Gabriel Fraile.
- d) Erdi Aroko iturrien laburdurak → Julen Manterola.
- e) I. Eranskina: Zerrenda kronologikoa → Koro Segurola.
- f) II. Eranskina: Familien egitura hierarkikoa → Julen Manterola.
- g) II. Eranskinen aldaeren zerrenda → Koro Segurola.
- h) Aparatu lexikografikoa (ikurrak etab.) → Iñaki Segurola, Julen Manterola.
- i) Hitzen familia-kidetasuna → Joseba Lakarra, Julen Manterola, Iñaki Segurola.
- j) Familien barreneko hierarkiak eta antolaketa → Julen Manterola.
- k) Familien buruko diagnosia → Julen Manterola.
- l) Historiaren atala, eratorriak barne → Iñaki Segurola, Gabriel Fraile.
- m) Eratorrien informazio historikoa → Iñaki Segurola, Gabriel Fraile.
- n) Proto-historiaren atala → Julen Manterola.
- ñ) Substratuaren atala → Julen Manterola.
- o) Eratorrien etimologiak → Julen Manterola.
- p) Etimologiaren atala → Julen Manterola.
- q) Aurkibideak (ondokoak izan ezik) → Koro Segurola.

- r) Beste hizkuntzetako paraleloen aurkibidea → Gabriel Fraile.
- s) Aurkibide orokorra → Julen Manterola.
- t) Sarreren edukiaren moldaketak → Joseba Lakarra, Iñaki Segurola, Julen Manterola.

Bistan denez, talde-lana izan da hau, eta lantaldea txikia baita, elkarren lanen eta ekinbideen berri etengabea izan dugu, nor bere eginkizunetan arituta ere. Eztabaida etengabe horren ondorioa da EHHE.

3. Aurkezpen orokorra: liburuaren atalak

Liburua ondoko ataletan antolatua dago:

- a) Euskaltzainburuaren aitzinsolasa.
- b) EHHEren hitzaurrea, Joseba Lakarrak atondua.
- c) Iturriak eta bibliografia.
- d) Eranskinak:
 - I. Lehen agerraldien zerrenda kronologikoa.
 - II. Familien egitura.
- e) Hiztegia.
- f) Aurkibideak:
 - I. Etimologien zerrenda.
 - I.1. Ondare zaharreko hitzak.
 - I.2. Beste hizkuntzetako hitzak.
 - II. Beste hizkuntzetako paraleloak.
 - III. Onomastika.
- g) Aurkibide orokorra.

Ondoko atalean (§4), batez ere hiztegiaren erredakzioari (e) loturiko erabakien berri emango dut. Horiei lotuak diren heinean azalduko ditut fami-

lien egitura (d, II.) islatzeko eginiko zenbait hautu eta aurkeztuko dut egitura horretan nabigatzeko diseinaturiko aurkibide orokorra (g).

4. Abiaturuko lanak

Egitasmoa abiarazteko, hiztegiaren diseinuari zegozkion bi gairi heldu genien: batetik, aztergai izango ziren hitzak aukeratzeko irizpideak zedarritu genituen; bestetik, sarrera bakoitzaren egiturak nolakoa behar zuen erabaki genuen. Ondoko bi azpiataletan emango ditut gai bakoitzari lotutako erabakiak eta nolako ondorioak izan dituzten hiztegiaren azken emaitzan.

4.1. Makroegitura: zein hitz tratatu ditugun eta nola antolatu ditugun

EHHERako hitzak aukeratzeko, hiru irizpide nagusi erabili genituen:

- a) Hitzen lehen lekukotasunaren antzintasuna.
- b) Hitzen orokortasuna, haien hedadura geografikoa.
- c) Hitzen inguruko bibliografiarik ba ote den, etimologia landua egotea (Mitxelenaren lanetan, batez ere).

Horrela, mila hitz inguruko zerrenda osatu genuen. Egitasmoaren zuzendari Joseba Lakarrak hasieratik erabaki zuen hiztegiaren egitura eta hazkundea modularra izatea. Hau da, ez ginen besterik gabe hitzak hurrenkera alfabetikoaren arabera lantzen hasi; horren ordeztu, hiztegi alfabetiko arruntak letra bakoitzean dituen hitz kopuruen proportzioak kalkulatu, eta proportzio horiei atxikiz aukeratzeko genituen hastapeneko zerrendako mila hitzetatik zein landu. Hautu hori funtsezkoa suertatu da liburuaren argitalpenerako, A-tik Z-rako liburu bat argitaratu ahal izan delako. Izan ere, A-ko hitzak lantzen hasita, jarraian B-koak, gero D-koak... erredaktatzen aritu izan bagina, ez baikinena hamar urteotan Z-koetara iritsiko. Letra bakoitzeko hitz kopuru bat hasieratik aukeratuta, hori saihestu genuen, bai baitziren, gainera, alfabetoko azkeneko letretan hitz garrantzitsuak etimologiaren aldetik.

Egitasmoan aski aurreratuak ginela, eta sarreraren produkzioa aski ugaria zela, egitasmoaren hastapenean letrakako proportzioari emandako garrantzia lausotuko zuen bigarren erabaki bat hartu genuen: landutako sarrerak familiak, sarrera-buru nagusi baten azpian antolatzea erabaki genuen. Hautu honen zehar-ondorioa izan zen hainbat hitz berrirentzako sarrerak sortu beharra, familiak osatze aldera. Azkenetako, 200 familia osatu dira, 2600 bat hitzen informazio etimologiko, historiko eta filologikoarekin; euskararen ondare zaharreko 100 familia landu ditugu, eta beste hainbeste mailegu.

Ondoko bi puntu hauetan laburbiltzen ditut familiak antolatzeak berekin ekarri dituen erabakiak:

- a) Idealki, hitz baten eztabaida etimologikoan familia da unitate maximoa. Alabaina, Corominesek DECat-en eta DCECHn ez zituzkeen oztopoak ditugu guk, hark, besterik ezean, latinezko etimora jo baitzezakeen. Euskararen barrenean familia zabala osatzen duten hitzak sarrera bakarraren pean jarri ditugunean, familia horretako sarreraren aurretik diagnostiko orokor bat egin dugu, batera bildu diren hitz horien arteko harreman formalen, semantikoen edo are izandako zailtasunen eta ezinen berri emateko. Horrela, bada, familiaren ordezkari nagusitzat jo dugun hitzari loturik, testu nagusiarekiko koska bat barrurago dagoen gogoeta orokorra jarri dugu, familiaren batasuna bermatzeko izan daitezkeen eragozpenak edo familia-proposamenaren justifikazio formalak eskaintzen dituenak. Diagnostikoko paragrafo horren adibideak ditugu EHHEn *eban*, *hats* eta *zur* sarreretan, besteak beste.
- b) Hitzak familiak antolatzeak bestelako inplikazio batzuk ditu: zenbait kasutan, hierarkia maila bat baino gehiago ezarri behar izan ditugu, familiaren barreneko hitzen arteko harreman etimologiko zehatza zein den argi egoteko. Adibidez, EHHEn argi ikusi dugu *atze*, *atzendu*, *azkar*, *hatz*, *atzeman* eta *hazi* familia berekoak direla, baina, denak azken buuruan *hatz*-en eratorri formalak izanagatik, nahasgarria izango zen haren azpiko guztiak maila berean jartzea. Bestela esateko, *azkar*-en toki etimologikoa *hazi*-ren azpian dago (*hatz* → *hazi* → *azkar*), ez zuzenean *hatz*-en azpian; *atzendu*-rena *atze*-ren azpian dago, ez zuzenean *hatz*-en

azpian (*hatz* → *atze* → *atzendu*), etab. Hierarkia horiek ongi islatzea proposamen etimologikoaren parte ezinbesteko bilakatu da.

Interesatzen zaigunez sarreren antolamenduak berak nolabait islatzea harreman hierarkiko etimologiko hori, azpifamiliak “♦” zeinuarekin markatu ditugu. Familia zabal batzuk hiru mailako hierarkien arabera antolatu behar izan ditugu, hala nola *gain* eta *zur*, eta horietan sarre-rak “♦♦♦”, “♦♦” eta “♦” mailako azpifamilietan sailkatu ditugu; beste familia batzuetarako, berriz, aski izan dugu bi mailako hierarkiekin, hala nola *baratu*, *berna*, *eho* eta *hatz*, eta horietan “♦♦” eta “♦” maila-ko azpifamilietan antolatu ditugu sarrerak; azkenik, badira maila ba-karrarekin (“♦”) aski duten familiak (*gor*, *haitz*) eta are hierarkia adie-razpen beharrik ez dutenak ere (maileguak dira honen erakusgarri tipikoak, baina ez beti, cf. arestiko *baratu* eta *berna*).

Horrela, irakurleak badaki zeinu horietako bat ikusiz gero hitz horren deribazio etimologikoa goragotik heldu dela eta, tarteko besterik ez bada, familiaren sarrera orokor nagusira iritsiko da, (a) puntuan argi-tu dugun familiaren ordezkari nagusira (familiaren diagnostiko oro-korra biltzen duenera).

Hitzak eta haiei dagozkien sarrerak familiaka antolatzeak hurrenkera al-fabetikoa hankaz gora jarri du: familiaburuak, ageri denez, hurrenkera alfa-betikoan eman ditugu hiztegian zehar; baina maiz gertatzen da familiaburu den hitzaren lehen hizkiak ez kointziditzea haren pean dauden azpisarrera-tako hitzen lehen hizkiarekin. Arestian aipaturiko adibidea gogora ekarriz, *atze* ez dago A hizkian, paperezko liburu fisikoaren hasiera xamarrean, no-labait esateko: haren familiaburu *hatz*-en azpian dago, eta ondorioz H hiz-kian aurkituko dugu.

Hortaz, EHHE ezin da erabili Ernout & Meillet, DECat eta DCECH bezala, sarreren egiturari haien zordun bada ere (ikusi §4.2). Hurrenkera alfabetikoaren desitxuratze hau gainditzeko, aurkibide orokor bat egin dugu, EHHEn landu diren hitz guzien zerrenda alfabetikoarekin. Hiztegi bukaerako aurkibide orokor horrek funtzionatzen du zinezko hiztegi alfabe-tiko gisa, eta berak eramango gaitu hitzari dagokion familiara eta orrialdera, Bucken hiztegiko aurkibidearen antzera.

4.2. Mikroegitura: sarrerren egitura

Hierarkiaren edozein mailatan daudela ere, sarrera guztiek egitura maximo bera dute. Atal honetan sarrerren egitura hautatzeko zein eredu erabili dugun eta zein erabaki hartu ditugun aletuko dut.

Hiztegi honetako sarrera bakoitzak bi zati nagusi ditu, funtsean: bata hitzaren informazio historikoari dagokio, eta bestea, berriz, hari buruzko eztabaida etimologikoari. Eredu horretara iristeko, egitasmoaren hastapenean hainbat hiztegi etimologikori gainbegiratu eman genien. Emaiza argia izan zen: hiztegi etimologikoen, zer diren ongi zedarritua egonagatik, aski genero heterogeneoa da (ikusi Malkielen lan klasikoa hiztegi etimologikoen tipologiaz eta, oraintsuago, Buchiren 2016koa) eta oso mota ezberdinetako obrak aurkitu genituen.¹

Hiztegitik hiztegiara aurkitu daitezkeen ezberdintasunen atzean zenbait faktore zerrendatu daitezke:

- a) Hizkuntzaren tradizio idatzia zein den, modu batekoa edo bestekoa izango da hiztegi etimologikoa ere.
- b) Hizkuntzaren familia ezaguna izan eta ahaideak ongi ezarriak izan, horrek ere eragin zuzena du ikerketa etimologikoetan eta, ondorioz, baita hiztegi etimologikoaren egituran ere.
- c) Hizkuntzaren hizkuntzalaritza-ikerketen egoerak eta tradizio filologikoak isla zuzena izan ohi dute hiztegi etimologiko baten emaitzan.

Beste eredu batzuk baztertuta (Blust & Trussel 2010, Orel & Stolbova 1994, etab.), EHHEko sarrerren egitura zedarritzeko, gure tradizio filologiko eta lexikografiko europarretik hurbilagoko obrei jarraitu diegu (DCECH, DECAt, Ernout & Meillet), nahiz eta ikuspegi linguistikotik hizkuntza erromantzeak eta latina, euskara ez bezala, familia zabaletako partaide diren eta horrek etimologiarako eta berreraiketarako ondorio zuzena izan. Gure esperientzian, ordea, alde horrek ez dio bereziki erasan gure jardunari, eta

¹ Hori berretsi ziguten, gure galderei erantzunez, alor oso ezberdinetako zenbait ikertzailek, 20 bat familiatako ikerketen egoeraz genuen bibliografia eskuragarria osatzeko beren zuzeneko esperientzia eskatu genienean.

esan liteke tradizio europarreko hiztegi etimologikoaren generoa ongi egokituta dakiekeela tipologia ezberdinetako hizkuntzei, batez ere tradizio kultural –hots, idatzi– bertsukoak baldin badira.

Gure hiztegiaren bereizgarri nagusia familiakako antolaketari eta hierarkia etimologikoei eman diegun isla grafikoa izan da (§4.1), baina, funtsean, aipaturiko ereduak segitu dugu. Bestela ere, mundu mailan ez ditugu aurkitu euskara bezala ahaide ezagunik gabeko hizkuntza isolatuak tradizio etimologiko-lexikografiko finkatuta dutenak. Japonierak, esaterako, ez du –edo ez zuen, egitasmoarekin hasi ginenean– hiztegi etimologiko akademikorik (Vovin, idatzizko jakinarazpena).

Corominas & Pascualen eta Ernout & Meilleten hiztegietako sarrerek antzeko egitura dute, eta helburuz kide diren zatiak dituzte, hurrenkerak hurrenkera: sarrera-buruaren ondotik, biek ala biek ematen dute hitzaren erabilera historikoaren berri, haren eratorri zenbaiten xehetasunak, eta eztabaida etimologikoa.

Aldeak alde, eredu horri segitu diogu guk gure sarreretako informazio historiko zein etimologikoa aurkezteko. Bereizitasun zenbait dituzte gure sarrerek, ordea, ikerketa etimologiko, lexikologiko zein filologikoek euskal ikasketetan bizi duten egoerak hartaturik; gure sarreretan berariaz sorturiko azpiataletan islatzen dira bereizitasun horiek. Jarraian, EHHEko sarre-
ren zatiak deskribatuko ditut, horietako bakoitza markatzeko erabili diren ikonoak ere adieraziz, halakorik balego:

- a) Sarrera-burua: gorputz-testuarena baino letra-tamaina handixeagoan eman dugu, letra larritan. Letra lodia ere erabili dugu, familiaburua edo azpifamilia baten burua baldin bada. Zenbait kasutan euskara batuko formatik aldendu gara, irizpide etimologikoa lehenetsiz (cf. HUR ‘ur’, AZKAZI ‘askazi’). Zenbait kasutan, formatu bikoitzean eta are hirukoitzean eman ditugu sarrerak, batera bilduz jatorri bereko aldaera dialektal nagusiak (cf. APEZ/APAIZ, ERAMAN/EROAN, etab.) edo etimologikoki lotuak direnak (cf. PORTU/BORTU/MORTU, GUTUN/KUTUN, SEIN/SEHI, etab.).
- b) Hitzaren lehen lekukotasunaren data: sarrera-buruaren ondoan eman dugu, parentesi artean; hitzaren aldaera nagusien datarik zaharrenak

ere eman ditugu. Etzanean eman da aldaera, haren ondoan urtea eta bi punturen ondoren iturria. Zenbait kasutan adibide konkretua ere ezarri dugu –Erdi Aroko gehienak, esaterako, parentesi karratuen artean eman ditugu–, edo, zailtasun filologiko edo grafiazkoren bat baldin badu lehen lekukotasuneko datuak, jatorrizko testuan nola dagoen ere adierazi dugu (cf. HIGUIN sarreran <yguny>).

Ziurtzat ematen ditugun adibideak baizik ez ditugu erabili hitzen lehendabiziko data hauek zedarritzeko tenorean. Erdi Aroko lekukotasunen batek hitzaren lehen lekukotasuna aurreratu lezakeenean, “ik. Erdi Arokoak” bezalako formulak erabili ditugu; orobatsu akitanierazkoekin. Zenbait kasutan, eratorriren bat lehenago dago lekukotua hitz nagusia baino; halakoetan, eratorria bera ez badugu jarri, eratorrirako deia egin dugu.

Oso gutxi dira hitzaren lehen dokumentazioaren parentesi arteko atal hau ez duten sarrerak. Lekukotasun bakarrekook edo ia bakarrekook izan ohi dira, eta jarraian datorren parte historikoan berehala geratzen da argi zein den hitzaren iturria. Horren adibide da RSko DAGUENIL.

- c) Hitzaren informazio historikoa: “■” zeinuarekin hasten da atal hau. Bertan, hitza testuetan eta bestelako iturri historikoetan non eta nola erabili izan den deskribatu da: hitzaren aldaera eta adiera nagusiak jaso dira, batez ere eztabaida etimologikorako esanguratsuak direnak. Neurri batean, OEHN dagoen informazioaren elaborazio bat da atal honetakoa eta bertan biltzen diren adibideak haren zordun dira, grafia gaurkotua barne. Atal honek badakar, orde, EHHE idatzi zen garaian behintzat OEHN bilduta ez zeuden hainbat testutako informaziorik ere: horren adibiderik behinenak dira Maiorak azken urteotan argitara ekarri dituen Nafarroako esaldi eta testuak.²
- d) Hitzen informazio proto-historikoa: “□” zeinuarekin hasten da atala. Erdi Aroko agiriak sistematikoki arakatu dira, nire tesiko (Manterola 2015) corpora oinarri hartuta. Gure filologiaren egoerak hartaratuta, atal hau da hiztegiaren bereizgarrietako bat: Arzamendiren lana (1985)

² Maioraren lanetako datuak bilduak dituzte OEHN geroztik.

aspaldi dago gauditua (besteak beste, hainbat direlako geroztik editatu diren bildumak eta izenen analisisan ere aurrerapen nabarmenak izan direlako), eta ezinbestekoa gertatu da berariazko atal bat sortzea, Coromines, Ernout eta Meillet eta besteren eredu soilagotik aldenduz. Hiztegiaren idazte prozesuaren hastapenean parte historikoan zeuden akitanierazko datuak, era berean, atal honetan egokitu dira.

- e) Euskal substratuko beste hizkuntzetako hitzak: “◊” zeinuarekin hasten da atal hau, eta ez da proto-historiari dagokion atala bezain maiz agertzen. Zenbait kasutan, beste hizkuntzetan aurkitu daitezkeen euskal jatorriko hitzen informazioa eman dugu hemen, hitzaren inoizko hedaduraren eta bizitasunaren erakusgarri delakoan (ik. *azkar*). Eredu gisa harturiko hiztegien egitura ez dago holako atalik, baina egia da, hala ere, Ernout eta Meilleten hiztegian maiz ematen zaigula latinak erromantzeetatik kanpo utzitako arrastoen berri, hala nola hizkuntza zeltetan, eta Corominesen hiztegietan ere euskara sarri ageri dela hizkuntza hartzaile gisa.

Bi motatako informazioa aurkitu daiteke atal honetan: batetik, substratuzko adibide garbiak ditugu –gogoan har bitez Arabako eta Nafarroako erdarek egindako erreferentzia ugariak eta, zenbait kasutan, baita gaskoizko hitzei ere–; bestetik, euskaratik beste hizkuntzetara hedaturiko hitzen adibideak ditugu (horien artean, *ezker* hitzarena dugu kasu paradigmatikoa).

- f) Eratorri esanguratsuak: “●” zeinuarekin adierazi ditugu; bete-beteko sarrera diren hitzetan bezala, letra larritan eman ditugu (baina gorputz-testuaren letra-tamainan, halere); orobat, koska bat barrurago sartu dugu testua. Hiru irizpide erabili ditugu eratorri bat esanguratsutat jotzeko eta, ondorioz, sarrera maila emateko: 1) haren osaerak zehaztaperen etimologikoen beharra izatea –edo horretarako bide ematea–, 2) Erdi Aroko edo proto-historiako datu esanguratsuak egotea eratorriari buruz, 3) eztabaida filologiko interesgarriren bat izatea hitzaren inguruan.
- g) Bestelako eratorriak: gorputz-testuarena baino letra-tamaina txikiagoan eman ditugu, koska bat barrenerago eta elkarren segidan guz-

tiak. Azken buruan, hitzaren bizitasunaren berri ematen dutelakoan ekarri ditugu hona eratorri hauek guztiak ere.

- j) Eztabaida etimologikoa: “►” zeinuak adierazten du atalaren hasiera. Hemen eman ditugu hitzaren eztabaida etimologikoari dagozkionak: aitzin-formak edo forma berreraikiak, datu berriak –Erdi Arokoak, testu berrietakoak– nola egokitu diren proposamen etimologikoetan, zenbait eztabaida filologiko (cf. *gatzai*), etab. Parte historikoan zerrendaturiko aldaeren arteko harreman kronologiko erlatiboa eta deribazio fonetiko zehatza zedarritu dugu gehienetan; ohitura estandarrari segituz, “>” eta “<” zeinuak erabili ditugu horretarako. Hitzaren deribazioan bilakaera fonetiko hutsetik haragoko bilakaera morfologikorik baldin bada –analogia, atzeranzko osaera...–, horretarako “→” eta “←” zeinuak erabili ditugu. Saiatu gara, halaber, alderdi historikoan deskribaturiko erabileren eta adieren arteko harreman diakronikoa zein den zehazten, eta horretarako “→” eta “←” zeinuak erabili ditugu.

Bilakaera semantikoen auzian, bai hitz beraren adierak azaltzeko, bai familia berekotzat jo ditugun hitzen loturarako, ahal izan dugun guztietan beste hizkuntzetako paraleloekin bermatu ditugu proposatutako lotura semantikoak. Horretarako, lagungarria izan da Bucken hiztegia (1949), bertan esanahika baitaude bilduta eta aztertuta IE hizkuntzetako hitzak, ez ezinbestean kognatuka; horrekin batera, beste hiztegi etimologikoetako informazioa ere erabili dugu esanahizko xehetasunak argitzeko (adibidez, hizkuntza dravidiarren Burrow & Emeneauena, grezieraren Beekesena, etab.) eta, etorkizunean, espero izatekoa da polisemiari buruzko datu-baseek emaitza interesgarriak ekartzea arlo honetan (ikusi CLICS³). Paralelo semantikoen bilaketaren ariketa honetan modu sistematikoan aritzeak ustekabeko emaitzak ekarri ditu, eta horietarik ikusgarrienetako bat da, adibidez, itxuraz hurbiltasun semantikorik ez duten *gari* eta *galdu* hitzen arteko lotura argitzera iritsi izana.

Ez dugu atal bereizirik sortu hitz bakoitzarentzat izan diren proposamen etimologiko guztiak biltzeko, bestelako lana baita hori, historiografikoa, eta helburu hori aski ongi betetzen du (O letrairaino, behintzat) Agud & Tovarren

hiztegi bukatugabeak. Bai arakatu dugu sistematikoki etimologoen bibliografia: Boudaren, Gavelen, Lacomberen, Lafonen, Schuchardten eta Uhlenbeken lan zaharrak berariaz begiratu dira, eta baita ASJU, BAP, FLV, RIEV eta *Eusko-Jakintza* aldizkariak ere, horietako etimologiak ezagutzeko eta Bähr, Hubschmid, Vinson eta halako autoreen lanen berri ere izateko.

4.2.1. *Ohar bat etimologien iturriez, haien egiantzekotasunaz eta eguneratzeaz*

Kasu batzuetan aitzindarien teoriak aipatu izan ditugu eztabaida etimologikoaren atalean, eztabaidakizun interesgarriak biltzen zituztelako edo tradizio luzeko etimologiak zirelako (cf. Schuchardtek *bazkari*-ri edo *entzun*-i buruz esandakoak).

Izan diren hipotesi guztiak bildu gabe ere, eztabaida etimologikoak hala eskatu duenean –hitz baten osaeraz ziurtasun erabatekorik ez dugunean–, bai eskaini dugu etimologia bat baino gehiago (cf. *agur*, *eguen*, *ortzi*, besteak beste), betiere egiantzaren mugetan ulertzen ditugun artean. Horrela jokatu dugu baita gure proposamenen artean zalantza genuenean ere. Are gehiago, eztabaidak eztabaida eta argudioak argudio hitz baten familia-kidetasuna argia edo guztiz erregularra ez bada (formazko zein esanahizko arazoak direla medio), “!” zeinua ezarri dugu sarreraren hastapenean, eragozpen horien ohargarri gisara. Ikusi §7 atala.

EHHEn jaso diren etimologia guztiak ez dira gureak, eta ahalegin berezia egin da proposamenen azken iturria bilatzen. Nolanahi ere, etimologia gutxi geratu da, euskalari aitzindariengandik jasoak izanagatik, inolako ukiturik gabe; esan daiteke sistematikoki eguneratu ditugula etimologia guztiak, dela xehetasunetan, dela datu berriek ekarritako argiaren bidetik.

5. EHHEren emaitzak

Etimologien etengabeko eguneratze horrek ekarri dituen zenbait emaitza aurkeztuko ditut atal honetan.

5.1. Lehen agerraldiak

EHHEn sistematikoki arakatu dira Erdi Aroko agiriak. Jardun honen emaitzarik behinenetako bat da hainbat hitzen lehen lekukotasunen data aurreratu ahal izana, OEHN agertzen denarekiko. Taula honetan bildu ditut adibide batzuk.

Taula 1. Hitzen lehen lekukotasunen datak

Hitza	OEH	EHHE
<i>abar</i>	~1650	1007
<i>adar</i>	1545	~1090
<i>aho</i>	1571	~1173
<i>aingeru</i>	1545	1248
<i>alargun</i>	1562	1488
<i>ate</i>	1562	872
<i>batzarre</i>	1461	1393
<i>bost</i>	XV. m.	1051
<i>ebaki</i>	1545	1393 (<i>eban</i>)
<i>erre</i>	1545	1025
<i>gazi</i>	1571	1321
<i>harea</i>	1623	~1222
<i>hauts</i>	1562	1353
<i>iloba</i>	~1580	1290
<i>min</i>	1475	1415
<i>negu</i>	1562	1290
<i>or</i>	1562	1394
<i>orein</i>	1562	1043
<i>oste</i>	~1564	1465
<i>senar</i>	1319	1294
<i>sein</i>	~1564	1301
<i>txirta</i>	1905	1544
<i>zehar</i>	1475	1321

5.2. Aldaera berriak

Hiztegiko lehen lehen agerraldien data aurreratzeaz gain, Erdi Aroko datuen arakatzeko sistematikoak orain arte ezezagunak diren aldaerak aurkitzeko aukera eskaini du. Adibide modura, hona hiru lema ezagunen aldaera zenbaiten lekukotasunak:

- a) *ibai* lementzat, *ibahi* eta *ibain* aldaerak aurkitu ditugu:³
 - *ibahi*: *Sagibahia* (1128).
 - *ibain*: *Ybayn* (1390), *Oreyvayn* (1453), etab.
- b) *garai* lementzat, *garahi* eta *garain* aldaerak aurkitu ditugu:
 - *garahi*: *villa Yzcarahi* (1110), *Hazcarahy* (1154).
 - *garain*: *Garayn* (1390, 1452), *Garain* (1399), etab.
- c) *sustrai* hitzarentzat, *sustai* eta *susai* aldaerak aurkitu ditugu, orain arte hari garbiki lotzen ez zitzaion *zurzai*-rekin batera.
 - *sustai*: *Sustaeta* (1388, 1397), *Sustayeta* (1390, 1449, 1452), *Sustayaga* (~1436), *Sustaiça* (1470), *Sustayça* (1493), etab.
 - *susai/zuzai*: *Ynchaurçuçaeta* (1483), *Çuçaeta* (1502), etab. Cf. gaurko *Susaeta*.
 - *Çurçaytoqui* (1291, 1293), etab.

5.3. Aurrerapen filologikoak

Testuen analisisan arazo filologiko ziren puntu zenbait ere argitu ditugu, edo gure uste etimologikoen araberrako proposamen eguneratua egin dugu haientzat. Bi adibide dakartzat hona:

- a) Milia Lasturkoren eresian bada Gayangosen edizioak (1854: 179) *andarioc ala cumpli jasoric* irakurri zuen pasarte bat,⁴ Mitxelenak (TAV §3.1.5)

³ Urtea bakarrik adierazi dut; iturriaren berri izateko, ikusi EHHE.

⁴ Berdin dakar Urquijok (1919: xxxvii, oh.) eta antzera Guerrak (1924: 40), *andfari ok ala kumpli jasoric*. Moyaren edizioak (1999: 99), berriz, “Andi ariok al cumpli jasoric” transkribatu du.

arazotsutzat zuena, eta Garibaik berak “y que con mucha grandeza habia sido ella sustentada” itzulpenarekin azaldu zuena. Mitxelenak (1966: 134-135) *andari* ‘gorpu eramaile’ izan daitekeela uste du –Azkuek jasotako hitza da hori–, horretarako esanahiari dagozkion bihurritzeak egin da.⁵ Guerrak dakarren faksimila kontsultatuta (Guerra 1924: 277), ordea, *andarioc* ere irakur daitekeela ikusi dugu: <d> ondoko <i> punturik gabe egoteak ekarri du gaizki-ulertua, <r> gisa irakurtzea; alabaina, hiru bertso-lerro beherago (*Guilça porra andiaen jabe çan*), *andi* hitzeko <i> ere punturik gabe dakar Garibaik. Ikusi oin-oharrean Moyaren edizioko irakurketa ere. Hitz hau, *andari*, dokumentatua dago bizkaieraz, eta frai Bartolomeren adibideetako bat “grandeza” itzultzen du Azkuek; Garibairen “con mucha grandeza” itzulpen zatiarekin bete-betean ezkontzen da horrela. Bide batez esanda, orain ikusten dudanez, Mitxelenak berak iradokia zuen azalpena 1966ko artikuluan, hauxe idatzi baitzuen *andari*-ren hipotesia hobetsi baino lehen: “Eta Garibayk «con mucha grandeza» dioenez gero, pentsa ere daiteke ez ote den *andi*-ren aldaska, **andi-ari* edo horren gisako hitz ezezagunen bat”.

- b) Gaztagintzari loturiko hainbat hitz *gatz* hitzaren eratorriak direla uste badugu (ikusi §5.4), aukera dago hobeki ulertzeko Urrexolako gudua-ren kantuko *gaçaioa* hapaxa, Mitxelenak *gatzatu* zuzentzen duena (TAV §3.1.3): errimarik galdu gabe, pentsa dezakegu *gatzak joa* osae-ra duela hapax horrek, besterik gabe. Gainera, Lazarragaren *Relación histórica*-ren jatorrizko eskuizkribua zuzenean kontsultatzeko aukera dugu orain, Sancho el Sabio Fundaziokoek digitalizatu eta sareratu baitute, eta oso garbi irakurtzen dira bertan <gaica cenduan, lenizanos, Urruxolaco lecaioa; sendo cenduan odolori biurrtu jacu gacaioa> eta jarraian duen <Gacaioa quiere dezir coajado>. Bokati-boia bera, <lenizanos>, hala utzi behar dela uste dugu, Mitxelenaren *leintzarrok* zuzenketaren aurka: Lazarragaren eskuizkribuan (B15:100) badugu holako beste bat, “Ona bada, señoras claram[en]te / nun relatadu dan çuen bicia” (Bilbao *et al.* 2020, II: 494).

⁵ Ideia hau berau dakar Bidegainek (1967: 183, 1. oh.), urtebete geroago argitaratuta, argudio berberekin horniturik.

5.4. Etimologietan sakontzen

Gorago esan bezala, gutxi dira eguneratzerik gabe utzitako etimologiak. Hiru adibide ekarri ditut hona, aurrerapen horien lagin modura:

- a) *Gazta*-ren berreraiketa klasikoan, euskalkietako aldaeren konparazioz (*gazta*, *gasna*, *gaztai...*) **gaztane* edo **gaztana* berreraikitza iritsi ziren aurreko euskalariak. Gaztagintzari loturiko hainbat hitz (*gazur*, *gatzun*, *gatzagi...*) familia berean aztertuz, horien guztien oinarrian *gatz* egon daitekeela proposatu dugu.⁶ Hipotesi hori bermatze aldera, lan etnografikoetan arakatu dugu, erakusteko gatzak nolako garrantzia duen gaztagintzan, eta aurkitu dugu hizkuntzarik gatzaren izenaren oinarrian ‘gatz’ esanahia duen hitza duenik.
- b) *Hezur*-en kasuan ere, Mitxelenaren (1949: 201; FHV 119, 16. oh.) **enazur* berreraiketa klasikotik abiatuta, eta Lakarraren (1995) erro monosilabikoaren teoriak hartaratuta, hiru silabako aitzin-forma hori hainbat osagaitan zatitu dugu, eta bigarren osagai gisa *zur* egon daitekeela proposatu. Aukera honen alde, hainbat hizkuntzako datuak ekarri ditugu, Bucken (s.v. *bone*) hiztegia lagun, erakusten dutenak ohikoa dela ‘hezur’ esanahia duten hitzen oinarrian ‘makila’ edo ‘zurtoin’ esanahia dutenak egotea.
- c) *Gari* eta *galdu*-ren arteko harreman formala begien bistakoa izanagatik (cf. *sari/saldu*), haien arteko lotura semantikoa zen argitzeko zegoena. Horretarako ere, beste hizkuntza batzuetako eredia argigarria suertatu da zinez: hizkuntza indoeuroparrak aintzat hartuz gero, ikusten baitugu **ter* ‘igurtzi, xehatu’ erro beraren ondorengoak direla bai errusierazko *terjat* ‘galdu’ (ik. Buck s.v. *lose*) bai latinezko *trīticum* ‘gari’.

Nire ustez, euskal lexikoaren barrenean halako loturak ezartzea, familia-harreman orain arte ezezagunak aurkituz, gure lanaren emaitza behine-

⁶ *Gazta* hitzean bide dugun **gatz-bane* > **gaz-t-ane* horrentzat, *ikaztobi* (< *ikatz* + *hobi*) eta ha-lakoez gain, badugu *gatz*-en familian bertan *gatzarri/gaztarri* bikotea ere (< *gatz* + *harri*), Markel Lizasoain adiskideak jakinarazi didan bezala: cf. *Gaçarrieta* (*IzaTop* 1596) eta *Gaztarrieta* (*IzaTop* 1595).

netako bat da. Eta askoz interesgarriago deritzet halako emaitzei, ezen ez Blevinsena moduko proposamenei (2018: 262), *gatz*-en aitzin-forma gisa **gar-s* proposatuz, adibidez, ez baita hitzaren familiari dagozkion galdera oinarrizkoagoez batere arduratzen. Are nabarmenagoa suertatzen da euskal lexikoaren arazo errealetatiko aldentze hau, Blevinsek berak aitortzen duelarik **gar-s* > *gatz* bilakaeran irregularra dela dardarkariaren galera. Zertarako, bada, holakorik proposatu? Erantzuna argigarria bezain etsigarria da: hartara, hark proposatzen duen **gar* ‘ale’ erroaren adibide bat gehiago duelako; *gatz*-en familia ezagun-ustekoaz arduratu gabe, ordea.

Agian emaitza xumeagoa da gurea, sakontasun kronologiko apalagokoa, baina ikerketaren ardatza euskal lexikoaren azalpenean du kokatua, ez balizko ahaidetasunen frogatu nahi berez antzuan. Zeren eta balizko ahaide-tasun hori frogatuko balitz ere, ahaidetuta daudekeen hizkuntzetako datu xume horiek dira azaldu behar direnak. Berreraiketa ez da egiten ahaidetasunak frogatzeko, hizkuntza konkretuetako arazo konkretuei azalpen osoa-goak eta hobeak emateko baizik. Eta horiei erantzuna emateko duen gaitasunean indartzen da, edo ez, ahaidetasunezko proposamena.

5.5. Jatorri erromantzezko lexikoan sakontzea

Hiztegi honek garbi erakutsi du badela lanik are agortutzat genuen maileguen alorrean. Nabarmena da askoz etekin kuantitatibo urriagoa dakarrela maileguen azterketak, definizioz familia txikiak osatzen baitituzte, ondare zaharreko hitzen aldean: begien bistakoa da aldea, *hatz*-en familia lantzeko hiztegiko 323-342. orrialdeen arteko tarte behar izan baitugu, eta *putzu*-rena lantzeko, berriz, 506-507. orrialdeen artekoa. Are gehiago, hiztegiaren egiturari dagokion II. eranskinean ikusten dugu *hatz*-en familian 102 hitzi buruzko informazio etimologikoa eman dugula; *putzu*-renean bi hitz baizik ez ditugu.

Baina emaitza kualitatibo oso garrantzitsuak dakartza maileguen azterketak, euskalaritzatik harago eramaten gaituztenak. *Putzu*-ren kasuan, esaterako, Erdi Aroan Nafarroan dugin *buitzu* aldaera irristariduna berebizikoa da gaskoiaren berreraiketarako. *Deitu*-ren eztabaida etimologikoan, bestal-

de, Erdi Aroko dokumentazioan erromantzeko *deito* aurkitu dugu, orain arte erromanisten artean ere dokumentatu gabea. EHHEn argitaraturikoaz gain, oraintsu argitaratu den lan batean aurkitu daitezke xehetasun gehiago (Manterola 2020).

Ahalik eta gehiena hertsatu behar dugu maileguen jatorria, euskal formatik hurbilen dagoen forma erromantzea bilatuz: “etimologia prossima”, ahalik eta “prossimena” behar dugu maileguen azterketan (Buchi 2016: 346-347).

Horrela, Mitxelenak zehar-aipuz egiten zituen iradokizunak gainditzeko aukera izan dugu hiztegi honetan, eta etorkizunean ere ezingo dugu halako hurbilketa lausoekin konformatu. Hala egin dugu ondoko kasu hauetan:

- a) Mitxelenak iradokitakoaren aurka (FHV 494), *extei* ez da **bexta-jei* batetik heldu: *extei*atu aditzetik sorturiko izena da, zeina era berean gask. *hesteyà* ‘ospatu, oturuntza egin’ moduko batetik mailegatua den.
- b) EHHEn landu dugun hipotesiaren zuzentasuna gorabehera (ondare zaharrekoa izateko aukera aztertu dugu), argi dago *poz*-en etimologiarako ezin dugula besterik gabe esan “*poz* ‘alegría, gozo’, procedente de algún representante del lat. *gaudium*” (Michelena 1957: 116).⁷
- c) *Sendo*-ren kasuan ere, Mitxelenaren (1950: 474-475) *exemptus* hipotesiaren ahulguneak zerrendatu ditugu (zergatik ez duen *z-*, mailegu zahar bati legokiokeen bezala, zergatik duen *-o* bukaera, eta ez *-u*, etab.), eta hitzaren oinarrian *sen* egon daitekeela argudiatu dugu.
- d) *Garratz*-ena dugu antzeko kasua: gazt. *agraz* ‘garratz’-en ikusi izan zaio jatorria (Gorostiaga 1982: 112), baina eragozpen fonetikoak ditu

⁷ Badirudi Schuchardtengandik jaso zuela Mitxelenak euskarazko *poz* eta latinezko *gaudium* lotuta egon zitezkeelako ideia: Schuchardtek (1887: 493) gaztelaniazko *gozo*-rekiko hurbiltasun semantikoa hartzen du aitzakia moduan, hitzen hastapeneko *p-* eta *g-* soinuen arteko aldeak dakarren arazoa gainditzeko (jarraian gazt. *gozo*-ren xehetasun etimologikoak argiak ez direla esaten du Schuchardtek, eta latinezko *gaudium* eta *gustus* aipatzen ditu, besteak beste). Eztabaidaren bukaeran (Schuchardt 1887: 495), gazt. *gozo* eta eusk. *boz*-en arteko *g-* > *b-* aldaketa gaztelaniaren barrenekotzat jotzen du –ez du uste euskararen barrenekoa izan daitekeenik–, gazt. *vomitar/gomitar* aldaerak aipatuz.

(a) *graz* > *garratz* bilakaerak, bokal anaptiktikoa tartekatzen denean bakuna izaten baita dardarkaria (cf. lat. *granu* > *garau*). EHHEn landu den aukera da *gar*-en eratorria izatea.

- e) *Xede*-ren kasuan ere, Lhandek iradokitako *sedes* jatorriaren hipotesia begi onez ikusten du Mitxelenak (FHV 183, 6. oh.), alderdi semantikoa argitu beharra dagoela nabarmenduz, hala ere. Guk, ordea, *eztei*-ren kasuan bezala, aditzetik eratorri dugu hitz hau, *xedatu*-tik alegia (zeina, era berean, aditz mailegatua den); aukera honek hobeki azaltzen du alderdi semantikoa, erromantzean bertan baititugu euskarazkoa azaltzeko behar ditugun adierak.

Hiztegiaren edizio honetan ez badaude ere, etorkizuneko edizioetan edo bertsio berrietan sartu beharko dira, bestalde, *amorr*u hitzari eta *makila*-ri dagozkionak. Hauen gorabehera etimologikoak azaltzeko berebizikoa da atzeranzko osaerazko bilakaerak aintzat hartzea:

- f) Euskarazko *amorratu*, *amorratio* latinezko *abhorre*-tik etor litezkeela iradokitzen du Mitxelenak (1954: 117). Ez da hala. Gaztelania zaharreko *amorrar*-etik dugu zuzenean euskarazko *amorratu*; ohartu bedi euskararen barrenean batez ere Bizkai-Gipuzkoetan dokumentatzen dela hitza. Esanahiaren aldetik erabatekoa da kidetasuna: gaur egungo DLEn bertan, *amorrar*-ek badu “Bajar la cabeza, obstinándose en no hablar” adiera; definizio horretan dugun “obstinarse” hori bete-betean lotzen da euskal hitzaren ‘tematu’ adierarekin. Nabarmena denez, aditzetik sortua da, atzeranzko osaeraz, *amorr*u (cf. *aipatu* → *aipu*).
- g) Latinezko *baccillum* ‘makilatxo’-tik abiatuta azaltzen du Mitxelenak *makila* (FHV 51). Alabaina, euskarazko emaitza erregularra ***makilu* izan beharko genuen. *Makila*-ren bukaerako *-a* bokala azaltzeko, pluraleko *bacilla* batetik abiatzen da Mitxelena (1957: 153). Hipotesi honetan, ordea, pluraletik abiatzeko motibazioa ez da argia: latinezko pluraletatik mailegaturiko *denbora* eta *berba* hitzen kasuan mailegatze berezi hori egoki azaldu daiteke erabilera sintaktiko jakin batzuen arabera (cf. *berba egin*, zeinetan interpretazio plurala izan dezakeen aditz arinari loturiko izenak, Manterola 2012: 193).

Egokiagoa da bestelako azalpen bat bilatzea: *makila* ere aditzetik atzeranzko osaeraz sorturiko izena da, *extei*, *uxta* (← *exteiatu*, *uxtatu*) eta hala-koen gisara; eta *makilatu* aditza dokumentatua dugu euskaraz XVII. mendeaz geroztik. Aditz honen jatorritik hurbilen okzitanierazko *bacela* ‘arropa palaz astindu, jo’ forma aurkitu dut, hau berau *baccillum*-en eratorria (FEW 1, 201a, BACILLUM), eta okzitanierazko aditz horren aitzin-forma erregularra, agerikoa denez, aitzin-erromantzezko **bacilatu* (**bacilare*) moduko formaren bat izan bide zen.

6. EHHEn zuzentzekoak

Ohikoa da liburu bat argitaratu ondoren ohartzea, produktu argitaratu osoa denbora batez esku artean izateak eta hala norberak nola beste iker-tzaile batzuek erabiltzeak ematen duen perspektibarekin, bidean zalantzazko izan diren erabaki batzuk beste era batean bideratu zitezkeela. Hiztegiaren beste edizio batzuetarako edo sareko bertsiorako, komeni da zenbait aldaketa eta zuzenketa egitea EHHEn paperezko bertsioan argitaraturiko testuari, eta hemen zerrendatuko ditut nire ustez hobetzeko tarte nabarmenena duten alderdiak.

6.1. Zerrendak eta aurkibideak

Zenbait arazo aipa daitezke aurkibide eta zerrenden harira.⁸ Diagnosi orokor bat egin behar izanez gero, esango nuke batzuetan aurkibidearen kontzeptutik harago jo nahi izan dugula aurkibideak osatzeko tenorean.

Irudipen hori azalduko dut. Lehen agerraldien zerrenda eranskin gisa jarri dugu, ez aurkibide gisa, eta hala dago egokien, zerrenda horrek ez baitu aurkibide funtziorik betetzen. Bestela esateko, bertan dauden informazioek ez gaituzte hiztegiko testura eramango, ezein irakurle ez delako ba-

⁸ Koro Seguiolak lan bikaina egin du aurkibideetarako eta eranskinetarako datuak prestatzen eta ordenatzen, eta lantaldearen erantzukizunekoak dira aurkibideok diseinatzeko tenorean izaniko ezbaiak eta batzuetan harturiko erabaki zalantzazkoak.

nan-banan joango testuan begiratzera zerrenda honetan 1571. urtearekin topatzen dituen hitzak, bertan daten arabera hitzak bilatu ondotik. Gehie-
nez ere, irakurleak zerrenda hori erabiliko du jakiteko halako urtetan zein
hitz sortak izan zuen lehen lekukotasuna.

Esan bezala, hitzen lehen agerraldiak zerrenda soil gisa aurkeztea, eta ez
aurkibide gisa, egoki eta are baitezpadako iruditzen zait. Alabaina, aurkibi-
de gisa eman ditugun zenbait hitz zerrendak ez dute aurkibide funtziorik
batere betetzen (etimologien zerrenda da honen adibiderik behinena, ikusi
jarraian): ez daude diseinatuak hiztegiko testuaren barrenean gauzak *aurki-
tzeko bide* izateko helburuz; besterik gabe, zerrenda soilak dira. Hiztegiko
testua irakurri gabe hiztegiko informazio zenbaiten berri izateko osatutako
zerrendak dirudite. Ondorioz, nahasgarria izan daiteke “produktu” horiek
aurkibide gisa aurkeztea, eta egokiagoa da gure lanaren zerrenda sinoptiko
modura beste atalen batera lekualdatzea, eranskinen artera, adibidez.

Ondoko puntuetan aletuko ditut xehekiago hemen aipatutakoak:

- a) I. aurkibidea “Etimologien zerrenda” goiburupean bildutako bi hitz
zerrendak osatzen dute: batetik “1. Ondare zaharreko hitzak” ditugu,
bestetik “2. Beste hizkuntzetako hitzak”. Nire ustez, zerrenda hauen
aurkibide funtzioa ez dugu behar bezala zehaztu, ez behintzat aurkibi-
deen artean aurkezteko moduan: hiztegi etimologiko batean, nekez
egingo du irakurleak etimologien araberrako bilaketarik, hain justu,
gure hiztegiara jo baitu etimologien bila.

Izatekotan, hiztegian eginiko proposamen etimologikoen zerrenda bat
da, eta egokiago egongo da gure lan etimologikoaren emaitzaren sinte-
si moduan beste eranskin batean aurkeztuta. Horretaz gain, zerrenda
hauetako balio erantsia eman geniezaieke, haien funtzioa hobeki muga-
tzearekin batera, etorkizuneko lanketetan bi lan gehigarri egingo bage-
nitu: 1) osarazko proposamen etimologiko bakoitzak duen egiantz
maila adierazi (bestela, ezinbestean jo behar baita testura, azalpen
xeheagoen bila); 2) autore batzuen eta besteen etimologiak modu sis-
tematikoa bildu, osoko zerrenda gisa. Egiari zor, bigarren puntu hone-
tatik proiektu historiografiko betea erator daiteke, helburu izan leza-
keena proposatu izan diren euskal hitzen etimologia guztiak biltzea.

- b) Hiztegien zehar aipatzen diren euskaraz besteko hizkuntzetako hitzak bi aurkibidetan daude banatuta: batzuk, arestian esan bezala, I. aurkibidean daude, euskal maileguen jatorri diren erdal hitzen zerrenda osatuz; beste batzuk, berriz, II. aurkibidean daude, “Beste hizkuntzetako paraleloak” izenburupean, eta paralelo semantiko gisa erabili diren erdal hitzen zerrenda osatzen dute.

Bi zatitan egin den banaketa hori, nire ustez, ez da aukerarik egokiena: irakurleak, erdal hitz jakinen bat bilatzen badu, sarrera konkretura jotzen duenean ikusiko du zertarako erabili den partikularki erdal hitz hori, paralelo semantiko gisa edo maileguaren jatorri.

Hutsune bat ere bada hitzon harira: hiztegien zehar aipatu diren erdal hitz batzuk ez dira ez batean ez bestean jaso. Horietakoak dira latinezko *peccatum*, *tempora* eta *cella*, adibidez, hitz hastapeneko herskarien ahostuntzearen adibide gisa erabili direnak *bake*-ren sarreran, edo *polit* sarreran agertzen diren lat. *filum*, *pala* eta *peccatum* (berriz ere), etab.

Bi kontu horiek aintzat harturik –1) daudenak bi aurkibidetan banatuta daude, 2) erdal hitz batzuk kanpoan geratu dira–, konponbide erraz bat izan daiteke, nire ustez, euskaraz besteko hizkuntzetako hitz *guztiak* zerrenda bakarrean ematea, zinezko aurkibide bat osatuz.

- c) I. eranskinetako zerrenda kronologikoan irizpideak hobeki zehaztu behar ditugu, kasu askotan unean-unean esanguratsua iruditu zaigunaren arabera erabaki dugulako hitz bat bertan sartu behar zen ala ez: adibidez, elkartu-eratorri batzuk sartu dira zerrenda kronologiko honetan, baina beste batzuk ez, irizpide tinkorik gabe.

Beste adibide bat aipatzearren, *polit* hitza bitan agertzen da, behin testuetako ~1580ko Lazarragaren datarekin, beste behin tradizio sekundarioko adibideko 1540koarekin (bide batez, lehenagokoa da, 1539koa, emana dugun lehen adibidea; ziur asko azken unean sartu genuen sarreraren erredakzioan, eta ez zen iritsi eranskinera). Ez dugu beti hola jokatu, ordea, lehen adibidearen data baizik ez baitugu eman gehienetan, aintzat hartu gabe tradizio sekundariokoa ala testuetakoa zen.

Esan bezala, irizpideak hobeki finkatu beharko ditugu ondoko edizioetarako, aurkibideen eta zerrenden helburuak ondo bereiziz, eta bakoitzari dagokion tokia emanaz.

6.2. Bestelako zuzenkizunak

Atal honetan, nire ustez hobetu, osatu edo alda daitezkeen beste zenbait puntu zerrendatuko ditut.

- a) Gorago (§5.5) aipatu ditudan *extei*, *uzta* eta *makila* bezalako maileguetan, sarrerak beste modu batean antolatu behar dira: benetako mailegua aditza baita *–exteiatu*, *uztatu*, *makilatu*–, hari buruzko sarrerak izan behar du sarrera nagusia; izenek, euskararen barreneko sorkuntza diren neurrian, aparteko sarrera batean agertu behar dute, edo nagusi horien peko. Harreman etimologiko horiek guztiak antolamendu lexikografikoan islatu behar dira.
- b) Etimologiarako bereziki esanguratsuak izan daitezke hiztegi dialektal azentudunak, José Ignacio Hualdek gogorarazten didan bezala. Sarretako parte historikoan zenbait aipamen egiten badugu ere hitz honen edo haren azentuaz, ez ditugu hiztegi dialektal azentudun horiek modu sistematikoan arakatu. Ondoko edizioetarako kontuan hartu behar ditugu Hualde & Bilbao (1992), Hualde, Elordieta & Elordieta (1994), Gilisasti (2003) eta Lujanbio (2013 [2018]).
- c) Zenbait sarreratan, etimologiaren aldetik esanguratsu ez diren eratorrien zerrenda batzuk neurrigabe dira luzeak; ikusi, adibidez, *ile*. Sarreraren egitura, hori da tokiz kanpo maizenik dirudien atala. Hiztegiaren kontzeptua bera dago arazo honen koskan: hiztegi historiko bat nahi dugu, OEHren elaborazio bat litzatekeena, baina haren hainbat informazio errepikatzen dituen, ala bestelako zerbait behar dugu, OEHtik askatua eta haren osagarria?

Egitasmoaren hasieratik arrastaka ekarri dugun auzi bat da hau, artean ez baikenuen erabat erabakia zein izango zen sarreraren mikroegitura. Ondoko edizioetarako gogoetagai berebizikoa da hau, EHHeren

funtzioa zein den hobeki mugatzera eraman behar gaituena eta sarre-
ren mikroegitura baldintzatu behar duena.

- d) Aurreko puntuaren ildotik, eratorri esanguratsuen (“●” zeinuarekin markatuak direnen) tratamendua hobeki finkatu behar dugu. Adibidez, *adimen/adimendu* edo *barkamen/barkamendu* bezalakoetan, atzizkiari buruzko zehaztapen gutxi batzuk eman dira, baina, egiari zor, atzizki horien banaketari eta historiari buruzko analisi sakonik ez dugu egin pasarte horiek erredaktatu baino lehen, eta baliteke bikote baterako esandakoak (*adimen/adimendu*-rako esandakoak, adibidez) baliorik ez izatea besteetarako. Holako ikerketa historiko xeheak eginak ez diren bitartean, guk ere ongi mugatu behar dugu zein informazio ematen dugun eta zein ez.

Auzi beraren ifrentzua erakusten du *ezagupen*-en adibideak: kasu honetan, hitz horri eta haren atzizkiari buruzko informazioa oso mugatua da eta birpentsatu beharko genuke zenbateraino merezi duen halako batek puntu beltzaren maila izatea (ez dugu, esaterako, *ezagumen* edo *ezagumendu*-rik aipatu bertan).

Oro har, ongi zehazteko dugu eratorri horien aldaera fonetikoak, alo-morfoak eta abar zenbateraino diren esanguratsu. Egiari zor, batzuetan aski zaila suertatzen da hau, baina irizpide batzuk markatu beharko dizkiogu geure buruari, batez ere atzizkien tratamenduan eta azalekoak diren bilakaera fonetikoak esplikatzean.

- e) TAVeko testuentzat, eta oro har eresi eta kantu zaharrentzat, erabaki genuen gertakari historikoaren data ematea testuaren data gisa. Nire ustez, hobe da jasotzailearen data erabiltzea (Garibai, Ibarguen-Cachopín...), objektibotasunaren izenean, eta testuaren filologiari atxikiago zaiolako jasotze data hori; informazio filologikoa galtzen da gure irizpidearekin, eta irabazi ere, ez dugu askorik irabazten, ez bada zenbait hitzen lehen agerraldia aurreratzea tranpatxo filologiko horren bitartez. Orobatsu gertatzen da, nire ustez, errefrau bildumen datak mende batez aurreratzearekin: justifikazioa baldin bada mende bat lehenagoko hizkuntz egoera islatzen bide dutela errefrauok, justifikazio ahula iruditzen zait, irristakorra baita irizpidea

(berdin argudia genezake Etxeparek umetan jasotako hizkera islatzen duela bere helduaroko hizkerak, zeina erabat eztabaida antzua baita). Nire ustez, filologo gisa, edo hiztegi honen irakurle gisa, presente izan behar dugu atsotitzen izaera berezia, besterik gabe. Ezin dugu euskalari gisa egokitu zaigun filologiaren aurka egin.

- f) Corominesen eta Wartburgen hiztegiatarako deia egiteko, egokiagoa da ohikoak diren DECat, DCECH eta FEW siglak erabiltzea, EHHen darabiltzagun “Corominas”, “Coromines” eta “Wartburg” baino. Reyren ordeez, haren iturri TLF aipatu behar dugu.
- g) Erreferentzia eta laburdura batzuen notazioan, zenbait alde daude hitzaurrearen eta testuaren artean. Mitxelenaren lanak aipatzean, adibidez, hitzaurrean jatorrizko dataren arabera ematen dira; hiztegi-ko testuan zehar, berriz, *Obras Completas* bildumaren arabera, lanaren urtea agertu gabe. Nire tesirako eginiko notaziozko aukeraren zordun da hiztegi-ko testuan jarraitutako irizpidea, eta egokiagoa iruditzen zait orain Joseba Lakarraren hitzaurrekoa.

Dialekto marken laburdurak ere ez dira berdin erabili hitzaurrean eta hiztegi-ko testuan zehar. Kasu honetan, nire ustez, hitzaurrekoak EHHEko laburdura orokorren arabera eman behar ditugu.

- h) Bibliografian zenbait kontu txukundu behar ditugu. Adibidez, Mitxelenaren artikuluen erreferentzietan, SHLV edo LH artikuluko bildumetara igorri baino, bidalketa eguneratu eta 2011n argitaraturiko *Obras Completas* bildumara bidaltzea da egokiena.

Bestalde, bibliografian zerrendatzen diren zenbait lan ez ditugu inon aipatu, ez hitzaurrean ez hiztegiaren testuan (“Gorrotxategi 1993b” eta “Rohlf 1952b”, adibidez) eta bibliografiatik kendu behar dira.

Beste adibide bat aipatzearen, Manuel de Hozen 2010-2011ko lane-ko liburukietako bakarra agertzen da bibliografian (2011a erreferentziarekin), nahiz eta biak aipatzen diren hitzaurrean.

- i) Edukiari dagozkion hainbat aldaketa ttiki ere egitekoak dira, sareratzeko bertsioari begira, harrapatu ditugun idazketa-hutsen zuzenketez

gain. Hiru adibide aipatuko ditut: Patxi Salaberri Zaratiegik idatziz helarazi zigun bezala, *izterbegi* sarreran eman ditugun *Isterbegi* toponimoen kokalekuak okerrak dira, eta ondoko bertsioetarako zuzenduak ditugu horiek. *Apalategi*-ren Erdi Aroko lekukotasunak lehenagokoak ere badira, eman dugun 1462koa baino zaharragoak. *Kutxa* sarreran, frantses zaharreko zatidugua emana *hūtīca*, eta ez da hala, Erdi Aroko latinekoa baita (aurkibideetan ere zuzendu behar da).

7. EHHEko etimologiagintza etorkizunera begira

Atal honetan bildutakoak ere EHHEren hurrengo edizio batzuetarako edo sareko bertsiorako zuzenkizun gisa uler daitezke.

7.1. Familia-kidetasunak eta zalantzapeco etimologiak

Hiztegi honek lexikografiaren alorrari egiten dion ekarpen nagusietako bat familiakako antolaketa da eta horretarako sortu den aparatu lexikografikoa. Izan ere, euskara bezalako hizkuntza isolatu batean berebizikoa da harreman etimologikoen hierarkiak ongi islatuko dituen makroegiturazko antolamendua; hori ez da hala bestelako tradizioetan, zeintzuetan sarrera (edo erro) baten pean biltzen diren hainbat hizkuntzako kognatuak (Pokorny 1959), edo, azken buruko etimologia zein den gauza ezaguna delarik, sarrera bati dagozkion hitzen arteko harreman morfologikoa agertuko lukeen egitura lexikografikoa banala den (DCECH, DECat, etab.).

Hori esanik, arrisku bat dago gurean: familia baten azterketan ari garelarik, hainbat hitz hari dagozkiola pentsatzea, horretarako behar den aski ziurtasunik izan gabe. Hain zuzen ere, hala gertatu da kasu batzuetan, eta, ondorioz, EHHEko zenbait familia gehiegizkoak suertatu dira: sarrera batzuk esleitu diegun familiari zinez ote dagozkion ziur egon gabe, familia batzuk puztu dira.

Ziurgabetasun horretaz ohartarazteko “!” ikurra erabili izan dugu, baina, nire ustez, zalantzak edo eragozpenak gehiegizkoak direnean nahasgarria ere izan daiteke zeinu hori erabiltzea: azken batean, sarrera bat grafikoki eta

hierarkikoki familia jakin baten *barruan* agertzeak berme moduko bat ematen dio familia-kidetasun horri. Bestela esanda, batzuetan badirudi familian sartu “nahi” izan ditugula sarrera batzuk, gure ezina aitortu beharrean. Eta, horren harira, gogoan hartu beharko genuke gure lanaren balioa ez dela neurtuko ongi “asmatu” dugun etimologia kopuruaren arabera, baizik haien alde pilatu ditugun argudioen balio kualitatiboaren arabera.

Jarraian xehekiago azalduko ditut ikusten ditudan arazo zenbait, adibide konkretuak hizpide hartuta:

- a) *Ino* familian (*Inotsi* azpisarreraren *Erauntsi* azpisarreraren) sartu ditugu nire ustez ziurtasun maila askirik ez duten zenbait sarrera, hala nola *erosta* ‘hil-kantu, eresi’, *herots* ‘hots’ eta are *eresi* ere, esango nuke. Hoskidetasun hutsarengatik sartu direla esan liteke, eta balizko esanahi antzekotasunarengatik, eta hori erabat jardun azientifikoa da, ikerketa etimologikoan saihestu beharrekoa. *Erosta* ‘hil-kantu’-ren kasuan, gutxienez aipatu behar da badela gask. *aurost* ‘hil-kantu’ ere (LespyR s.v.), eta, hitz gaskoiaren etorkia argia ez bada ere, horren berri eman beharra dago. *Herots*-en kasuan, berriz, bigarren osagaia *hots* izatea aski egiantzekoa da —**eranots*-en aukera bezainbat—, nahiz eta, *abarrots*-en kasuan ez bezala, ez garen gai lehen osagaia zein den argitzeko; maila erabat hipotetikoan, **eror-hots* bururatzen zait (cf. ‘hodeietatik erortzean kazkabarrak egiten duen soinua’ adiera). Laburbilduz: kontuan harturik holako hipotesi etimologiko guztiek beren froga-ezinean egiantz bera dutela, ez genuke beharrik sentitu beharko haietako baten alde egin eta, ondorioz, eskuartean dugun familian sartzeko.
- b) *Zur*-en familia zabalean ere ez zen ezer gertatuko barrenean bildu ditugun sarrera batzuk kanpoan utzi bagenitu: *zintz* (era berean zalan-tzazko azpisarrerak ere badituena, hala nola *zintzarri*, *txintxa*, *zintzur*), *zirin*, *zirt* (fonosinbolismoaren azalpena ere baduena, bestalde), etab. Horien aldean, egiantzekoagoa suerta daiteke, sarrerak ongi landuz gero, *txukun* eta *zukun* familia honetan sartzea. *Txukun*-en ‘garbi, apain’ agian ez dago urruti *zuzen*-ek dituen adieretatik. Bestalde, ‘zotin’ adiera Urteren “Angina vinaria, *hordi xukhúna*, *zukhúna*”-rekin lotu behar da, ia zalantzarik gabe, eta baliteke esanahiaren aldetik

zurrin eta haren eratorritzat jo dugun *zurrunga*-rekin lotu ahal izatea, guztiak direlarik zurruntze, tinkatze edo gogortze moduko bat. Bada, gainera, beste *zukun* bat ere, 'irazki' esanahiarekin. Esan bezala, ongi aletu behar dira xehetasunak, baina lehen begi-kolpean behintzat egiantzekoagoa egiten zait hauek *zur* familiaren barrenean egotea arestian aipaturiko horiek baino.

- c) *Izter*-en familian *txistor* sartu dugu, baina eragozpen formalak ez ditugu gainditu eztabaidan, eta niri neuri gehiegizkoak iruditzen zaizkit *txistor*-en sarrera bertan kokatzeko.
- d) *Baso* eta *baxter* sarrerak ere **bar* erroari dagokion *barren* familiaren barruan ezarri ditugu. Bertan agertzen diren bilakaera fonetikoak ez dira ezinezkoak, baina, nire ustez, ematen ditugun azalpenak ez dira aski familia horretakoak direla ziurtasun maila minimo batekin zedarritzeko. Zehazki, egiantz apalekoa iruditzen zait balizko **barr(e)z-be(he)ra* batetik *baxter*-erako bilakaera:⁹ fenomeno fonetiko bat gertatu ahal izateak eta ezinezko ez izateak ez du esan nahi ezinbestean guri komeni zaigunean gertatu behar duenik. Honen harira, baliagarria da gogora ekartzea Mitxelenaren hitzok:

El camino que va desde *veedor* [endore-rainol], plausible por el sentido, no es tampoco formalmente imposible: pérdida de *b-*, y *-n-* adventicia por disimilación de la *-r-* anticipada por repercusión, como en *haintzur* 'azada' de *haitzur*, etc. Pero cada una de las fases del proceso supuesto, perfectamente posible en sí, va restando verosimilitud a la etimología.¹⁰ (Mitxelena 1965: 119, etzana nirea)

Baxter eta *baso*-ren kasuan, gainera, esanahizko azalpenak ere, ezinezko izan gabe, lausoegiak dira, eta norbaitek esan lezake "edozer da posible"-ren eremukoak direla.

⁹ Lakarraren (2018: 475) **bar-z-be(he)ra* honen aldean, sinesgarriagoa da nire ustez, bere arazo eta guzti, sarrera honetan bertan proposatu dugun beste aukera –zilipurdi fonetiko gutxiago behar du–, zeinaren arabera bigarren osagaia **der* izan daitekeen.

¹⁰ Kasu honetan, gainera, esanguratsua da Mitxelenak aipatzen duen *veedor* hori baino jatorri egokiagorik topatu izana: *tenedor* proposatzen du Alfredo Oribek *endore*-ren jatorri modura, ik. EHHE s.v.

Beste batzuetan, sarrera batzuk familia zabalago batean egoteko irizpideak zein diren ez dago argi, hiztegian landu diren beste sarrera batzuekin alderatuta:

- e) *Su*-ren familiaren barrenean geratu da *susperro* sarrera, nahiz eta bertan lantzen den eztabaida etimologikoaren ondorio nagusiaren arabera hitz hori ez den *su*-ren gainean osatu. Bestelako aukera egin zen *gartzeta* sarrerarekin: berez, *gain*-en barreneko eztabaidari loturik sortu zen sarrera –*garondo*, *garaite* eta halakoekiko hurbiltasun semantikoarengatik–, baina ikusirik lotura etimologikorik ez zela, familiatik kanpora eraman zen sarrera. Nire ustez, bigarren aukera hau da zuzena den bakarra, eta irizpide etimologikoari hertsiki lotzea da nire proposamena. Hortaz, *susperro*-k ez du “!” ikurra behar, familia horretatik kanpora eramatea baizik.
- f) Antzeko egoera dugu *orkatz* sarrerarekin: *hoin*-en familian dago, “!” ikurrarekin, baina ez dago argi zergatik dagoen hor, *orein* sarrera kanpoan baldin badago. Zalantza maila berbera dugu, zalantza-mailak neurtzeko gai garen neurrian, bata zein bestea *hoin*-en familiakoa den erabakitzeko.

Nire ustez, familia batzuk kostatzen ahala kostatzen osatzeko hartu diren erabakien adibide garbiena da *zor*-en familiarena: diagnostikoan bertan ematen zaigu *zori*₂ ‘patu’ eta *zori*₂ ‘heldu, umo’ esanahiaren aldetik lotzeko dugun ezintasunaren berri, eta ezintasun hori are nabarmenagoa da *zor*-en esanahiarekin erkatzean. Kasu honetan, gainera, ez du laguntzen *zor*-en dardarkaria anizkuna izateak. Hainbestekoak dira arazoak, non ez den garbi ulertzen zergatik bildu behar izan diren horiek familia berean. Diagnoszko paragrafoan aipatzen den *zorri*-rekin ere gaindiezinak ziratekeen arazoak eta, ikerketen egungo egoeran, *zor*-ekin lotzeko saiakera antzua litzateke; hitz honen kasuan, azkenerako *zorri* sarrerarik ez da gehitu familia horretan.

Hauetako gehienetan, badirudi itxura hutsaren arabeko erkatzeak eta familia-esleitzeak egin direla eta, neurri batean, zenbait hitzetan, nahiz eta eztabaidako testuan beti saiatu garen proposamenaren argiak eta itzalak tentuz neurtzen, erreproduzitzen ari gara euskal lexikoaren barreneko elementuen konparazioan besteri beste hizkuntzetako (Kaukasoko hizkuntze-

tako, aitzin-indoeuroperako...) hitzekiko konparazioan leporatzen diegun jardun azientifiko bera, beste maila batean bada ere.

Horrela arituta, nire iritzia da hondatu egin dugula familia zenbaiten itxura orokorra, eta ondoko edizioetan zuzendu beharreko kontu bezala ikusten dut. Egokiagoa iruditzen zait familia batekiko kidesun ziurra ez duten hitzak familiatik aparteko sarreretan lantzea; zuhurrago jokatzeari funtsean. Zilegitasun zientifiko handiagoa izango dugu, zuhurtzia ere besteri eskatu baino lehen guk gerok praktikatzan badugu, hitz bat familia jakin batetik kanpo jartzeak ez baitu galarazten sarrerako eztabaida etimologikoan hitzaren balizko kidesun hori aztertzea. Bestela esateko, gure mugak zuhurtziaz aitortzea etimologiagintza osasuntsu baten adierazlea da, ez gure ezgaitasunarena, eta hala ulertu behar dugu.

Arazo hau gainditzeko, bide bat da gure etimologiaren kalitatea neurtzeko tresnak garatzea eta hori egingo dut §7.2 atalean. Hori baino lehen, ordea, §7.1.1 atalean, arazotsuak diren familia-kidesunen zerrenda eskainiko dut.

7.1.1. *Berregokitu beharreko familiak*

Ondoko taulan EHHEko hainbat sarrera zerrendatu ditut, zeintzuen familia-kidesuna berraztertu behar baita, nire ustez, ikerketen egungo egoerari (hots, guk garatutako eztabaidan) aski arazo ikusten dugulako, semantiko zein formal izan, familia-kidesun hori gutxienez ziurtasunez ezartzeko.

Taula 2. Sarrerak eta familia-kidetasunak: arazoak

Familia	Sarrera	Eragozpena
ADAR	JARRI, LAR, LARRE	<i>*dar</i> erroaren jatorrizko esanahia hobeki zehaztu beharra dago. Horretaz gain, <i>jarri</i> -ren deribazio fonetikoan ere, <i>*-d- > -Ø-</i> onartzea ere ez da ehuneko ehunean ziurra, edo behintzat ez ditugu aldaketa horren testuinguruak eta baldintzak ongi ulertzen. Bilakaera hori itsu-itsuan ez aplikatzeko ohartarazten gaituzte <i>jan/edan</i> moduko bikoteek.
ALHATU	ALHABA	<i>Alhaba</i> hitz orokorra da euskaraz, eta <i>alha</i> mailegutzat dugu. Eragozpena izan liteke hori, eta hobeto lantzeko puntua: <i>-ba</i> atzizkiaren emankortasunaren iraupenari buruzko ohar bat beharko luke honek.
ANAIA	NEBA	Eragozpen formal larriak.
AZAL	ZAIL, ZALDI	Arazo formalak ditugu <i>zail</i> -ekin, esanahizkoak <i>zaldi</i> -rekin.
BARATU	BARE ₁ , BARE ₂ ...	Mailegutzat dugu <i>baratu</i> eta, era berean, familia zabala du, euskal eremu osoa betetzen duten eratorriekin. Kontuan hartzekoa da ohar hau eta nolabait islatu behar da, dela sarreraren egiturari, dela eztabaidaren garapenean.
BARREN	BASO, BAZTER	Ikusi §7.1.
BERNA	HEZUR, BELAUN	Bilakaera irregularra dugu <i>hezur</i> -en kasuan, eta hori nabarmendu beharra dago: zergatik dugu <i>-m- > -n-</i> bilakaera? Cf. <i>berna</i> bera. Eta are gero, <i>-n- (-N-?) > Ø</i> . Disimilazioaren aukera hobeki garatu behar da, arazo hauen berri emateko.
BORTZ	ORTZI, HOGEI	Bilakaera fonetikoaren gorabeherak hobeki neurtu behar ditugu, <i>b- > Ø-</i> orokor bat onartu behar baita, besteren artean. <i>Ortzi</i> sarrerari, Dieguez (2002) aipatu behar da.

Familia	Sarrera	Eragozpena
BOZ	POZ	Proposamena interesgarria izanagatik, batez ere Mitxelenaren hipotesiaren lausoa gainditzten duelako, agian egokiagoa da oraindik zein bere familian aurkeztea.
EBAN	EBATSI	Ez dago argi zein den arrazoia <i>-ts</i> atzizkiaren aukera hobesteko, balizko <i>*bats</i> erro baten aldean. Egia da, hala ere, aski modu neurtuan garatu genuela <i>-ts</i> atzizkiari dagokion eztabaida, batez ere <i>eutsi</i> sarreraren irakurketarekin konbinatzen bada <i>ebatsi</i> -rena. Soluzio errazik gabeko erabakiak dira hauek.
EDIN	JAIO, JARRAIKI, ERION, HERIO, ARERIO...	Deribazio fonetikoan jauzi ugari daude; aditz zaharren morfologia ere ez dugu aski ongi ezagutzen, familia-kidetasunak ziurtzat jotzeko.
EDUN	HEURAGI, JAUN	Orobatsu.
EGOTZI	URGATZI	Deribazio fonetikoan bilakaera irregularrak ditugu. Esanahizko lotura ere ez da argia.
EGUN	HIGUIN, UDARE, MALKO	Esanahiaren gorabeherak ez daude ongi ezarriak. Formazko gorabeherak ere ez daude erabat argi <i>udare</i> eta <i>malko</i> -ren kasuetan, besteak beste.
EHO	JOAN	Erroaren esanahia ez dugu ongi zehaztua, eta jauzi fonetikoak daude.
EKIN	IDE/KIDE	Erroan <i>*kin</i> dugu, baina <i>ide/kide</i> bikotean herskaririk gabea dugu zahartzat, <i>hi</i> -alomorfoarekin.
ENTZUN	EZAGUN, ZAURI	Irregulartasun fonetikoak daude etimologien oinarrian.
GOR	GOLDE	Arazo fonetikoa dugu, elkartu-eratorrietako <i>-r</i> > <i>-l</i> - aldaketa dardarkari bakunarekin gertatzen baita.
HANDI	AKER, AHARDI, AHARI, AHUNTZ, AKETZ	Ez dago argi balizko <i>*han</i> erro batek zein esanahi lukeen hauetan guztietan.

Familia	Sarrera	Eragozpena
HOIN	ORKATZ, OHONDIKATU	Ikusi §7.1. <i>Ohondikatu</i> -rentzat, xehetasun formalak ez ditugu behar bezala ezarriak.
HOTS	OSPA	Esanahiaren aldetik lotura ez da argia, eta formaren aldetik ere <i>-pa</i> zehazki zeri zor zaion ez dakigu.
HUR ₁	HUR ₂	Deribazio semantikoa ez da erabat gardena, eta dardarkariaren gorabeherak ez ditugu behar bezala ezarri.
INO		Ikusi §7.1.
IZTER	TXISTOR	Ikusi §7.1.
KUTXA	KUTXOT	Baliteke zein bere aldetik mailegatuak izatea.
LATS	ADATS, ARRATS	Deribazio fonetikoan irregulartasunak ditugu, eta <i>*dats</i> erroaren esanahia ez dugu ongi ezarria.
MIN	MIHI	Lotura semantikoa ez dago ongi ezarria. Gehigarri modura, aipa liteke ‘mihi’ eta ‘gar’ esan nahi duten hitzak kolexifikazio harremanean daudela zenbait hizkuntzatan (CLICS ³ s.v.).
ODOL	JORI, ERORI	Formazko xehetasunak ez dira argiak: <i>*dol</i> erroaren bukaerakoa den albokariaren VIV > VrV bilakaera? Bestalde, <i>*dol</i> erroaren esanahia zehazteko dugu.
SOR	SO	Lotura semantikoa ez dago ongi ezarria.
SU	SUHI	Proposamena egiantzekoa bada ere, <i>suhi</i> -ren etimologiaren oinarrian ezarri dugun ohitura izan zenik ziurtatzeko ez dugu datu antropologikorik.
ZOR		Familia osoaren azpifamilia nagusien lotura semantikoa da zalantzakoa.
ZUR	ZORO, ZINTZ...	Ikusi §7.1.

Arazo hauek egoki identifikatzeak gure etorkizuneko lanerako oinarria ezarriko du, hobekuntzarako bidean: guri egokitu zaigu hizkuntza isolatu baten hiztegi etimologikoa egitea eta horretarako sortu dugun aparatu lexicografikoa fintzea eta hobetzea ere guri dagokigu, familien barreneko hie-

rarkia morfologiko eta semantikoak –elementu lexikoen arteko harreman etimologikoa– hobeto islatu ahal izateko. Hurrengo ataleko gogoetak helburu horrekin eginak dira.

7.2. Etimologiaren fidagarritasun maila neurtzeko tresnen bila

Hizkuntzalaritza indoeuroparra bezalako tradizioetan ere izan dute etimologiaren kalitateari buruzko kezkarik. Etimologia batek izan litzakeen eragozpenak ahalik eta modurik objektiboenean zehazteko helburuz, Mailhammer-ek haien kalitatea neurtzeko lau maila definitzen ditu:

Category A: Exact formal and semantic match in at least two non-adjacent branches of the same family. [...]

Category B: Transparent formation using a known pattern but no exact match outside branch, or only in adjacent languages, or formally and/or semantically inexact matches. [...]

Category C: Connection to roots outside branch uncertain due to serious formal and or semantic problems requiring additional assumptions. [...]

Category D: No known connections outside branch or only uncertain connections in adjacent languages. (Mailhammer 2015: 430-431)

Kategoria bakoitzeko irizpideen ondotik haiei dagozkien adibideak ematen ditu. Nabarmena da irizpide hauek ez direla egoki euskara bezalako hizkuntza isolatuen azterketa etimologikoetarako: definizioz, gure etimologietako bakar batek ere ez luke lortuko A-maila (euskalkien konparaziotik erdiets genitzakeen apurretatik harago), Mailhammeren irizpideek konparazioan oinarritutako berreraiketa egin ahal izatea baitute baldintza. Tradizio ezberdin bateko ikasketen egoeraren lekuko da tresna hori, haiei egokitua.

Bestelakoak behar dute hizkuntza isolatu baterako zehaztu beharreko irizpideek. Mailhammeren ideia gurera ekarriz, beraz, haren mailaketaren ordezkotako irizpide sorta bat proposatzen dut behin-behinean, etorkizunean fintzeko eta doitzeko asmoarekin.

7.2.1. *Ondare zaharreko hitzen etimologientzako irizpideak*

Hizkuntza isolatu bateko ondare zaharreko hitzez ari garela, item lexiko bat etimologia egoki batez hornitzea ezin da izan “bila ditzagun kognatuak hizkuntza-ahaideetan” printzipioaren araberrakoa. Hizkuntza isolatu baten kasuan, “bila ditzagun hizkuntza honetan familia bereko hitzak” printzipio-tik abiatzen da etimologia on bat; bestela esateko, hizkuntzaren barreneko item lexikoen artean bilatzen dugu ahaidetasuna.

Bi ardatzen inguruan egikaritzen da etimologia on bat: (a) alderdi formal eta (b) alderdi semantikoa, eta bata bestea bezain garrantzitsua da.¹¹ Alderdi formalaren barrenean, (a') irizpide fonetiko hutsa eta (a'') deribazio morfologikoa edo hitzaren barne-osaerari dagozkionak bereizten ditut.

Bost kalitate graduako mailaketa bat zehaztu dut, proposaturiko etimologiek izan ditzaketen arazoaren araberrakoa. Deribazio formal bat arazorik gabekotzat jotzeko, beharrezkoa da etimologia horren barrenean proposatzen diren bilakaera fonetikoak eta osaerazkoak hitz horretatik kanpo dokumentatuta egotea. Esanahizko hurbilketek ere, arazorik gabekotzat jotzeko, metonimia edo zabalkuntza semantiko arruntez behar dute esplikatua izan, eta ahal bada beste hizkuntzetako paraleloak aurkitu behar ditugu; azken puntu hau ezinbestekoa da bi item lexikoren arteko hurbiltasun semantikoa agerikoa ez denean.

A mailako etimologia: arazo formal eta semantikorik gabea.

- Adibidea: *hatz* eta *hazi*.
- Proposaturiko etimologia: *hazi* = *hatz* ‘arraza, kasta’ + *-i* partizipio marka.

¹¹ Erromanisten artean, “[l]a reconstruction du sens des étymons trouvés par la méthode de la reconstruction comparative est aussi nécessaire que celle de la forme, même si elle ne peut pas s’appuyer sur des critères aussi formalisés” (Chauveau 2014: 199). Orobat, “The meaning of a word is an essential part of an etymology, and is equally important as the formal aspects. This involves reconstructing the earliest meaning and accounting for subsequent changes” (Mailhammer 2015: 426).

· Xehakapena:

- (a') Fonetikaren aldetik, ezaguna da oinarri lexikoaren bukaeran afrikatuaren eta igurzkariaren arteko txandakatzeak ditugula ageriki familia berekoak diren hitzetan, cf. *hats/haserre, gatz/gazi, etab.*
- (a'') Osaeraren aldetik, erregularra da *-i* atzizkiaren bitartez partizipioak sortzea.
- (b) Esanahiaren aldetik ere aski egiantzeko lotura dago: *hatz*-en dokumentatua dugu 'arraza, kasta' adiera, eta horrek errazten du *hazi*-rekiko lotura; gogoan har bedi, adibidez, ingelesezko *breed*, zeinak bi balioak dituen, 'leinu' eta 'hazi'.

B mailako etimologia: esanahiaren aldetik arazorik ez, deribazio formalean arazo fonetikoren bat.

· Adibidea: *sagu* eta *sator*.

· Proposaturiko etimologia: *sator* = *sagu* + *gor*.

· Xehakapena:

- (b) Esanahiaren aldetik, satorrak gorak direlako ustea dokumentatuta dago, eta horrenbestez euskal hitzaren osaera *gor* izatea justifikatuta dago.
- (a'') Hitzaren barne-osaeraren aldetik ere, *satarin* = *sagu* + *-arin* edo *satitsu* = *sagu* + *itsu* ditugularik, bigarren osagai gisa *gor* identifikatzea aski egiantzekoa da.
- (a') Fonetikoa da arazoa, *sat-* + *-gor* elkartuan, ezagunak ditugun elkartuetako fenomenoaren arabera, ***sakor* moduko zerbait esperoko baikenuke (cf. *bet-* + *gain* = *bekain*, *ot-* + *-gin* = *okin*, etab.).

C mailako etimologia: esanahiaren aldetik arazorik ez, deribazioa formalean hitzaren barne-osaerazko arazoren bat.

· Adibidea: *gar* eta *garratz*.

· Proposaturiko etimologia: *gar* + *-atz*.

· Xehakapena:

- (a') Fonetikaren aldetik, ez dago aipatzeko ezer, hitzaren osaeraz esan dezakegunaren menpe baitago.
- (a'') Kasu honetan, *gar*-en familiakoa delako hipotesian, ez dago argi zein den *garratz*-en osaera, ez baitago argi zeri dagokion bukaerako *-atz*. Nolanahi ere, badukegu paralelaren bat edo beste, cf. *mikatz*.
- (b) Esanahiaren aldetik, egiantzekoa da 'erretzen duen zapore' eta 'zapore min'-en arteko hurbilketa.

D mailako etimologia: formaren aldetik arazorik ez, baina urruntasun semantiko gehiegizkoak hurbilketa oztokatzen du.

- Adibidea: *zori* 'patu, adur' / *zori* 'umo'.
- Proposaturiko etimologia: biak familia berekoak izatea.

· Xehakapena:

- (a) Homonimoak dira, eta alde horretatik hurbilketa formalak ez du arazorik.
- (b) Esanahiaren aldetik, ez dugu modurik atzeman loturarik ezartzeko.

E mailako etimologia: formaren aldetiko arazoren bat (fonetikoa zein osae-razkoa) eta esanahiaren xehetasunak ez daude ongi zehaztuta.

- Adibidea: *adar* eta *jarri*
- Proposaturiko etimologia: **dar* erroa, aditzetako *e-* aurrizkiarekin eta *-i* partizipio markarekin.

· Xehakapena:

- (a') Bokalarreko **eda-* > *ja-* bilakaeran, bokalarreko *-d-* > Ø orokor batetik abiatzen da hipotesi etimologikoa, baina ez du ongi azaltzen zergatik batzuetan gertatzen den, eta beste batzuetan ez (*edan*, *eduki...*).
- (a'') Osaerazko arazorik ez.

- (b) Esanahiaren aldetik, ez dago ongi zehaztuta **dar* erroaren jatorrizko esanahia zein den, ez eta zein izan diren adieren bilakaera partikularrak haren familiakotzat ditugun item lexikoetan.

Mailaketa honen helburua da etimologien artean kalitate maila ezberdinak modu objektiboan neurtzea, gure jardunaren auto-kontrolerako tresna moduan, zeinaren helburua ez baita maila apalenetako etimologiak baztertzea; are gehiago, A mailatik beherakoen balioa hobeki baloratzen laguntzen digu, eta etimologia *guztiek* balioa, *bere* balioa izan dezaketela hobeto ikusarazten.

Lexikoaren eta hari loturiko fenomenoaren ezagutzan sakontzen laguntzen digute, eta balio hori nabarmena da, adibidez, B mailakotzat jo dugun *sator*-en kasuan: *sat*- + *-gor* osaera proposaturik, irregulartzat jo dugu lehen osagaiko *-t* kontsonantearen ahoskagunea gailentzea bigarreneko *-g*-ri lotzean. Alabaina, litekeena da fenomeno horren adibide gehiago izatea: *uhain*-en kasuan, *uh*- (*ur*) + *gain* proposatzen dugularik, gauza bera dugu, eta orobatsu *aztarren*-en kasuan, *hatz* + *barren* baldin badugu. Nabarmena da B mailako etimologia honek orain arte batera aztertzen ez genituen zenbait datu elkarrekin aztertzea eraman gaituela. Aurrez ezezagunak genituen fenomeno fonetiko zaharrak aurkitzen lagundu dezakete, hain zuzen arazoak (fonetikoa, kasu honetan) hobeki identifikatzen laguntzen digutelako. Lehen hurbilketan irregulartasun fonetiko diren horientzat azalpen orokorra aurkitzen dugun neurrian, A mailako etimologia ere bilaka daitezke maila apalagokoak.

Maila batetik besterako aldeak ez dira modu zurrunean hartzekoak: izan litezke C mailako etimologia batzuk B mailakoak baino hobeak, etab. Atal honetan deskribatu dudan arazoari helduta –familia beraren barruan antolatu behar ote ditugu zenbait sarrera lexiko?–, ordea, bereizketa bat egin beharra dago: B eta C mailako etimologiak dituzten hitzen sarrera lexikoak sar ditzakegu proposatzen den familiaren barrenean, baina D eta E mailakoak, nire ustez, kanpoan geratu behar dira, zein bere sarrera lexiko beregainarekin. Izan ere, esanahizko lotura gutxieneko egiantzarekin ezarria ez dagoen bitartean, ez da zuhurra ziurtzat jotzea hitzen arteko familia-kidetasuna.

Honek guztiak, bistan dena, ez du esan nahi D eta E mailako etimologiak ezin proposa ditzakegunik; are gehiago, ezinbestekoa da halakoak proposatzea, orain ezezagunak zaizkigun fenomeno antzinakoak edo loturak azalertzeko. Adibidez, *gari* eta *galdu*-ren arteko harremana D mailako etimologia gisa sailkatuko genuen haien lotura semantikoa argitu baino lehen. Orain, ordea, lotura semantiko hori azalduta (ik. *supra*), A mailakotzat jo dezakegu.

Baina etimologiagintzan abiatzeko, lehendik ongi ezarrita dauden fenomeno fonetiko eta morfologikoak hartu behar dira oinarri gisa. Ez da zilegi, Blevinsek etengabe egiten duen bezala, lehendik ezagunak ditugun hertsapen formalez arduratu ez, eta norberaren proposamenei (bestela ere zilegi eta are beharrezko direnak, bistan dena) bakarrik dagozkien fenomenoak hartzea oinarri gisa hala berean norberak proposatzen dituen etimologiak testatzeko.

7.2.2. *Maileguentzako irizpideak*

Ez da artikulu honetako lana maileguak eta ondare zaharreko hitzak nola bereiz ditzakegun zehaztea. Definizioz, mailegu ez den oinarri lexiko oro da ondare zaharreko. Maileguek, ondare zaharreko oinarri lexikoen erro-egituratik aldentzeaz gain, familia txikiak osatzen dituzte eskuarki, eta haien elkartu-eratorriak oso gardenak izan ohi dira morfologikoki. Bistan denez, mailegua zenbat eta antzinakoagoa izan, orduan eta eratorri zaharrago gehiago izango ditu, egokituagoa egongo da hizkuntzaren fonologiara, silaba egiturara... eta zailagoa izango da ondare zaharrekoetatik bereizten.

Mailegu bati buruzko zehaztapen etimologikoen kalitatea neurtzeko zenbait puntu zerrendatuko ditut jarraian:

- a) Proposatzen den etimoaren eta euskal hitzaren arteko aldeez denaz bezainbatean:
- i) Formazko aldeak: euskararen barreneko bilakaera fonetikoei dagozkien ala hizkuntza emailearen barrenekoak izan daitezkeen zehaztu behar dugu.

- ii) Aldeak esanahian: euskaraz dokumentatzen diren adierak hizkuntza emailean ere ba ote dauden arakatu behar dugu, bilakaera beregaina ala jatorrizkotik jasoa den hobeki erabakitzeke.

Proposatzen den etimoa forma horretan jatorrizko hizkuntzan dokumentatua ez egoteak esan nahi du hizkuntza emailearen hutsune bat betetzen duela euskal lekukotasunak. Maileguen etimologia ez da, honenbestez, hizkuntza hartzailearen etimologiagintzarako interesgarri bakarrik, emailearen ikerketan ere esanguratsua izan daiteke, neurri handiagoan ala txikiagoan. Ikusi Manterola (2020).

- b) Egokitzapen morfologikorik edo sintaktikorik baldin badago, ahalik eta hobekien zehatzu behar da (aditzetan erregimen aldaketa, etab.).
- c) Jatorri arrotzeko familia bereko hitz bat baino gehiago baldin badago euskaraz, zehatzu behar dugu zein den haien arteko harremana: mailegua haietako bakarra izanik besteak euskararen barrenean sortu diren ala, aitzitik, mailegu independente gisa bereganatu dituen euskarak jatorrizko hizkuntzan bertan ere bi hitz (edo gehiago) direnak.
- d) Mailegaketaren kronologia ahalik eta zehatzen finkatu behar dugu, dela hizkuntza hartzaileak dela jatorri hizkuntzak eskaintzen dituen aingura fonetikoak eta bestelako erreferentzia-puntuak erabiliz.

Puntu horiek zein neurritan betetzen ditugun, horren menpe egongo da mailegu baten etimologiaren kalitatea.

8. Bibliografia

AGUD, M., TOVAR, A. (1988-1994). *Diccionario etimológico vasco*. (ASJUren Gehigarriak 13, 19, 24, 26, 30, 33, 37). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

ARZAMENDI, J. (1985). *Términos vascos en documentos medievales de los ss. XI-XVI*. Bilbo: UPV/EHU.

BEEKES, R. (2010). *Etymological Dictionary of Greek*. Leiden, Boston: Brill.

BIDEGAIN, M. (1967). «Textos vascos antiguos», ASJU 1 (1967): 179-195.

BILBAO, G., GÓMEZ, R., LAKARRA, J., MANTEROLA, J., MOUNOLE, C., URGELL, B. (2020). *Lazarraga Eskuizkribuaren edizioa eta azterketa*, 2 lib. Bilbo: UPV/EHU.

BLEVINS, J. (2018). *Advances in Proto-Basque reconstruction with evidence for the Proto-Indo-European-Euskarian hypothesis*. New York: Routledge.

BLUST, R., TRUSSEL, S. (2010-). *The Austronesian Comparative Dictionary* (web edition). <http://www.trussel2.com/ACD>

BUCHI, É. (2016). «Etymological dictionaries», in Philip Durkin (arg.), *The Oxford Handbook of Lexicography*. Oxford: Oxford University Press: 338-349.

BUCK, C.D. (1949). *A dictionary of selected synonyms in the principal indo-european languages: a contribution to the history of ideas*. Chicago: University of Chicago Press.

BURROW, T.D., EMENEAU, M.B. (1984). *A Dravidian Etymological Dictionary*. 2nd edition. Oxford: Oxford University Press.

CHAUVEAU, J.-P. (2014). «Reconstruction sémantique», in Éva Buchi eta Wolfgang Schweickard (arg.), *Dictionnaire Étymologique Roman (DÉRom) 1*. Genève, méthodes et résultats. Berlin: De Gruyter: 199 -209.

CLICS³ = RZYMSKI, C., TRESOLDI, T. et al. (2019). *The Database of Cross-Linguistic Colexifications, reproducible analysis of cross-linguistic polysemies*. <https://clics.clld.org/>

DCECH = COROMINAS, J., PASCUAL, J.A. (1980-1991). *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Madril: Gredos.

DECat = COROMINES, J. (1980-2001). *Diccionari etimològic i complementari de la llengua catalana*. Bartzelona: Curial Edicions Catalanes.

DIEGUEZ, K. (2002). «Ortziren inguruan», *Uztaro* 40 (2002): 3-18.

DLE = REAL ACADEMIA ESPAÑOLA (2014). *Diccionario de la lengua española*. <https://dle.rae.es/diccionario>

EHHE = LAKARRA, J., MANTEROLA, J., SEGUROLA, I. (2019). *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

ERNOUT, A., MEILLET, A. (1932). *Dictionnaire étymologique de la langue latine. Histoire des mots*. Paris: Klincksieck.

